

Garapenerako Lankidetzza Euskadin, 25 urte

Erakunde publikoetako politika
eta euskal lankidetzza sistema



Koldo Unceta (Zuzendaria)
Iratxe Amiano
Jorge Gutiérrez
Irati Labaien
María José Martínez

Eduardo Malagón
Michel Sabalza
Unai Villena
Idoye Zabala

Garapenerako lankidetzaz Euskadin, 25 urte

Erakunde publikoetako politika
eta euskal lankidetzaz sistema



Koldo Unceta (Zuzendaria)
Iratxe Amiano
Jorge Gutiérrez
Iratzi Labaien
María José Martínez

Eduardo Malagón
Michel Sabalza
Unai Villena
Idoye Zabala

Aurkibide orokorra

Koadroen aurkibidea	9
Grafikoen aurkibidea	11
Siglak eta laburdurak	13
Aurkezpena	17
1. kapitulua. Euskal garapenerako lankidetzaren bidegurutzean	23
2. kapitulua. Garapenerako lankidetzaren politikaren ikerketa EAEko aurrekariak eta mugak	31
3. kapitulua. Azterlanaren metodologia	39
4. kapitulua. EAEko erakundearen lankidetzaren politikaren ikuskerak eta diseinua	47
4.1. EAEko erakundearen lankidetzaren politikaren egokitasuna, zeharkakotasuna, politiken koherentzia eta Laguntza Humanitarioaren debateri buruzko hainbat gogoeta	51
- Zehar-lerroak	52
- Lankidetzaren politiken eta genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna	58
- Politiken koherentzia	63
- Laguntza humanitarioaren eta larrialdikoaren inguruko gogoeta	66
- Gogoeta orokorrak	69
4.2. Hainbat gogoeta EAEko erakundearen lankidetzaren politikaren egokitasunaz, garapenerako lankidetzaren politiken eraginkortasunari eta kalitatearen eskakizun orokorrei dagokienez	71
- Kalitatea, eraginkortasuna eta Pariseko printzipioak	71

- Ebaluazioari buruzko auziak	74
- Aurrekontuko zuzkiduren aurreikuspena	77
- Gogoeta orokorrak	79
4.3. Lege-esparruari buruzko auziei eta EAE-ko hainbat erakunderen politiken koordinazioari eta osagarritasunari dagozkien auzien trataera	80
- Lege-esparrua eta 2007ko Lankidetza Legea	81
- Politiken koordinazioa eta osagarritasuna	85
- Gogoeta orokorrak	92
4.4. Euskal lankidetzaren helburu zehatzen definizioa eta bere ekarpenaren eta balio erantsiaren analisia	93
- Lankidetzaren nolakotasunaren eta balio erantsiaren inguruko hausnarketa	94
- Toki-garapena eta erakundeak indartzearen inguruko gogoeta	97
- Garapenerako hezkuntzaren inguruko gogoeta	100
- Gogoeta orokorrak	105
4.5. EAEko lankidetzarako baliabide erabilgarriak mobilizatzeko eta baliatzeko gaitasuna	108
- Euskal gizartearen baliabideei buruzko gogoeta	108
- Toki-Garapenerako, Sentsibilizaziorako eta Garapenerako Hezkuntzarako baliabideak	114
- Eragileei eta beren egokitasunari buruzko debatea	118
- Lankidetza-eragileen definizioa eta identifikazioa	122
- Gogoeta orokorrak	126
4.6. Bideratu diren lankidetza-harremanak	128
- GGKEen bitartekotzaren aldeko apustua eta zuzeneko lankidetzaren ahulezia	128
- Interbentzioen behin-behinekotasunari eta barreiamenduari buruzko debatea	132
- Elkarguneen eta elkarrenganako lankidetzaren sorkuntza	138
- Gogoeta orokorrak	142

4.7. Informazio publikoko eta euskal gizartearen parte hartzeko tresnei buruzko ikuspegia	144
- Gizartea informatzeko tresnak	144
- Partaidetza-organoak	148
- Gogoeta orokorrak	158
5. kapitulua.- EAE-ko erakundeen lankidetzaren politikaren kudeaketa eta aplikazioa	161
5.1. Politiken aplikaziorako ezarritako baliabideak	165
- Lankidetzaren autonomia eta artikulazio instituzionala	165
- Lantalde teknikoak: zuzkidura eta espezializazioa	169
- Informazio-sistemak	173
- Aurreikusitako aurrekontuak betetzea	180
- Ebaluazio-sistemak	183
- Lankidetzaren Euskal Agentziaren sorrera	185
- Gogoeta orokorrak	187
5.2. Kudeatu diren ondasunen orientazioari buruzko ikuspegi orokorra: hainbat joera	189
- Joera orokorrak eta beren bilakaera	190
- Interbentzioen tipologia	192
- Helmuga geografikoak	198
- Gogoeta orokorrak	202
5.3. Diseinatutako politikaren eta burututako interbentzioen arteko harremana	203
- Orientazio geografikoa	203
- Lehentasunezko sektoreak	206
- Hainbat eragileren interbentzioa	212
- Zuzeneko lankidetzaren presentzia	219
- Erabili diren hainbat tresna	221
- Gogoeta orokorrak	224
5.4. Politikaren koordinazioa eta osagarritasuna	225
- Esperientzia partekatuen urritasuna eta ahulezia orokorra	225
- Jardunbide arrakastatsu batzuk	227
- Aurreikusitako koordinazio-organoen funtzionamendua	228
- Gogoeta orokorrak	229

5.5. Informazioko eta parte-hartze publikoko kanalen funtzionamendua	230
- Gizartea informatzeko tresnak	230
- Partaidetza-mekanismoak	236
- Gogoeta orokorrak	240
6. kapitulua. Ikerlanaren ondorio nagusiak	243
Epilogoak: EAEko erakunde publikoak eta euskal lankidetzak-sistemaren etorkizuna	277
Bibliografia	285
Eranskinak	
1. eranskina: Elkarrizketatu ditugun pertsonak	291
2. eranskina: Aztertu den erakunde-dokumentazioa	295
3. eranskina: Kontsultatu diren web-orriak	305
4. eranskina: Euskal Fondoko kide diren tokiko erakundeen zerrenda	309

Koadroen aurkibidea

1. koadroa: Zehar-lerroak politika-dokumentuetan eranstea (erakundeak eta urteak)	56
2. koadroa: Zehar-lerroei buruzko gogoeta Plan Zuzentzaileetan	58
3. koadroa: Plan Zuzentzaileetan kontuan hartutako aurrekontuen aurreikuspenak	79
4. koadroa: Lankidetzaren eragileak Plan Zuzentzaileetan	125
5. koadroa: Hainbat politika-dokumentutan zehazturiko lehentasunezko herrialde edo guneen definiziorako irizpideak	136
6. koadroa: Lankidetzaren Kontseiluen osaera eta eginkizunak	152
7. koadroa: Langileen aurrekontua Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren aurrekontu orokorraren gainean (euroak milakotan eta ehunekoak)	169
8. koadroa: Informazioa atzematea eta tratatzea	175
9. koadroa: Hainbat erakundek erabilitako kategoriak informazioa arlo nagusietan sailkatzeko	177
10. koadroa: Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaileen aurrekontuen aurreikuspenak eta adostutako aurreikuspenak (aurrekontu osoaren gaineko lankidetzarako aurrekontua ehunekoetan)	181
11. koadroa: Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011ko Plan Zuzentzailearen aurreikuspenak eta aurrekontuan egiaz ageri diren kopuruak (kopuru absolutuak)	181

12. koadroa: Udalen Plan Zuzentzailetako aurrekontuen aurreikuspenak eta adostutako aurrekontuak	182
13. koadroa: Hiru udalek adostutako aurrekontuak (sarrera arrunten ehunekoak) Plan Zuzentzaileak indarrean egon diren urteetan	182
14. koadroa: Funtsen banaketa modalitateetan, erakunde finantzatzaileen arabera (1988-2008 artean metatutako ehunekoak)	193
15. koadroa: Batez besteko zenbatekoa (eurotan) interbentzio motaren arabera (1988-2008)	197
16. koadroa: Euskal GLOren hartzaile diren herrialdeen kopurua, erakundeen arabera (1988-2008)	199
17. koadroa: Aztertutako euskal erakundeen funtsen hartzaile diren herrialde nagusiak (1988-2008)	200
18. koadroa: Nola bete diren Bilboko lehen Plan Zuzentzailearen (2006-2009) lehentasun geografikoei buruzko aurreikuspenak	205
19. koadroa: Eragile motak eta entitate kopurua erakunde finantzatzaileen arabera (1988-2008)	213
20. koadroa: Informazioaren sozializazio-tipologiak, erakundeen arabera (zabalkundea eta komunikazioa)	232

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa: Egindako lanaren oinarrizko eskema	42
2. grafikoa: Diseinuaren analisisian kontuan hartutako hainbat auzi, gaika multzokatuta	50
3. grafikoa: Aplikazio-analisisian kontuan hartutako hainbat auzi, gaika multzokatuta	164
4. grafikoa: Emandako funtsen bilakaera erakunde motaren arabera (1988-2008)	190
5. grafikoa: Finantzatutako interbentzio kopurua urteka (1988-2008)	191
6. grafikoa: Funtsen bilakaera erakundearen eta modalitatearen arabera (1988-2008)	194
7. grafikoa: Funtsen banaketa erakundearen eta eskualde geografikoen arabera (1988-2008)	201
8. grafikoa: Lehentasuna duten 20 herrialdeei zuzenduriko lankidetzaren ikuspegi historikoa Eusko Jaurlaritzaren lehen Plan Zuzentzailean (funts guztien ehunekoa, 1988-2008)	204
9. grafikoa: Tokiko erakunde publikoak diren kontraparteei kudeatutako funtsen ehunekoa (1988-2008)	207
10. grafikoa: Garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntzari erakundeek guztira zuzenduriko funtsen ehunekoa (1988-2008)	208
11. grafikoa: Garapenerako sentsibilizazio- eta hezkuntza-ekimenen kopurua erakunde motaren arabera (1988-2008)	209
12. grafikoa: Kudeaturiko funtsen ehunekoa eragile moten arabera (1988-2008)	212

13. grafikoa: GGKEk kudeaturiko funtsen ehunekoaren bilakaera (1988-2008, finantzatzaile guztiak)	214
14. grafikoa: GGKEak ez den eragile bakoitzak kudeaturiko funtsen ehunekoaren bilakaera (1988-2008)	215
15. grafikoa: Urte bakoitzean funts guztien heren bat eta erdia kudeatu duten entitateen kopurua (1988-2008)	217
16. grafikoa: Eragile kopuruaren bilakaera erakundeen arabera (1988-2008)	218
17. grafikoa: Funtsen banaketa erabilitako baliabideen arabera (euroak milakotan, 1988-2008)	222



Siglak eta Laburdurak




ACNUR	Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Batzordea
AA.EE	Autonomia Erkidegoak
ADL	Tokian Tokiko Garapen Agentziak
AECID	Espainiako Nazioarteko Garapenerako Lankidetzaren Agentzia
AFA	Arabako Foru Aldundia
AMVISA	Gasteizko Udal Urak S.A.
BBK	Bilbao Bizkaia Kutxa
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
CAD	Garapenerako Laguntza Batzordea
CAD/CRS	Garapenerako Laguntza Batzordea/Aurrekontuaren Informazio Sistema
EA	Eusko Alkartasuna
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAJ-PNV	Eusko Alderdi Jeltzalea
EB-IU	Ezker Batua
EITB	Euskal Irrati Telebista
EJ	Eusko Jaurlaritza
ELGA	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea
EUDEL	Euskadiko Udalen Elkartea
FAE	Larrialdietarako Arabar Funtsa
FEMP	Udalerrri eta Probintzien Espainiako Federazioa
FOCAD	Garapenerako Lankidetzeta Funtsa
GBH	Garapen Bidean dauden Herrialdeak
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
GG.EE	Giza Eskubideak
GGI	Giza Garapenaren Indizea

GGKE	Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea
GH	Garapenerako Hezkuntza
GLO	Garapenerako Laguntza Ofiziala
GSeE	Garapenerako Sentsibilizazioa eta Hezkuntza
IATI	International Aid Transparency Initiative
IKT	Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
KEI	Kanpo Ekintzaren Idazkaritza
LD	Lankidetzak Deszentralizatua
LH eta L	Laguntza Humanitarioa eta Larrialdietakoa
NBE	Nazio Batuen Erakundea
NBGP	Nazio Batuen Garapenerako Programa
NN.BB.	Nazio Batuak
NPG	Nazio Produktu Gordina
PP	Alderdi Popularra
PSE-EE	Euskadiko Alderdi Sozialista/Euskadiko Ezkerra
SEAD	Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa
UNAIDS	HIESAri buruzko Nazio Batuen Programa Multzoa
UNESCO	Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea
UNICEF	Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa



Aurkezpena



Hemen aurkezten den testua Hegoa, EHuko Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko ikerketa taldeak ia hiru urtez egin dituen lanen emaitza da. Azterlan hau hilabete askotan zehar (2009ko ekainetik 2011ko martxora arte) lankidetzeta deszentralizatuarentzat eredu marko teoriko baten garapen-lanarekin batera gertatu zen, eta azken hori gure aurreko liburuan aurkeztu genuen: *La Cooperación al Desarrollo Descentralizada. Una propuesta metodológica para su análisis y evaluación*. Azterlan-programa beraren parte izan diren bi lan hauen arteko erlazioak direla medio, bien arteko sinergia garrantzitsuak sortu ahal izan dira. Zehatzago mintzatuz, euskal erakundeen lankidetzeta-politikaren analisi-prozesuan frogatu dira aipaturiko metodologian proposaturiko adierazletariko asko.

Denbora honetan guztian zehar, EAEko erakunde publikoek (Eusko Jaur-laritzak, foru-aldundiek eta hiru hiriburuetakako udalek) bultzaturiko ehunka dokumentu eta milaka interbentzio landu ditugu eta izan ditugu aztergai lan honetan. Biziki eskertu nahi diegu guztiei eskaini diguten lankidetzeta eta eman dizkiguten erraztasunak dokumentaziora sarbidea izan eta planteaturiko hainbat kezka eta galderari erantzun ahal izateko.

Dokumentazioaren azterketa eta finantzaturiko proiektuekin egindako datu-basearen prozesamendua egiteaz gain, urte hauetan guztietan aipaturiko erakundeen lankidetzeta-politikaren buru izan diren pertsonak elkarrizketatu ahal izan ditugu: erakunde horietako lankidetzeta-zerbitzuen teknikari asko, aholkularitza- eta ebaluazio-lanak egin dituzten hainbat pertsona, Euskal Fondoko arduradunak eta GGKETako hainbat ordezkari. Horiei guztiei ere gure esker ona nahi diegu adierazi. Beste pertsona batzuen iritzia ere nahi genuke aintzat hartu; izan ere, jende askok ekarri dizkie bere ezagutzak eta eginahalak euskal lankidetzeta publikoaren sustapenari. Alabaina, argitalpena atzera ez zedin lana gehiegi luzatu nahi ez genuelarik, ez dugu horretarako aukerarik izan.

Azterlanaren azken etapan –2011ko udaberritik gaur egunera arte igaro den urtean– testuinguru berezi batean garatu da gure lana, eta, hala, egungo finantza-krisiaren testuinguruan, erakunde publikoek lankidetzaren arloan dituzten erantzukizunei erantzuteko izan ditzaketen aukerei buruzko debate bizi bat izan da aldi honen ezaugarri nagusia. Euskaditik kanpo, krisiak eragin handia izan du autonomia-erkidegoek edo udalek lankidetzara bideraturiko funtsen murrizketan (eta kasu batzuetan ezabaketan). Gure kasuan, joera honen agerpenik garrantzitsuena, paradoxikoki, euskal lankidetzeta publikoan aitzindari eta, neurri batean, estandartea izan den erakunde gertatu

da: Gasteizeko Udalean. Bertan, lankidetzarako aurrekontuetako funtsek murrizketa zorrotz bat izan zuten 2012an.

Gure ustez, lankidetzak deszentralizatuarentzat sortzen ari den egoera berriak are beharrezkoagoa bihurtzen du hainbat erakunderen lankidetzapolitiken orientazioari buruzko debatea, eta nazioarteko solidaritateak gure gizarteko balore adierazgarrienetako bat izaten jarrai dezan zer egin behar den eztabaidatzeko premia. Eta horrek hausnarketa- eta analisi-dosi handi bat eskatuko du, gure ustez, arlo honetan egin daitezkeen ekarpenen, ekarpenak bideratzeko gaitasunen, garatu beharreko aliantza eta osagarritasunen eta euskal gizarteko dinamika-multzoetako lankidetzak-zereginen finkatze sendoago bat lortzeko moduaren inguruan.

Lan honek, zabala izan arren, irismen mugatua duela nabarmendu nahi dugu. Euskal lankidetzak publikoaren inguruan ahalik eta diagnostikorik zehatzena izateko premia dela-eta, lankidetzarekin loturiko gai ugari landu behar izan ditugu. Baina, aldi berean, zabaltasun horrek gai bakoitzaren trataera zehatua egitea galarazi du. Zentzu horretan, argitu nahi dugu egoera osoaren argazki bat lortzea zela gure helburua, euskal lankidetzak publikoaren argazki egiaztatua eta dokumentatua, osotasunaren ikuspegi hori ahanztera eraman gintzaketen zehetasun zehatzegietan galdu gabe. Beste era batera esanda, zehatzek basoaren ikuspegia ez galaraztea zen gure asmoa. Eta horren ondorioz, gai jakin batzuk hautatu behar izan ditugu –gure erreferentziazko marko teorikoaren arabera– erabilitako dokumentazio eta datu guztien artean, eta beste batzuk mugatu. Horregatik, litekeena da gai jakin batzuen inguruko oso ezaupide zehatz eta xeheak dituzten hainbat pertsonak uste izatea gai horiek ez daudela behar bezala tratatuak edo landuak. Horren jakitun gara, eta beste aukerarik ez gurela uste dugu. Nolanahi ere, adierazi nahi dugu testuan hainbat gai gutxiago lantzeak ez duela esan nahi garrantzizkoak iruditzen ez zaizkigunik.


Halaber, nabarmendu beharra dago jarraian aurkezten dena ikerketa-lan akademiko baten parte dela, eta horrek testuaren hasieran azaltzen diren zehaztasun eta aukera metodologikoen inguruko hainbat eskakizun betetzera behartzen gaituela. Ematen diren datu guztiak dokumentalki egiaztatutako izan dira, edo elkarriketen bitartez. Bestalde, testuaren irakurketa arintzeko, go-goeta orokor batzuk planteatzen dira atal bakoitzaren bukaeran, bertan gure ustez aipagarrienak diren gaiak nabarmenduz.

Hala ere, azpimarratu nahi dugu zehaztasunari buruzko kezkek –ezinbesteko baldintza errealitatea ulertu eta eraldatzeko– ez duela, inola ere, neutraltasunik


ekartzen ondoriotzat. Horregatik, gaur egungoa bezalako egoeretan, non ahots askok garapenerako lankidetzaren existentzia bera zalantzan jartzen baitute, guk adierazi nahi dugu beharrezkoa dela gure ustez lankidetzaren honen premia azpimarratzea. Munduak, inoiz baino gehiago, baloreen aldaketa baten premia bizi du –solidaritatea elkarbizitzaren erdigunetzat aldarrikatuz–, eta helburuak aldatzea –pertsoneen askatasuna eta ongizatea lehen planoan jarritz, baita iraunkortasuna ere– eta politika aldatzea –lankidetzaren eta birbanaketarako hainbat mekanismo martxan jarritz– behar du. Baina horrek guztiak, aldi berean, lankidetzaren berriz pentsatzea eta berriz orientatzea eskatzen du; izan ere, egungo ereduak muga argiak erakutsi ditu uneotako erronkei aurre egiteko. Zentzu horretan, auzi hauek jendarteratzeko eta eztabaidatzeko ere balioko duen lan bat egitea izan da gure asmoa, Euskadiko lankidetzaren orainari eta etorkizunari buruzko hausnarketa sustatzen lagunduz horrela.

Azkenik, gure lan hau omenaldi txiki bat izatea ere nahi genuke, Euskadin eta herrialde eta eskualde askotan 25 urteotan ahalegin honetan parte hartu duten milaka pertsonen zuzendua, beren bizitzaren zati bat eskaini baitute –eta kasu batzuetan eman– nazioarteko lankidetzaren eta solidaritatearen eremua sustatzera eta zabaltzera.

Koldo Unceta, 2012ko apirila.



1. kapitulua.
Euskal garapenerako lankidetzaz
bidegurutzean



Euskal Herriko erakunde publikoen partaidetzak garapenerako lankidetzan bete ditu dagoeneko bere historiako lehen 25 urteak. Sorrera-une jakin bat aipatu ezin bada ere, esan daiteke 1980ko hamarkadaren erdialdeaz geroztik hasi zela nabaritzen erakunde hauek nazioarteko solidaritatea eta garapenerako lankidetzaren zirela-eta zuten kezka. Lan batzuen arabera, 1987an hasten da euskal udalerrien nazioarteko lankidetzaren, ume sahararrak Donostiako hirira iritsi zirenean, eta Abanto Zierbena Nikaraguako San José de Bocay udalerriarekin senidetu zenean, non Ambrosio Mogorron osasuneko borondatezko lankidea hil baitzuten¹. Era berean, garai hartan izenpetu ziren lehen senidetzeak saharar dairekin, Gasteiz eta La Güeraren artean (1987) eta Donostia eta Bojador-en artean (1988) sinatuak hurrenez hurren, zeinek aipaturiko udalen garapenerako lehen lankidetzarako ekarpen ekonomikoak ere inplikatu baitzituzten.

Halaber, 1988an bi gertakari esanguratsu izan ziren udal mailako garapenerako lankidetzaren esparruan. Alde batetik, Gasteizko Udalak, José Angel Cuerda alkatearen proposamenari jarraituz, udal-aurrekontuaren % 0,7 garapenerako lankidetzarako erabiltzea erabaki zuen: gertakari aitzindaria izan zen, bai Euskadin eta baita Euskaditik kanpo ere². Eta, bestetik, Ertamerikarekin Lankidetzarako Euskal Fondoaren sortu zen, Lasarte, Hernani eta Laudioko udalen laguntzarekin, gaur egungo Euskal Fondoaren aurrekaria izan zena³.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritza –milaka sinadura jaso zituzten erakunde eta GGKEen lehen talde batek eskatuta⁴– “Hirugarren Munduko familia behartsuen arazoak konpontzeko” hainbat laguntza ematen aritu zen 1985 eta 1987 urteen artean. Laguntza horiek, funtsean, Euskal Herritik zetozen eta beren lana beste herrialde batzuetan garatzen zuten pertsona edota misiolari-erakundeei ematen zitzaizkien. Dagoeneko 1988an, euskal 10 erakundek –aurreko laurak eta beste sei– 50.000 sinadura baino gehiago jaso zituzten eta Eusko Legebiltzarrean entregatu zituzten, Eusko Jaurlaritza konpromiso esplizitua eskatuz EAEko aurrekontuaren % 0,7 lankidetzara bideratzeko. Haren ondorioz, parlamentu-ekimen bat izan zen Aurrekontu Legearen ekitaldi horretako 300 milioi pezetako (1,8 milioi euro) kreditu berezi bat sartzen zuena, “garapenerako laguntza-jarduerak”

¹ *Euskal Fondoaren memoria*, 1994.

² Gasteizko Udaleko Lankidetzaren Zerbitzuaren sorrera, 1992an, ekimen aitzindaria izan zen euskal eta espainiar udalerrietan gainera.

³ *Euskal Fondoaren memoria*, 1994.

⁴ Justizia eta Bakea, Medicus Mundi, Amigos del Tercer Mundo eta Manos Unidas (Euskadi GGKEen koordinakundea, 2011a).

finantzatzeko, eta ganberako bertako Giza Eskubideen Batzordeari eman zitzaion aurkezturiko proposamenen artean funts horien esleipena erabakitzeko ardura. Ekimen haiek izan ziren erkidego-gobernu batek harturiko mota horretako lehen erabakiak.

Aipaturiko data horien ostean, EAeko gainontzeko erakunderik esanguratsuenak bat eginez joan ziren pixkanaka lankidetzaren zereginarekin. 1990ean FOCAD eratu zen, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek osatutako funts bateratua, 2004ra arte bere horretan funtzionatu zuena; izan ere, urte hartan Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan behera utzi zuen funts hau bere lankidetzak-politika propioa garatzeko, aldezturik Bizkaia (2001) eta Arabako (2003) Foru Aldundiek egin zuten bezala. Hala ere, azken hori dagoeneko 1998an hasia zen bere lankidetzarako funtsen kudeaketa dibertsifikatzen: funts horien zati bat FOCAD erakundeari transferitu zion, berak beste kontusail bat kudeatzen zuen, eta gainontzekoa Euskal Fondoaren bitartez bideratzen zen (Arabako Foru Aldundia sorreratik izan zen erakunde horretako kide).

Bere aldetik, azken erakunde hau –Euskal Fondoa–, 1996an osatu zen formalki, udal gehiago sartu baitziren pixkanaka lankidetzak-zereginetan eta hasi ziren parte hartzen gorago aipatu den Ertamerikarekin Lankidetzarako Euskal Fondoan sorturiko hausnarketan eta garapenean. Euskal Fondoa, hasieran dozenaka udalek eta Arabako Foru Aldundiak osatzen zuten; gaur egun Euskal Fondoak 101 kide ditu⁵, eta garapenerako euskal lankidetzari oso ekarpen garrantzitsua egin dion lan-plataforma baten erakuskaria da. 1996an, aipatu den bezala, Euskal Fondoa sortu zelarik, Garapenerako Lankidetzaren aldeko Alkateen Manifestua ere kaleratu zen. Bertan nabarmentzen zen udalek “gizarte hau, bai tokian tokiko mailan eta baita mundu mailan ere, gizarte bidezkoagoa eta berdintzaileagoa bihurtzeko” hitza eman behar zutela, “gure hiritarren solidaritatearen talde-sentimenduaren” berri emanez, eta, hala, dei bat egiten zitzaien toki-erakundeei, lankidetzak deszentralizatuaren “eragile aktiboen papera” beren gain har zezaten, aurrekontu-ekarpenak eginez eta harreman solidarioen ezarritz⁶.

Azkenik, 1989ko urriaren 27an, “Hirugarren Mundurako garapenerako lankidetzak-proiektuetarako laguntzak” iragartzen zituen Lehendakariaren dekretu bat argitaratu zen Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean. Dokumentu

⁵ 4. eranskinean ikus daiteke *Euskal Fondoko* kideen zerrenda.

⁶ *Euskal Fondoaren* memoria, 1996-1999.

hura izan zen garapenerako lankidetzarako jarduerak bideratu eta erregulatzeko EAEko erakunde publiko batek berariaz egindako lehenengoa. Laurogeita hamarreko hamarkadan, Euskal Herriko udal asko ere dokumentu bereziak osatzen hasi ziren garapenerako lankidetzaren zuten partaidetza formalizatzeko, xede horretarako esleitutako helburuak eta oinarri arautzaileak eratuz. Gasteizek 1992an argitaratu zituen lehenengo oinarriak, eta beste udal batzuek ondorengo urteetan (Irunek 1993an, Bilbok 1994an eta Donostiak 1995ean).

Hala bada, esan dezakegu dagoeneko 25 urte igaro direla garai haiez geroztik. Sinadura haiek eta lehen dekretu haiek iraganeko kontuak dira orain. Hala ere, haiexek izan ziren dokumentu-kate luze baten lehen begiak, eta haiexek markatu dute, urte hauetan guztietan, garapenerako lankidetzapolitiken ibilbidea Euskal Herrian. Denbora honetan, burututako analisisen, egindako proposamenen eta, bai Eusko Jaurlaritzan, bai EAEko foru-aldundietan eta udaletan, ehunka dokumentuk eman dute agertzen ziren kezken eta tentsioen berri (hainbat motakoak: dekretuak, deialdiak, planak, memoriak...). Eta, aldi berean, milaka proiektu eta interbentzio burutu dira, era guztietakoak, aipaturiko dokumentuetan jasotakoaren babesean⁷.

Euskal garapenerako lankidetzaren historia, eta nola adierazi izan den hainbat dokumentu arautzailetan, ez da, inolaz ere, aparte geratu azken 25 urte hauetan zehar gertatutako gorabehera politikoetatik eta aldaketa instituzionaletatik. Erakunde batzuek eta besteek denboran zehar izan dituzten ikuspegi ezberdinetan islatu dira gorabehera horiek eta, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, urte hauetan guztietan gobernuko kideak izan diren alderdi politikoek lankidetzaren gaia aztertu duten moduan hurrenez hurren izenpetu dituzten koalizio-itunetan⁸. Azkenik, euskal gizarteak berak ere, bitarteko ezberdinen bidez –baina GGKEk egindako presioaren eta planteaturiko proposamenen bidez bereziki– izan du eraginik hainbat

⁷ 2010. urtean EAE termino absolutuetan ekarpen ekonomiko handiena egin zuen hirugarren autonomia-erkidegoa izanak, eta bigarrena (Nafarroaren ostean) biztanleko eurotan eta erkidegoko aurrekontuaren gaineko ehunekotan, garapenerako euskal lankidetzaren garrantzi kuantitatiboaren berri eman dezake. Eta hiru hiriburuak udalei dagokienez, Bilbo, Gasteiz eta Donostia, 3, 4 eta 10. postuetan kokatu ziren hurrenez hurren, ekarpen absolutuetan, Espainiako udal guztien artean. Hala ere, Gasteizko Udalak 2012an egindako murrizketa zorrotzak kolpetik hankazgoratu du euskal udalen bilakaera hori.

⁸ Bai 1995-1998ko gobernuaren hitzarmenetan (EAJ-PNVk eta PSE-EEK onetsi zuten), bai 1999-2001 eta 2001-2005ekoetan (EAJ-PNV eta EAren artean sinatu zituzten), garapenerako lankidetzarekin loturiko hainbat helburu sartu ziren. Era berean, EB-IUK 2002an izenpetu zuen EAJ-PNV eta EAren arteko koalizio-hitzarmenaren atxikimendu-dokumentuak, hainbat erreferentzia egiten zizkion garapenerako lankidetzari eta hura bideratzeko moduari.

erakundek garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren politiken diseinuan eta aplikazioan hartu duten ikuspegian⁹.

Aurreko guztiak politika-dokumentuen katalogo zabal eta konplexu bat ekarri du ondorio gisa, non euskal lankidetzaren bilakaera eta bilakaera horretan eragina izan duten elementu ezberdinak azter baitaitezke. Dokumentazio horren irakurketa eta analitika, debaterako tarte handirik uzten ez duen lehen ondorio bat atera daiteke: egindako ahaleginaren garrantzi handia, aintzakotzat hartzen baditugu batez ere lankidetzarako aurrekontuan sartutako kopuruak eta kopuru horiek kudeatzeko tresna mordo. Baina gaia askoz ere konplexuagoa bihurtzen da helburua lankidetzarako politikak hartutako joera eta haren logika aztertzea denean. Nolanahi ere, zalantzarik gabe esan daiteke denbora honetan guztian lankidetzak handituz joan dela eta erakunde publikoen finantziario partzial edo osoarekin abian jarritako ekimenak ugartu egin direla azken 25 urteotan, 10.000 baino gehiago izateraino, eta horrek, euskal lankidetzak publikoaren garrantzia areagotzearekin batera, eskakizun berriak planteatzen ditu azterketarako.

Bestalde, beharrezkoa da aipatzea gaur egun oso egoera berezian (eta nahiko zailean) gaudela Euskadiko garapenerako lankidetzaren etorkizunari dagokionez. Euskal lankidetzak publikoaren hastapenetatik igaro den lehen mende-laurden honen amaieran hainbat instantzian sortu den eztabaidarekin dago egoera hau lotua; izan ere, zenbaiten ustez, lankidetzak bideraezina da, egungo aurrekontu mailetan behintzat, gogoan hartuz gero gaurko krisiaren larritasuna eta administrazio batzuek dituzten finantza-arazoak. Egoera honetan, inoiz baino beharrezkoagoa bihurtzen da zehaztasunez azaltzea garapenerako euskal lankidetzaren orainean eta etorkizunean eragina duten hainbat auzi, indarguneak eta ahulguneak identifikatuz eta lankidetzak bera indartzeko balio duen zentzuzko proposamen bat planteatuz.

Gaur egun, bi ikuspegi nagusi bereiz ditzakegu garapenerako lankidetzaren krisiari eta gai honetan egindako lehen aurrekontuen murrizketen aurrean sorturiko kritikei buruzko debaterari ekiteko orduan. Lehen ikuspegiak egoeraren araberrako azalpen exogenoak eta koiunturalak azpimarratzen

⁹ Garapenerako Hezkuntza terminoa hobeto egokitzen zaio, gure iritziz, kontzeptuaren bilakaerari eta gai honen inguruko debaterari, aldi berean Sentsibilizazio gisa ezagutzen dena hartzen baitu barnean (ikus 66. oin-oharra). Hala ere, aztertutako dokumentu askok bereizketarik egin gabe erabiltzen dituzte Sentsibilizazioa, Garapen Hezkuntza, Garapenerako Hezkuntza eta era horretako beste termino batzuk. Horren ondorioz, Garapenerako Hezkuntza terminoa erabiltzea erabaki dugu gai honi buruzko gogoeta orokorrak edo geureak egiteko, eta Sentsibilizazioa eta Garapenerako Hezkuntza terminoak aztertutako hainbat dokumentuk gai horri ematen dioten trataerari erreferentzia egiten diogunean.

ditu, herrialde emaleen eta, kasu honetan, euskal erakundeen finantza-arazoetan zentratuz. Ikuspegi horren arabera, planteatzen den helburua da finantza-krisiak ez dezala eraginik izan hartuak dauden konpromisoetan, jada mahai gainean dauden eta datozen urteetan inondik ere lankidetzara bideraturiko funts publikoei eragingo dieten aurrekontuen murrizketak saihestuz.

Bigarren ikuspegiak, aitzitik, analisi zabalago bat eskatzen du, alderdi endogenoak eta estrukturalak jasoz eta arazoaren alderdi jakin batzuen azterketa sakonduz. Arazo horiek aspaldikoak dira eta finantza-krisiaren eragin hutsa gainditzen dute. Batzuentzat, helburua funtsen beherakada galarazten saiatzea da oinarrian, funts horiek lankidetzaren krisiaren berezko adierazletzat hartuz. Beste batzuentzat ordea, garrantzitsuena lankidetzaren eta solidaritatearen benetako egoera ezagutzea da eta etorkizunerako estrategia bat planteatzea, funtsak mantentzeko aldarrikatuz gainera, haien erabilgarritasun handiagoaz edo txikiagoaz haraindi joanez.

Debate honek lankidetzaren instantzia guztietan du eragina, erakunde aldeaniztunetatik hasita GGKKEtara, gobernuak, autonomia-erkidegoak edota udalak barne. Hala ere, lankidetzaren deszentralizatuaren esparruan eta, bereziki, EAEn kasuan, administrazio publikoen lankidetzaren politikaren eta GGKKEen dinamikaren erlazio sendoa dela medio, debatearen terminoak apur bat nahasirik ager daitezke. Nolabait esatearren, euskal lankidetzaren arazoak, neurri handi batean, GGKKEen protagonismoak biziki baldintzatzen duen lankidetzaren eredu batenak dira. Eta, era berean, solidaritatearen ahultasun seinaleak ezin dira azken 25 urteotan gertatutakotik eta funts publikoekiko menpekotasunetik bereizi. Horregatik, gaur egun, erakunde publikoen lankidetzarekiko konpromezuaren jaitzierak lankidetzaren ari diren erakundeen ahultasuna ekar dezake eta, aldi berean, erakunde horien hauskortasuna eragozpen bihur daiteke Euskadiko lankidetzarako politika publikoak egungo erronka berriekin bat letorkeen ikuspegi eraldatzaileago batera bideratzeko.

Horregatik guztiagatik, uste dugu egokia dela zehaztasunez eta aurreiritzirik gabe gogoeta egitea Euskal Herrian hasieratik egin den lankidetzaren politikaren ibilbideaz, eta baita politika horiek benetan nola gauzatu diren azterzea ere. Ariketa honek burutzeke dauden hainbat erronkari ekiteko lan-agenda bat planteatzen lagun dezake: erronka horiexen ebazpenaren mende dago euskal garapenerako lankidetzaren etorkizuna, zentzu batekoa edo beste-koa. Kezka-ildo horretan txertatzen da honako lan hau.



2. kapitulua.

Garapenerako lankidetzaren politikaren
ikerketan EAEn: aurrekariak eta mugak



Aurretik azaldu denez, 1980ko hamarkadaren bukaeratik EAeko erakunde publikoek bultzatutako edo babestutako garapenerako lankidetzeta, garrantzitsuenetako bat izan da lankidetzeta deszentralizatuaren esparruan¹⁰. Bai egindako ahalegin goiztiarreatatik, bai baliatutako finantza-baliabide ugariengatik eta egindako interbentzioengatik, euskal garapenerako lankidetzak oso izen ona izan du azken bi hamarkadetan zehar.

Denbora honetan guztian, lan eta ikerketa askok eman dute euskal garapenerako lankidetzaren bilakaeraren berri, alderdi ezberdinak azpimarratuz: adibidez, erabilitako zenbatekoen gehikuntza (bai oro har, bai BPGari edo erakundeen aurrekontuei dagokienez); aipaturiko zenbatekoen konparazioa beste AA.EE batzuetakoekin; erakunde batzuek eta besteek egindako interbentzioen tipologia eta sektore-espezializazioa; lankidetzaren orientazio geografikoa eta kontzentrazio/sakabanatze handiago edo txikiagoa, eta abar. Hainbat memoria eta txostenek erakusten dute hori guztia, euskal lankidetzeta publikoaren aldi honetako zenbait alderdiren argazki nahiko zehatza ematez.

Hala ere, aldi horretan zehar, ia ez da ahalegin honen guztiaren orientazioari eta eraginkortasunari buruzko azterketa eta/edo balioztatze osorik egin. Esan genezake analisi kuantitatiboak kualitatiboei gailendu zaizkiela, eta Euskadin ez dela zeregin horri eskainitako zenbatekoen garrantziarekin bat datorren lankidetzeta-politikaren inguruko hausnarketa globalik egin¹¹. Ekiteko modurik egokienari, euskal lankidetzeta eraginkorragoa izan litekeen esparruei, Euskadin dauden eragile eta baliabideei edota EAEn abian jarritako ahaleginak beste esparru batzuetan egindakoekin osatzeko moduari buruzko hausnarketek baino eragin handiagoa izan dute, batzuetan, gainditu beharreko arazo askoren handitasunak (pobrezia, gatazkak, giza eskubideen bortxaketa, larrialdiak...) eta arazo horiek arintzeko jarduteko borondateak.

¹⁰ Jakina den bezala, *kooperazio deszentralizatua* hitzak adiera ezberdinak ditu. Hemen Gobernu Zentralak baino maila baxuagoa duten administrazio- edota lurralde-eremuetatik bultzatzen den garapenerako lankidetzaren parte gisa erabiltzen dugu.

¹¹ Gogoeta orokor honek, ordea, ez du abian jarritako ahalegin batzuen garrantzia ezkatatu behar. Aipagarria da, esate baterako, Alboanek 2007an egindako lanean islatzen den ahalegina, edo esparru geografiko zehatzetan gehiago kontzentratzen direnak, adibidez, Gipuzkoan (Carballo eta Rodríguez, 2008; Laborra eta Rodríguez, 2009) edo Gasteizen (Gabilondo, 2002 eta 2008; Rodríguez, 2007) edo gai espezifikotan kontzentratzen direnak, hala nola, generoa (Euskadiko GGKEen Koordinakundea, 2008; Murguialday et. al, 2000; Murguialday, 2008; Volio, 2004) edo Garapenerako Hezkuntza (Garapenerako Lankidetzeta Ekimenak 2004 eta 2005; Argibay, 2008). Beharrezkoa da jada burututako plan zuzentzaileei buruz egindako ebaluazio-lanetan dauden analisi-elementuak aipatzea ere.

1990eko hamarkadaren bukaeran antzeman zen jada Euskal Herriko garapenerako lankidetzaren orientazioari buruz gogoeta egiteko beharra. Garai hartan, Eusko Jaurlaritzak berak diagnosi-azterketa bat agindu zuen garapenerako lankidetzaren euskal sistemari buruz, euskal lankidetzarako Plan Estrategiko baten oinarri gisa baliagarria izan zedin¹². Azterketa haren lehen ondorioek argi erakusten zituzten une hartako arazo batzuk, hala nola strategiaren definizio mugatua, lankidetzak oinarritzen zen printzipioen berariazko adierazpen-eza edo lortu nahi ziren helburuen argitasun urria. Honako hau ondorioztatu zen: “Erabilgarri dagoen baliabide-kopuruak, jada lortutako erakundeen eta aurrekontuaren bate-rakuntza mailak eta herrialdeko garapenerako lankidetzan espezializaturiko gizarte-egituraren garapen mailak, orain arte indarrean egon diren doktrina, estrategia eta erakunde-oinarriak berrikustea aholkatzen dute” (Alonso, 2001). Halaber, azterlan honek gobernu autonomoak bultzaturiko garapenerako lankidetzaren hainbat indargune eta ahulguneraren analisi zehatz bat egiten zuen, eta hainbat aholku emanek bukatzen zen, ondoko puntu hauek aipatuz: euskal lankidetzaren politika eta doktrina-definizioa indartzeko beharra; lankidetzak-programetan baliabide berriak mobilizatzeko eta eragile kopurua handitzeko beharra; administrazioetik zuzeneko ekintzak bultzatzeko komenigarritasuna; beste administrazio publikoekin eta bereziki udalekin lankidetzan aurrera egiteko interesa; eskura ditugun aukeren diagnostiko sakonago batetik abiatuz, formula eta tresna berriak arretaz aztertzekeo premia.

Ordutik gaur egunera arte, hainbat aurrerapauso adierazgarri eman dira garapenerako lankidetzaren plangintzan, EAEko erakunde nagusien esku-tik. Emaitzak Plan Zuzentzaileen sorreran gauzatu dira, eta haietan jasotzen dira planek berek oinarritzat dituzten printzipioak, finkaturiko helburuak eta lehenetsiak, tresna batzuen definizioa edo parte har lezaketan eragileak aipamena. Azken urteotan, zuzen plan zuzentzaile egin dira euskal

¹² Azterlan horren lehen zatia (gehienbat diagnostiko-fasean kontzentratzen dena) 2001eko lehen hila-beteetan egin zen eta azterlanean zehar, idazle-taldeak, Jose Antonio Alonsoren gidaritzapean, bilerak egin zituen EAEko Lankidetzak Eragile asko eta diferenteekin. Hala ere, azterlanaren ondorengo faseak (plan baten proposamena barne) ez ziren inoiz burutu; izan ere, egindako zatiaren aurkezpenean irakur daitekeen bezala, lehenetsun gisa, erabaki zen Lankidetzak Zuzendaritzaren aldaketarekin hasi-tako lana geldiaraztea, planaren ideia atzeratzea eta Lankidetzak Lege bat egitea.

erakunde nagusietan: bi Eusko Jaurlaritzarenak (2005-2008 eta 2008-2011)¹³, Foru Aldundiena (2009-2011), Bilboko Udalaren biak (2006-2009 eta 2010-2013), Donostiako udalarena (2008-2011) eta Gasteizko Udalarena (2010-2013). Plan horiek guztiak direla medio, garapenerako lankidetzaren politikaren hainbat alderdi eztabaidatu eta sakondu dira, eta politika horien inplementazioari dagozkion auzien definizio hobean aurrera egin da gainera.

Hala ere, deigarria da gorago aipaturiko 2001eko txosteneko ondorioetan aipatzen ziren gai batzuk ez agertzea hausnarketen plangintza-prozesu hauetan, adibidez, mobilizaturiko eragile kopuru murrizta eta euskal garapenerako lankidetzaren espezifikotasunari eta aukerei buruzko diagnostiko sakonago bat ez agertzea. Plan Zuzentzaileak egiteko irekitako eztabaida-prozesuak arte, EAeko erakundeek ez zieten ia hausnarketa-guneei biderik eman¹⁴, eta haien ondoren ere, ez zuten ia sustatu denboran zehar bultzatu diren interbentzioen eta alde aurretik plangintza-dokumentuetan ezarritako diagnostikoen eta lehenetasunen arteko harremanari buruzko analisi zehaztuak egitea, eta hutsune horrek defizit handia ekarriko du, batez ere, burututako ahaleginaren garrantzia kontuan hartzen bada. Esan genezake analisi kuantitatiboak analisi kualitatiboek gailendu zaizkiela, eta euskal erakundeek lankidetzara ekarritako funtsen kopuru handiak estali egin dituela egindako ahaleginaren orientazioaren eta abian jarritako politiken sendotasunaren inguruko galderak.

Hala eta guztiz ere, azken urteotan batzuek EAEn lankidetzarako funts publikoak gehitzeko eskaera errepikatuaren arriskua aipatu dute, alde batera utziz, ahalegin hori benetan eraginkorra izan dadin, planteatu beha-

¹³ Bi plan hauek izaera desberdina dute. Bigarren planak (2008-2011) Lankidetzeta Legeak berak sortutako agindu bati erantzun zion espresuki. Lehenengoak, ordea (2005-2008), ez zuen maila hori izan; euskal lankidetzaren plangintzaren historian erreferentzia garrantzitsua bada ere, oso eztabaidatua izan zen eta baita aipatua ere euskal lankidetzari buruzko hainbat azterlan eta lan akademikotan. Bestalde, Plan hori Eusko Jaurlaritzaren lankidetzeta webean egon zen indarrean egon zen aldi osoan zehar eta 2010 arte. Arrazoi horiengatik guztiengatik, beharrezkoa iruditu zaigu bi planak gure azterlanari gehitzea, alde batera utzita bien artean dagoen desberdintasuna, lehen aipatua.

¹⁴ Era horretako lehenengo gogoeta parte-hartzaile horietako bat Donostiako Udalak *Nondik-Nora* prozesuan sustatutakoa izan zen, zeina 1995 eta 2002 artean Donostiako Udalak bultzaturiko lankidetzaren azken balorazio-txosten batekin bukatu baitzen. Azken urteotan gogoeta parte-hartzaileak egin dira beste erakunde batzuetan plan zuzentzaile batzuen elaborazioari edo ebaluazioari buruz, edo Generoa edo Garapenerako Hezkuntza bezalako alderdi zehatzei buruz.

rreko helburu zehatzei eta garatu beharreko tresnei buruzko hausnarketa¹⁵. Hau guztia lankidetzaren deszentralizatuaren izaerari eta nortasunari eskainiriko geroz eta arreta handiagoan kokatzen da, eta azken urteetan zehar egindako hainbat lanetan nabarmendu da (Martinez y Sanahuja, 2009; Unceta et al., 2011), zeinek gabezia jakin batzuk nabarmendu baitituzte, batez ere AAEEen esparruan. Arazo hauetariko batzuk hainbat auzirekin dute zerikusia: eskuragarri dauden gaitasunei buruzko diagnosi zehatzen falta, eragile batzuen eta besteen gaineko ikusmoldea, usadiozko emaile/hartzaile harremana gainditzeko gai diren elkartze- eta partaidetza-mekanismoen berriei buruzko hausnarketarik eta berrikuntzarik eza, edo abian jarritako plangintza-prozesuen berezko zenbait muga.


Garapenerako lankidetzaren politiken kudeaketaren eta aplikazio mailan, hobekuntza nabariak ere gertatu dira denbora honetan guztian. Hastapenetako ezegonkortasunetik lankidetzarako Euskal Agentziaren duela gutxiko sorrerara arte, erakunde nagusien kudeaketa-egituren abiaraztetik igaroz, lankidetzaren politikak baliabide gehiagoz hornitu dira. Hala ere, erakundeek berek gutxi ikertu dituzte aipaturiko baliabideen egokitasuna eta helburuak, edota finkaturiko lehentasunak eraginkortasunez betetzeko duten gaitasuna, muga garrantzitsuak nabari badira ere (nahiz eta behin eta berriz azpimarratuak izan) funtsezko alderdi batzuetan. Euskal lankidetzari buruz argitaraturiko dokumenturik interesgarrienetako batean, Alboan elkarteak (2007) esparru horretan dauden ahulguneei buruzko diagnostiko bat planteatzen zuen, arreta hiru elementu nagusitan jarritz: kudeaketa-organoen hausnortasuna, bereziki langileen gaitasun mugatuan gauzatua; koordinazio-mekanismoen gabeziarekin loturiko erakundearen sakabanatzea; eta administrazioen eta gizarte-organizazioen arteko elkarrizketa-organoen eraginkortasun urria. Ahulgune horiei, gure ikuspegitik, beste auzi batzuk gehitu behar genizkieke. Adibidez, eragile eta baliabide mota batzuk go-goan ez hartzea, edo planteaturiko beharrei egokitutako informazioaren kudeaketa-sistemen gabezia.

Kezka-marko horretatik abiatuta, lan honen helburua EAEko erakunde publiko nagusiek burututako lankidetzaren politikaren bilakaera, indarguneak

¹⁵ Alboanek 2007an argitaratutako azterlanak oso modu grafikoan irudikatzen zuen euskal lankidetzari buruz esandako hau: *“Nabarmen bazi da. Baina bere jantziek funtsean haurtzarokoaren antzekoak izaten jarraitzen dute. Alkandoraren josturak bausten ari dira eta galtzak jada ez dira ia belautan baino beherago iristen. Oraindik gehiago bazi behar badugu, arropa berria beharko dugu. Jantzkerak aldaketa bat bazi dugu eta orain hobekien ematen digun jantzia zein den aztertze momentua da.”* Alboan (2007).


eta mugak aztertzea da. Honekin batera, gure asmoa da erronka nagusiak laburbiltzea, gainontzean nahiko zalantzarria den etorkizun bati begira, administrazio publikoetako finantza-krisia garapenerako lankidetzaz-programetan izaten ari den ondorioak kontuan hartzen baditugu. Horretarako, hemen aurkezten den azterlanak bi gai nagusitan jartzen du arreta: alde batetik, politikaren/politiken diseinuan eta ikuskeran, eta bi hamarkada baino gehiagoan maila horretan egindako aldaketetan, bereziki azpimarratuz aipaturiko diseinuaren egokitasuna eta koherentzia; eta, bestetik, aipaturiko politika horren/horien aplikazioan eta egindako lorpenen eta baita arlo horretan sumatu diren zailtasunen eta arazoaren azterketan ere.

Planteamendu horri jarraituz, azterlan hau politiken diseinuaren esparruan (denek lankidetzarako plan zuzentzaileak egin dituztelarik) zein politika horien aplikazioan esperientzia handiagoa duten erakunde publikoetan zentratu da. Bi alderdi horiek bereizezinak dira gure azterlan-proiektutik. Hala, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta hiru hiriburu-udalak aurreratuko ditugu gure azterlaneko ikerketa-gai bezala. Egoera horrek ezinbestean behartu ditu EAEko beste erakunde eta entitate batzuk (adibidez, Euskal Fundazioa edota beste udal batzuk) azterlanetik kanpo geratzera. Hala ere, horrek ez du esan nahi, inolaz ere, erakunde horiek egindako lanaren garrantzia gutxien denik. Aitzitik, esperientzietariko batzuk euskal garapenerako lankidetzarentzat ekarpen aipagarrien erakusle dira. Datorren atalean laburki azaltzen den hautaturiko metodologiarekin zerikusia duen auzi bat baino ez da hau beraz.



3. kapituluua.

Azterlanaren metodologia




Lan hau egiteko, lehenik eta behin, erreferentziazko marko teoriko bate-tik abiatu gara, hau da, EAEn bideratutako lankidetz-politiken sendota-suna ebaluatzeko jarraibide batetik. Erreferentziazko marko hori azterlan talde honek berak egindako *La Cooperación al Desarrollo Descentralizada: una propuesta metodológica para su análisis y evaluación*¹⁶ lanean bilduta dago. Izan ere, politika bere egokitasuna finkatzerakoan edo aplikatua izan den modua aztertzekoan garrantzitsuenak diren elementuen inguruko aurretiko gogoeta batzuetatik abiatzea beharrekoa da. Helburu horretarako, gaiari buruzko hausnarketa maila ezberdinak proposatzen ziren aipaturiko lanean. Adibidez, politikak garapenerako lankidetzaren zeharkako helbu-ruekin duen harremana; politika publikoen eskakizun orokorren egokita-suna eta, batez ere, garapenerako lankidetzakoena, haien kalitateari dago-kionez; lankidetzaren beraren helburu zehatzen definizioa eta horren balio erantsiaren analisia; garapenerako lankidetzarako erabilgarri egon litezkeen baliabide ezberdinak mobilizatzeko eta haiez baliatzeko gaitasuna; edota bideratutako lankidetz-harremanak eta haiei loturiko tresnak.

Erreferentziazko marko hori aztertutako erakunde desberdinek landu eta burutu duten politikarekin erkatu ahal izateko, ebaluazio-irizpide nagusi batzuk hartu dira kontuan, aipaturiko metodologian ere azaltzen direnak, Egokitasuna, Koherentzia, Osagarritasuna, Harmonizazioa, Gardentasuna eta Partaidetza irizpideetan gauzatu. Aipaturiko irizpideak EAEko erakun-deen kasu zehatzari aplikatzean, bi ikuspegi ezberdin jarraitu dira: alde ba-tetik, aztertutako aldiaren egindako politikako dokumentu multzoaren azter-keta xehea eginez; eta, bestetik, erakunde batzuek eta besteek bideraturiko interbentzioak eta ezarritako baliabideak aztertuz.

Lehenengorako, urte hauetan zehar egindako dokumentu mota ezberdi-nak hartu dira kontuan, Lankidetzari buruzko Euskal Legetik eta Plan Zu-zentzaileetatik hasita, egindako deialdi publikoetaraino, beste plangintza-tresna batzuetatik eta era ezberdinetako doktrina-dokumentuetatik igaroz (alderdi ezberdinei buruzko dekretuak, araudiak eta plan espezifikoak, eta abar). Horien guztien zerrenda 2. eranskinean ikus daiteke.

¹⁶ Koldo Unceta et al. (2011).

1.Grafikoa: egindako lanaren oinarritzko eskema



Bigarren punturako (politikaren aplikazioari eta abiarazteari dagozkien gaiak) aztertutako politiken bitartez bultzaturiko edota finantzaturiko ekintzekin egin da lana. Horiek guztiak 1988 eta 2008 artean proposaturiko 10.000 interbentzio baino gehiago dituen datu-base batean jaso dira (horietatik ia 7.000 finantzatu egin ziren). Hala ere, azterlanaren atal honetan aurkitutako arazoak ugariak izan dira, eta horrek nabarmen mugatu du analisiaren norainokoa eta ateratako ondorioen ahalmena. Aipaturiko arazoek, bereziki, ikertutako zazpi erakundeetan dauden informazio-sistemen mugekin dute zerikusia eta, hala, kasu batzuetan daturik ez dago, beste batzuetan datuak partzialak edo kalitate gutxikoak dira, eta, ia guztietan, datuak ezin dira homologatu; horren guztiaren ondorioz, ezin egin izan dira aztertutako erakunde ezberdinen arteko analisi konparatzaileak edo osotasunezkoak. 5.1. atalean emango dugu arazo eta zailtasun horietako batzuen berri. Bertan, ezarritako baliabideetan aurkitutako gabeziekin loturik dauden politiken aplikaziorako mugak aztertzen dira.

Aipaturiko datu-base horretatik abiatuz, 6.970 interbentziok osatu dute hautaturiko unibertsoa; era guztietako interbentzioak dira, eta gorago aipaturiko zazpi euskal erakunde publikoek finantzatu dituzte. Interbentzio multzo horrek, 1988 eta 2008 artean buruturik, erakunde bakoitzarentzat neurri batean ezberdinak diren azpi-aldiei dagozkien ekintzak biltzen ditu, lankidetzaren modu egonkor eta arautu batean finantzatu duten urteekin edo informazioa bilduta eta eskuragarri zeukatenekin bat datozenak. Horren arabera, Eusko Jaurlaritzaren eta Gasteizko Udalaren kasuek ikertutako aldi osoa hartzen dute (1988-2008), Donostiako Udalak 1994-2008 azpi-aldia, eta Bilbokoak 1995-2008 aldiari dagokiona. Aldundiei dagokienez, Arabako Foru Aldundiaren datuak 1999-2008 azpi-aldiarekin bat datoz, Bizkaiko Foru Aldundiarenak 2001-2008koarekin eta Gipuzkoakoarenak 2004-2008koarekin. Bestalde, kontuan izan behar da ekintza hauen guztizkoa ez datorrela bat erakunde bakoitzeko aurrekontuaren arabera lankidetzara zuzenduriko guztizkoarekin, nahiz eta funtsezko zatia izan. Hori interbentzio gisa kontabilizatu ez diren kontu sail txikiak baztertzearen ondorioa da, informazio-faltagatik edo azterlanaren helburuarekin bat ez etortzeagatik¹⁷.

Datu-baserako informazio guztiak iturri beretik lortu dira kasu guztietan, erakundeak berak emanda, bakoitzak bere formatu berezian. Hortik aurrera, azterlan taldeari egokitu zaio konparagarriak diren kategoriekin bat datozen datuak mugatzea eta sailkatzea egitea (erakunde motak, tresnak, eta abar). Horrekin guztiarekin, honako aldagai hauek kontuan hartuz diseinatu da datu-basea:

- Diru-laguntzaren kontzesio-urtea.
- Diru-laguntza ematen duen administrazioa.
- Euskal erakunde kudeatzailea: hauxe da laguntza jasotzen duena zeharka kudeatzen denean, edo administrazioa bera, Zuzeneko Lankidetzaren kasuan.
- Euskal erakunde kudeatzaile mota: Garapenerako gobernuz Kanpoko Erakundeak (GGKE), erakunde erlijiosoak, nazioarteko erakundeak... izan daitezke.

¹⁷ Beste batzuen artean, honako hauek egongo liriteke: erakundearen beraren administrazio-gastuak (soldatak, funtzionamendua, azpikontratazioak...); Euskal Herrian bertan berezko funtsekin egin diren eta proiektuen fitxa moduko erregistrorik izan ez duten jardura txikiak (ikastaroak, bilerak edo antzekoak); Euskal Fondoari egindako kontribuzioak eta kuotak (funtse horien helburuari buruzko esleipenik gabe), eta abar.

- Erakunde hartzailea: funtsak helmugan kudeatzen dituen da. Arlo hau ez da gogoan hartzen Garapenerako Sentsibilizazio eta Hezkuntzaren kasuan, proiektuak erkidegoan bertan garatzen badira.
- Erakunde hartzaile mota: azterlan honetarako Administrazio Publikoen (tokiko gobernuak, udalak eta abar) eta bestelako arteko banaketa bakarrik egin da.
- Herrialdea eta helburu-gunea: atzerriko proiektuen kasuan.
- Ekintza mota: Garapenerako Lankidetzak, Laguntza Humanitarioa eta Larrialdikoa eta Garapenerako Sentsibilizazioa eta Hezkuntza bereizten dira, “besteak” deituriko atal batez gain.
- Laguntzarako tresna: proiektuen urteroko deialdietatik eratorritako ekintzak, hainbat urterakoak, hitzarmenak eta zuzeneko lankidetzak bereizten dira.
- Emandako zenbatekoa eurotan: erakunde publikoak ekintzarako esleituriko kopurua jasotzen da (ez da ekintzaren aurrekontu orokorrarekin nahastu behar).

Zuzeneko iturri horiez gain, lan honetan zeharkako beste iturri batzuk ere erabili dira, dokumentu-sail baten irakurketa eta analisia hain zuzen ere (ebaluazio-txostenak, erakundeen beren memoriak, ikerketa-lanak, GGKEk egindako azterketak...). Dokumentu horiek burututako politikari eta bideratutako ekintzei buruzko informazioa zein balorazio kritikoak jasotzen dituzte, eta lan honen bukaeran aipatzen dira guztiak. Azkenik, politiken diseinuan, zuzendaritzan edo aplikazioan paper garrantzitsua izan duten pertsonekin, haiei buruzko azterlanak edo analisiak egin dituztenekin, edota lankidetzaren mugimenduan parte-hartze nabarmena izan dutenekin hainbat elkarrizketa eginez osatu da azterlana.

Azaldu den bezala, azterlanak EAEko zazpi erakundetara jartzen du arreta: Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiak eta hiru hiriburu-udalak. Horretarako jarraituriko irizpidea laburki adierazi da dagoeneko, eta azterlanaren metodologia orokorrarekin lotua dago. Metodologia hori jada azalduriko irizpideetan oinarrituriko politiken diseinuaren eta aplikazioaren analisi konparatzailean oinarritzen da batez ere, eta horrek ikerketa-gaia baldintzatzen du nolabait ere. Bestalde, eta honek beste erakunde eta entitate garrantzitsu batzuk kanpoan geratzen direla esan nahi badu ere (Euskal Fondoa edo beste udal batzuk) aipaturiko zazpi erakundeek euskal lankidetzak publikoaren


errealitate zabala, askotarikoa, konplexua eta adierazgarria erakusten dute, bai kuantitatiboki eta baita kualitatiboki ere. Horrek errealitate hori nolabaiteko xehetasunez aztertzea eta horren inguruko ondorioak ateratzea ahalbidetzen du.

Bukatzeko, eta azterlanaren denbora-eremuari erreferentzia eginez, ia-ia azken 25 urteak hartzen ditu, eta datu hori euskal garapenerako lankidetzaren bizitzari dagokio. Hala ere, jasotako informazioak adierazten dituen aldiak ez dira zehazki politikaren burutze eta diseinuaren analisiari dagozkion berak, ezta politikaren aplikazioarekin zerikusia duten batzuek ere. Ezberdintasun horrek abian jarritako proiektu eta interbentzioei buruzko informazioan du eragina zehazki, zeina 1988 eta 2008 arteko aldiari besterik ez baitagokio, datuak bildu, prozesatu eta baliatzeko aurkitutako zailtasun handiak kontuan hartuta¹⁸.

¹⁸ Abian jarritako interbentzioen analisia sistematizazio-prozesu konplexu batean oinarrituz egin da. Prozesuaren bilketa-faseak 2009ko zati bat eta 2010eko urte osoa hartu zuen, kasu batzuetan zeuden sarbide-arazoengatik, bereziki zaharragoa zen informazioari buruz ari zirenean. Geroago, 2011. urtean zehar jada, aipaturiko datu-basearen bitartez prozesatu eta tratatu ziren datuak. Datu-base horren sorrerak aldi berean gainditu zituen aurkitutako informazioen kalitate desberdinetik eratorritako arazoak eta, modu orokorragoan, erakunde batzuetan eta besteetan lankidetzaren Informazio eta Kudeaketa Sistemek zituzten gabeziak.

4. kapitulua.

EAE-ko erakundeen lankidetzapolitikaren ikuskera eta diseinua



Gorago aipatu den bezala, lankidetzeta-politikaren lantze-prozesuan ikusi diren indarguneen eta ahulguneen analisisa da egindako azterlanaren helburu nagusietako bat. Jakina da Euskal Herriko erakunde ezberdinetatik bultzaturiko lankidetzaren hastapenek zerikusi handia izan zutela gai honi dagokion eskaera sozialaren eraginez gertatutako sustapen etikoarekin, eta ez hainbeste gai honi buruzko politika zehatz bat egiteko beharrari buruzko uste sendo batekin. Askoz geroago, gaiaren konplexutasunak eta lankidetzara zuzendutako finantza-funtsek eskuratutako zenbatekoek ikusarazi zuten iritsi nahi ziren helburuak, baliatu beharreko tresnak eta baita lanerako erabili beharreko lege-esparrua ere, apur bat antolatu eta zehaztasun handiagoz definitu behar zirela. Horrek dokumentu doktrinal eta pragmatikoen aukera handia sorrarazi zuen; harekin guztiarekin jarduera-ildo bat markatu nahi zen eta azken urteetan, jarduera-ildo hori erakunde nagusiek idatzitako Plan Zuzentzaileetan gauzatu zen.

Nahiko konplexua da dokumentu multzo horren eta burututako jardueren analisi edo balorazio global bat egitea. Alde batetik, halako aldeak gertatu dira EAEko erakunde publiko batzuk eta besteak (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) esparru honetako jarduerak interbentzio-logika bati eta beste herrialde eta lurralde batzuetan gai honen inguruko plangintza-ildoekin bat datozen jarraibideei egokitzuz joan diren erritmoan. Eta, beste alde batetik, beharrezkoa da era honetako zeregin bati ekiteko zailtasuna aitortzea, ibilbide mugatu batetik abiatuz eta, kasu batzuetan, gaiari buruzko esperimentzia nahikorik ez duten giza baliabideekin. Aurreko guztia indarrean dauden informazio-sistemen ahultasunean islatzen da –gai hau bereziki lantzen da lan honetan–, eta horrek, zalantzarik gabe, nabarmen oztopatu du Euskadiko garapenerako lankidetzaren plangintza- eta orientazio-lana eta, aldi berean, muga garrantzitsua izan da geure lanerako ere.

Baldintza horiek guztiak gogoan izanik eta, abiapuntutzat hartuz aurreko kapituluan aipaturiko erreferentzia-markoa, azterlanaren lehen zati hau –EAEko lankidetzeta-politiken diseinuari buruzkoa– 7 multzo handitan zatitu dugu. Era horretan, burututako hausnarketak sistematizatu eta lortutako emaitzak modu ordenatuago batean aurkeztu ahal izan dira.

Lehenengo multzoan politika eta garapenerako lankidetzaren jarraibide orokorrak bateratzearekin zerikusia duten gaiak lantzen dira, nazioarteko erakundeek gehienetan aitortzen dituzten zeharkako helburuei dagokienez, eta baita politiken koherentzia, Laguntza Humanitarioak eta Larrialdikoei dagokienez ere.

Bigarren multzoan, politikak eraginkortasun- eta kalitate-gaiekin duen harremana aztertzen da bereziki, eta baita ebaluazioari dagozkion gaien tratuarekin duen harremana ere.

Hirugarren multzoak lege-esparruaren definizioari dagozkion auziak, eta koordinazioarekin eta EAEko hainbat erakunderen arteko osagarritasunarekin lotuak daudenak jasotzen ditu.


Laugarren multzoak politikaren berezko helburuen definizioa eta ekarpen espezifikoaren azterketa ikertzen ditu, lankidetzak deszentralizatuaren berezko gaien eta EAEko ahalmenekin zuzenean zerikusia dutenen artean bereizketa ginez oro har.

Bosgarren multzoan, EAEn edo ikertutako zazpi erakundeekin bat datozen lurraldeetan, garapenerako lankidetzarako izan litezkeen baliabide ezberdinak mobilizatzeko eta abian jartzeko politikak duen ahalmena aztertzen da.

Seigarren multzoak politikak eta politikarekin loturiko tresnek bideraturiko lankidetzak-harremanak aztertzea ahalbidetzen duten gaiak jasotzen ditu, esparru deszentralizatuaren auzi honen inguruan dauden aukeren arabera.

Eta, azkenik, zazpigarren multzoak politikaren elaboraziorako partaidetzari eta horretarako aurreikusitako informazio eta kontrol-mekanismoen tratuari dagozkien gaiak lantzen ditu.

2. grafikoa: Diseinuaren analisisaren kontuan hartutako hainbat auzi gaia multzokatuta



Azken finean, kapitulu honek lankidetz-politiken ikuskeran berean eta sendotasunean eragina duten gaiak aztertzen ditu, azkenean politika horien diseinuan zehaztuz dena¹⁹. Horren arabera, ondorengo atalek gai honen inguruan egindako analisiaren berri ematen dute, aipaturiko zazpi multzoak oinarritzat hartuz.

4.1. EAE-ko erakundeen lankidetz-politikaren egokitasuna, zeharkakotasuna, politiken koherentzia eta Laguntza Humanitarioaren debatei buruzko hainbat gogoeta

Euskal erakundeek bideratutako garapenerako lankidetz, hasieran, laguntza-ikuspegi batean zetzan, misiolariak, erlijio-kongregazioek eta eliza katolikoari loturiko GGKEek zuten eraginaren ildotik. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak 1985 eta 1987 artean emandako funts-zuzkidura txikiek, euskal pertsona edo erakunde misiolariak hainbat herrialdetan egindako lana babesteko balio izan zuten funtsean. Hala ere, 1988tik aurrera, Euskadin beste jatorri bat zuten hainbat GGKEen garapen azkarrak, zein Europako beste herrialde batzuetan indarrean zegoen lankidetz-kulturaren aldera GGKE erlijiosoek egin zuten bideak, kontzeptu berriak zabaltzea euskal lankidetzan ekarri zuten, esate baterako, Garapenerako Hezkuntza, profesionalizazio handiagoa eskatzen zuten lan-eredu berriak eta, orokorrean, nazioarteko beste esparru batzuetan zeuden jarraibide berriak²⁰.

Bilakaera-prozesu hori hainbat gaitan gauzatu zen laurogeita hamarreko hamarkadan. Alde batetik, beste esparru batzuetan zabal bideraturiko prozedura batzuk hartu ziren, adibidez, Marko Logikoaren Ikuspegia proiektuen aurkezpen, jarraipen eta ebaluaziorako. Eta politiken esparruari dagokionez, lehen dekretu eta deialdietako hainbat printzipio-deklaraziotan eta helburu-azalpenean gauzatu zen. Hasieran, aipaturiko helburuek pobrezia aurkako borroka azpimarratzen zuten, ikuspegi tradizional batetik, baina, pixkanaka, gai eta ikuspegi berriak gehituz joan ziren, nazioarteko eztabaiden eta proposamenen ildotik. Gai horiek, denborarekin, zehar-lerro gisa gauzatu joango ziren kasu askotan. Atal honetan prozesu horren berri ematen dugu,

¹⁹ Espainiako Lankidetzaren Ebaluazioen Kudeaketa Eskuliburuak adierazten duenez, diseinuaren Ebaluazioak honako puntu hauek ditu helburutzat: *“Interbentzioen arrazionaltasuna eta koherentzia aztertzea, egindako diagnostikoaren kalitatea eta errealitatea egiaztatzea, argi definituriko helburuak daudela egiaztatzea, arazoekin duten elkarrekikotasuna aztertzea eta diseinaturiko interbentzio-ereduaren logika aztertzea. Koherentzia-analisia barnekoa zein beste politika eta jarduera batzuekin loturikoa izan daiteke, lurraldean bertan edo talde eta sektore berdinean eragina duena, eta baita interbentzioa kokatzen den goi-mailako plangintza-markoekin loturikoa ere”* (Nazioarteko Lankidetzaren Estatutuko Idazkaritza, 2007).

²⁰ Ikus Unceta (2002).

eta baita politiken koherentziari emandako trataeraren eta Laguntza Humanitarioaren ikuskeraren berri ere. Laguntza Humanitarioaren gaiak, hain zuzen ere, azken urteotan lankidetzaren esparruan egon diren eztabaida ugari monopolizatu ditu.

Zehar-lerroak

Zeharkako gaiak deitzen direnak –eskuarki onarturiko nazioarteko jarraibideen arabera, lankidetzak-interbentzio guztietan egon eta ikusgai bihurtu behar zutenak– goiz samar hasi ziren agertzen EAeko erakundearen dekretuetan eta deialdietan²¹. Pobreziari egindako erreferentziak haraindi (beti hortxe, modu batean edo bestean), ingurumen-gaiak 1992an agertzen dira dagoeneko EJRen dekretuetan, genero-berdintasuna 1996an eta Giza Eskubideak 1999an, kasu guztietan politiken lehentasun edo helburu orokor gisa. Denboraren poderioz, gailenduz joan da zeharkako helburuen edo zehar-lerroen ideia, bere horretan planteaturik (eta interbentzio mota guztietarako erreferentzia gisa beraz), izaera zabalagoko programa- eta plangintza-dokumentuen baitan, Plan Zuzentzaileetan esaterako. Hala ere, interesgarria da ikustea aipaturiko Planak oraindik ez zeudenean eta, oraindik zeharkako helburu edo zehar-lerroei buruz hitz egiten ez zenean ere, EAEn hainbat dekretu eta deialdiak jada gai horiek (edo horietako batzuk, adibidez, pobrezia, generoa edo ingurumena) erreferentzia gisa hartzen zituztela proiektuak aukeratzeko irizpideetan, bai Eusko Jaurlaritzaren kasuan, bai udalen edo aldundien kasuan.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, esan bezala, lehen dekretuetan zeharkako gai batzuk aipatzen badira ere, ez dago adierazpen sistematikorik 2005eko lehen Plan Zuzentzailean arte. Horren aurretik, zeharkakotasunaren kontzeptuak trataera aldakor eta apur bat nahasia izan zuen, baremoetan agertzen zelarik baina ez politikaren definizioan²², eta zeharkakotzat hartzen ziren gaiak ez ziren beti berak. Lehen Plan Zuzentzailearekin, zeharkako helburuak bere horretan agertu ziren, nahiz eta kategoria horren barruan lau

²¹ Ez dago zeharkako gaien buruzko katalogo itxirik edo orokorrean onartzen denik. 90eko hamarkadaren bukaeratik CADk lankidetzan egindako interbentzio guztiek hiru dimentsio kontuan hartzeko beharra planteatu zuten: soziala (gizarte-sektorerik ahulenetan kontzentratuz), ingurumenari dagokiona eta generoari dagokiona. Denborarekin, zerranda aldatuz joan da eta aipaturiko erakundearen azken txostenetan espresuki aipatzen dira Generoa, Ingurumena eta GG.EE. (ELGA 2010). Hainbat Agentzietako beste dokumentu batzuek Pobrezia ere gehitzen dute (modu desberdinetan ulertua) aipaturiko gizarte mailaren adierazle gisa. Gure kasuan, testuan nabarmentzen diren xehetasunekin, lankidetzak deszentralizatuari buruzko gure proposamen metodologikoan jasotako lerroak hartu ditugu erreferentzia generiko gisa (ikus Unceta et al, 2011)

²² 2000n jada, generoa, ingurumena, giza eskubideak eta pobrezia bezalako gaiak zeharkako auzi gisa aipatu ziren baremazio-irizpideetan, dekretuaren testuan hala definiturik agertzen ez baziren ere.

gai aztertzearen alde egiten zuen, ikuspegi propio bat hartuz: Generoa, Ingurumena, Giza Eskubideak eta Tokiko Gaitasunak, Partaidetza eta Antolakuntza, azken gai horri baremazio-irizpideetan ere aitortzen zitzaion garrantzi berezia eskainiz.

Aldundiek zeharkakotasuna lankidetzeta-interbentzioetarako erreferentzia gisa ere kontuan hartu zuten, nahiz eta aipaturiko beste erakundeek baino geroxeago; izan ere, aldundien lehen dekretuak apur bat geroagokoak izan ziren²³. Arabako Aldundiak modu espezifikagoan eta ordenatuagoan planteatu zituen zeharkako helburuak 2004ko dekretuan, nahiz eta lehenago genero-berdintasunari edo giza eskubideei hainbat erreferentzia egin eta, gainera, gai horiek guztiek nolabaiteko arreta jaso zuten baremoetan. Bizkaiko kasuan, 2001eko lehen dekretuan jada hitz egiten zen zehar-lerroei buruz baremazio-irizpideak planteatzeko orduan, generoa, bazterketa eta kolektibo ahulenak, kultura-aniztasunaren babesa, Giza Eskubideak eta ingurugiroaren babesari buruzko gaiak zehazki aipatuz. Gipuzkoako Aldundiaren dokumentuak ez dira hain esplizituak gai honi dagokionez, nahiz eta proiektuen onarpenerako baremazio-irizpideetan gai horiek guztiak espresuki aipatzen ziren 2004ko lehen dekretutik, zeharlerro izena ez bazuten ere.

Lankidetzarako Plan Zuzentzailea (2009-2011) hiru foru-aldundiek elkarrekin egin zuten, eta hiru zehar-lerro nagusiren aldeko apustua zen: Genero Berdintasuna, Garapenerako Hezkuntza (hori aurrerago azalduko dugun salbuespena da) eta Tokiko Giza Garapena, azken horretan pobrezia, ekoizpen-jarduerari, tokiko instituzionalitateari, partaidetzari edo jasangarritasunari dagozkion hainbat auzi lantzen zirelarik. Dena dela, genero-ikuspegiari dagokion lankidetzeta planifikatzeko gaitasuna indartu behar zela-eta, aipaturiko Planak egiten duen aitortpen esplizitua da gauzarik nabarmenena. Areago, aipaturiko helburura eraman zezaketen lanak finantzatzeko aurrekontu-aurreikuspena ere egin zen.

EAEko hiru hiriburu-udalei dagokienez, genero-, ingurumen- pobrezia- eta GGEE auzien aipamena nabarmen goiztiarra izan zen Gasteizen kasuan, helburu horiek 1996ko proiektuen deialdiaren oinarrietan espli-

²³ 90eko hamarkadaren bukaerara arte kasu batzuetan eta 2000ko hamarkadaren hasierara arte beste kasuetan, Foru Aldundiek ez zuten berezko plangintza-tresnarik izan; izan ere, beren kuotak, Eusko Jaurlaritzarekin batera kudeatzen den FOCAD erakundeari (Garapenerako Lankidetzeta Funtza) ematea erabaki zuten. Arabako Aldundiak 1998an lehen deialdi berezia egin zuen lankidetzeta proiektuak finantzatzeko. Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak, ordea, 2001ean eta 2004an egin zuten deialdia hurrenez hurren.

zituki agertu baitziren, horietakoren bat, genero-berdintasunari dagokionan adibidez, 1993an jada aipatzen bazen ere, aukera-irizpide gisa proposaturiko interbentzioak babesteko edo ez babesteko orduan. Hala ere, Gasteizko Udalaren plangintza-dokumentuek ez dute zeharkakotasun-kontzeptua erabiltzen gai hauei erreferentzia egiteko, praktikan garrantzi handia ematen bazaie ere. Bilboko Udalarik dagokionez, 2001eko araudiak jada GGEEak helburu orokor gisa aipatzen zituen, pobreziaz gain. Genero-auziak geroago erantsi ziren (2005). Baina zeharkako helburuen sistematizazioa ez zen bere horretan 2006ra arte burutu, hau da, lehen plan zuzentzailea osatu arte. Azkenik, Donostiako Udalak ingurumenari eta pobrezia- buruzko (kolektibo ahulenak) aipamen goiztiarrak planteatu zituen jada 1995ean, eta GGEEei buruzkoak 1996an; aldiz, genero-berdintasunaren inguruko kezka erantsi zuen azken erakundea izan zen, ez baitzen 2008ra arte erantsi, 2008-2011 Tokiko Lankidetzak Planean zehar-lerroen definizio zehatza egin zitzaionean.

Dena dela, gai horiek lankidetzak-politiken zeharkako helburu gisa apurka ezartzeaz gainera, komenigarria da plangintza-dokumentuetan jasotako proposamenen inguruan ere galderak egitea, aipaturiko gaien aldeko apustua betetzeari begira. Zentzu horretan, esan daiteke aztertu diren EAEko erakundeek egindako lankidetzak-politika dela-eta, ezin dela balorazio orokor bat egin. Gai horiek oso modu diferentean garatu dira hainbat dokumentutan, bai kontzeptualizazioari²⁴, bai tresnetan eta baliabideetan gauzatzeari, edota baremazio-irizpideek lankidetzak-politikei eskaintzen dieten arretari dagokionez. Azpimarratu den bezala, kasu batzuetan baremoek gai horiek kontuan hartzen dituzte, baita zeharkakotzat hartuak izan aurretik ere. Beste batzuetan ordea, zeharkakotzat hartzeak garrantzi praktikoa gutxi du.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, 1996ko dekretua zeharkako helburu edo zehar-lerro horiek interbentzioen aukeraketa-irizpideekin elkartzen hasi zen oro har, eta lehentasuna ematen zitzaien helburu horien kopururik handiena jasotzen zuten proiektuei. Zeregin hori Kudeaketa Batzordeari zegokion. Hala ere, arlo honetan 2000n gertatu zen benetako aurrerapausoa, interbentzioen aukeraketan erabilitako baremoak jakiteko eman zirenean. Haien artean zehar-lerroei buruzkoak zeuden.

Aldundiei eta udalei dagokienez, Gasteizko Udala aitzindaritzat har dezakegu. Izan ere, baremo formako politiken koherentzia ziurtatzen zuten

²⁴ Beste gai batzuetan bezala, zeharkako gai batzuei eskainitako trataera kontzeptual zabala ez zetorren bat bere presentzia bermatzeko erabilitako tresna eraginkorren garapen eskasagoarekin.

tresnen definizioa egin baitzuen nahiz eta, esan bezala, zeharkotasunaz ez hitz egin zentzu hertsian. Gasteizko Udalak 1993 eta 1994 artean definitu zituen gai horiei buruzko baremazio-irizpideak. Bilboko Udalak, bere aldetik, 2001ean erantsi zituen pobreziarako eta GGEEtarako baremoak, eta 2005ean generorakoak. Eta Donostiari dagokionez, deigarria da gai batzuetarako baremoen definizio goiztiarra (adibidez, Ingurumena eta GGEE), 1995 eta 1996an definituriko irizpideetan jada txertatu baitziren, eta generoaren gaiak, ordea, hain berandu aintzakotzat hartzea.

Aurretik aipatu den bezala, foru-aldundiak beranduago hasi ziren lankidetzeta-auzien jardueri buruzko dekretuak eta araudiak egiten; izan ere, lehen urteetan zehar, euren funtsak Eusko Jaurlaritzakoei gehitu zizkieten FOCADen esparruan. Euskadin oinarri hartzeko lehenagoko jardunbide bat zegoela esan nahi zuen horrek, lankidetzeta-gaien inguruko ezagutza hobea eta gai horiei buruzko baliabide tekniko gehiago barne hartuz. Zeharkako gaien inguruko gogoetaren eta aplikaziorako baremoen definizioaren artean dagoen elkarrekikotasun handiagoa azaltzen du horrek, zalantzarik gabe. Hiru erakundeek aldarrikaturiko dekretuetan ikus daiteke hori, FOCADetik kanpoko egitasmo propioak izaten hasi zirenetik. Baterako Plan Zuzentzailearen (2009-2011) aurreikuspenei buruz lehenago jada aipaturikoa gehitu behar zaio horri, programen eta proiektuen diseinuaren genero-ikuspegia indartzeari begira. Hori, zalantzarik gabe, koherentzia-adierazle garbia da. Tokiko Giza Garapenaren gaiari dagokionez, zailagoa da eraginkorra izatea lerroei edo baremoei dagokienez, gaiaren profil apur bat lausoen ondorioz, erakundeen sendotzeari buruzko alderdiak direlarik azkenean zehaztasun handiena dutenak. Ez da horrelakorik gertatzen Garapenerako Hezkuntzarekin. Gai hori, gainera, lekuan bertan egiten den lankidetzeta-estrategiaren zati bezala planteatzen da eta zehaztaper handiagoa du baremoetan, tokiko biztanleriaren partaidetza, kultura arteko testuingurua kontuan hartzea eta bestelako gaietan. Dena dela, aipaturiko aldundien plan zuzentzaileak aurrerapauso handia dakar marko koherente baten definizioan. Horretan, zeharkako hiru ikuspegiak dekretuetan eta ezarritako neurketan zehazten dira, interbentzioak definituriko politikaren helburuei egokitzeko xedeaz.

1. koadroan hautaturiko zeharkako gaiak erakunde batzuen eta besteen politika-dokumentuetan kontuan hartzen hasten diren urteak ikus daitezke, gai horietako bakoitzarentzat hiru zutabe bereiziz. Lehenengoan, lankidetzeta-politikaren erreferentzia orokor gisa aipatzen hasten den urtea jasotzen da. Bigarrenak gai horiek baremazio-irizpideetan kontuan hartzen hasten diren urtearen berri ematen du. Azkenik, hirugarren zutabeak gaiak espresuki helburu edo zehar-lerro trataera jasotzen hasi ziren urtea adierazten du.

1.koadroa: Zehar-lerroak politika-dokumentuetan eranstea (erakundeak eta urteak).

	Pobrezia(*)			Generoa			Ingurumena			GG.EE		
	Aipamena	Barem.	Zehark.	Aipamena	Barem.	Zehark.	Aipamena	Barem.	Zehark.	Aipamena	Barem.	Zehark.
Eusko Jaurlaritza	1988	2000	2000(**)	1996	2000	2000(**)	1992	2000	2000(**)	1999	2000	2000(**)
Arabako Aldundia	1998	1998	2004	1999	1999	2000	1998	1998	2004	1999	2000	2004
Bizkaiko Aldundia	2001	2001	2001	2001	2001	2001	2001	2001	2001	2001	2001	2001
Gipuzkoako Aldundia	2004	2004	2004(***)	2004	2004	2004(***)	2004	2004	2004(***)	2004	2004	2004(***)
Gasteizko Udala	1993	1993		1993	1993		1994	1994		1993	1993	
Bilboko Udala	2001	2001		2005(****)	2005	2006	2001	2001	2006	2001	2001	2006
Donostiako Udala	1995	1995		2008	2008	2008	1995	1995	2008	1996	1998	2008

(*) Pobrezia barne hartzea modu zabalean hartu da kontuan, horren aipamena gizarteratze gisa edo kolektibo ahuleneri babes gisa ulertuz.

(**) Testuak zehar-lerroak aipatzen ez baditu ere, 1999tik Eusko Jaurlaritzaren dekretuak "zeharkako helburuen zerrenda"-ren ideia eranstean hasi ziren aipaturiko lau gaietako baremazio-irizpideez aitzidan.

(***) GFAn lau gaiak modu zehatzean aipatzen dira baremoetan 2004tik, jardura-lehenasuntzat hartuz, zehar-lerroen tratuera jasotzen ez badute ere.

(****) Lehenago, Bilboko Udalaren 2001teko deialdia "biztanleria indigenetako emakumeen eta umeen egoera hobetzen" lagunduko duten jardueren lehen-tasuna ematez ari zen, baina genero ikuspegia bere horretan aipatu gabe.

Iturria: Egileen elaborazioa

Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago EAEko erakundeek zeharkakotasun ideia baremotan irudikatzeko erabili duten modua oso ezberdina izan dela, gai batzuei eta besteei nahiko kalifikazio ezberdinak eman baitizkiete eta gai horiek desagregazio maila oso ezberdinekin landu baitituzte. Hori, gainera, ez da dokumentuetan justifikatu edo argudiatu, beraz, zaila da pisu ezberdina emateko eta zeharkakotasun bakoitza oso xehetasun maila ezberdinez aztertzeke erabilitako irizpideak ezagutzea.

Azkenik, baremoen elaborazioari dagokionez, beharrezkoa da nabarmentzea kasurik gehienetan, baremo horiek batez ere deialdi irekietako kofinantzaketarako aurkezturiko proiektuak eta interbentzioak baliotatzeko eginak eta diseinatuak izan direla, nahiz eta 2009-2011ko Foru Aldundien Lankidetzarako Plan Zuzentzailean kontuan hartzen den proiektu eta interbentzio horiek administrazioak berak zuzenean adostutako edo burututako jardueretan aplikatzeko duten garrantzia ere.

Atal hau bukatu aurretik, erakunde batzuen eta besteen Plan Zuzentzaileen inguruko aipamen espezifikoa bat egingo dugu, plan horietan zeharkako gaiei ematen zaien trataera ezberdina behatzeko asmoz. Alde batetik, erabateko adostasuna egiaztatu daiteke plan guztien artean genero-berdintasuna lantzeko garaian. Bigarrenik, dimentsio soziala planteatzeko modu ezberdinak nabari daitezke, adierazpen ezberdinak hartzen dituztenak. Eusko Jaurlaritzak adibidez, tokiko ahalmenen gehikuntzari lotzen zaio zuzenean. Aldundiek, aldiz, Tokiko Giza Garapenaren ideia barne hartzen dute eta Bilboko Udalak ez du pobrezia aipatzen, baina beste zehar-lerro bat (partaidetzarena) gizarte-egitura indartzearekin lotzen du. Giza Eskubi-deen gaia garrantzia irabaziz joan da berezko zehar-lerro bat bihurtu den arte, aldundien kasuan izan ezik. Azkenik, ingurumenaren auzia plan zuzentzaile batzuetan baino ez da jasotzen zehar-lerro gisa (Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko eta Donostiako Udalak).

2.koadroa: Zehar-lerroei buruzko gogoeta Plan Zuzentzaileetan.		
Erakundea	Plan Zuzentzailea	Kontuan harturiko zehar-lerroak
Eusko Jaurlaritzak	2005-2008	Generoa, Ingurumena, Giza Eskubideak, Tokiko Ahalmenak, Partaidetza eta Antolakuntza
	2008-2011	Generoa, Ingurumena, Giza Eskubideak, Tokiko Ahalmenak, Partaidetza eta Antolakuntza
Foru Aldundiak	2009-2011	Generoa, Tokiko Giza Garapena, Garapenerako Hezkuntza
Bilboko Udala	2006-2009	Generoa, Partaidetza, Giza Eskubideak, Ingurumena.
	2010-2013	Generoa, Partaidetza, Giza Eskubideak, Ingurumena.
Gasteizko Udala	2010-2013	Bere horretan ez da zehar-lerrorik aipatzen.
Donostiako Udala	2008-2011	Generoa, Giza Eskubideak, Tokiko Boterea eta Partaidetza, Kultura-aniztasuna, Ingurumena.

Iturria: Egileen elaborazioa.

Azkenik, adieraziko dugu, Plan Zuzentzaileetan gai batzuek eta besteek, duten garrantzi desberdinaz gain, horien trataera ere desberdina dela, benetan kontuan hartuak izan daitezzen ziurtatzeko arauak zehazteko orduan. Zentzu horretan, eta jada aipaturiko baremoen auziaz haraindi, beharrezkoa da azpimarratzea generoaren gaiari, gainontzeko zehar-lerroei dagokienez, sakontasun handiagoz ekiten zaiola oro har. Horrek hurrengo azpiatalean helduko diogun analisi espezifiko bat merezi du.

Lankidetzak-politiken eta genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna

Aurreko azpiatalean azpimarraturikoa apur bat sakonduz, beharrezkoa da zehar-lerro horien trataeran ikusitako ezberdintasunak nabarmentzea. Zentzu horretan, hainbat egoera ezberdin azpimarra litezke. Alde batetik, jarraibide, ildo eta baremo gehienetan inplizitua dago zehar-lerro gisa jasotako pobrezia-aren auzia, auziari emandako izena eta trataera kontuan hartu gabe. Hain zuzen ere, dokumentu batzuek zehar-lerrotzat hartzen dute pobrezia, lankidetzak-politikaren helburua pobrezia-aren aurkako borroka eta giza gabezia gainditzea dela kontuan hartuz. Bigarrenik, Giza Eskubideei dagozkien gaiek trataera ezberdina dute plan batzuetan eta bestetan, gai ezberdinak barnean hartzen eta modu ezberdinean islatzen baitira baremazio-irizpideetan. Hirugarrenik, erakunde gehienek ingurumenaren auzia zehar-lerrotzat hartzen dute, nahiz eta jarraibide, ildo eta baremoetan

duen hedadura orokorrean urria izan eta, kasu batzuetan, hedaturarik ez izan. Azkenik, genero-gaiak dira, zalantzarik gabe, trataera eta zehaztasun handiena dutenak, beren zeharkakotasuna planteatzeko garaian. Lehenago jada aipatu bezala, gai horrek azterturiko erakunde ezberdinen (bai Eusko Jaurlaritzaren eta baita aldundiak eta udalak ere) arreta berezia merezi izan zuen jada 90eko hamarkadatik, eta hainbat dokumentu, deialdi eta baremazio-irizpidetan agertu zen²⁵. Datozen lerroetan espezifikoki adieraziko dugu nola jaso den genero-zeharkakotasuna hainbat Plan Zuzentzailetan.

Eusko Jaurlaritzaren lehen Plan Zuzentzaileak (2005-2008) zehar-lerro gisa planteatu zuen jada genero-berdintasuna, bere zehaztapenerako neurri onuragarriak eransteko beharra azpimarratuz. Aipaturiko neurriek hauekin zuten zerikusia: erakunde-ikuspegia (politika guztien parte izanez, eragile sozialen alderdi nagusia izan dadin saiaturik eta bereziki formaturiko langileak egon daitezen ahaleginduz), estrategia-eremua (genero-ikuspegia ekintza eta tresna guztietan gehituz)²⁶ eta eremu teknikoa (bereizirik informazioaren, genero-adierazleen, partaidetza-metodoen eta ebaluazio espezifikoen beharra proposatuz). Bigarren Plan Zuzentzailean bestalde (2009-2011), genero-berdintasuna lau zehar-lerroetako bat bezala planteatu zen, era berean emakumeen ahalduz zuzenduriko sektore-helburu bat eratuz (guztira sei ziren), eredu sozial justuago eta bidezkoago baten eraikuntzan gizonen ere parte hartu behar zutela azpimarratuz.

Plan zuzentzailea garatzeko Eusko Jaurlaritzak ezarritako eta dekretu eta deialdietan jasotako baremazio-irizpideek ere lankidetz-interbentzioen barruko genero-berdintasunaren zeharkakotasuna adierazi zuten. Urteen araberrako aldaketa txikiekin, zeharkakotasun hori interbentzioetan²⁷ zein erakunde bultzatzaileetan edota kontraparteetan gauzatu zen (erakunde-izaera zuen genero-politika baten izatea puntuatuz eta garapen emankorraren modali-

²⁵ Beharrezkoa da GGKEen Koordinakundearen Genero Taldeak izan duen garrantzia azpimarratzea erakundeek gai hori aintzakotzat hartzeko orduan. Garrantzi hori plangintza-dokumentuetan edo aurrekontu-zuzkiduretan ez ezik, beste gai batzuetan ere islatu da, hala nola generoari dagokionez erakundeen gaitasunak indartzeko deialdietan.

²⁶ Era berean, aurreikusten zen emakumei, emakumeen erakundeetara edo emakumeen ahalduz zuzenduriko genero-berdintasunaren mailatan hobekuntza helburu esplizituzat zuten proiektuei soilik bideratutako jardueri eskaintzea gutxienez lankidetzarako erabilgarri zegoen aurrekontuaren % 10; edo baita ere Eusko Jaurlaritzak bultzatutako jardueren zuzeneko biztanleria-hartzailearen % 50 emakumeak izatea.

²⁷ 2005. urteaz gero, 7 punturekin barematzen dira lankidetz-proiektuen edukiak eta produkzio-proiektuak (69 guztira), 10ekin garapenerako hezkuntzaren elementuak (100 guztira; 11 puntu 2009an) eta 4ekin ekintza humanitariokoak (70 guztira).

tateetarako, Sentsibilizaziorako, Garapenerako Hezkuntzarako edo laguntza humanitarioarentzako balio ezberdinak aplikatuz)²⁸.

Beren aldetik, genero-berdintasuna zehar-lerro bezala eta jarduera-ildo bezala eransteaz gain, genero-ezberdintasunen analisi zabal eta sakon bat eta emakumeen eskubideen babes aktiboa aurkeztu zituzten foru-aldundiek hiru aldundientzat komuna zen Plan Zuzentzailean (2009-2011), gizonak ere genero-berdintasunaren aldeko borrokan inplikaraziz, nortasun tradizionalen deseraikuntzaren bitartez. Gainera, lesbiana, gay, transexual eta bisexualen kolektiboen eskubideei egindako aipamena beste erakunde batzuekiko elementu bereizgarri gisa nabarmendu daiteke.

Emakumeen eskubideei buruzko programa-aitorpen hau Planerako ezarritako baremazio-irizpideetan islatu zen, bai proiektuari buruz bereizitako sexuen arabera informazioari dagokionez eta baita emakumeen egoeraren tratamenduari eta beren ekonomia-, gizarte-, kultura-, politika- edo sexu- eta ugalketa-eskubideetan boterea areagotzekari dagokionez ere²⁹. Beste alderdi batzuk ere aztertzen dira, adibidez, iparraldeko eta hegoaldeko mugimendu feministen arteko koordinazioa edo sareen sorrera edota finkatzea. Halaber, baremazio-irizpideek genero-aztiak beste bi ildotan jasotzen zituzten (tokiko giza garapena eta garapenerako hezkuntza). Azkenik, Aldundi bakoitzak kontuan harturiko irizpide espezifikoetan, emakumeenganako tratatu txarren auzia Giza Eskubideen atalaren barruan jaso zuten batzuek.

Udalei dagokienez, Bilboko lehen Plan Zuzentzaileak (2006-2009) genero-berdintasuna zehar-lerro gisa ezarri zuen eta emakumeen ahalduntzea sektore-eremu gisa. Gainera, azpimarratu behar da emakumeen papera, partaidetza, beharrak eta abar indartzera bideraturiko gainontzeko sektore-eremuen artean guztiek jarduera espezifikoak jasotzen zituztela. Bestalde, emakumeen ahalduntzearen esparruan jarduteko konpromiso ekonomikoak hartzen ziren, lankidetzara bideraturiko funtsetan zein garapenerako hezkuntzara bideraturikoetan³⁰. Bigarren Plan Zuzentzailean (2010-2013) genero-ikuspegiak lau zehar-lerroetako bat izaten jarraitu zuen, emakumeen ahalduntzeak hiru sektore-helburuetako bat ere izaten jarraitu zuen

²⁸ Gainera, 2009-2011ko Plan Zuzentzaileak eskakizun gisa finkatzen du genero-berdintasunaren aldeko plan estrategiko bat izatea programen deialdira aurkezten diren tokiko eta euskal erakundeen kasuan edo, halakorik ezean, 24 hilabetetan egiteko konpromisoa hartzea.

²⁹ Horri dagokionez, hainbat egoera aurreikusten dira, emakumei bereziki zuzendutako proiektuak eta emakumeen eskubideak bermatzeko helburua duten beste batzuk bereziz, bestelako alderdi batzuk ere kontuan hartuz, adibidez, ingurune instituzionala edo gizonezko biztanleekin egin beharreko lana.

³⁰ Emakumeen ahalduntzera bideratutako interbentzioek lankidetzak funtsen % 20 ordezkatu behar zuten eta sentsibilizazio funtsen % 10 (2006); % 25 eta % 10 (2007); % 30 eta % 20 (2008); eta % 35 eta % 20 (2009).

bitartean (nahiz eta aurreko Plan Zuzentzailean bezala, gainontzeko arloek berdintasunerako eta ahaldunderako ekintza espezifikoak jasotzen zituzten). Genero-ikuspegiaren zeharkakotasunaren babesaren arabera, Bilboko Udalak (oinarrietan eta deialdietan) hainbat baremo ezartzen ditu proposaturiko interbentzioak ebaluatzeko. Baremo horiek honako alor hauetan dute eragina: ikuspegi hori eranstearen proiektuaren kalitate teknikoa eta koherentzia baloratzeko garaian (ia guztiaren heren bat), GGKE eskatzailen genero-politikan eta esparru honetan lan egiteko duten gaitasunean, kontraparteek gai honetan duten esperientzian, edo interbentzioaren protagonista den biztanleriarengan³¹.

Donostiako Plan Zuzentzaileak (2008-2011) genero-berdintasuna ezarritako bost zehar-lerroen artean lehenengoa dela azpimarratzen du. Gainera, Giza Eskubideen sustapenari dagokion zehar-lerroak emakumeei dagozkienak aipatzen ditu espresuki eta ingurumenaren jasangarritasunari dagozkionak, gai horretan ere genero-berdintasunari lehentasuna emateko beharra planteatzen du. Lehentasunezko sektoreei dagokienez, ezarritako 14en artean bat ere ez dago genero-aztiari espezifiko bideratuta, nahiz eta horietako seik berdintasunari, emakumeei edo genero-ikuspegiari erreferentzia egiten dioten. Bestalde, Planean proposaturiko baremazio-irizpideak koherenteak dira zehar-lerro gisa ezarritako genero-ikuspegiari egozten zaion garrantziarekin; izan ere, horri dagozkion gaiak lankidetzaren proiektuei emandako puntuazio osoaren % 26 hartzen dute eta garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntzaren proiektuen % 22.

Azkenik, Gasteizko Plan Zuzentzaileak dioenez (2010-2013), gaur egungo lankidetzaren egoeran, generoaren zeharkakotasun-estrategia bat egitea ez da errealista, eta, horregatik ez du erabateko baldintza bezala planteatzen. Hala ere, interbentzio guztietarako gutxienezko eskakizun batzuk ezartzen ditu (bai lankidetzarako eta baita sentsibilizaziorako eta garapenerako hezkuntzarako ere). Interbentzio horiek desberdintasunik eragiten ez duten edo desberdintasun hori murrizten duten neurriak eransteko daude bideratuak, nahitaezko baldintza gisa planteatzen direlarik. Ekintza jarraituetan mailakako aurrerapausoen beharra ere azpimarratzen du, genero-ikuspegiaren proiektuaren jarraipenerako baldintza bezala integratzeko. Eta, azkenik, emakumeen ahaldundera-helburuei eta emakumezkoen eta gizo-

³¹ Era horretan ikus zitekeen, 2011 eta 2012 urteei dagozkien udaleko diru-laguntzen deialdietan, hainbat berrikuntza gehitzen zirela Sentsibilizazioaren eta Garapenerako Hezkuntzaren barruan, adibidez, genero-ikuspegiari eskainitako atalean emandako 15 puntutatik gutxienez 8 eskuratzeko eskakizuna, diru-laguntza jasotzeko aukera izateko.

nezkoen arteko berdintasun-helburuei erantzungo dieten ekintzei lehen-tasuna ematea planteatzen du. Baremazio-irizpideetan adierazten denez, hainbat ataletan zero puntu lortzeak proiektuaren ezabapena dakar. Gainera, honako hauek ezinbesteko baldintzat hartzen dira: genero-eraginararen analisia identifikazioan eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileen aurreikuspena, emakumeen partaidetzarako mekanismoak eta etapa guztietan metodologia egokiak izatea proiektuan partaidetza indartzeko, emakumeek proiektuak sorturiko lanpostuetara sarbidea izatea, emakumeen baldintzak hobetuko dituzten eta beren behar praktikoei erantzungo dieten ekintzak bultzatzea (kontziliaziorako zerbitzuen eraketa eta abar).

Azken urteotan, erakunde batzuen plangintza-dokumentuak lankidetzera-gileen gaitasuna indartzera bideraturiko hainbat hausnarketa eta arau hasi dira planteatzen, genero-ikuspegiaren zeharkakotasunari buruzko planetan ezarritako aurreikuspenak burutu ahal izateko³². Auzi hori garrantzi handi-gokoa bada ere (izan ere, defendaturiko marko teorikoa planteaturiko erakunde-markotik burutua izatea eragin dezake orokorrean) hausnarketa hau generoaren auzian gauzatu da berehala. Horrela, bai Eusko Jaurlaritzak 2008-2011ko Plan Zuzentzailean, bai aldundien baterako Plan Zuzentzailean (2009-2011), GGKEen gaitasunak indartzera bideraturiko hainbat proposamen planteatzen dituzte, genero-ikuspegiaren zeharkakotasunari dagokionez. Horretarako, diagnostikoak egiteko Laguntza Dekretua eta genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketarako ekintza-planak (Eusko Jaurlaritza) bezalako tresna espezifikoak jasotzen dira, edo genero-aholkularitza kontratatze-ko deialdiak, bai proiektuen plangintzarako eta adierazpenerako, bai tokiko GGKEtako genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketarako³³. Bilboko Udalak 2006-2009ko Planean harturiko ikuspegia ezberdin samarra da, gehienbat beste sektore batzuk eranstearen eta jada badauden baliabi-deak aprobetxatzearen alde agertuz. Mugimendu feministak eta emakumeen erakundeek dituzten gaitasunak integartzeko beharra planteatzen da beraz, eta baita Udaleko Emakume Sailean³⁴ bertan daudenak ere, nahiz eta

³² Horrek bat egiten du, gainera, GGKEek genero-ikuspegia gehitzearen ondorioz sortutako erronkei aurre egiteko duten gaitasuna aztertzen duten hainbat lan eta azterlanekin. (Volio, 2004; Murguialday, 2008; Euskadi-Kalidatea GGKEaren Koordinakundea, 2008).

³³ Aldundien lankidetzak-aurrekontuaren % 6 izan daitezke biak.

³⁴ Planak aitortzen du, hasteko, bere ezaugarriek bere beste eragile batzuen partaidetza handitzera behartzen dutela eta, horretarako, honako hau azpimarratzen du: *“Lehenik eta bein, Emakume Sailean bera eta Garapenerako lankidetzak: kalitatea eta espezializazioa sustatzeko paper aktibo bat bultzatzeko ebaluazio, prestakuntza, sistematizazio edo zuzeneko bitzarmen kopurua igo beharko du; bestalde, emakumeen elkarteek eta erakunde feministek leku bat izan behar dute estrategia bateratuaren barruan, generoak eta emakumeen abalduntzeak Planean duen pisua kontuan hartuta”*.

bigarren Planak (2010-2013) aipaturiko integrazioarako topaturiko zailtasunak aitortzen dituen, bereziki talde feministei dagokienez.

Bestalde, hainbat erakundek aintzat hartu dute talde feministekin edo emakume-taldeekin itunak indartzera bideraturiko proposamenak planteatzearen interesa ere. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, 2008-2011 Plan Zuzentzailean planteatzen zen gai hau eta hainbat hitzarmen espezifiko sinatuz zehaztu zen³⁵. Ildo beretik (Bilboko Udalarekin koordinazioan) heziketa-guneen eta emakumeen ahalduntzeari buruzko hausnarketa-guneen sorkuntza eta GGKEen zein EAEko nahiz kontraparteko herrialdeetako mugimendu feministako pertsonen parte-hartzearen garapena planteatu zen.

Politiken koherentzia

Zehar-lerroen eta beren trataeraren auzia alde batera utziz, garapenerako politiken koherentzia bezala ezaguna denari dagokiona da atal honetan jaso nahi dugun bigarren gai bat. Zentzu horretan, lankidetzeta-politika baten diseinua baloratzeko orduan, bere printzipio eta helburu orokorrei dagokienez, beharrezkoa da definitzeaz gain, printzipio eta helburu horien eta administrazioaren beraren beste politiken artean egon daitezkeen kontraesanak kontuan hartzea, landu nahi den garapen-prozesuetan eragina izan baitezakete. Horri dagokionez, beharrezkoa da gogoraraztea, garapen-politiken sendotasuna eta beren diseinuaren egokitasuna aztertzerako garaian, gero eta garrantzitsuagoa dela administrazioaren beraren beste esparru batzuek beste gai batzuen inguruko ekintzak ez bultzatzea, lankidetzarako diseinaturiko helburuekin kontraesanean egon litezkeelako.

EAEko administrazioen kasuan, kezka hori gehienetan ez da agertzen aztertutako diren hainbat politika-dokumentutan. Bestalde, hori nahiko ohikoa da estatuz azpiko erakundeetan. Hala ere, badaude hainbat salbuespen. Hala, Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011ko Plan Zuzentzaileak espresuki jasotzen du politiken koherentziaren beharra, lankidetzeta gainontzeko politika publikoen parte ez dela eta batzuetan kontrakoak direla aitortuz, testuan gehiago zehazten ez den arren. Beste dokumentu batean, Gasteizko Udalaren Plan Zuzentzailean (2010-2013), gai hori enfasi gehiagoz planteatzen da. Bertan, atal bat eskaintzen zaio politiken koherentziari eta kontuan hartu beharra dagoela azpimarratzen da, baita udalerrri mailan ere, immigrazioa, udalaren eresketa publikoen politika edo hezkuntza eta sentsibilizazio-programak bezalako gaiak aipatuz.

³⁵ Emakumeen Mundu Martxarekin izenpetutakoak aipa daitezke horien artean (Brasilgo bere SOF Nazioarteko Idazkariaren bidez), La Cuerda de Guatemala elkarte eta Ekuadorreko FEDAEPS.

Beste testu batzuk, adibidez 2007ko Lankidetzaren Euskal Legeak edo 2008ko ekainean argitaraturiko Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziaren Sorkuntza Legeak, modu murriztaileagoan planteatzen dute politiken koherentziaren gaia, Eusko Jaurlaritzako departamentu ezberdinetako garapenerako lankidetzak-ekintzen arteko edo beste administrazio publikoan arteko koherentzia gisa ulertuz. Hala, lankidetzaren esparruan egindako interbentzioei murrizturiko interpretazio bat da eta analitiko kanpo uzten du aipaturiko ekintzei oztopo egin diezaieketen edo haiekin kontrastatuz egon daitezkeen beste politika batzuk kontuan hartzea. Dena dela, legeak ez ditu koherentzia hori ziurtatzeko edo behintzat hobetzeko mekanismo espezifikoak kontuan hartzen³⁶.

Gai honi buruz aritzean, nahiko ohikoa da estatuko gobernuei politiken koherentziaren inguruko erantzukizun nagusia egotea eta beraz, alderdi horiek kontuan hartzeko eskakizuna lankidetzak-politikak diseinatze-ko orduan. Izan ere, aipaturiko estatuko gobernuei dagokie salerosketen, inbertsioen, zorren, ingurumenari buruzko negoziazioen eta beste gai batzuen inguruko erantzukizuna. Gai horiek zuzeneko eragina dute garapen-prozesuetan eta horien aurrean askotan lankidetzak-politiketan defendatzen diren printzipio eta helburuen aurkakoak diren erabakiak hartzen dira. Hala ere, beste gai batzuetan, adibidez, garapenerako hezkuntza, kontsumo arduratsua eta beste zenbaitetan, autonomia- eta toki-administrazioek erantzukizun zehatzak dituzte kasu batzuetan eta jarduteko aukera handia beste batzuetan. Horregatik, egokia da beren politikak aztertzea.

Gure analisisan Garapenerako Hezkuntzaren auzian jarri dugu bereziki arreta eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzak-politika bideratzen duten hainbat dokumenturen inguruan duen ikuspegia. Hori, gainontzeko Autonomia Erkidegoetan bezala, hezkuntza-arloko kompetentziak autonomia-erkidegoko gobernari transferituak egotearen ondorio da, eta horregatik, gai honetan ezin da erantzukizuna saihestu. Izan ere, lankidetzarako garapena arautzen zuten lehen dekretuak egiten hasi zirenean, hezkuntza-gaiak jada Eusko Jaurlaritzaren eskumena ziren. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren 2005eko eta 2008ko Lankidetzarako Plan Zuzentzaileak ez dute horren inguruko inolako aurreikuspenik planteatzen, maila apalagoko aurreko dokumentuetan

³⁶ Legearen aurreko kontsultetan zehar, GGKEen Koordinakundeak Eusko Jaurlaritzaren baitan egiten diren politiken koordinazioa eta koherentzia zaintzeko helburua zuen Sail-arteko Batzorde bat sortzea planteatu zuen, zeinak ez zuen aurrera egin (Euskadiko GGKEen Koordinakundea http://www.congde.org/uploads/289_1.pdf)

gai horren inguruko hainbat aipamen egin baziren ere. 2002ko dekretuaren kasuan, hezkuntza arautuaren esparruko lana helburu gisa hartzea eta inplikaturiko eragile ezberdinen (Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusia, Hezkuntza Saila, ikastetxeak eta GGKEak) ahaleginak koordinatzeko beharra planteatu ziren, eta Hezkuntza Sailak berak sentsibilizazio programak martxan jartzeko aukera zabaltzen zen.

Eusko Jaurlaritzaren plangintza-dokumentuetan gai horren inguruko hausnarketarik ez egotea, urte askotan zehar gaiaren inguruan egon diren analisi eta debateekin, zein Hezkuntza Sailaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzaren artean egondako hainbat aurretiko lankidetzeta-esperientziekin alderatzen da. Hausnarketei dagokienez, aurretik hainbat esparrutan³⁷ burututako beste batzuez gain, beharrezkoa da azpimarratzea, 2003 eta 2004 urteetan zehar, Eusko Jaurlaritzako Lankidetzarako Zuzendaritzak berak Eragiten prozesua bultzatu zuela, Garapenerako Hezkuntzarako Partaidetza Plan Estrategiko (PEP) prozesua. Bere azken txostenean bi departamentuen arteko koordinazioari buruzko arazoari egindako erreferentzia ugari agertzen dira³⁸. Eta izandako esperientziei dagokienez, 90. hamarkadaren bukaeran eta 2000. hamarkadaren hasieran garatu zen Mundilab proiektua aipa daiteke³⁹. Hala ere, eta aurrekari horiek hain gertu izan arren, Lankidetzarako Plan Zuzentzaileek ez dute Hezkuntza Sailarekin elkarlanean aritzeko ildo espezifikorik aurreikusi, eta ez dute aipaturiko hausnarketen eta izandako esperientzien berri eman ere, ez onerako eta ez txarrerako. Halaber, beharrezkoa da gogoratzea aipaturiko planen elaborazio eta iraunaldia bat datorrela Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaiari buruzko debateen goraldiarekin. Horrek mesede egin liezaioke planetan gai horretan arreta gehiago jartzeari.

³⁷ Horri dagokionez, *La Educación al Desarrollo* jasotako gogoetak ikus daitezke, Eusko Jaurlaritzako Lankidetzeta Zuzendaritzak berak argitaratutako testua (Argibay, Celorio eta Del Río 2005), edo 90eko hamarkadan Garapenerako Hezkuntzari buruz egindako Batzarretan planteaturikoak, horiek guztiak lehen Plan Zuzentzailea egin aurreko erreferentziak direlarik.

³⁸ Txosten horretan zera aipatzen da Hezkuntza Sailari buruz: *“Gobernuaren bandera-ontzia da eta izugarritzko eragina du gizartean”*, eta, era berean, hau planteatzen da: *“Zaila da hezkuntzaren alorrean jarraitzea Hezkuntza Sailaren laguntzarik gabe”*. Estrategia bat ere iradokitzen da, non bere puntuetako bat bezala aurreikusten den Lankidetzeta Zuzendaritzaren eta Hezkuntza Sailaren arteko elkarguneak eta elkarlana sustatzea. Estrategia horren baitan hainbat proposamen zehazten dira, eta proposamen horiek bideratzearen inguruan egon daitezkeen hainbat adierazle ere planteatzen dira (Lankidetzeta eta Garapen Ekimenak, 2004).

³⁹ Mundilab honela definitu zen: *“Berrikuntza pedagogiko, prestakuntza eta hezkuntza-ikerketarako proiektua da, Ikastetxeetan Garapenerako Hezkuntza eta zebarkakotasuna sustatzeko”*. (<http://www.hegoa.ehu.es/articles/text/mundilab>). Bertan, EAEko 17 ikastetxek parte hartu zuten eta Hezkuntza Sailak Hegoa Institutuan zerbitzu-eginkizunetan zegoen pertsona bat izendatu zuen proiektuaren arduradun gisa koordinazioaz arduratu zedin.

Zalantzarik gabe, politiken koherentziari dagokionez garrantzitsuena den auzi horretaz haraindi, hainbat plangintza-dokumentuk, Bilboko eta Gasteizko Udaletakoek bezala, politiken koherentziarekin loturiko beste gai batzuen berri ematen dute, adibidez, salerosketen politikan bidezko merkataritzari dagozkionak edo kontsumo arduratsuari dagozkion auziak. Bestalde, gai horiek erakunde batzuen eta besteen Garapenerako Sentsibilizazio eta Hezkuntzaren ildoen barruan kontuan harturiko ekintzen parte izan dira.

Laguntza humanitarioaren eta larrialdikoaren inguruko gogoeta

Gaia nazioarteko GLOan hartuz joan den garrantziaren ildotik, hondamendi humanitarioekiko eta larrialdietarako laguntzarekiko arretak nolabaiteko ikusgaitasuna lortu zuen euskal erakundeek abian jarritako lankidetzarako garapenaren une nahiko goiztiarretatik. Era horretako interbentzioen ezaugarri bereziak direla eta, politika-dokumentuetan horiekiko jokabidea poliki-poliki aldatu da. Horrela, Eusko Jaurlaritzak gai hori 1993ko dekretuan aipatu zuen lehenengo aldiz, Programa Integralen kapituluaren barruan sartuz eta, gainera, xedapen gehigarri bat gehituz. Bertan, naturahondamendiei eskainiriko arreta funts guztien % 5 hartzera iritsi zitekeela planteatzen zen. 1996ko dekretuak lehenengo aldiz azpimarratu zuen larrialdia birgaitzeari lotzeko komenigarritasuna, esku-hartze humanitarioak lankidetzak-ekintzetatik at ez planteatzeko beharra eskatuz. 1998an dekretuak arreta handiagoa jarri zuen larrialdien gaian eta 2000an jada finantziazio-lerro espezifiko bat planteatu zen (ekintza humanitarioko proiektuak) behin-behineko lankidetzak-proiektuei, programa integralei eta garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntzari gehitu zitzaiena.

Aldundiei dagokienez, Arabakoak lehen dekretuan jada (1998) lankidetzak-proiektuetarako diru-laguntzak “balizko laguntza humanitarioei edo larrialdikoei aurre egiteko helburuarekin zuzeneko arreta edozein zela ere iragarriko zirela” planteatu zuen. Dirudienez, horrek erakusten zuen interbentzioa, esparru horretan, Aldundiari berari zegokiola, 1999an azken gai hau aldatu bazen ere. Ondoren, 2000 eta 2007 artean, Arabako Aldundiak laguntza humanitarioari eta larrialdikoari buruzko deialdi espezifikoak eta bereiziak egin zituen, 2008an dekretu bakar batean biltzeko berriro ere gainontzekoekin (lankidetzak eta sentsibilizazioa). Bere aldetik, bai Bizkaiko Aldundia bai Gipuzkoakoa, 2004an hasi ziren gaia aipatzen eta hasieratik planteatu zuten dekretuen barruko kapitulu espezifiko gisa .

Udalei dagokienez, Gasteizkoak 1998an eman zuen laguntza humanitarioaren berri deialdi espezifiko baten bitartez. Bilbokoak aldiz, 2001ean

aipatu zuen gaia, deialdi orokorraren barruan. Azkenik, Donostiako Udalak 1995eko deialdian azpimarratu zuen larrialdi-ekintzak espresuki bazterten zirela, horretarako funts espezifiko bat zegoelako. Hala ere, hurrengo urtean jada (1996) interbentzio horiek lankidetzaren marko orokorrean sartu ziren, funtsen % 80 esleitu ondoren, geratzen zen % 20 hasieran larrialdi-proiektuetarako gordeko zela azpimarratuz.

Erakunde batzuek eta besteek egindako Plan Zuzentzaileek Ekintza Humanitarioari buruzko analisirako eta gogoetarako egoera berri bat planteatu zuten. Eusko Jaurlaritzaren lehen Plan Zuzentzaileak (2005-2008) nabarmendu zuen esparru horretako proiektuak ez zirela garapenerako lankidetzara bideratuagoa dagoen plangintza estrategikoaren parte. Hala ere, ekintza humanitarioa Lankidetzeta Zuzendaritzaren tresna bat izanik ere, arautze eta deialdi espezifikoa izango zuela planteatzen zen, ekintza humanitarioa gaitasunak indartzeko bitarteko bihurtzera bideraturiko filosofia orokor baten barruan.

Bere aldetik, bigarren Plan Zuzentzaileak jada (2008-2011) ekintza humanitariorako erreferentziazko marko teoriko baten garrantzia planteatu zuen, printzipio orokorrak ezarriz (gizatasuna, inpartzialtasuna, independentzia, unibertsaltasuna, neutraltasuna, onarpena eta lekukotasuna) eta baita helburu orokorrak ere, ekintza humanitarioa garapen-ekintzekin lotzeko beharra azpimarratuz. Gainera, horrek guztiak trataera espezifikoa izango luke, aipaturiko marko teorikoa definitzera, tresnen marko koherente bat ezartzera eta Ekintza Humanitarioa⁴⁰ aurrekontuen bitartez finkatzera bideraturiko arau baten barruan. Gainera, gai horri buruzko hausnarketak planaren zehar-lerroei erreferentzia egiten zien, honako hauek kontuan hartu behar zituela azpimarratuz: ekintza humanitarioak tokiko gaitasunak indartzea eta konektibitate-irizpideari jarraitzen dion ahulgunea gutxitzea, biztanleriaren partaidetza eta errealitate soziokulturalaren egokitzapena, bakearen babesa, testigantza eta eraikuntza, genero-berdintasuna eta ingurumen-jasangarritasuna.

Aldundien Plan Zuzentzaileak (2009-2011) Laguntza Humanitarioa eta Larrialdikoa bere helburu espezifikoetako bat bezala hartu zuen, eta, aldi berean, diseinaturiko lankidetzeta-politikaren lau tresnetako bat bezala. Horre-

⁴⁰ Bestalde, 2008an ere, Eusko Jaurlaritzak laguntza humanitarioari buruzko dekretu bat argitaratu zuen gai hau arautzera espezifikoki bideratua zegoena, *“egiturazkoa eta eraldatzailea den lankidetzarekin bat datorren ekintza humanitarioko politika bat formulatzeko eta gauzatzeko”* balioko zuen tresna baten diseinuaren bitartez (EJren otsailaren 19ko 31/2008 dekretua).

tarako, Planak aurrekontuaren gutxieneko % 3 gordetzen zuen laguntza mota horretarako, GGKEk eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuek bultzaturik. Udalei dagokienez, auzia erabat ezberdina da batzuen eta besteen Plan Zuzentzaileetan. Bilboko Udalak egin zuen Laguntza Humanitarioaren eta Larrialdikoaren aldeko apusturik garbiena, bere lehen Plan Zuzentzailean (2006-2009) esparru honetako ekintzetarako irizpide batzuk finkatzera bideraturiko lege espezifiko bat ezarriz (V.a). Bertan planteatzen zen hausnarketak lehentasuna ematen zion irizpide horien eta garapenerako lankidetzaren interbentzioen artean nolabaiteko koherentzia mantentzeko beharrari, ikusirik elkarrekotasun-gabezia saihestuz eta estrategia eraginkorragoa bihurtuz⁴¹. Halaber, esparru horretarako urteko funtsen % 10eko aurrekontu-aurreikuspena planteatzen zen. Bilboko bigarren Plan Zuzentzaileak (2010-2013) bi gai berri atera zituen mahaira. Lehenengoak bi hauen arteko bereizketa ezarri zuen: Laguntza Humanitaria (honako hauek barne hartuz: laguntza-ekintzak, sorospena, babesa eta berreraikuntza, giza eskubideen defentsa, testigantza eta salaketa hondamendi kasuetan, biktimen ahulgunea murriztuz) eta Larrialdietako Laguntza (natura-hondamendietan, gatazka armatuetan edo bestelako egoeretan, arreta biktimen biziraupenerako berehalako eta premiazko lankidetzan jarritz). Esleituriko baliabideen eraginari buruzko hausnarketa sakonago bat eta esparru honetan Bilboko Udalaren papera eta konparaziozko abantailak aztertzeke beharra izan zen sustaturiko bigarren gaia.

Azken gogoeta horrek (udal batek Laguntza Humanitarioan eta Larrialdikoan joka dezakeen rol espezifikoarenak) aparteko isla dauka gai hauen aurrean beste udaletako Plan Zuzentzaileek harturiko jarreretan. Donostiakoak (2008-2011) azpimarratu zuen esparru horretako ekintzak larrialdiaren ostean zuela zentzua batez ere eta, behin-behineko egoeretan izan ezik, horretarako laguntzak urteroko deialdietan egindako eta aurkeztutako proiektuei bakarririk emango zitzaizkiela. Bere aldetik, Gasteizko Plan Zuzentzaileak (2010-2013) ekintza humanitariorako tresna iraunkorrak sortzeari uko egiten dio espresuki, nahiz eta noizbehinka esparru horretako interbentzioei lagundu ahal izango dieten, haien inguruan udal-adostasuna dagoenean. Halaber, Planak azpimarratzen du larrialdietako laguntzaren eta giza eskubideen babesaren kasuan, udalaren inplikazioa laguntza ekonomikora eta informaziora eta sentsibilizaziora mugatuko dela. Arlo horretan Gasteizko Udalak planteatzen duen mugaketa ez da, inolaz ere, gai berri bat, aspalditik datorren hausnarketa baizik. Izan ere, jada 1998ko lankidetzak-deialdian honako

⁴¹ 2008an Bilboko Udalak araudi espezifiko bat onartu zuen larrialdietako laguntzari eta ekintza humanitariari dagozkion diru-laguntzak erregulatzeko, zeinak gaur egun indarrean jarraitzen baitu.

hau azpimarratu zen: “tokiko erakundeek lankidetzara bideraturiko zenbatekoak ez dira nahikoa larrialdietako laguntza-gaientzat”. Hala ere, egokitzat hartzen zen lankidetzan lanean ari ziren edo lanean ibiliak ziren guneeetan edo herrietan laguntza humanitariorako edo larrialdikorako ekintzak babes-tea. Kezka horien arabera eta hainbat urtetan zehar garatutako esperien-tziaren ostean⁴², Udalak, beste erakunde batzuekin batera, Larrialdietarako Arabar Funtsa sustatu zuen, 2005ean sortu zena eta arlo honetan erantzun eraginkorrago bat planteatzera bideratu zena⁴³.

Euskal udalek Laguntza Humanitarioan eta Larrialdikoan gara dezaketen paperari buruzko gogoetak, lankidetzeta deszentralizatu osoan eragina duen hausnarketa orokorrago baten ildotik doaz. Lankidetzeta deszentralizatuak esparru honetan AAEEk bezalako erakundeek (eta bereziki udalerriek) egi-ten duten interbentzioaren zalantzazko eraginkortasunari aurre egiten dio. Eusko Jaurlaritzara bera gai horren jakinaren gainean dago, bigarren Plan Zu-zentzailean (2008-2011) “gobernu autonomiko batek larrialdiko operazioe-tarako baliabide logistikoaren erabilgarritasun mugatua duela” azpimarratzen duenean. Baina, aldi berean, erakundeak lurralde-eremu txikienetan hain zuzen ere (AAEEak edo Udalerrak adibidez) biztanleriarengandik gertuago daude eta haietan biztanleria sentiberagoa izaten da larrialdietatik erato-rritako arazoei garapenerako lankidetzatik planteaturiko gai askori baino.

Hala ere, kontraesan horri aurka egiteko eta hori gainditzeko gai diren tres-nak emateko beharra ia ez da EAEko erakundeen politika-dokumentuetan aipatzen. Zentzu horretan, bereziki deigarria da azalpen aurreratuagoen gabezia estrategia bateratuaren definizioan, koordinaziorako tresnen sorkuntzan edo hainbat erakundek edo biztanleriak berak, bere ekarpenekin, parte har dezaketen itun publiko-pribatuaren eraketan. Aipaturiko Arabako kasua salbuesten bada, ez dago era horretako erreferentziarik EAEko gainontzeko erakundeetako plangintza-dokumentuetan.

Gogoeta orokorrak

Atal honen ondorio orokor gisa, azpimarra dezakegu EAEko erakundeak (neurri ezberdinean eta aldi ezberdinetan) beren lankidetzeta-politikari

⁴² 1998 eta 2004 artean Udalak hainbat deialdi espezifiko argitaratu zituen “*ekintza humanitarioetarako, larrialdikoetarako eta GG.EEen babeserako*”.

⁴³ Larrialdietarako Arabar Funtsa Gasteizko Udalaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vital Kutxaren baterako tresna bat da GBHetako larrialdi handiko ekintzei babes ekonomikoa emateko. Urtero 4 edo 5 larrialdi-egoerei aurre egiteko aukera ematen du, erakundeek aurreratzen dituzten eta bizkortasun handiz ordaintzen dituzten funtsei esker. Bertan zehazten da Arabako erakundeek lehendik lankidetzeta-harremana izan duten herrialdeekin loturiko interbentzioei emango zaiela lehenetsuna.

erantsiz joan direla pixkanaka zeharkako helburuak, Laguntza Humanitarioari lotutako gaiak eta, neurri txikiago batean, politiken koherentzia ere.

Zeharkako gaiak edo helburuak gehitzeari dagokionez, esan daiteke modu natural samarrean gertatu dela dokumentu ezberdinetan. Gainera, kasu batzuetan, EAEko erakundeak aitzindariak izan dira gai hauek interbentzioen finantziarioetarako baldintza bezala planteatuz. Ondorioz, gai horien inguruko baremoen barne-hartze goiztiarra gertatu zen, zeinen bitartez bultzatu beharreko ekintzei lehentasuna eman nahi zitzaizen, GGKEk deialdien bitartez proposaturikoei behintzat. Zentzu horretan, esan daiteke zeharkakotasuna helburu bezala finkatzearen aldeko apustuan aurrekaria izan zela, kasu batzuetan proiektuen formulazioan gai jakin batzuk agertzea eta proiektuen baremo-bitartezko adierazpena. Azken hori Plan Zuzentzaileak egitean finkatu zen oro har. Ikuspegi horren arabera, esan daiteke lankidetzak politiken diseinua nahiko egokia izan dela.

Hala ere, zeharkako helburuak politika-tresnetara lekualdatzeko prozesua nahiko desberdina izan da, eta, helburu horiek definitzeko erabili den zabaltasunarekin berarekin bereziki zerikusia duten hainbat arazorekin egin du topo batzuetan. Ahalegin nagusia baremoen esparruan burutu da, nahiz eta gai batzuei eta besteei emandako puntuazioen oinarritzea gehienbat urria izan den edo, behintzat, ez oso esplizitua. Genero-ikuspegiaren zeharkakotasunari dagokiona kasu berezia da, eta tratamendu zabal bat eta ahalegin handiak jaso ditu erakunde batzuen eta besteen eskutik, arau moduko plangintza-dokumentuetan zein baremoen auzian islatu den gauza. Halaber, gai horren barruan, beharrezkoa da azpimarratzea duela gutxi erakunde batzuek GGKEtan eta administrazioetan bertan aipaturiko zeharkakotasuna aurrera eramateko dauden gaitasunekin zerikusia duen kezka aditzera eman dutela.

Helburuekin eta egindako lankidetzak-politikekin kontraesanean egon litezkeen garapenaren arloko interbentzioen tratamenduari dagokionez, zeina politiken koherentzia bezala ezagutzen baita, nahiko urria izan da oro har, horren beharrei hainbat dokumentutan egindako apelazioez haraindi. Zentzu horretan, udal batzuk bakarrik iritsi dira, politiken koherentziari dagokionez, jarduera-helburu eta esparru zehatzak planteatzera. Bestalde, eta jada azpimarratu bezala, bereziki deigarria da Eusko Jaurlaritzaren plan zuzentzaileetan erakunde horren erantzukizunei buruzko analisirik ez egotea hezkuntzaren arloan, analisi hori askotan garapenerako sentsibilizaziorako eta hezkuntzarako lan-eremu gisa aipatzen den arren.

Azkenik, Laguntza Humanitarioari eta Larrialdikoari dagokionez, beharrezkoa da azpimarratzea gai horrek ez duela esparru horretako lankidetzaz deszentralizatuaren paperarekin eta aukerekin loturiko hausnarketarik izan, hitzerdika aipatu den arren dokumentu batzuetan dauden mugen kontzientzia argia. Zentzu horretan, deigarria da horrelako egoeren aurrean, euskal gizartearen erantzuna bideratzeko gai diren erakundeen arteko koordinazioari, ahaleginen baturari edo hedadura handiko tresnak sortzeko aukerari dagokion planteamendu eta proposamenik ez egotea (Arabako kasuan izan ezik). Aitzitik, epe laburreko ekintza humanitaria garapenerako interbenzioekin lotzeko kezka orokor bat hauteman daiteke, ekintza humanitaria jada lanean ari diren lekuetan murriztuz, birgaitzeari dagozkion alderdietan kontzentratuz edo beste mota bateko gogoeta batzuetatik abiatuz.

4.2. Hainbat gogoeta EAE-ko erakundeen lankidetzaz-politikaren egokitasunaz, garapenerako lankidetzazaren politiken eraginkortasunari eta kalitatearen eskakizun orokorreari dagokienez

Lehenago aipatutakoaren arabera, politiken diseinuarekin eta horien sendotasunarekin loturiko bigarren gai-multzoa ondorengoei dagokiena da: kalitate- eta eraginkortasun-irizpide deitzen direnei eskainitako arreta, ebaluaziorako aurreikusitako mekanismoak eta tresnak eta plangintza-dokumentuen sendotasuna, diseinaturiko politikak burutzeko aurrekontu-aurreikuspenei dagokienez. Ondorengo azpi-atalek gai horiez dihardute.

Kalitatea, eraginkortasuna eta Pariseko printzipioak

Adierazitako lehenengo gaiari dagokionez, EAEko hainbat erakunderen dokumentuetan lankidetzazaren eraginkortasuna (gero laguntzazaren kalitate deitutako zitzaion) handitzeko eskakizunei buruz planteaturiko erreferentziek etengabeko bilakaera jasan dute urteetan zehar, nazioarteko mailan planteaturiko gai horiei buruzko debateetan gertatutakoaren ildotik. Jakina den bezala, lankidetzazaren eraginkortasunari eta kalitateari dagozkion gaiak joan den hamarkadaren erdialdean hasi ziren zabaltzen, Erromako Adierazpenaren ostean (2003) eta batez ere Parisekoaren ostean (2005). Gero, Accraren ekintza-planak (2008) eta Busango Adierazpenak (2011) alderdi horiengana erakutsitako geroz eta arreta handiagoko joera markatu zuten.

Bost printzipio nagusiren ingurura bideratu zuen Pariseko Adierazpenak (oinarrizko erreferentzia-prozesu honetan guztian) laguntzazaren eraginkortasunari eta kalitateari buruzko debatea: Eskuratzzea, Lerrokatzea, Harmonizatzea, Emaitzetara Orientaturiko Kudeatzea eta Elkarrekiko Erantzukizuna

izatea. Orduz geroztik, printzipio hauek aintzat hartzea nahitaezko erreferentzia bihurtu da oso erakunde ezberdinetatik bultzaturiko garapenerako lankidetzak-politiken diseinuan eta ezarpenean. Aurreko lanen batean jada aipatu bezala (Unceta et al., 2011) bitariko lankidetzaren ikuspuntutik sortu ziren batez ere Pariseko printzipioak. Bitariko lankidetzaren protagonistak gobernu zentralak edo lankidetzarako estatu-agentziak dira, eta horrek aipaturikoetan planteaturiko hausnarketak mugatzen ditu, nolabait, lankidetzak deszentralizatuaz ari garenean. Hala ere, administrazio batzuek eta besteek printzipio horiek behin eta berriro aipatu izan dituzte, eta horrek ia saihestezina den erreferentzia bihurtu ditu azkenean. Marko orokor honen arabera, datozen lerroetan printzipio horiek EAEko erakundeen politika-dokumentuetan nola tratatu diren aztertzen da.

Deigarria den lehen gauza da euskal erakundeek (eta zehazki Eusko Jaurlaritzak) gai horietariko batzuk jada planteatzen zituztela Pariseko Adierazpena baino ia hamarkada bat lehenago. Hala bada, jada Eusko Jaurlaritzaren lehen dekretuan (1988koa) “*onuradunek interbentzioen garapenean eta gauzatzean zuten partaidetza*” aipatzen zen, eskuratze ideia-ildotik. Eta bigarren dekretuan (1989) zuzenean eskatzen zen proiektuak herrialde hartzailearen garapen-helburuekin bateragarriak izatea. Azken hau oso loturik dago aipaturiko adierazpenean planteaturiko lerrokatze-kontzeptuarekin.

Eskuratze kontzeptuaren ildotik, biztanleria onuradunaren edo herrialde hartzaileen partaidetzaren ideia mantendu egin zen plangintza-dokumentu gehienetan lehen urteetan zehar, burututako interbentzioen etorkizuneko bideragarritasun eta jasangarritasun handiago baten bermeari lotuz. Gainera, aipaturiko gaia politikaren helburu gisa planteatzen hasi zen 1996tik aurrera gainera gauzatze-faseetara eta ebaluazio-faseetara zabalduz, diseinu-fasean kontuan hartzeaz haraindi. Bestalde, 2005etik aurrera, proiektu bat ukatzeko arrazoitzat hartzen hasi zen pertsona edo talde-onuradunen berriazko aipamenik ez egitea. Aldundien eta udalen kasuan, hasieran ez zen gai hauen tratamendu espezifikorik antzeman lankidetzak oinarritu behar zen printzipioen definizioan, nahiz eta partaidetzari egindako genero-aipamenean bat aurki daitekeen proiektuen aukeraketan lehentasunak ezartzeko orduan, aurrerago azalduko dugun bezala.

Planteaturiko bigarren gaiari dagokionez, zeina proiektuek eta programek planekin eta garapenaren tokiko lehentasunekin duten loturari baitagokio, (*Lerrokatze-kontzeptuaren* ildotik) azken hori enfasi gehiagoz edo gutxiagoz mantenduko litzateke Eusko Jaurlaritzaren dokumentu ezberdinetan

laurogeita hamarreko hamarkada guztian zehar (1991n izan ezik), hau da, gai honek Pariseko Adierazpenaren bidez nolabaiteko ospea eskuratu aurretik. Badago horri dagokion adierazpen zorrotzen bat ere, adibidez, 1993, 1994 eta 1995eko dekretuetan agertzen dena besteak beste, proiektuek herrialde hartzailearen tokiko agintarien berariazko onespina jasotzea planteatzen duena. 1996tik aurrera eskakizun horiek baretu egin ziren. Alde batetik, tokiko agintarien onespeneraren aipamena desagertu zen, eta, bestetik, helburuen bateragarritasunaren ideia *bateragarritasun-ezarenak* ordezkatu zuen; eta horrek, neurri batean, lerrokatze-ideiaren askoz ere interpretazio lasaiago bateranzko bidea ireki zuen. 2000tik aurrera eta Eusko Jaurlaritzaren lehen Plan Zuzentzailea argitaratu arte, *lerrokatze*ko beharrari buruzko aipamenetariko asko desagertu ziren, nahiz eta proiektuak guztiak edo herrialde hartzaileetako garapen-helburuekin *bateraezinak* izan ez zitezkeen ideia mantendu zen.

Hasieran, foru-aldundien kasuan ere alderdi azpimarragarriren bat egon zen gai horren inguruan. Horrela, Bizkaiko Aldundiak bere lehen dekretuan (2001ekoa) interbentzioak herrialde hartzailearen garapen-helburuekin ados zitezkeen beharra planteatu zuen, aipamen hori ondorengo urteetan desagertu bazen ere. Eta udalei dagokienez, hainbat kezka goiztiar aurki daitezke (nahiz eta bakanak) zentzu horretan; adibidez, Donostiakoak 1995ean jada, proiektuak eremuko garapen-ereduekin lotzeko premiaz egiten dion aipamena, proiektuen onespenerako aintzat hartu beharreko elementu gisa.

Nolanahi ere, mota honetako kezken behin-behineko aipamenen agerpena eta desagertzea etengabea izan zen laurogeita hamarreko hamarkadan zehar Eusko Jaurlaritzaren dekretuetan eta, neurri txikiago batean, aztertutako gainontzeko erakundeetan. Gero, eta batez ere Pariseko 2005eko Adierazpenetik aurrera, bertan jasotako printzipioak EAEko erakundeek egindako ia-ia plangintza-dokumentu guztietan agertu dira⁴⁴. Bestalde, ideia hau gai honetako nazioarteko praktikaren ildotik doa. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, printzipio hauen aipamena bai 2005-2008ko Plan Zuzentzailean bai 2008-2011koan nabarmendu zen. foru-aldundiek ere Pariseko Adierazpenaren eta haren inguruan sortutako debateen berri eman zuten, 2009-2011 aldirako egin zen baterako Plan Zuzentzailean agerian geratu zelarik. Horretan,

⁴⁴ Adibidez, Eusko Jaurlaritzaren 2005eko dekretuak esaten zuen, gainera, uko egingo zitzaizela deialdi publikoetan hartzaileen partaidetzari erreferentzia argirik egiten ez zioten proiektuei. Era berean, dekretu hartan lerrokatzearen inguruan zegoen kezka zehaztu zen, proiektuen balorazioarako baremo gisa komunitate hartzaileen pobrezia-aren aurkako borrokarekin zuten harremana planteatuz.

Pariseko printzipioen markoa planteatzeaz gain, haien irakurketa kritiko baten beharra aipatzen da, batez ere oinarritzko erakundeen paperari dagokionez, bereziki emakumeenari eta haien baztertze posibleari dagokionez, funtsean gobernuak protagonista diren harreman batean. Baterako Plan Zuzentzaile honen aurretik, Arabako Foru Aldundiak aditzera eman zuen 2008ko Dekretuan (aipaturiko planaren aurreko azkena) CADak planteaturiko lurralde horretako lankidetzak-laguntzaren eraginkortasun printzipioek zuzentzeko beharra.

Udalei dagokienez, Pariseko printzipioak aintzakotzat hartzea agerikoa izaten hasi zen lehen plan estrategikoen gauzatzearekin, ordura arte egin dako araudiez haraindi. Kasurik esplizituena Gasteizko Udalarena da. Bertako Plan Zuzentzailean (2010-2013) printzipio horiek azaltzen dira tokiko errealitateari egokitzeko beharra planteatzearekin batera; izan ere, horiek, hasieran, beste ekintza-esparru batzuetarako eginda daude⁴⁵. Gainera, Plan Zuzentzaile horrek bideraturiko lankidetzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzera bideraturiko neurriak proposatzera eskainitako atal bat dakar. Neurri horiek oso alor ezberdinak hartzen dituzte, adibidez, deialdien berraztertzea, prestakuntza-ekintzak, ebaluazioa eta jarraipena eta beste batzuk. Bilbori dagokionez, bertako lehen Plan Zuzentzaileak (2006-2009) ez du horren inguruko ezer ere planteatzen. Aitzitik, bigarren (2010-2013) Pariseko Batzarrean eta Accrako Foroan (2008) jatorria duten gomendio eta printzipio guztiak kontuan hartzeko beharra azpimarratzen da, bere garapenerako lankidetzak-politika planifikatu, lehenetsi eta kudeatzeko garaian. Azkenik, Donostiako Tokiko Lankidetzak Planak (2008-2011) ez du ezer adierazten gai horren inguruan.

Ebaluazioari buruzko auziak

Dokumentu doktrinaletan politika bera eta horren babesean burututako ekintzak ebaluatzeko beharrari eskainitako arreta da lankidetzak-politiken diseinuaren kalitatea baloratzeko orduan kontuan hartu beharreko beste alderdi bat. Horrek, neurri handi batean, Pariseko printzipioen artean jasotako Emaitzei Bideraturiko Kudeaketa gaiarekin zerikusia du. Horri dagokionez, beharrezkoa da azpimarratzea (enfasi gehiagoz edo gutxiagoz edo definitzio maila handiagoz edo txikiagoz) hasieratik egon direla ebaluazioarekiko kezka, hasieran gai hori lanaren kontrolaren eta egindako gastuaren araberak planteatzeko nolabaiteko joera nabaritu bazen ere, lortutako emaitzen kalitatearekiko kezka baino gehiago. Interbentzioen benetako eragin edo

⁴⁵ Planak lerrotatze-printzipioaren tokiko egokitzapena izan litekeenaren definitzio bat ere planteatzen du.

ondorioekin loturiko kezka (laguntzaren kalitatearen gaien ildotik gehiago) pixkanaka ebaluazioaren orientazioari erantsiz joan ziren.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, ebaluazioarekin loturiko aurreikuspenak hasieratik hasi ziren plangintza-dokumentuetan agertzen, ebaluazio hori beti proiektuen inguruan planteatu bazen ere, eta ez politikaren beraren inguruan. Horretarako, 1991tik burututako interbentzioen kostuaren % 8ko balioko gastuaren aurreikuspena ezartzen hasi zen, ebaluazio-lanak finantzatzera bideraturik. Ondorengo urteetan, eta 1992. urtea salbuetsita (urte hartan ez zen gai horri buruzko inolako aipamenik agertu) ebaluaziorako funtsen aurreikuspena kontzeptu zabalago baten barruan planteatzen hasi zen, lankidetzaprogramaren beraren kudeaketa- eta funtzionamendu-gastuak ere gehitzen zituen, ebaluazioari eskainitako atal espezifikoak ezagutzeko aukerarik izan gabe⁴⁶. Bestalde, helburu horietarako aurreikusitako ehunekoa aldatuz joan zen denborarekin; 1996an hasi zen % 5 batekin eta 1997ko dekretutik lehen Plan Zuzentzailerara arte % 4 batekin, 2000 eta 2001 urteetan izan ezik, non ebaluazioaren beharrei eta helburu horietara bideraturiko zenbatekoei buruzko aipamenak desagertu baitziren. Dena dela, gai horren inguruko aurrekontuen aurreikuspenez haraindi, aipaturiko dokumentuetan ez dago ebaluazio-prozesuak burutzea ahalbidetuko luketen mekanismoei buruzko inolako aipamenik, ezta eragile ezberdinek ebaluazioetan jasotako informaziora sarbidea izateari buruzkorik ere.

Foru-aldundiei dagokienez, argitaratutako hainbat dekretu eta deialdietan planteatuz joan dira burututako interbentzioen jarraipenaren eta ebaluazioaren beharra, nahiz eta ez duten helburu horietara bideraturiko aurrekonturik edo zuzkidurarik planteatu. Eta udalei dagokienez, azpimarratu beharra dago, Plan Zuzentzaileak egin aurretik, dokumentu eta deialdi ezberdinen testuek ez zutela ia gai horri buruzko genero-aipamenik jaso, ebaluazio kopuru jakin bat burutu bazen ere, batez ere Gasteizko Udalan. Oro har, esan daiteke lehenengo urteetan zehar ez zela abian jarritako politiken orientazioarekin loturiko ebaluazio-kulturarik egon, zentzu hertsian. Bestalde, ebaluazioari buruz egindako aipamen guztiek egindako interbentzio ezberdinekin zerikusia zuten banan-banan lantzen ziren, eta azterketatik kanpo geratzen ziren politiken balorazioa bera eta lankidetzaren orientazio orokorra. Hala ere, beharrezkoa da azpimarratzea, ekarri zuen berritasunagatik eta egin zuen ekarpenagatik, Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean lankidetzaproiektuen jarraipenerako eta ebaluaziorako

⁴⁶ Kasuren batean (1993, 1994) administrazioak berak burututako sentsibilizazio-proiektuak finantzatzeko aukera ere aurreikusten zen agiri horretan.

sinaturiko hitzarmena. Bertan, Urteroko Plan bat egitea aurreikusten da (Rodríguez 2007), zein jarraipen edo ebaluazio-ekintza egingo den eta kasu bakoitzean erantzukizunak nork hartzen dituen zehazten duena.

Egoera hori erakunde batzuetan eta besteetan lehen Plan Zuzentzaileak argitaratu zirenean aldatzen hasi zen. 2005ean, Eusko Jaurlaritzak Plana bera ebaluatu ahal izateko adierazleak planteatzen zituen azken kapitulu bat prestatu zuen. Bestalde, adierazle hauetariko batzuek lekuan bertan egindako ekintzak, prozesuak edo herrialdeko estrategiak ebaluatzeko egindako lekualdatzeak jasotzen zituzten egiaztatze-iturri bezala. Hurrengo Planak ere (2008-2011) kapitulu bat eskaintzen zion ebaluazioaren gaiari, eta (politika aztertzeke adierazle multzo bat proposatzeaz gain) ebaluazio-irizpideei, bitarteko informeen aurkezpenari eta abarri dagozkien aurreikuspen batzuk ezartzen ziren. Hala ere, planaren beraren helburuen eta arauen ebaluazioaz haraindi, bi plan zuzentzaileen artean batek ere ez zuen ebaluazio espezifikorako urteroko planik aurreikusten, burutu beharreko ebaluazio-ekintzen programazio gisa ulertuz (plan zuzentzailea indarrean egongo zen urteetarako)⁴⁷. Horrek aditzera ematen du zuzenean edo ekitaldi bakoitzean eskatuta egindako ebaluazio-txostenek (proiektuak, sektoreak, herrialdeak...) ez diotela sargai espezifiko batzuk lortzera bideraturiko alde aurretik ezarritako plan bati erantzuten, horiekin politikaren beraren orientazioari buruzko analisiaren feedbacka egiteko.

Aldundiei dagokienez, Plan Zuzentzaile bateratuaren argitalpenak ere kapitulu bat eskaini zion horren jarraipenaren auziari diseinaturiko politikaren eragina baloratzeko bere benetako erabileran. Kasu honetan, hartutako politikaren ikuspegiak proiektu multzoaren baremazioari zuzenean lotzean zetzan proposamenaren originaltasuna. Hau da, Plan Zuzentzailean bertan garrantzi erabakigarria egotzen zaio proiektuen baremazio-irizpideak interpretatzeko moduari, egin behar dela adierazten denaren eta benetan egiten denaren arteko azken lotura bezala. Gainera, jarduera-ildoen barruan ikuskaturiko interbentzio ezberdinak azaltzera bideraturiko azalpen-atalean aipatzen zen horiei buruzko ebaluazio espezifikoak burutzeko beharra ere, ebaluazio-planik aurreikusten ez bazen ere.

Era berean, ebaluazioarekin loturiko gaiekiko arreta hedadura handiagoa izaten hasi zen udalerrri mailan Plan Zuzentzaileak egin eta argitaratu ahala.

⁴⁷ Tresna hau (AA.EE batzuetako plan zuzentzaile batzuetan agertzen dena) Plana indarrean egongo den aldi guztirako aurreikuspen batean zehaztu daiteke edo Urteroko Ebaluazio Planen osieran, zeinak Lankidetzarako Urteroko Planen barruan sartzen diren.

Horrela, Bilboko 2006koak kontuan hartzen zituen ebaluazioa ahalbidetuko luketen betetzeari buruzko adierazle batzuk, esparru ezberdinetan planifikaturikoarekin loturiko funtsetan gauzaturiko ehuneko banaketan kontzentratuak bazeuden ere (gaiak, lehentasuneko herrialdeak, eragileak edo tresnak). Era berean, ebaluazio-lanetarako aurrekontuen aurreikuspen baten beharra planteatzen zen, aurreikuspen hori sorta handiago baten barruan agertzen bazen ere, non prestakuntza-ekintzak eta bestelakoak ere aipatzen baitziren. Hurrengo Planak (2010-2013) aldaketa kualitatibo garrantzitsu bat ekarri zuen ebaluazioari dagokionez; izan ere, planaren alderdi guztiak barne hartzen zituen adierazle-koadro orokor bat jaso zuen eta, horrez gainera, konpromiso esplizitu batzuk planteatzen zituen. Hala nola, egin beharreko kanpo-ebaluazioei, idatzi beharreko txostenei eta helburuen betetze mailarekin ez ezik, politikaren egokitasunarekin eta koherentziarekin edo baita inplikaturiko eragileen gaitasunarekin ere loturiko ebaluazio-helburuei buruz⁴⁸.

Gasteizko Udalak ere, Lankidetzarako Plan Zuzentzailean (2010-2013) zabal jasotzen ditu ebaluazioari buruzko gaiak. Alde batetik, proiektu batzuen urteroko ebaluaziorako hainbat neurri planteatzen dira, bai bitartekoak bai expost (nahiz eta ebaluazio-plan bat zehaztu ez) eta era berean, ebaluazioa garapenerako hezkuntzarako tresna gisa integratzeko metodologia bat hartzea aurreikusten da. Bestalde, kapitulu bat garatzen da Plan Zuzentzailearen gauzatzea bera bere alderdi ezberdinetan ebaluatzeko adierazle ezberdinak jasotzen dituen. Azkenik, buruturiko ebaluazio horren inguruko konpromisoak planteatzen dira eta baita Lankidetz Kontseiluari aurkezten zaizkion urteroko txostenen ingurukoak ere. Bere aldetik, Donostiako Tokiko Lankidetz Plana (2008-2011) izan zen gai honetan gutxien aurreratu zuena; izan ere, udalak bultzaturiko lankidetz-ekintzen kalitatea eta eragina hobetzeko eta finkatzeko beharra planteatzeraz mugatu zen, lekuan bertan egindako proiektuen eta programen urteroko ebaluazioak eta jarraipenak proposatzu horretarako, interbentzioen eta erakundeen laginketa batean oinarrituta.

Aurrekontuko zuzkiduren aurreikuspena

Atal honen barruan kontuan izan beharreko azken auzia politikaren kalitatearen adierazle gisa dauden aurrekontu-aurreikuspenen ingurukoa da;

⁴⁸ Aurreikuspen hau da EAEko Plan Zuzentzaile batean adierazitako Ebaluazio Plan batetik gertuen dagoena. Bertan aurreikusten da, adibidez, urteanitzeko eta zuzeneko lankidetzako proiektu guztien ebaluazioa, bi urteko ebaluazio geografiko bat edo Garapenerako Hezkuntzaren gutxienez bi ekimenen ebaluazioa.

izan ere, ezinbesteko elementua da planifikazio egoki bat egin ahal izateko. Gai horri buruz esan daiteke lehen hamabost urteetan, lankidetzaren esparru honetan lan egiten duten EAEko erakunde guztiak urtero lankidetzara bideraturiko zenbatekoak ezarriz joan zirela, aurrekontu-egutegiaren beraren arabera. Bestalde, hori bat zetorren epe luzeragoko lankidetzaren planifikazio baten gabeziarekin. Urte anitzeko plangintzarekin eta erakunde batzuen eta besteen Plan Zuzentzaileen gauzatzearekin bakarrik, etorkizunerako aurrekontuak ezartzeko beharra planteatzen hasi zen plana indarrean egongo zen aldi guztirako.

Hala ere, euskal erakundeetako plangintza-dokumentuek aurrekontu-aurreikuspenak eranstean joateko izan duten modua oso desberdina izan da. Kasu batzuetan aurreikuspena ehunekotan ezartzen da erakundearen edo beste antzeko erreferentzia baten aurrekontu globalaren gainean. Beste batzuetan, termino absolutuetan adierazitako aurrekontu-zuzkidurak planteatzen dira. Eta, azkenik, badaude erakunde batzuk ezer planteatzen ez dutenak gai honen inguruan.

Eusko Jaurlaritzaren lehen Plan Zuzentzailean (2005-2008) finantza-konpromiso baten beharra aitortzen zen Plan hori abian jartzearen berme gisa, eta, horren ondorioz, aurrekontu-aurreikuspen bat ezartzeko beharra. Hala ere, eta konpromisorik finkatu ez bazuen ere horri dagokionez, pixkanaka aurrekontuaren % 0,7ra hurbildu beharra planteatu zen ondorengo urteetan lortzeko helburu desiragarri gisa. Hurrengo Plana (2008-2011) askoz ere esplizituagoa izan zen, progresiboki handitzen zen konpromiso bat planteatuz, %0,7a lortu arte 2012an, Lankidetzaren Euskal Legean ezarritakoaren ildotik. Gainera, generoa edo Afrika bezalako lehentasunezko eremu-gaierarako, aurreikusiriko finantziazioaren banaketari zegozkion aurreikuspenak ere zehazten ziren.

Aldundien kasuan, 2009-2011 aldirako elkarrekin egindako Plan Zuzentzaileak ez zuen inolako aurrekontu-aurreikuspenik ezarri indarrean egongo zen urteetarako. Eta udalei dagokienez, Gasteizko Plan Zuzentzaileak (2010-2013) tokiko aurrekontuaren %1 bideratzeko konpromisoa planteatzen zuen, aurrekontu horren diru-sarrera arrunten kopuruaren ehuneko gisa kalkulaturik (diru-sarreraren 1etik 5erako kapituluak) Plana indarrean egongo zen aldi osoan zehar. Hura izan zen EAEko erakunde guztien artean ehunekorik handiena. Donostiako Tokiko Lankidetzaren Planak (2008-2011) diru-sarrera arrunten %0,9ko aurrekontu-konpromisoa ezartzen du, plana indarrean egongo den urte bakoitzerako kalkulu espezifikoak aurkeztuz, 1,33 milioi eurotik 2008an, 2011n 1,35 milioitara hazten diren kopuruekin.

Bilbok, bere aldetik, bere plan zuzentzailetan (2006-2009 eta 2010-2013) tokiko aurrekontuan aurreikusiriko diru-sarrera arrunten %0,7 ezarri zuen garapenerako lankidetzara bideraturiko gutxieneko zenbateko gisa, plan horiek indarrean egongo ziren urteetan zehar.

3. koadroa: Plan Zuzentzailetan kontuan hartutako aurrekontuen aurreikuspenak								
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Eusko Jaurlaritza (Aurrekontua ehunekotan)	0,50	0,55		0,48	0,52	0,57	0,63	
Aldundiak					-	-	-	
Bilboko Udala (Gastu arrunta ehunekotan)		0,7	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7
Donostiako Udala (Diru-sarrera arrunta ehunekotan)				0,9	0,9	0,9	0,9	
Gasteizko Udala (Diru-sarrera arrunta ehunekotan)						1,0	1,0	1,0

Iturria: Egileen elaborazioa, Plan Zuzentzailetan oinarriturik egina.

Gogoeta orokorrak

Atal honen ondorio orokor gisa azpimarra daiteke euskal erakundeak pixkanaka joan direla laguntzaren kalitateari dagokionez nazioarteko eska-kizunei egokitzen, eta, aldi berean, kontzientzia handiagoa eskuratuz joan direla esparru honetan hasierako boluntarismoa gaintzen duten urratsak emateko beharrari buruz. Horrek, modu aldakorrean, Pariseko printzipioei loturiko gaien trataera, zein, modu orokorrago batean, jarraipenarekin eta ebaluzioarekin edo aurrekontu-aurreikuspenarekin loturiko hainbat sistema kontuan hartzea ekarri du.

Nabarmendu den bezala, deigarria da denborarekin kalitateari eta laguntzaren eraginkortasunari buruzko debateetan printzipioak izaten bukatuko zuten gai batzuei egindako erreferentzia oso goiztiarra, eta baita kontraparteen partaidetzari dagokiona edo beren politiken eta garapen-lehentasunen gogoetekin zerikusia dutenei dagokiona ere. Hala ere, aipamen horiek lausotuz joan ziren gero, eta, Pariseko printzipioak planteatu zirenean,

aipamen horiek modu apur bat mekanikoan erantsi ziren plangintza-dokumentuen testuan, urte batzuk lehenago adierazitako planteamenduekin eta erakundeekin inolako loturarik ezarri gabe Eusko Jaurlaritzaren kasuan. Hori dela eta, oro har azpimarra daiteke ez dela lortu printzipio hauek baliarazteko mekanismo eraginkorrik definitzea; erakunde-eskatzaileek adierazitakoaren gorabeheren menpe gelditu da gehienez beraz, horien adierazpena ekintzen balorazio-tresnetan edo irizpideetan. Bestalde, beharrezkoa da azpimarratzea, salbuespen batzuekin (batez ere Gasteizko Udalarena), ia ez dela hausnarketarik planteatu Pariseko printzipioak autonomia-erakundeen edo tokiko erakundeen lankidetzak-politikari egokitzearen zailtasunei eta beharri buruz.

Ebaluazioaren gaiari dagokionez, esparru honetan helburu zehatzak planteatzeko beharra aitortzen dute dokumentu gehienek, eta baita horri dagozkion tresnak zehazteko beharra ere. Hala ere, ebaluazioaren gaia plan zuzentzaileak egitean zehaztu ahal izan da apur bat gehiago, eta plan zuzentzaileen ebaluazioa ahalbidetzen duten adierazleak ekarri ditu emaitza gisa. Honek ekintza isolatuetatik politiken ebaluaziora berera pasatzeko ahalegin handia dakar. Hala ere (eta Bilboko salbuespena kontuan hartuz), aipaturiko plan zuzentzaileek ez dute indarrean egongo diren aldiak zehar burutu beharreko ebaluazioen programaziorik aurreikusi, interbentzioen jarraipenari eta politikari oro har loturiko kalitatearen hobekuntza-estrategia baten parte bezala.

Azkenik, esan daiteke aurrekontu-zuzkiduren definizioari emandako tratuera nahiko ezberdina izan dela, oro har Planak indarrean egongo diren hainbat urtetarako aurreikuspenak ezarri joan badira ere. Dena dela, aurreikuspen horien zehaztasun maila (kapitulu eta helburuen arteko banaketari dagokionez) ezberdina izan da, bere adierazpena bezalaxe termino absolutuetan (zenbatekoak) edo erlatiboetan (erakundearen aurrekontuaren gaineko edo bere zatien gaineko ehunekoei dagokienez).

4.3. Lege-esparruari buruzko auziei eta EAE-ko hainbat erakunderen politiken koordinazioari eta osagarritasunari dagozkien auzien tratuera

Politika publikoen diseinuaren kalitateari eta eskakizunei egokitzeari dagozkion beste auzi garrantzitsu bat da horri buruz dagoen lege-esparruaren eta lankidetzaren instituzionalizazioa eta EAEko hainbat administrazioaren arteko elkarlana aztertu den moduarekin zerikusia duena. Zentzu horretan,

jarraian aztertuko ditugun hainbat arazo planteatzen ditu euskal erakundeek lankidetzaren esparruan burututako plangintzak.

Lege-esparrua eta 2007ko Lankidetzeta Legea

Gure kasuan, oso interesgarria da aztertzea EAEko hainbat erakundetako garapenerako lankidetzeta diseinatzeko erabili den zuzenbide-oinarria eta lankidetzeta horien guztien jarduera baldintzatuko lukeen lege-esparru batez hornitzeko kezka edo kezkarik eza. Bereziki garrantzitsua da hori EAE bezalako lurralde bati buruz hitz egiten ari garela kontuan hartzen bada; izan ere, bere tamaina txikiak eta komunikaziorako erraztasunak erakundeen lankidetzarako pizgarri izan beharko lukete honelako gai batean.

Zentzu horretan, azpimarra daiteke Euskal Herriko hainbat erakundek mar-txan jarritako garapenerako lankidetzak ez zuela, hastapenetatik, gutxiene-ko loturarik izan bere aurkezpenean, eta horrek seguru asko eragina izan zuen lankidetzeta-antolamendu global batez hornitzeko kezka faltan. Administrazio batzuen eta besteen inplikazioa denboraren poderioz aldatuz joan diren erakunde-forma ezberdinak hartuz joan da. Seriotasunez inplikatzen lehen erakundea Eusko Jaurlaritzak izan zen, 1988an diru-laguntzen lehen dekretua argitaratu zuenean. Koordinazio edo bateratze ahalegin serioagoa, aldiz, 1990ean gertatu zen, FOCADaren sorkuntzarekin (Garapenerako Lankidetzeta Funtsa) organo instituzional gisa (“emanda-ko laguntzen eraginkortasun handiagoa ahalbidetuko duen funts komuna”) benetan gobernuaren eta aldundien kutxa bakar bat ordezkatu zuena lankidetzeta-interbentzioei aurre egiteko⁴⁹. Funts hori praktikan aldundiek politikaren diseinuari eta orientazioari buruzko eztabaidan parte hartzeari isilean egin zioten ukoan oinarritu zen, lankidetzaren auzia Eusko Jaurlaritzak helburu horretarako sorturiko organoaren esku utziz. Hala ere, lehen urteak igaro ondoren, foru-aldundiek atzera egin zuten eta euren programak izaten hasi ziren⁵⁰, denbora batean zehar hori FOCADari funtsak ematearekin bateragarria izan bazen ere. Udal nagusiei dagokienez (hiru hiriburuetakoak), azpimarratu behar da beren inplikazioa lankidetzan oso goiztiarra izan zela orobat. Jada azpimarratu den bezala, Gasteizek 1992an argitaratu zuen bere lankidetzeta-interbentzioetarako diru-laguntzen lehen deialdia, Bilbok 1994an eta Donostiak 1995ean, nahiz eta gai horretan udalen politikaren definizioak ia ez duen aipaturiko beste erakunde

⁴⁹ EAEz kanpoko irakurleentzat garrantzitsua da azpimarratzea Foru Aldundiek oso paper instituzional garrantzitsua jokatzeko dutela Euskal Herrian, beren eskuduntzen artean zergen bilketarekin zerikusia duen guztia barne hartuz.

⁵⁰ Araba 1998tik, Bizkaia 2001etik eta Gipuzkoa 2004tik.

batzuenarekin loturarik izan, unean uneko hitzarmen batzuk salbuesten badira, adibidez, jada aipaturiko Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artekoak.

Prozesu horrek elkarren artean loturarik ez zuten eta lurralde-aplikazio espezifikoko eremuetarako definituriko dekretu, deialdi eta tresnen ugaritasuna ekarri zuen berarekin. Eusko Jaurlaritzak 2005etik egindako Plan Zuzentzaileek berek ez dute mugatze zehatzik beren aplikazio-eremuan, eta gobernuarentzat berarentzat ildo edo bidaia orri bat bihurtu zuen azkenean. Lankidetzarako kopuru garrantzitsuak ematen dituzten beste erakunderengan ordea (aldundiak edo udalak) ez du eraginik, baina euren plan eta arauak dituzte. Eta, lehen Plan Zuzentzailean murrizketa hori inplizituki planteatzen bazen ere, bigarrena jada askoz ere zehatzagoa da bere aplikazio-eremua “Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko lankidetzaren esparruan martxan jarriko diren ekimenak, estrategiak eta prozesuak” direla azpimarratzean.

Eusko Legebiltzarrak 2007an aldarrikatutako Garapenerako Lankidetzak Legeak ez zuen egoera nahasi hori ordenatzeko balio izan, ezta jardueraren esparru osagarriak sortzeko ere. Aldiz, lege hori “Euskadiko Autonomia Erkidegoko garapenerako lankidetzaren eta nazioarteko solidaritatearen esparruko erakunde komunak jarduerak guztiei” aplikatuko litzaieke. Horrek, praktikan, Eusko Jaurlaritzari aplikatuko zitzaioela ekarri zuen, baina ez foru-aldundiei edo udalei. Hala ere, 2.artikuluaren bertan, legeak agintzen du “lege honen printzipioak, helburuak eta lehentasunak lurralde historikoe-tako eta tokiko administrazioetako foru-erakundeak jarduerak gobernatuko dutela lankidetzaren esparruan” ere eta hori aurrekoarekin kontraesanean dagoela dirudi. Legearen eskumenari buruzko nahaste edo zehaztasun ezak, praktikan aldundiek eta udalek gai horretan egindako lanean, beren politiken diseinuan edo administrazio ezberdinen jardueren koordinazioan ia eraginik ez izana ekarri du, batzuek eta besteek Legeak sorturiko Erakunde arteko Batzordean izandako parte-hartzeaz haraindi.

Gai honi dagokionez, interesgarria da aldundien eta udalen politika-dokumentuek abian dagoen lege-esparruari ematen dioten trataerari erreparatzea. Hiru foru-aldundien baterako Plan Zuzentzaileak (2009-2011) ez zuen batere aipatzen planak Euskal Herrian dagoen lege-esparrua kontuan hartzeko beharra eta, Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaileari dagokionez, ez zuen aipatu ere egiten. Aldundiek zegokien erantzukizuna beren gain hartzen zutela planteatzen zuena da lankidetzaren euskal Legeari buruz aurki daitekeen aipamen bakarra, legean aurreikusirik Lurralde Arteko Batzordearen funtzionamenduan.

Udalen kasuan, jarrera ezberdinak ikus daitezke gai honi buruz. Analitikoena agian Gasteizko Udalarena da. Bere Plan Zuzentzailean (2010-2013) atal bat eskaintzen zaio Plan horrek jarraitzen dion lege-esparruari eta esparru arauemaileari. Bertan, lankidetzarako euskal zein espainiar Legea aipatzen dira, eta baita Espainiako Lankidetzaren Plan Zuzentzaileak, Eusko Jaurlaritzarenak eta hiru foru-aldundienak ere. Euskal Legeari egiten zaizkion erreferentzietan gai honetan udalen jardueretan eragina izango duten edo horiek baldintzatuko dituzten jarraibide edo irizpide gabezia azpimarratzen dute. Badirudi horrek Legearen hitzez haraindi doan udal-jarduerarako aukera handia dagoela adierazten duela. Bilboko Udalak, bere Plan Zuzentzailean (2010-2013) garatzen duen lege-testuingurua aipatzen du, espainiar Legeari zein euskal Legeari erreferentzia eginez ⁵¹. Azken horri dagokionez, Planaren kezketatik hurbilentzat hartzen diren alderdiak nabarmentzen dira, adibidez, lankidetzeta deszentralizatuaren definizioa sozietate zibilaren zuzeneko inplikazio handiagoaren arabera eta udal-eremuarekiko gertutasun handiagoaren arabera, edo oinarrizko printzipio batzuen defentsa (solidaritatea, eskubideen errespetua, inposatzerik eza, diskriminaziorik eza eta eraginkortasuna), zeinak Bilboko tokiko lankidetzak bere gain hartzen baititu. Azkenik, Donostiako Udalarari dagokionez, adieraziko dugu Lankidetzarako Tokiko Planak (2008-2011) ez diola inolako erreferentziarik egiten ez lege-esparruari orokorrean, ezta euskal Legeari ere.

Hala ere, eta EAEko erakunde batzuen eta besteen lankidetzeta-politiken sorreran eta diseinuan oso eragin txikia izan badu ere, 2007an Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legearen aldarrikapena beste ondorio garrantzitsu batzuk izan zituen euskal lankidetzan eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzak abian jarritako politikan. Legebiltzarreko izapidean zehar, proiektuak kritika ugari izan zituen eta hainbat aldaketa jasan zituen⁵². Horren ondorioz, testu nahasgarri

⁵¹ Bilboko Udaleko lehen Plan Zuzentzailea egin zenean (2006-2009) aldarrikatu gabea zen oraindik Lankidetzaren Euskal Legea.

⁵² Alberdik (2010) dioenez oposizioako alderdi nagusiek gogor kritikatu zuten Lege-proiektua parlamentuan bideratu zenean, gehiengo zabal batez onartua izan bazen ere gero. Euskal Alderdi Popularrak osoko zuzenketa bat aurkeztu zuen, testua kritikatu ez zuelako inolako ekarpenik egiten lehen-tasunean, lankidetzeta-eragileen definizioari eta kudeaketa-arazoaren konponketari zegokienez. Halaber, auzitan jartzen zen FOCAD erakundeak kudeaturiko baliabide nahikoak zituen organorik ez izatea, eta baita GGKEen Erregistrorik ez izatea ere. Horrez gainera, adierazten zen proiektuak beste Administrazio Publikoen eskuduntzei erasotzen ziela eta ez zuela inolako koordinaziorik planteatzen. Era berean, Alberdik azaltzen du Alderdi Sozialistak ere osoko zuzenketa bat aurkeztu zuela aurrekontuen konpromiso zehatzen faltagatik, Lankidetzarako Agentzia bat sortzeko aurreikuspena ez izateagatik eta gobernu zentralarekin, EBrekin eta beste Agentzia batzuekin koordinaziozko konpromisorik ez izateagatik. Hala ere, egileak berak dioten bezala, parlamentuan bideratua izan ostean proposamen horietako asko gehitu zitzaizkion azken testuari.

samarra sortu zen. Bertan, planteaturiko proposamen ezberdinak jasotzeko eginahala egin zen, baina hark ez zuen lagundu Euskal Herriko erakunde ezberdinek, gaitasunek eta baliabideek erosotasun eta lege-babes nahikoa izan zezaten beren garapenerako eta koordinaziorako. Horri dagokionez, gure ustez aipagarrienak diren alderdiak azpimarratuko ditugu:

Lehenik, nabarmendu daiteke Legea, printzipio orokorrak planteatzeaz, edo eragileak, tresnak eta jarduera-esparruak erregulatzeaz gain, hasieran politiken esparruari dagozkion gaien trataeran sartzen dela bete-betean eta, beraz, gai horiek Plan Zuzentzaileen funtsezko atalak direla. Horri dagokionez, azpimarratu beharra dago Legeak printzipioak, helburuak, arloz arloko lehentasunak edo lehentasun geografikoak definitzen dituzten atalak dituela. Horren guztiaren ondorioz, legea zehatzegia da lankidetzaren joera politikoari dagozkion hainbat alderditan eta, paradoxikoki, lasaiagoa erakunde batzuen eta besteen paperaren eta jarduera-esparruen definizioari dagokionez. Hala eta guztiz ere, Legearen alderdi batzuen gehiegizko definizioa dela-eta –adibidez, helburu, lehentasun eta abarrena–, ez da legearen aldetik mugaketa bat izatera iritsi (ez Eusko Jaurlaritzarentzat berarentzat, ezta EAEko gainontzeko erakundeentzat ere), oso zaila baita gai horiek betetzen diren egiaztatzea.

Bigarrenik, 2007ko euskal Legeak argi eta garbi defendatzen du erakundeen papera ahalik eta gehien mugatzeko eta erakundeek zuzenean abian jarritako lankidetzaren potentzialtasunak gutxiesteko joera duen lankidetzak-eredu bat. Zentzu horretan, hitzaurrean bertan ikus daitezkeen bezala, GGKEen esperientzia eta eskaerak aintzat hartzearen aldeko apustu irmoa egiten du Legeak, lankidetzaren erakundeen interbentzionismo politikotzat hartzen denaren kontra⁵³. Eredu horren ondorioak zabal eztabaidatuak izan dira eta lan honen beste zati batzuetan aztertzen dira. Dena dela, atal honetan interesgarriak diren helburuetarako, beharrezkoa da Legearen 9.3 artikuluan agindutakoa azpimarratzea, erakunde publikoek

⁵³ Erakundeek eta GGKEek lankidetzaren betetzen duten paperari ekiteko Legeak duen modu eskematiko samarra hitzaurreko ondorengo baieztapen honetan ikus daiteke, zeinaren arabera badirudien erakundeek alderdi negatiboak baino ez dituztela: *“Egunoa bezalako momentu batean, non beste esparru batzuetan garapenerako lankidetzari eskainitako abaleginen urritze handia eta lankidetzatik kanpokoak diren interesen arabera interbentzionismo politiko gero eta handiagoa antzeman daitezkeen (lankidetzak kanpo-politika gisa, itzuleraren bilaketa, lankidetzak-eragileen eta finantza-garriak diren berraldiaren aukera politikoa) aproposa gertatzen da arreta berezia eskaintzea Garapenerako Gobernuak Kanpoko Erakundeak (GGKE) esperientziari. GGKEek, bereziki legitimaturiko lankidetzak-eragile gisa, gure berriaren tradizio solidarioa, misiolariaren konpromiso bikainean ikus daitekeenez, osatu eta jarraitu abal izango den kultura bat ekarriko dute”*.

lankidetzeta-politikaren betetzean duten mugari dagokionez bereziki⁵⁴. Muga horrek, erakundeen beren jarduera-gaitasunaren zati handi bat murrizteaz gain, nabarmen baldintzatu du politikaren orientazioa, GGKEen eskaeren nahiko mendekoa den eredu bat betikotuz.

Eta azkenean, hirugarrenik, beharrezkoa da azpimarratzea Legeak zer kezka gutxi duen EAEko erakunde ezberdinen lankidetzeta-politika integratzeko edo antolatzeko, edo haien artean sinergiak bilatzeko behintzat, koordinazio-organo baten sorkuntzaz haraindi (Erakunde Arteko Batzordea), zeina estrategiak adostera eta bikoiztasunak eta gainjarpenak saihestera bideratua baitago. Azken auzi hori ez da inoiz praktikan planteatu. Aitzitik, Legeak alde batera uzten du politika integratu bat antolatzeko aukera, edo Plan Zuzentzaile komun bat proposatzeko, erakunde batzuen eta besteen papera aztertuko lukeena zein bere ahalmenen eta gaitasunen arabera. Zentzu horretan, legeak aurreikusten du aldundiek zein udalek aproposak iruditzen zaizkien lankidetzeta-programak garatzea, legearen printzipio, helburu eta lehentasunak betetzen badituzte. Hori, alderdi batzuetan, alfer-alferreko gauza da, betetzeko ezintasuna kontuan hartuta.

Politiken koordinazioa eta osagarritasuna

2007ko Legea alde batera utzita, eta oro har garapenerako lankidetzaren lege-esparruari dagokionez, jarraian lankidetzari dagozkion alderdien analisian edota diseinaturiko politiken osagarritasunean kontzentratuko gara, hainbat dokumentutan eta erakunde batzuen eta besteen Plan Zuzentzaileetan adierazitakoari dagokionez bereziki.

Aurrerago azpimarratuko den bezala, Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaileak gobernuak bultzaturiko lankidetzeta-politikaren plangintza-tresna gisa sortuak izan ziren, aldundietatik edo udaletatik burututako planetan eragina izateko inolako asmorik gabe⁵⁵. Hala, ez da euskal lankidetzaren Plan Zuzentzaileez ari, Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako Plan Zuzentzaileez

⁵⁴ Legearen artikulua horrek adierazten duenez, “Eusko Jaurlaritzak eta berari loturiko erakunde publikoek lankidetzeta-aurrekontuaren % 10 izango dute alde biko edo aldeaniztuneko lankidetzeta-jardueretarako muga gisa”. Muga horrek GGKEen Koordinakundearen eskaera espezifiko bati erantzuten zion, zeina Legearen elaborazio-tramitean zehar onartua izan baitzen. (http://www.congde.org/uploads/289_1.pdf).

⁵⁵ Azpimarratu beharra dago, puntu honi dagokionez, Legeak berak ez duela inolako aurreikuspenik egiten zentzu horretan; izan ere, Plan Zuzentzailea egiteko ardura guztia Garapenerako Lankidetzaz arduratzen den gobernu sailari egotzen dio. Legean ez da aipatu ere egiten Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzailea gainontzeko erakundeekin eztabaidatzeko edo adosteko komenigarritasuna. Erakundeen Arteko Batzordearen funtzioen artean ere ez da inolako erreferentziarik agertzen Plan Zuzentzailearen inguruan egin daitekeen eztabaida edota onarpenaren inguruan.

baizik. Horren ondorioz, plan horietan egiten den gainontzeko erakundeek trataera deskribatzailea da huts-hutsik, bai betetzen duten lanaren berri emanaz, bai lankidetzaren eragileak izendatuz. Zentzu berean, Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziak ere ez zuen berritasun aipagarriarik ekarri; izan ere, 2008ko Legearen arabera, bere plangintza-funtzioak Eusko Jaurlaritzaren esparrura murriztuak geratu ziren.

Eusko Jaurlaritzaren Planetan eta Dokumentuetan islatzen den bokazio integratzailearen gabezia horrek ondorio nabarmenak izan zituen gainontzeko erakundeek egindako plangintza-dokumentuetan. Hortaz, Foru Aldundien baterako Plan Zuzentzaileak ez ditu aipatu ere egiten Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaileak, eta gabezia hori Donostiako Udalaren kasuan errepikatzen da, bere Tokiko Lankidetzaren Planean (2008-2011). Bere aldetik, Bilboko eta Gasteizko udalek goi mailako erakundeek (Eusko Jaurlaritza eta aldundien) estrategiaren plangintza-dokumentuak aipatzen dituzte, modu ezberdinean bada ere. Gasteizen kasuan, balorazio kritiko bat egiten da, azpimarratzen baita bai Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaileak, bai foru-aldundienak, aipatzen dituztela udalen arteko lankidetzak eta udalek bete lezaketen papera, baina ez dute baterako estrategia baten beharra planteatzen. Bere aldetik, Bilboko Udalak azaltzen du argien strategiaren artikulazio handiago bati buruzko jakin-mina, Eusko Jaurlaritzaren nahiz foru-aldundien Plan Zuzentzaileak kontuan hartu behar direla azpimarratuz Bilboko tokiko garapenerako lankidetzak-politika definitzeko orduan. Horretarako, plan horietan agindutako oinarriko printzipioekiko ahalik eta koherentziarik handiena bilatu nahi du, aldi berean bere ekimen zehatzekin osagarritasun eta koordinazio handiena lortzearen alde eginez, sinergiak sortzeko eta gainjarpenak eta eraginkortasun-falta saihesteko xedeaz.

Dena dela, Plan Zuzentzaile ezberdinetan egiten den balorazioaz haraindi, EAEren esparruko estrategia-plangintzari buruzko trataera orokorrari dagokionez, merezi du bertan jasotzen diren mekanismoak eta erakundeek arteko koordinazio-tresna batzuei buruz planetan egiten diren planteamenduak eta aurreikuspenen analisi zehatzagoa egitea. Horri dagokionez, esan daiteke koordinazio- edota osagarritasun-beharrari egindako erreferentzia gutxi-asko generikoak aspaldikoak direla eta lehen urteetako dekretuak eta deialdi askotan daudela, alegia, lehen Plan Zuzentzaileak egiten baino askoz ere lehenago.

Alde batetik, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko koordinazioaren auziak azaltzea, zeina modu ezberdinetan planteatua izan baita denbora guzti honetan, intentsitate maila ezberdinetatik igaroz.

Jada azpimarratu den bezala, gobernuaren eta aldundien arteko elkarlana FOCADen esparruan ezarri zen lehen urteetan (1990ean sorturiko organoa da FOCAD). Hala ere, abian egon zen urteetan zehar, FOCAD ez zen lankidetzarako politika ezberdinen (kasu honetan aldundienak eta Eusko Jaurlaritzarenak) koordinaziorako organo bezala sortua izan eta ez zuen horrela jardun, aldundiek uko egin baitzioten hasieran beren politika propioa izateari; hala, bi erakunde mota hauek emandako funtsak administratzera bideraturiko dekretu bakar baten kudeaketarako organo bezala sortua izan zen FOCAD batez ere. Ikusmolde horren ondorioz, aldundiak beren funtsak kudeatzen hasi zirenean (hasieran zati batean eta gero osorik) organo horrek jada ez zuen aipaturiko erakundeen lankidetzaz-politikaren orientazioa koordinatzeko edo osatzeko balio izan⁵⁶.

Ondoren, eta behin horiek guztiek FOCADari funtsak emateari utzi ziotenean, hiru foru-aldundien arteko lankidetzaz-politikaren koordinazioak garapenerako lankidetzarenak ez diren faktore politikoekiko menpekotasuna erakutsi zuen. Hain zuzen ere, zenbait urtez hiru erakundeetako bakoitza bere bidetik ibili ondoren, 2007ko foru hauteskondeen ondoren, beren arteko elkarlana indartu egin zen esparru horretan, hirurek kolore politiko bera izan zuten aldi berean. Lan honetan jada hainbatetan aipaturiko lehen baterako Plan Zuzentzailea (2009-2011) egitean eta onetsia izatean ekarri zituen horrek emaitzak. Hala ere, 2011ko foru hauteskondeek hiru aldundien homogeneotasun politikoa desagerrarazi zuten, horietariko bakoitzean partidu ezberdinek kudeaturiko gobernu-organoa batzuk sortuz. Garapenerako lankidetzaren terminoetan, esparru horretan aldundien arteko elkarlana bere horretan uztea eta hurrengo aldirako baterako Plan Zuzentzaile berririk ez egitea erabakitzea izan zen ondorioa.

Udalen kasua bestelakoa da eta analisi zehatzagoa merezi du. Hasieratik, erakunde hauek koordinatzeko eta alor honetan ahaleginak batzeko interesa erakutsi zuten, hainbat modutan. Hala, 1996an, Donostiako Udalak bere jarduerak EAeko beste erakundeetakoekin osatzeko beharra planteatzen zuen, udalen arteko edo erakundeen arteko proiektuei lehentasuna emango zitzaieela aginduz. Eta aipaturiko udalaren Tokiko Lankidetzaz Planean (2008-2011), erakundeen arteko koordinazioa printzipio orientatzaile gisa agertzen da, baina baita lanaren lehentasunezko ildoetariko bat bezala ere.

⁵⁶ Aldundiak atera eta handik gutxira FOCAD erakundea dekretu bidez aldatuz joan zen, Eusko Jaurlaritzan bertan (Lehendakaritza, Lehendakariordetza, bost Sail eta Lankidetzarako Zuzendaritza), Emakunden eta Legebiltzarreko GG.EEen batzordean zuen ordezkarietara mugatu zelarik. (Martxoaren 8ko 62/2004 dekretua).

Bilboko Plan Zuzentzaileetan koordinazioa lanerako printzipio bezala ere aipatzen da, erakundeen arteko koordinazioa espresuki aipatuz. Bere aldetik, Gasteizko Udalak bere Plan Zuzentzailean (2010-2013) ildo zuzentzaile espezifiko bat planteatzen du (LD8a), erakundeen arteko koordinazioaz arduratzen dena. Auzi honetan Arabako Foru Aldundiarekin bat datozen hainbat urteroko elkarlan-hitzarmen ere aipatzen ditu Planak, eta, bestalde, hitzarmen horiek EAEn dagoen adibiderik aurreratuena dira ahaleginen osagarritasunari eta funtzioen banaketari dagokionez garapenerako lankidetzaren arloan⁵⁷. Baina, zalantzarik gabe, Euskal Fondoak izan da euskal udalen aldetik ahaleginak eta indarrak batzeko asmoaren adierazpenik interesgarriena garapenerako lankidetzaren arloan. Lehen kapituluan jada aipatu den bezala, erakunde horren funtzionamendua fase ezberdinetatik igaro da, eta interes eta eragin nabarmena duen hausnarketaren eta erakundeen arteko koordinazioaren mailara igoaz bukatu du, bereziki garapenerako tokiko euskal lankidetzaren arloan.

Euskal Fondoak garatzen dituen funtzio garrantzitsuenen artean, lankidetzaren deszentralizatuan tokiko erakundeen partaidetza sustatzea, denen arteko koordinazioa indartzea edo tokiko erakunde horiei garapenerako lankidetzaren eta nazioarteko harremanen alorrean aholkuak ematea daude. Bereziki aipagarria den alderdi bat, zentzu honetan, tamaina txikiko udalerriek dagokiena da, beren solidaritatearen adierazpenak askotan zailtasunak aurkitzen baititu bideratu ahal izateko. Arazo horrek konponbide egokia aurkitu du Euskal Fondoaren bitarteko partaidetzaren bidez, udalari kopuru handiago baten ekarpenak babestutako proiektuetan eta interbentzioetan. Sorreratik egindako ibilbideak funtsezko zutabea bihurtu du *Euskal Fondoak*, ez bakarrik EAEko garapenerako lankidetzaren erakundeen arteko koordinazioan, baizik eta artikulazio eta koherentzia handiago batekiko kezkei dagokienez ere.

Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzaren hainbat dokumentuk gai horiei guztiei emandako trataera laburki azalduko dugu. Lehenengo Plan Zuzentzaileak (2005-2008) ez zuen gaia ia aipatu ere egiten, gainontzeko euskal tokiko eta foru-erakundeekin eta baita euskal lankidetzaren eragileen multzoarekin ere koordinazio handiagoa bilatzeko beharra azpimarratu besterik ez baitzuen egiten. Bere aldetik, 2008-2011 Plan Zuzentzaileak urrats bat gehiago egin zuen, bere arauetan lankidetzarako euskal erakunde guztien koordinazioa indartzeko azpi-arau bat jasoz (III.2a), erakunde publiko zein pribatuei buruzkoa bazen ere. Azpi-arau horretan informazioen hartu-emana edo

⁵⁷ Hitzarmen hauek nola gauzatu ziren hainbat gaitan Rodríguez (2007) ikus daiteke.

sinergien bilaketa bezalako gaiak planteatzen ziren, eta Erakundeen Arteko Batzordearen sorkuntza ezartzen zen betetze-adierazle gisa.

Garapenerako Lankidetzaren Erakundeen Arteko Batzordea jasota zegoen jada 2007ko euskal Legean, eta 2009an sortu zen azkenik, zegokion Eusko Jaurlaritzari Dekretuaren bitartez⁵⁸. Lege horren arabera, gobernuko, foru-aldundietako eta udaletako ordezkari dago Batzordea osatua, azken horiek udalen arteko bi erakunderen bitartez: alde batetik, Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL), bi ordezkari dituena, eta bestetik, Euskal Fondoak, ordezkari bat duena. Batzorde horri egotzirik funtzioen artean honako hauek daude: garapenerako lankidetzaren esparruan euskal administrazio publikoen arteko elkarrizketa-eremuetarako balio izatea, inplikaturiko erakundeen esperientzien eta estrategia-ildoen bateratze-lana sortzea, eta euskal lankidetzeta publiko guztiarentzat garrantzitsuak diren informazioen trukearen alde egitea. Hala ere, aurrerago aipatuko den bezala, Aplikazioaren analisiari dagokion lan honen zatian, Batzorde honen funtzionamendua urrun egon da Legeak markaturiko xedeak betetzetik. Ildo horretatik, gehitu beharra dago erakunde batzuen eta besteen Plan Zuzentzaileetan Erakundeen Arteko Batzordeari emandako trataera formala baino ez dela izan kasu batzuetan, eta ez dela halakorik izan beste batzuetan.

Azkenik, Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziaren sorrerak, 2008ko uztailaren 19ko Legearen bitartez, ez du inolako aurrerapen aipagarririk erakutsi, lankidetzaren esparruan, EAEko erakundeen koordinazioaren eta osagarritasunaren sorreran eta diseinuan. Alde batetik, eta aipaturiko Legearen hitzaurreak hitzez hitz dioen bezala, “Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko garapenerako lankidetzeta-politika betetzeaz arduratuko den erakunde bat sortzea da planteamendua”, EAEko erakunde guztien lankidetzeta-politika antolatu edota integratzeko beharrari buruzko inolako aipamenik egin gabe, gehienez ere Agentzia “beste euskal erakunde batzuei irekita diseinatzen dela” azpimarratzera iritsiz, “autonomiaren errespetutik gai horretan”. Gerrogo gai horretara itzuliko bagara ere, Aplikazioaren atalean lankidetzeta-politika kudeatzeko prest dauden bideak aztertze orduan, beharrezkoa da

⁵⁸ Erakundeen arteko koordinazioaren arazoa eztabaidagai izan zen Legea parlamentuan bideratzeko prozesuan, nahiz eta alde batetik administrazio bakoitzaren autonomia errespetatzea eta aldi berean koordinazio handiagoa izatea eskatzen zen. Bere aldetik, Legea onartu aurreko aldian baita ere, GGKEen Koordinakundeak espresuki planteatu zuen Erakundeen Arteko Batzorde bat sortzea. GGKEen proposamenean 4 puntu zehatz planteatzen ziren, non koordinazioa, informazioa, elkarlana eta elkarrenganako laguntza beharrezkoak zirela aldarrikatzen zen (Euskadiko GGKEen Koordinakundea, http://www.congde.org/uploads/289_1.pdf). Kontsultatutako beste iturri batzuek azpimarratzen dute udal batzuek eta Euskal Fondoak ere oharrak planteatu zituztela zentzu horretan Legea onartu aurreko aldian egindako kontsultetan.

azpimarratzea puntu honetan, Legearekin gertatu zen bezala, Agentziaren sorkuntza beste aukera galdu bat izan dela itxuraz aurrera egiteko EAEko lankidetzak-politikaren diseinu antolatuago eta integralago batean. Zentzu horretan, Alboan elkarrekin adierazitako beldurrak beteko lirateke honako hau nabarmentzen zuenean: “Euskal Agentzia batek Eusko Jaurlaritzaren agentzia bat baino zerbait gehiago izan beharko luke” (Alboan, 2007).

Ezin dugu EAEko administrazioen arteko lankidetzak-politikaren antolakuntzari eta koordinazioari buruzko analisi labur hau bukatu, zikloaren fase ezberdinetako (identifikazioa, kudeaketa, jarraipena edo ebaluazioa) prozeduren harmonizazioarekin loturiko helburuen, jarraibideen edo jardueraren erabateko gabezia aipatu gabe. Deigarriena da, Gasteizko Udala izan ezik, bere planean (2010-2013) jada aipaturiko LD8 arauak horri buruzko hainbat ideia planteatzen baititu, gainontzeko erakundeetan ez dagoela gai honen inguruko inolako analisirik, bereziki harrigarria den gauza EAE bezalako lurralde-eremu txikian. Honi dagokion gai bereziki garrantzitsu bat da martxan dauden informazio-sistemen antolakuntzari buruzko proposamen-falta erabatekoa. Proposamen horiek, osatugabeak izateaz gain, elkarren artean bateraezinak dira alderdi askotatik, eta horrek eragotzi egiten du plangintza edo kudeaketa koordinatuaren esparruan edozein aurrerapen egitea. Aplikazioaren kapituluan zehaztasun handiagoz itzuliko gara gai horretara.

Prozeduren harmonizazioaren gaiak diru-laguntzen deialdiekin eta bertan jasotako baldintzekin loturiko dimentsio espezifikoak du. Horrek garrantzi berezia du GGKEentzat; izan ere, zuzeneko eragina du egin beharreko lanaren administrazio-kargan, bereziki diru-laguntza publikoa GGKE askok burututako lanaren finantziario-bide nagusia den testuinguru batean. Horren ondorioz, erakunde horiek behin eta berriz planteatu izan dute harmonizazioaren gaia lankidetzaren plangintzaren alderdi garrantzitsua delakoan, dokumentu bat argitaratzera ere iritsi direlarik hainbat administrazio publikori deialdi horien harmonizaziorako gida bat proposatzera bideratua⁵⁹. Dokumentu hori, gehienez ere, diru-laguntzetarako deialdien esparruan kontzentratutako proposamen bat da, lankidetzak-politikaren beste tresnen gainean eraginik ez duena.

Azkenik, atal hau bukatzeko, euskal erakundeen plangintza-dokumentuek EAEz haraindiko koordinazioari buruz planteatzen duten analisiari eta aurreikuspenen aipamen labur bat egingo dugu. Ildo horretatik bi maila

⁵⁹ Garapen deszentralizatuko erakundeen diru-laguntzen deialdi publikoetarako, lankidetzak-proiektuetarako eta Garapenerako Hezkuntzarako irizpideak bateratzeko Gida (Erkidegoetako GGKEen Koordinakundearen elkartea, 2008).

bereiz ditzakegu, Eusko Jaurlaritzari dagokiona eta udalei dagokiena; izan ere, aldundien kasuan ez da ezer ere planteatzen gai horren inguruan.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, azpimarratu beharra dago dagoeneko lehenengo dekretu eta dokumentuetan gai honi buruzko hainbat erreferentzia ikus daitezkeela, koordinazioaren edota jardueren osagarritasunaren beharra planteatuz⁶⁰, nahiz eta elkarlan hori planteatu litezkeen planoak edo gaiak inoiz definitu gabe. Gainera, interesgarria da nabarmentzea lehen urteetan zehar Eusko Jaurlaritzaren dekretuek egiaz jasotzen zutela hitzarmenean EAEk jada Espainiako lankidetzan parte hartzen zuela kuotaren bitartez, eta, horretaz, Eusko Jaurlaritzaren kontribuzio gehigarriak euskal gizartearen ahalmen solidarioaren agerpena ziren. Ideia horren adierazpen gisa, 1990eko dekretuak justifikatzen zuen egokia zela ezarritako programen osagarri izango litzatekeen berezko programa bat sortzea “beste funts batzuen bitartez”, kuotaren bidezko aipaturiko ekarpenari erreferentzia argia eginez. Hala ere, partaidetzaren ideia horrek, jardun konkretuan, ez zuen koordinazio-harreman motei edo mantendu beharreko osagarritasunari buruzko inolako hausnarketa espezifikorik sorrarazi gobernu zentralarekiko lankidetzan. Dena dela, urte askoan, Eusko Jaurlaritzaren dekretuek hitzarmenak egiteko aukera planteatu zuten (Estatuko Administrazioarekin, AAEEekin edo Europako beste eskualde batzuekin), proiektu edo programa jakinen kofinantzaketarako.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzak Plan Zuzentzaileak onetsi zituenean, erabat desagertu ziren Estatuko administrazio zentralarekin egindako lankidetzaren edo koordinazioaren aipamenak. Horrela, 2008-2011ko Plan Zuzentzaileak, azpi-arau gisa (III.3), garapenerako erakunde aldeaniztunekiko lankidetzeta indartzea agintzen du, baina ez du Estatu mailako elkarlanik aipatzen. Ildo beretik, Plan Zuzentzaileak ez du Lurralde Arteko Batzordearen inolako aipamenik egiten (AAEEetako ordezkari ezberdinak biltzen ditu), eta ez du horri dagozkion ildo edo estrategiarik planteatzen ere⁶¹.

⁶⁰ Kontuan hartu beharra dago AA.EEetatik bultzaturiko lankidetzaren hasieran batzuetan jardueren egokitasuna edo baita legezketasuna ere eztabaidatzen zela, Estatuaren eskuduntza bakarrik den kanpo-politikaren esparruan kokatzen zirela pentsatzeagatik. Hori dela eta, hainbat testuk osagarritasuna nabarmentzen dute, hain zuzen ere, interbentzio horien egokitasuna justifikatzeko.

⁶¹ Administrazio zentralaren eta autonomikoaren artean 2000ko hamarkadaren zati handi batean zehar egon diren hainbat tentsioengatik azal daiteke hau, neurri handi batean. Elkarrizketatu ditugun pertsonetako batzuek adierazi duten bezala, tentsio horiek zerikusia dute, bai giro politiko orokorrearekin, bai lankidetzaren esparruak berezkoak dituen gaiekin. Hauen artean Gobernu zentralak izan dituen hainbat arazo adierazten dira AA.EEek erakunde aldeaniztunekin hitzarmenak izenpetzeko aukera izan dezaten.

Eta, EAEz haraindi, gai honetan udal-ekintzen koordinazioarekiko kezka dagokionez, esan daiteke ez dela aztertutako udaletako plangintza-dokumentuetariko batean ere agertu, gaia udalbatzarretako debateren batean planteatzera iritsi bada ere, baina garrantzi handirik hartu gabe inoiz.

Gogoeta orokorrak

Oro har, EAEko erakundeen antolaketa eta lankidetzaren politikaren koordinazioari buruzko kezka nahiko txikia izan dela esan daiteke, eta indarrean dauden arauak oso eskasak izatea eta oso plangintza-dokumentu anbiguoak egitea ekarri du horrek berarekin⁶². Horri guztiari buruz aurkitu ditugun azalpenek joera politiko ezberdineko botereek gobernaturiko erakundeen arteko ezadostasunen alorrera garamatzate batez ere. Nolanahi ere, horrek guztiak eragozpenak eta garapenerako lankidetzaren ahalmen eta hedadura handiago batentzako muga argiak ekarri ditu, batez ere EAE bezalako herrialde baten tamainak eta baldintza objektiboek proiektu handinahiago baten planteamenduan pentsatzeko bidea ematen duenean.

Kontua da 2007ko Garapenerako Lankidetzak Legea aukera galdu bat izan zela EAEko hainbat erakunderen ahaleginak antolatzeke eta bultzatzeko gai izango zen lankidetzarako politika publiko baten oinarriak zehazteari begira. Eraitza, neurri handi batean, eraginkortasun gutxiko testu bat izan zen, Plan Zuzentzaileetatik gutxi bereizten zena eta, aurrekontuaren %10 ezarritz administrazioak kudeatu beharreko gehieneko kopuru gisa, erakundeen jarduera-aukeren zati handi bat murriztu zuena. Gaur egunetik ikusita, ez da erraza ulertzea Legea modu horretan idaztea eragin zuten arrazoiak, batez ere kontuan hartzen badira horrek eragin dituen zailtasunak politika publiko koherente bat bultzatzeko⁶³. Azalpen gehienek gai horri dagokionez GGKEk defendaturiko jarrera ikusarazten dute, lankidetzaren funtsen zatirik

⁶² Gai hau Eusko Jaurlaritzak 2001ean enkargatutako analisi-dokumentuetan jada landu zen, nahiz eta, aldundiak orduan FOCAD erakundearen barruan zeudenez, Eusko Jaurlaritzak udalekin egindako koordinazio- eta osagarritasun-lanari eskainitako arreta gutxian kontzentratu zen gogoeta, honako hau azpimarratuz: *“udalerriekin egindako koordinazio-jardueretan oso gutxi aurreratu da”* eta *“lankidetzaren eginkizun biziagoa”* aldarrikatuz (Alonso, 2002). Bestalde, 2007ko Lankidetzak Legeak espresuki bideratu zuen Lehenengo Xedapen Gehigarria erakundeen arteko koordinazioa eta interbentzioen osagarritasuna beharrezkoa dela planteatzera, plan zuzentzaileetan eragin handirik izan ez bazuen ere.

⁶³ Elkarrizketatu ditugun hainbat lankidetzaren erakundetako arduradunek oztupo gisa azpimarratu dute aipatutako lege-muga, eskuragarri dauden baliabideak aprobetxatzeko eta erabiltzeko gai izango den benetako politika bat sustatzeko. Hala ere, gure ikerlaneko datuek adierazten dute (udalak eta *Euskoal Fondoa* salbuesten baditugu) erakundeetatik ere ez dela eredu integratuago bat sustatzeko proposamenik eta aukerarik bultzatu, publikoak nahiz pribatuak diren hainbat gizarte-baliabide sartzeko eta antolatzeke gai izango liratekeenak.

handiena beraiek kudeatzeko xedeaz, Koordinakundeak berak planteaturiko proposamenetan jasotzen den bezala⁶⁴. Hala ere, badirudi parlamentutaldeen ere ez zutela lankidetzarako politika publiko batekin konpromiso handiegirik hartu nahi izan, gaia GGKEen esku uztea hobetsi eta euskal lankidetzaren bultzada zabaltzera mugatu baitziren, administrazioarekiko konpromiso solidarioaren erakusgarri gisa.

Hala eta guztiz ere, antolakuntza-arazoak Legea bera baino askoz ere haratago doaz, plangintza-dokumentuen eta bereziki Plan Zuzentzaileen sorreran bertan eragina dutelako bete-betean. Azken horietan ez da ia gairontzeko erakundeen politikaren aipamenik egiten, ezta aipaturiko plan batzuetan edo besteetan aurreikusiriko jarduera-esparruen osagarritasun-aukeren aipamenik ere. Tresnen eta prozeduren auziari ekiteko moduan ere agertzen da hori. Unean uneko salbuespenen bat kenduta, ez da harmonizazioan aurrera egiteko beharraren aipamenik planteatzen.

Horrek guztiak oso eraginkortasun gutxiko egoera eragin du, non azkenean logika partikularrak garapenerako lankidetzatik ondorioztaturiko beharrei gailendu baitzaizkien. Behin aldundien arteko elkarlanerako aldia bukatuz gero eta udal mailan erakundeen arteko koordinazioaren adibidetzat hartzen den Euskal Fondoa salbuesten badugu, dagoen Legeak aurreikusitako Erakundeen Arteko Batzordea da koordinazio-egitura bakarra, baina, nahiko funtzio mugatuak ditu. Nolanahi ere, beharrezkoa da aitortzea EAEko erakundeek ez dituztela kanpo-presio asko izan ere beste zentzu batean jarduteko, GGKEen Koordinakundeak honen inguruan egindako hainbat proposamen salbuesten baditugu.

4.4. Euskal lankidetzaren helburu zehatzen definizioa eta bere ekarpenaren eta balio erantsiaren analisia

Lankidetzaz deszentralizatuaren politiken analisiko gai nagusietako bat, beren izateko arrazoia planteatzeko erabili duten eta esparru honetan egin nahi duten ekarpen espezifikoak definitu duten moduari dagokiona da. Gai horren trataera oso garrantzitsua da lankidetzaz-politikaren sendotasuna eta komunitate bateko gainontzeko gizarte-bizitzan duen integrazioa baloratze-ko orduan.

Bi bidetatik hurbildu gara gu gai honetara, jada aipaturiko marko teorikoaren arabera. Alde batetik, politikaren beraren oinarriak eta bere justifikazioari

⁶⁴ Ikus Euskadiko GGKEen Koordinakundeak (2006).

buruzko diskurtso bat dagoen ala ez aztertuz, printzipio etiko batzuen defentsaz haraindi. Beste modu batean esanda, politikaren izateko arrazoia aztertzea da helburua, egin nahi duen ekarpen espezifikotik abiatuz; izan ere, bestela, bere aukera-kostua edo finantza-funtsak izaera orokorragoa duen kutxa komun batera ekartzeko aukera planteatu liteke⁶⁵. Eta bestalde, auzi honen azterketa ere planteatzen dugu, lankidetzaren deszentralizatuaren berezko ezaugarritzat hartzen ditugun bi alderditan arreta jarriz: erakunde-gaitasunak eta tokiko gizarte-gaitasunak indartzeko eta garapenerako hezkuntzaren esparruan egindako ekarpenetan⁶⁶.

Lankidetzaren nolakotasunaren eta balio erantsiaren inguruko hausnarketa

Aipaturiko lehenengo gaiari dagokionez, eta estatuz azpiko beste erakunde batzuek bultzaturiko lankidetzaren zatirik handienarekin gertatu den bezala, EAEn ez da ia hausnarketarik egon Euskal Herriak egin lezakeen benetako ekarpen espezifikoa buruz, zeina garapenerako lankidetzak egindako ahaleginei balio erantsi batez edo berezko nortasun batez hornitzeko gai izango litekeen. Bereziki aipagarria da hori Eusko Jaurlaritzaren kasuan eta, neurri handiago batean, aldundien kasuan. Aitzitik, udaletako plangintza-dokumentuek kezka handiagoa erakusten dute lankidetzaren politika berezko edukiez hornitzeko.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, ez lehen urteetako dekretuek, ez duela gutxiko plan zuzentzaileek, ez dute erakusten norabide horretako hausnarketa-ildorik. Dokumentu horietan jarduerak martxan jartzeko ematen den justifikazioa edo azalpena (ia beti dekretuen edo plan

⁶⁵ Azpimarratu nahi denaren adibide gisa Andaluziako Lankidetzako Plan Zuzentzailean planteatutako ideia aipa daiteke, politika horren bitartez “*Andaluzian probatutako garapen-prozesuaren esperientzia*” bera partekatzeko asmoari buruzkoa; hau da, lankidetzaren gauza propio batean oinarritzea da xedea, esperientziaren bitartez eskuratutako jakindurian oinarri hartuz.

⁶⁶ Argibayk et al. (2009) diotenari jarraituz, gure iritzi Garapenerako Lankidetzaren gaur egun lankidetzaren inguruko eztabaida askogatik gainditzen duen kontzeptua da, azken urteotan paradigma-aldaketa bat gertatu delarik, lankidetzaren “*bazterketa/inklusioaren ikuspegia*” gehitzera behartzen duena “*bere garaian Ipar/Hego ikuspegiaren analisiari eskaini zitzaiona bezain garrantzitsua*”. Horren arabera, “*Garapenerako Hezkuntzak, bere beziketa-proposamenen bitartez, komunitatearen partaidetza eragingo duen kontzientzia soziala bultzatzeko konpromisoa hartu behar du giza eskubideen babesean gizarte-bazterketa salatzeke, aldi berean emakumeen eta beste kolektibo abuluen abalduntzean laguntzen duelarik. Kolektibo hauek giza garapenerari egin dioten ekarpena ezinbestekoa da*”. Hala ere, lan honen izaera eta erabilitako metodologia direla eta, egiten diren analisiak (euskal erakundeen politiken diseinuan eta aplikazioan Garapenerako Hezkuntzari ematen zaion trataerari buruzkoak) garapenerako lankidetzarekin duen harremanari buruzkoak dira zehazki. Hala eta guztiz ere, ondorioen kapitaluan eta epiloguan gogoeta espezifikoa bat egiten da Garapenerako Hezkuntzaren zentzu zabalagoari buruz.

zuzentzaileen hitzaurrean agertzen dena), berriz, Euskadi (bere tradizio solidarioari leial) nazioarteko komunitate guztiak esparru honetan egindako ahaleginei eransteko beharrari loturik dago. Zentzu horretan, ez dago EAEk, bere gaitasun eta esperientzietatik abiatuz, espezi-fikoki garapenerako lankidetzaren multzo globalari egin liezaiokeen ekarpenari buruzko analisirik. Diagnostiko-gabezia horrek, azkenean, ezarritako lehenetsunaren edo politika burutzeko aurreikusitako eragile-
leen eta baliabideen inguruan planteaturiko helburu zehatzen definizioa ekarriko luke, eta helburu horiek ez lirakeke ia beste lankidetzaren batzuek planteaturikoez bereziko. Dokumentu batzuetan baino ez dira sumatzen gai hauen zeharkako aipamen batzuk, bereziki lanbide-heziketa, enpresa kooperatiboak eta abar aipatzen diren dekretu batzuetan, jarduteko arlo espezifiko gisa, aurreikusirik jarduera-tresnei buruzko azalpenen barruan. Hala ere, zeharkako aipamen hauek oso azalekoak ziren Euskadik lankidetzaren esparruan egin zitzaizkeen ekarpen espezifikoekin dago-
kienez, eta ez ziren horri buruzko debate batean zehaztu, are gutxiago dekretuetan eta deialdietan ikus zitezkeen analisi batean. Baina gainera, urteak pasatu ahala, guztiz desagertu ziren gaiari buruzko gutxieneko hausnarketa-zantzu horiek⁶⁷, Euskadik egin zezakeen ekarpen espezifikoaren gaineko gogoeta orotik kanpo aparte geratzen ziren politikaren justifikazio bat eta lankidetzaren helburu bat ekarri.

Horren guztiaren ondorioz, euskal lankidetzaren izaerak gehienbat forma batzuen inguruan azpimarratzeko joera izan zuen edukietan oinarritzeko partez, Estatukoarenetik edo beste AAEEkoenetik aldenduz. Hausnarketa espezifiko hori gabe, esan daiteke CADak edo Lankidetzarako Agentzia handiek nazioartean markaturiko jarraibideek bideratu dituztela, GGKEen proposamenekin batera, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren politikaren orientazioa eta helburuak. Horren ondorioz, eskasa izan da toki- eta lurralde-administrazioen paper espezifikoari eta, batez ere, eragile berrien aukerei buruzko hausnarketa.

Foru-aldundiei dagokienez, baterako Plan Zuzentzaileak (2009-2011) kezka horren berri eman zuen, sendotasunez adieraziz ez zegoela lankidetzaren politika propiorik, eta, aitzitik, itsu-itsuan jarraitzen zitzaizela gertuko beste jarduera-esparru batzuekiko jarduera-ildoei, GGKEek proposaturiko dinamikei

⁶⁷ Bitxia bada ere, Eusko Jaurlaritzak J. Alonsori eskatutako txostenak euskal lankidetzaren balio erantsia edo alderatutako abantailak aztertzeke beharra planteatzen zuen, espresuki azpimarratuz horrek, gainera, abantailen eta aukeren diagnostiko-ahalegin espezifiko bat eskatzen zuela (Alonso, 2001).

egokituz aldi berean⁶⁸. Gogoeta horietatik abiatuz, Plan Zuzentzaileak indarrez defendatzen zuen aldundiek indarrean zegoen proiektuaren alternatiba bat behar zutela planteatu, zegoen proiektua “nazioarteko LDaren erakundearen eranskin huts bat bezala osatzeaz haraindi, nortasun propioa duen lankidetzak deszentralizatuko proposamen gisa” adieraziz. Hala ere, proposamen hori ez da loturik agertzen euskal foru-aldundien edo EAEn beraren lankidetzak espezifikoki egin lezakeen ekarpenaren analisi batekin, beste lurralde batzuetatik bultzaturiko lankidetzak izan litekeenetik bereiziz⁶⁹. Zentzu horretan, Plan Zuzentzaileak nortasunaren arazoa planteatzen du, baina hori bukaeran izaera teorikoa duen planteamendu bati (bestalde, EAEnko instantzia askok partekatzen dutena) eta hiru jardueraren datuen defentsari (Tokiko Giza Garapena, Genero Ikuspegia eta Garapenerako Hezkuntza) lotzen zaie, eta baita udal mailatik egiten den bultzadari ere.

Udalen kasua ez da berdin-berdina, planteaturiko analisisien udal mailako eremuari dagokionez behintzat. Nolanahi ere, plan zuzentzaile bakoitza egin aurreko arautegiek eta deialdiek ez zuten ia ekarpenik egin alor honetan, tokiko garapenerako lankidetzak planteatzen duen aukerari buruzko balorazioaren batez haraindi, bestelako politika bat burutzeko, gobernuena bezain baldintzatua egongo ez litzatekeena, nahiz eta horrek ez dakarren lankidetzak horren oinarriak izan litezkeenaren analisi bat.

Hala ere, Plan Zuzentzaileen azterketak gai horiei buruzko hausnarketa interesgarriak identifikatzeko bidea ematen du. Bilboko Udalak bere lehen Plan Zuzentzailean jada (2006-2009) bere espezifikotasuna planteatzen zuen tokiko erakunde gisa, metatutako jakintzarekin eta kudeaketa-eremu espezifikoetan sorturiko gaitasunekin eta parteka ditzakeen tokiko estrategiekin, berezko profil batez hornituz horrela lankidetzak-politika. Planaren zati ezberdinetan, gainera, Bilboko lankidetzaren espezializazioa planteatzen da, emakumeen ahalduntzearen eta tokiko boterearen esparruetan.

⁶⁸ Aldundien lehen Plan Zuzentzailean (2009-2011) honako hau azpimarratzen da: *“Urte hauetan foruen lankidetzak ez du gertueneko garapenerako lankidetzaren esparruan eman den bilakaeraren bide bera jarraitu eta seguru aski behatutako aldaketak gehiago dira GGKEek (eta neurri txikiagoan lankidetzarako beste instantzia batzuek) proposatutako dinamikei egokitzearen emaitza, berezko politika bat aplikatzearena baino.”*

⁶⁹ Alboan elkartearen ikerlana nahiko kritikoa zen aldundiak Plan Zuzentzailearen aurretik egiten ari ziren lanari dagokionez, honako hau azpimarratuz: *“Aldundiak benetan Gobernuak egiten duen ia gauza bera egiten ari dira, erakunde berdinekin, herrialde berdinetan eta antzeko sektoreentzat, horretarako mekanismo berberak erabiliz: GGKEen proiektuetarako diru-laguntzen deialdiak. Eta hori guztia lankidetzak- eta osagarritasun-abalegina abian jarri gabe, zeinak gutxienez, eta konpetentziaren bekaizkeriaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuaren barruan benetan egindako lau lankidetzak autonomo egon direla justifikatu ahal izango lukeen.”*

Horretarako, berebat proposatzen da egokia litzatekeela Tokiko Lankidetzeta Kontseiluaren barruan batzorde espezifikokoak sortzea. Bere aldetik, bigarren Planak (2010-2013) askotan aipatzen du ideia hori, alor horretan udalaren eginkizuna azaltzeko erabilitako atal espezifikoko bat planteatuz, eta baita proposatzen den politikaren justifikazioa eta konparaziozko abantailak ere. Atal horretan sor daitezkeen aukerak eta sinergiak nabarmentzen dira berriro ere, gaitasun teknikoaren beraren eta udalak eskuraturiko esperientziaren bitartez, hori guztia berekin lanean aritzen diren beste herrialde batzuetako tokiko erakundeekin parteka daitekeelarik.

Bere aldetik, Gasteizko Udalak, bere Plan Zuzentzailearen bitartez (2010-2013) lankidetzaren beraren espezifikotasuna planteatzen du, gai honi atal jakin bat ere eskainiz, non erakundearen eragile-papera sendotasunez aldarrikatzen baiten, finantzatzaile hutsarena gaindituz, eta paper hori bai metaturiko esperientziak, bai berezko ahalmenek, defendatzen dutela adierazten da Planean. Esperientzia eta ahalmen horien artean hauexek aipatzen dira: tokiko garapenaren esparruko esperientzia, garapen-bidean dauden herrialdeetako tokiko erakunde publikoekin egiten diren elkarrizketa- eta truke-aukerak, udalerriko pertsona eta erakundearen parte-hartzea, edo udalerriko talde eta erakundeak garapen-bidean dauden herrialdeetako talde eta erakundeekin elkartzen erraztea. Gainera, jarduera-bideetako bat bezala planteatzen da udal-lankidetzaren proposamena, eta horretarako tresnak eta arloz arloko lehentasunak zehazten dira⁷⁰.

Donostiako Tokiko Lankidetzeta Planean ere (2008-2011), gai honen tratua hain esplizitua ez bada ere, argitasunez planteatzen da egin nahi den garapenerako lankidetzeta beste batzuk ez bezalako delako, “gure udalerraren berezitasunak islatu” behar dituelarik. Aurreko gogoetaz gain, hiru udalek partekatzen duten kezka bat ere nabari daiteke bultzaturiko lankidetzaren espezifikotasuna definitzeko orduan: lankidetzaren bitartez solidaritatearen kultura eta herritarren beren balioen aldaketa sustatzen lagunduko duen borondatea hain zuzen ere.

Toki-garapena eta erakundeak indartzearen inguruko gogoeta

Diagnostiko orokorrez eta lankidetzaren beraren oinarri espezifikoiari eta balio erantsiari buruzko analisisiez haratago, gure ustez lankidetzeta deszentralizatuaren plangintzan oro har ia nahitaezkoak diren erreferentziazko

⁷⁰ Dokumentu honetan udal-izaera duen lankidetzeta teknikoari loturiko ideia bezala aurkezten da udal mailako lankidetzaren nozioa.

gai jakin batzuei emandako trataera ere landu dugu⁷¹. Espezifikoki aztertu-riko erakundeez haraindi doazen gaiez ari gara beraz. Gai horiek, beren ezaugarriengatik, oro har lankidetzak deszentralizatuaren politiken parte garrantzitsua izan behar dutela uste dugu. Gai horiek, batetik, tokiko garapenearen, erakundeen indartzearen eta tokiko gizarte-egituraren bultzada dira, eta, bestetik, garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza. Datozen lerroetan, EAEko erakundeen politika-dokumentuetan bi gai horiei emandako trataera aztertzen da.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, lehen Plan Zuzentzailea egin aurretik agertu ziren politika-dokumentuetan, lankidetzak-ahaleginen lehentasuneko alderdi gisa, tokiko garapenari eta tokiko erakundeen indartzeari buruzko aipamenak eta deszentralizazio-prozesuen babesa⁷². Hala ere, eta dokumentu horiek alde batera utzita, esparru horretan arrakasta izan ez zuten hainbat ekimen burutu ziren, eta horren ondorioz, ez ziren proposamen artikulatuetan zehaztu⁷³. Plan Zuzentzaileak egitean ordea, Tokiko Garapenari buruzko gaiak politikaren helburuen parte izaten hasten dira, baita berezko ezaugarri gisa ere.

Lehen Plan Zuzentzailean (2005-2008) modu ezberdinetan ikus daiteke planean zehar Tokiko Garapenaren inguruko gaiei emandako garrantzia. Alde batetik, udal-eremuan, lankidetzaren helburu orokorren definizioan, lehentasuna ematen zaio pobreziaren aurkako borrokari. Bestetik, estrategiaren zehar-lerroak planteatzeko orduan, tokiko gaitasunen eta partaidetzaren eta antolakuntzaren indartzea zehar-lerro horietariko bat bezala azpimarratzen da tokian tokiko mailan. Azkenik, sektoreko eremu batzuetan jarduera-ildoak proposatzen diren kapituluan, toki-garapenarekiko kezka, bai tokiko botereari eskainiriko arloko eremu espezifikoko batean (4.3), bai toki-eremuko hainbat alderdi, Herri Ekonomiaren eremuari (4.2) dagokion azalpenean islaturik ageri da. Lankidetzaren alderdi garrantzitsutzat hartzen den tokian tokiko indartzearen defentsa-lerro hori bigarren Plan Zuzentzailean (2008-2011) planteatzen jarraitu zen, non aurreko planean aurkeztu-riko gaiei buruzko diagnostikoak eta proposamenak mantendu baitziren.

⁷¹ Horien justifikazioa Unceta et al. (2011) lanean ikus daiteke.

⁷² Lehen dekretuetako batzuetan *“laguntza burutzen den gunearen garapen integrala sustatzeko”* helburua planteatzen da, baina helburu hori gehiago zehaztu gabe.

⁷³ 90eko hamarkadaren erdialdean, Eusko Jaurlaritzaren eta Europar Batasunaren baterako proposamen bat planteatu zen tokiko garapenerako programa bat abian jartzeko Guatemalan, Alta Verapazeko eskualdean, euskal GGKEen partzuego bat sorreraren bitartez, baina proposamenak ez zuen aurrera egin.

Foru Aldundien kasuan, lehen dekretuetan Tokiko Garapenaren gaiak buruzko aipamen adierazgarriak egin ez bazen ere, baterako Plan Zuzentzailearen (2009-2011) ezaugarrietako bat da haiei eskainitako arreta. Plan horretan, Tokiko Giza Garapenaren kontzeptutik planteatzen da toki-garapenaren eta tokiko erakundearen indartzearen aldeko apustua. Apustu hori, dokumentu guztian zehar etengabeko erreferentzia izateaz gain, pobreziaren aurkako borrokarekin, giza eskubideen defentsarekin, erakundearen partaidetza eta indartzearekin edo baita ingurumenaren jasagarritasunarekin ere loturiko helburu sorta zabal baten adierazpen gisa agertzen da. Gainera, Tokiko Giza Garapena helburu edo ardatz nagusi gisa planteatzen da, Genero Berdintasunarekin eta Garapenerako Hezkuntzarekin batera⁷⁴, hainbat jardueraren bidez proposatuz erakundearen indartzeari, tokiko estrategiak sustatzeari eta babesteari edo proiektu emankorren hazkunde ekonomikoari eta bultzadari buruzkoak.

Udalei dagokienez, bestelakoa da egoera. Bai Gasteizkoak bai Bilbokoak, hasieratik planteatu zuten toki-garapenarekin, partaidetzarekin edota tokiko erakundearen indartzearekin loturiko auzien garrantzia, zeina 1993 eta 2001etik hurrenez hurren argitaraturiko hainbat araudi eta deialditan ikus baitaiteke. Gainera, Gasteizen kasuan, 2000n jada Tokiko Garapena lankidetzaren deszentralizatuaren berezko helburu gisa definitu zen, tokiko erakunde demokratikoen indartzean zehaztuz tokiko kudeaketarako prestakuntza, deszentralizazio-prozesu demokratikoei egindako ekarpena edo herritarren parte-hartzearen sustatzea. Hala ere, Donostiaren kasuan, toki-garapenaren problematika espezifikoak 2008ko Tokiko Lankidetzaren Planaren argitalpenarekin baino ez zuten eskuratu herritartze-agiria.

Ondoren, hiru udaletako Plan Zuzentzaileek enfasi nahikoaz eman zuten gai hauen berri, modu ezberdinean bazen ere. 2006an dagoeneko, bere lehen Plan Zuzentzailean, Bilboko Udalak arloz arloko jardueraren bidez planteatu zuten Tokiko Boterearen indartzearen gaia, tokian tokikoaren garrantzia azpimarratuz gaur egungo testuinguruan, eta erakunde publikoak zein gizarte-erakundeak txertatuz analisisian. Bere aldetik, bigarren Plan Zuzentzaileak (2010-2013) gai horretan sakontzen du, lehentasuneko jardueraren eremuak tokian tokikoa izan behar duela azpimarratuz, udaletik bertatik esparru horretan dauden lan-aukerak nabarmenduz eta

⁷⁴ Dagokion atalaren sarreran ordea, pobreziaren aurkako borrokaz, genero-berdintasunaz eta kontzientzia kritikoa eta eraldatzaile bat sortzeaz hitz egiten da, hau da, berriz azpimarratzen da dokumentu osoan mantentzen den Tokiko Giza Garapenaren kontzeptuaren eta hainbat helbururen arteko (bezeziki pobreziaren aurkako borroka) identifikazio orokorra.

Tokiko Boterearen auzia lanerako arloz arloko ildoetarako bat bezala planteatuz berriro ere, emakumeen ahalduzarekin eta gizarte-aldaketarako sentsibilizazioarekin eta hezkuntzarekin batera.

Bere aldetik, Donostiako Udalak, Tokiko Lankidetzak Planean (2008-2011) nabarmen planteatzen ditu Tokiko Garapena eta gaitasunen sorkuntza bere lankidetzak-politikaren funtsezko ezaugarriak direlakoan, gaur egun tokian tokiko eremuek eta eremu horien osagaiek duten garrantzia azpimarratuz. Gainera, hori guztia indartu egiten da Tokiko Boterea eta Partaidetzak estrategia osoaren zehar-lerro gisa kontuan hartuz. Azkenik, Gasteizko Udalak bere Plan Zuzentzailean (2010-2013) tokiko garapeneraren gaitentzako arau espezifikoa bat sortzen du, gai horiek guztiak gaitasunen sorkuntza eta pertsonen bizi-baldintzen hobekuntza eraginkorra bateratzen dituzten auzi gisa ulertuz. Gainera, jarduerak tokiko lurralde-esparrura mugatzeko beharra planteatzen da.

EAEko erakundearen egoerari oro har behatzen bazaio, azpimarra daiteke Euskadiko lankidetzak-politikaren oso atal garrantzitsua eratuz joan direla azken urteotan maila horretan toki-garapenerari eta erakundearen indartzeari dagokion auziak. Hala eta guztiz ere, plangintza-dokumentu ezberdinek jarduerak-ildoen eta eskuragarri dauden tresnen analisi zehatzago bat falta dute, maila orokor hutsean geratzen baitira batzuetan, eta hori, neurri batean, esparru horretan esperientzia gutxitxo izatearen ondorioa da, jarraian aipatuko ditugun sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza bezalako beste jarduerak-eremuei dagokienez.

Garapenerako hezkuntzaren inguruko gogoeta

Azkenik, eta Garapenerako Hezkuntzaren inguruko ikuspegiari dagokionez, politikaren lehentasuneko alderdi eta –lehentasun horri dagokionez–beste administrazio batzuen aurrean elementu bereizle hartzen den neurrian, administrazio nagusiaren aurrean esate baterako, beharrezkoa da hasieratik azpimarratzea gai hau EAEko erakundearen lankidetzak-politikaren funtsezko atala izan dela. Horri dagokionez, esan daiteke Garapenerako Sentsibilizazioa eta Hezkuntza estrategiaren erdigunetzat hartzen direla jada 1994az gero Eusko Jaurlaritzaren kasuan⁷⁵, eta aldarrikaturiko lehen dekretuetatik gainontzeko erakundeetan. Baina egiaztapen horretaz haratago, euskal erakundeek plangintza-dokumentuetan egiten duten Garapenerako Sentsibilizazioaren eta Hezkuntzaren trataerak etengabeko aldaketak

⁷⁵ Data horren aurretik, sentsibilizazio-jarduerak finantzatzeko aukera planteatzen zen 1991eko eta 1992ko dekretuetan, baina ezin ziren laguntzen % 5 baino gehiago izan.

eta eguneratzeak izan ditu, hauexek baita seguru aski analisi- eta plangintza-ahalegin gehien egin diren esparruetako bat, bereziki Eusko Jaurlaritzaren eta Gasteizko Udalaren aldetik. Gai honi buruzko lan eta txosten ugari egin dira erakunde hauen babespean.

Xehetasun gehiagotan sartuz, eta Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Garapenerako sentsibilizazioa eta Hezkuntza laguntzak bideratzeko ezarritako hiru bide edo modalitateetako bat bezala planteatu zen hasieran, nahiz eta 1995etik aurrera gai horiek lankidetzaren politikaren berezko helburu gisa ere planteatu ziren. Hala ere, hau ez zen bat etorri gai honek tokian tokiko mailetan hartzen duen garrantziari buruzko analisi espezifiko batekin (zeinak, erdiguneko mailak ez bezala, biztanleriarengandik gertuago dauden, eta esparru honetan askoz ere baliabide eta tresna gehiago dituzten), baizik eta lankidetzaren arlotik planteaturiko interbentzioaren logikarekin eta alor horretan lan egiteko babes-eskaera geroz eta ugariagoekin. Hezkuntza formalari espezifiko dagokionez eta lehenago jada azpimarratu den bezala, ez da Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko hezkuntzaren erantzule bakarra den aldetik, gai horretan duen erantzukizun bereziari buruzko inolako hausnarketarik ikusten. Hala ere, 1996 eta 1999 artean aldarrikaturiko dekretuek, Garapenerako Hezkuntzaren gaia planteatzeko orduan, hezkuntza-sisteman esku hartzeko beharra jaso zuten, eta 2002ko dekretua aurrerapauso bat izan zen norabide horretan, bi jardura-ildo bereiziz III. kapituluaren baitan: alde batetik Sentsibilizazioa eta bestetik Garapenerako Hezkuntza, azken horri paper garrantzitsu bat emanez bai irakaskuntza arautuan zein ez-arautuan, eta, horrez gainera, esparru horretan inplikaturiko eragile ezberdinen arteko ahaleginak koordinatzeko beharra planteatuz (Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusia, Hezkuntza Saila, Ikastetxeak eta GGKEak). Hala ere, analisi- eta hausnarketa-ildo hori desagertuz joango zen ondorengo urteetan, inolako azalpenik gabe gainera.

Foru-aldundiei dagokienez, Sentsibilizazioa eta Garapenerako Hezkuntza lankidetzaren politikaren lehentasunezko helburu bezala agertu ziren, argitaratutako lehen dekretuetatik, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren kasuetan. Arabaren kasuan, gai hori ez zen espresuki helburu gisa planteaturik agertu 2005eko dekretura arte⁷⁶. Urte horretatik aurrera, sentsibilizazioak eta garapenerako hezkuntzak trataera espezifiko jaso zuten gainontzeko lankidetzaren jardueretatik bereizirik Dekretu batean. Beren aldetik, Bizkaiko eta Gipuzkoako

⁷⁶ Hala ere, aurreko urteetako dekretuetan laguntzak eskatzen dituzten erakundeek bete beharreko baldintza gisa planteatzen da esperientzia izatea hiritarren sentsibilizazioarekiko eginkizunetan.

dekretuek hasieratik kapitulu espezifiko bat izan zuten sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren esparruan egindako interbentzioei buruz.

Eta udalei dagokienez, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren garrantziaren berri eman zuten denek politikaren lehen dokumentu arautzaileak argitaratu zirenetik. Hala, Bilboko Udalak helburu espezifiko gisa planteatu zituen lehen araudian, zeina 2001ekoa baita. Gasteizen kasuan, 1993tik agertu ziren Sentsibilizazioa eta Garapenerako Hezkuntza politikaren berezko helburu gisa, eta 1995ean lankidetzak-deialdien gaiari buruzko atal espezifiko bat gehitu zen. Bertan, gainera, ikastetxeak lehentasunezko alor gisa identifikatu ziren. Geroago, 1997tik 2000ra arte, bi ildo bereizi egon ziren: bata Sentsibilizazioarentzat (epe laburreko jardueretan kontzentratua) eta bestea Garapenerako Hezkuntzarentzat –epe luzeragoko hezkuntza-prozesuetarako– gero, atzera, ildo bakar batean batzeko. Aipagarria da halaber udal horrek Garapenerako Hezkuntzaren esparruan gehitutako urte anitzeko interbentzioen modalitatea, epe luzeragoko lana ahalbidetzen baitu.

Azkenik, Donostiari dagokionez, arlo honetako jarduerak Plan Zuzentzailearen aurretik argitaraturiko deialdi guztietan jaso ziren, jarduera-ildoetako bat zelakoan. Gainera, Donostiako udalaren kasuan, azpimarratu behar da garapenerako lankidetzak-politika oso loturik egon dela beti –bai kontzeptualki bai antolakuntzari dagokionez– Giza Eskubideen, tolerantziaren edo xenofobiaren eta arrazakeriaren aurkako borrokaren inguruan burututako politikarekin.

Ondoren, euskal erakundeek martxan jarritako lankidetzarako plangintza-estrategikoak, Sentsibilizazioari eta Garapenerako Hezkuntzari emandako garrantzia bermatu zuen politikaren erdigune gisa. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, lehen Plan Zuzentzaileak (2005-2008) sektoreko eremu espezifiko gisa planteatu zuen Garapenerako Hezkuntza, hiru dimentsio azpimarratuz (kulturala, politikoa eta pedagogikoa) eta horien hartzaile diren hainbat jarduera eta talde-mota aditzera emanez. Bigarren Plan Zuzentzaileak (2008-2011) Garapenerako Hezkuntzaren gaia Arau mailara igo zuen (Planean jasotako zazpien artean bat) epe ertain eta luzera pertsonak hezi nahi dituen hezkuntza-proposamen gisa definituz, mundu mailako arazoak eta arazo horien egiturazko kausak uler ditzaten. Gainera, Garapenerako Hezkuntzaren esparruaren baitan hainbat zehar-lerro jaso ziren, adibidez, generoa, giza eskubideak, kulturen arteko harremanak eta beste batzuk, azpi-sektoreen eta jarduera-ildoen desberdintzearekin jarraituz. Dena dela, eta lehenago azpimarratutakoaren ildotik, beste bi plan zuzentzaileetariko batean ere ez zen

egin hausnarketarik Eusko Jaurlaritzak, EAEko hezkuntzaren botere goren gisa, Garapenerako Hezkuntzaren esparruan duen paperari eta erantzukizun espezifikoei buruz⁷⁷.

Eusko Jaurlaritzaren politikaren alderdi garrantzitsu bat da –gogoan izanik politika hori garapenerako lankidetzari lotua egon dela historian eta plan ezberdinetan zehar–, euskal gizarteko pertsona eta erakunde jakinak lankidetzan espezializaturiko prestatzea. Plangintza-dokumentuen baitan, presetakuntza bultzatzeko edo errazteko xedeaz, erantsi diren zenbait tresnetan edo hezkuntza-programetan islatu da hori, unibertsitatean eta erakundee-tan gai hauetan espezializatuak daudenen laguntzarekin.

Bere aldetik, Foru Aldundien Plan Zuzentzaileak (2009-2011) Garapenerako Sentsibilizazioaren eta Hezkuntzaren zentralizazioa, aurretik jada aipatu den bezala, Planaren zehar-lerroetako bat zelakoan planteatu zuen, bai Euskadin egindako interbentzioei, bai lekuan bertan burututakoei aplikatzeko. Eusko Jaurlaritzaren kasuan bezalaxe, gai honen maila politiko, kultural eta pedagogikoa azpimarratzen zituen planak, laugarren maila etiko bat ere gehituz. Gainera, hainbat arlotako jarraibide eta orientazio planteatu ziren, ohiko hezkuntza, hezkuntza arautu gabea eta hezkuntza informala bereiziz.

Udalei dagokienez, Plan Zuzentzaile ezberdinak ere Garapenerako Hezkuntzari eta Sentsibilizazioari gehitzen zaizkio, planteaturiko estrategiaren alderdi garrantzitsu bezala. Bilboko lehen Plan Zuzentzaileak sektoreko eremu espezifikoko gisa hartu zuen Garapenerako hezkuntza, lehentasunezko jardueraildo gisa azpimarratuz gainera eta jarduerak gehituz sentsibilizazioa, ikerketa, eragin politikoa eta garapen arauturako eta ez-arauturako hezkuntza bezalako esparruetan. Bigarren Plan Zuzentzailean (2010-2013) esparru hone-tako jardueren hedadura zertxobait gehiago zabaldu zen, bidezko merkataritzarekin eta kontsumo arduratsuarekin edo erosketa publiko etikoarekin loturikoak gehituz. Gasteizko Udalaren kasuan, bere Plan Zuzentzaileak (2010-2013) hasieratik planteatzen ditu bi jardueraildo ezberdin: Gasteizko hirian bertan burututakoak (non Sentsibilizazioa eta Garapenerako Lankidetzeta kokatzen diren) eta beste herrialde batzuetan burututakoak. Filosofia horren arabera, esparru hauetan lan egiteko marko operatibo bat garatzeaz bakarrik diharduen atal bat du Planak. Sentsibilizazioari eta garapenerako

⁷⁷ Elkarriketatu ditugun hainbat pertsonak hiruko gobernuaren baitan (PNV-EA-IU) sail ezberdinen artean izan diren komunikazio-arazoak azpimarratu dituzte eta, bereziki, Hezkuntza Saileko arduradun berriek Garapenerako Lankidetzeta Zuzendaritzarekin kolaboratzeko agertu duten gogo eskasa, aipatu dugun gobernuak iraun zuen aldian zehar (2001-2009).

hezkuntzari dagokionez, hainbat alderdi zehazten dira, ekintzen tipologia-rekin, tresnekin, eragileekin edo ekintza-esparruekin loturik.

Azkenik, Donostiako Udalarik dagokionez, Tokiko Lankidetzak Planak (2008-2011) neurri batean ezberdina den ikuspegi bat hartzen du; izan ere, batetik lankidetzaren eta bestetik Sentsibilizazioaren eta Garapenerako Hezkuntzaren arteko bereizketa gainditzeko komenigarritasuna planteatzen du, bi gai horiek estrategia eraldatzaile bakar batean bilduko dituen ikuspegi global baten beharra iradokiz. Horretarako, eranskin bat gehitzen du Planak, “Garapenerako Hezkuntzan egiten den lanaren gakoa, eta horrek lankidetzarekin duen harremana” izenburuarekin. Filosofia horren arabera, ekintza eta lehenetsutako sektore sorta handi batean txertaturik agertzen dira Planean Garapenerako Hezkuntzari dagozkion gaiak.

Azpi-atal hau bukatu aurretik, izan den koherentziari buruzko gogoeta labur bat egingo dugu plangintza-dokumentuetan defendaturiko zentralizazioa ziurtatzen duten aurrekontuen aurreikuspenari eta tresna espezifikoek buruz, Garapenerako Sentsibilizazioari eta Hezkuntzari dagokionez. Zentzu horretan, beharrezkoa da aitortzea egoera aldatuz joan dela denborarekin erakunde ezberdinetan.

Sentsibilizazioari eta Garapenerako Hezkuntzari emandako lehenetsutaren eta horretara bideraturiko aurrekontu-zuzkiduren arteko harremanari dagokionez, esan daiteke Eusko Jaurlaritzaren lankidetzak-politika nahiko koherentea izan zela lehen urte haietan, hainbat hutsune eta gorabehera izanik ere. 1992ko dekretuan aurreikusitako %5az geroztik, aurrekontuen aurreikuspenak ez ziren esplizituak izan 2000ra iritsi arte. Urte hartan diru-laguntzen Dekretuko III. kapitulua (Sentsibilizazioari eta Garapenerako Hezkuntzari buruzkoa) aurrekontuaren gehieneko %10az hornitu zen. Kopuru hori %15era arte handitu zen ondorengo urteetan, 2005era arte, non %10ekoa izatera itzuli baitzen, funts guztien etengabeko gehikuntza tesuinguru batean izan bazen ere.

Plan Zuzentzaileen argitaratzearekin jada, Sentsibilizazioari eta Garapenerako Hezkuntzari emandako garrantziak ere ildoen eta jarduera-esparru zehatzen definizioa ekarri zuen, eta baita finantzatzeko aurrekontuen aurreikuspen-espezifikoek zuzkidura ere. Azken hori aurreikusitako funtsen %10ean kokatu zen 2005-2008ko Planean, eta ehuneko hori %6-8ra arte murriztu zen 2008-2011ko bigarren Plan Zuzentzailean. Bere aldetik, Foru Aldundien Plan Zuzentzaileak Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntzako ekimenterako aurrekontu-aurreikuspen bat eratu zuen, zeina lankidetzak-aurrekontu

globalaren gutxieneko %10ean finkatu baitzen. Eta udalei dagokienez, Bilbokoak funts guztien %10 eskaintzea gai horiei planteatu zuen lehenengo planean; bigarrenean ordea, ez zen horretarako aurrekontu-konpromiso espezifikorik agertu, garapenerako hezkuntzak berak garrantzi handiagoa hartu bazuen ere (lehentasunezko ildo berri gisa gehituz eta planean zeharka aplikatuz). Gasteizkoak, bere aldetik, adierazle gisa sentsibilizaziora eta garapenerako hezkuntzara %10etik gertu dagoen ehuneko bat bideratzea komenigarria dela planteatzen du. Eta azkenik, Donostiakoak termino absolutuetan ezartzen ditu jarduera-esparru honetarako aurrekontuen aurreikuspenak, plana indarrean dagoen urteetan zehar. Aurreikuspen horiek 359.000 eurotik 2008an, 365.000 eurora doaz 2011n. Horrek aurreikusitako funts guztien %25etik gorako kopuru bat dakar, zeinak, zalantzarik gabe, EAEko erakunde guztien arteko ehunekorik handiena adierazten duen.

Eta tresnen aurreikuspenari dagokionez, beharrezkoa da adieraztea aztertutako erakunde ezberdinen plan zuzentzaileek ahalegin nabarmenak eskaini dizkiotela arauetan eta jarduera-ildo jakinetan sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren helburu orokorrak zehazteari, sektoreak eta jarduera-esparruak espezifikatuz, zeharkakotasunari buruzko joerak planteatuz eta edukien inguruko gaiak zehaztuz ere bai inoiz. Zentzu horretan, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren politikaren definizioak arazoren bat izan badu, ez da ardura- eta kezka-falta izan (zeina gaiari eskainitako garrantziarekin bat etorri den argi eta garbi), baizik eta, gehienez ere, landu beharreko gaien zabalatasuna eta ugaritasuna, eta baliteke zabalatasun eta ugaritasun horiexek estrategiaren funtsezko gakoak edo alderdirik esanguratsuenak ikustea galarazi izana. Gainera, neurri batean zaila izan da analisietatik eta egindako ebaluazioetatik ateratako ondorioak eta behaketak plangintzari gehitzea; eta, seguru aski, badu horrek zerikusia eragileek batzuetan adierazten duten desorientazio-sentsazioarekin, hau jaso delarik jarduera-esparru honen inguruan egindako ebaluazio-lan bakanetan.

Gogoeta orokorrak

Oro har, EAEko erakundeen lankidetzeta-politikek ezarritako lehentasunen azterketak eta emandako trataerak gai honen bi alderdi bereizteko beharra ematen dute aditzera, ekarpen espezifikoa eta bere balio erantsia garapenerako lankidetzaren testuinguru orokorrean baloratu ahal izateko. Alde batetik, gai horrekiko kezka zein puntutarainokoa izan den aztertu behar litzateke, eta horretarako EAEk esparru honetan dituen ahalmen espezifikoa analizatuko dira. Eta bestetik, politika horietan alderdi batzuei

emandako trataeraren auzia dago, zeinak gure iritziz bereziki garrantzitsuak baitira lankidetzak deszentralizatu bati begira, elementu bereizgarri izateraino.

Lehenengo auziari dagokionez, azpimarra daiteke burututako analisia oso eskasa izan dela oro har, eta horrek, adierazpenez haraindi, neurri handi batean beste administrazio batzuen planteamenduei jarraitu dien praktika bat ekarri du. Horren ondorio nagusia politikaren pixkanakako definizioa izan da, gertaerek berek edo lankidetzak-sektorearen gune aktiboenen proposamenek eramanda, baina ia loturarik izan gabe EAEn egin zitezkeen beste ekarpen espezifiko batzuei buruzko hausnarketa batekin. Gainera, horrek guztiak eragin duen lankidetzaren geografia- edo sektore-lehentasunen trataera, inertziak justifikatu da gehienbat (ahaleginak jada lanean ari ziren esparruetan kontzentratu) edo oso erreferentzia orokorrez (herrialdeen giza-garapenaren indizea), lehentasun horien eta alde aurretik mugaturiko euskal gizartearen ahalmenen arteko harremanaren bilaketa batez baino gehiago.

Adierazitako bigarren gaiak ordea –lankidetzak deszentralizatuaren hainbat lehentasuneko gaien trataerari dagokiona–, bestelako balorazio bat merezi du. Zentzu horretan, beharrezkoa da azpimarratzea, bai toki-garapenarekin eta erakundeen indartzearekin loturiko gaiek, bai sentsibilizazioari eta garapenerako hezkuntzari buruzkoek, lehentasuneko arreta merezi izan dutela EAEko erakundeen aldetik. Hala ere, ikus daiteke arreta hori ez dela beti izan esparru horietan lankidetzak berak joka zezakeen paperaren alde aurreko diagnostiko baten ondorioa, baizik eta lehendik zeuden sentsibilitate eta dinamika batzuen emaitza izan dela gehienbat, bereziki garapenerako hezkuntzaren gaian. Bestalde, azken gai hori zehaztasun handiagoz definitzera iritsi da, eta baita aurrekontuen aurreikuspen espezifikoetan zehaztu ere. Hori ez da toki-garapenaren eta erakundeen indartzearen gaietan gertatu, zeinek trataera teorikoagoa edo generikoagoa izan duten, salbuespen batzuk izan ezik.

Toki Garapenari dagozkion gaien analisian, bai kontzeptu-markoa, bai planteaturiko gai jakinak, ez dira berdinak erakunde guztietan. Gauza bera gertatzen da proposatzen diren jarduera-ildo espezifikoekin eta horretarako erabiltzen diren tresnekin. Kasu batzuetan alde handia ikusten da gai horiei emandako garrantziaren eta, batetik, beren definizioan jarritako enfasiaren eta, bestetik, proposaturiko jarduera-ildoen zehaztasun gutxiaren artean. Zentzu horretan, esan daiteke gai hauek estrategiaren erdiguneko alderdi bihurtzeko asmoa gailendu dela beren trataeran (batez ere azken urteotan,

plan zuzentzaileak egin direnez geroztik), esparru honetako jarduera-aukeri, eskura dauden baliabideei eta balizko eragileei buruzko hausnarketa sakonago baten gaitetik.

Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren kasuan, hainbat debategen zeharkatu dute eta hainbat tentsioren mende egon dira lankidetzeta-politiken ikusmoldea eta diseinua. Hasieratik izan zen erakundeek bultzatutako lan-ildo bat, eta euskal garapenerako lankidetzaren ezaugarrietako bat bihurtu da, tokiko eta autonomietako esparruek gai horretarako adierazten dituzten abantailak bereganatuz. Hala ere, politika-dokumentuetan sumatzen da lehentasunen eta hainbat helbururen arteko etengabeko tentsioa, zeinak, funtsean, bi gai nagusitan duten eragina: epe laburren eta luzearen arteko harremana, eta garapenerako hezkuntzaren eta lankidetzeta orokorraren arteko harremana.

Gai hauetako lehenengoa plangintza-dokumentuetan adierazten diren joan-etorrietan agertu da, hezkuntza arautuaren sektoreari emandako trataeran. Aldi eta erakundeen araberrako egoera ezberdinak bereiz badaitezke ere, ikastetxeek oro har kezka handi samarra izan dute sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza jardueretik, eta kezka hori planetan, dekretuetan eta deialdietan agertu da. Hala ere, gai horren trataeran jarraipenik ez izateak eta testuetan ikusten diren aurrerapauso eta atzerapausoek nolabaiteko zehaztugabetasuna erakusten dute lortu nahi ziren helburuetan, horrek ebaluaziorako dakartzen zailtasunekin. Zentzu horretan, deigarria da, emaitzak batez ere epe luzean eman behar dituen lan-ildo bat izanik, batzuetan zalantzan jarri izan dela lankidetzaren ikuspenari edo GGKEen laguntzari egin zaien ekarpen txikiagatik. Baina, aldi berean, epe laburrean kontzentratutako lan-ildoak ere, hain espezifikoki mugaturiko helburu-sektorerik gabe, zalantzan jarri izan da hainbatetan, eta erakundeen eta GGKEen arteko eztabaidagaia izan da; izan ere, partekatua izan den iritzien baten arabera, gai hauetan herritarren jarrera oso eskasa da eta ez dira ia inplikatzeko kultura solidario baten eraikuntzan⁷⁸.

Era berean, aurreko guztiak planteaturiko bigarren gaiarekin du zerikusia, hau da, Sentsibilizazioak eta GHk lankidetzeta osoarekin dituen harremanei dagokionarekin. Plangintza-dokumentu askoren irakurketatik ondoriozta

⁷⁸ Gai horrekin loturik, Argibayk (2008) hau adierazten du: *"Jendaurrean oro har edo ikastetxeetan egindako abalegina dela medio, beste kolektibo batzuei zuzendutako Sentsibilizazio edo Garapenerako Hezkuntzarako ekintzak abulagoak izan ziren, okerrago egituratuak, baliabide pedagogiko gutxiagorekin eta jarraipenik gabeak"*.

daiteke sentsibilizazioak funtsezko papera jokatu behar duela herritarren kontzientzia eta lankidetzarekiko konpromisoa areagotzeko. Hala ere, politika-dokumentuek ez dute ia biderik proposatu herritarrak nazioarteko solidaritateari gehi daitezen pizteko eta sustatzeko, eta bazirudien nazioarteko solidaritate horrek GGKEen lanaren babesa jarri behar zuela bereziki agerian. Ikerlan honen hurrengo atalean azaltzen den bezala, erakunde batzuen eta besteen testuek ez dute beste erakunde eta gizarte-kolektibo batzuek garapenerako lankidetzan eta nazioarteko solidaritatean betetzen duten papera ia aztertzen. Horregatik, zaila da biztanleriaren konpromiso solidarioaren adierazleak aurkitzea, beren finantza-ekarpenaz, lankidetzarako erakundeek antolatutako ekitaldietara joateaz edo gobernuen aurreko protesta politikoko ekintzetan parte hartzeaz haraindi. Plangintza-dokumentu gehienetan dauden hutsuneak dira, Sentsibilizazioaren eta Garapenerako Hezkuntzaren paperaren inguruko hausnarketa estrategikoari dagokionez, loturirik ez egotea Garapenerako Lankidetzan Sentsibilizaziorako eta GHRako proposamenen eta eragile berriak gehitzeko eta solidaritatea sozializatzeko balizko estrategien artean. Zentzu horretan, esan daiteke lankidetzapolitikek gai hauei ekiteko izan duten modua ez dela baliagarria izan solidaritatearen esparrua zabaltzeko.

4.5. EAEko lankidetzarako baliabide erabilgarriak mobilizatzeko eta baliatzeko gaitasuna

Lankidetzarako aukeran dauden baliabideei buruz egindako analisiari eta politika-dokumentuetan ematen zaien trataerari dagokion gaia, es-tuki loturik dago lankidetzarako deszentralizatuaren izaerarekin eta hainbat erakunde ezarritako lehentasunekin. Era berean, horrek zerikusia du, bai erakunde gaitasunei eta baliabideei buruzko ikuspegiarekin, bai gizartearen dauden beste gaitasun eta baliabide batzuen diagnostikoarekin. Gai honi emandako garrantziaren eta trataeraren ondorio dira lankidetzapolitiken orientazioaren erdiguneko alderdi batzuk. Horrexek jardungo dugu atal honetan.

Euskal gizartearen baliabideei buruzko gogoeta

Oro har, oso gutxitan agertu da erakundeek beren lankidetzapolitikari buruz egindako dokumentuetan Garapenerako lankidetzaren interbentzioei begira EAEn egon daitezkeen baliabideak identifikatzeko eta balioesteko kezka. Hala ere, dokumentu horiek albo-hausnarketa ugari planteatu eta gaiari buruzko hainbat kezka erakutsi dituzte, azkenean zehaztu ez badira ere.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, eta jada lehenago aipaturiko beste gai batzuekin gertatu zen bezala, lehenengo dekretuek hainbat gauza jaso zituzten zentzu horretan, eta gero desagertuz joan ziren. Hala, nolabaiteko kezka ikus daiteke “EAEko langileen, ondasunen eta zerbitzuen partaidetza errazteko, kofinantzaturiko proiektuak gauzatzeko eta garatzea dela-eta”, bereziki produkzio-sarearen indartzea edo prestakuntza teknikoa edo profesionala aipatzean. Aipamen horietan gehienetan, EAEko baliabideak erabiltzeko ahalgintzen batzuk kontzentratzeko beharra aitortzen zen nolabait ere, nahiz eta horrekin batera ez zen agertzen, aldi berean, Euskadik auzi honetan izan zitezkeen ahalmen nagusiei edo zein izan zitezkeen lankidetzari begira sektorerik garrantzitsuenei buruzko hausnarketarik⁷⁹.

Politika-dokumentuak aztertzen baditugu, badaude gai interesgarri batzuk ikuspuntu ezberdinen artean nolabaiteko tentsioa dagoela erakusten dutenak gai horiek planteatzeko orduan. Horren adibide bat da euskal gizartearen hainbat baliabide kontuan hartzea, Eusko Jaurlaritzak aldarrikituriko lehen urteetako dekretuetan jada agertzen dena, Plan Integralak edo Garapen Integrala deritzanetan parte hartzeari begira. Horrelako jarduerak funtsezko bi ezaugarri erakusten zituzten: ezaugarri horietariko batek zerikusia zuen jardueraren denbora-mugarekin eta interbentzioen beharlagotasuna eta behin-behinekotasuna gainditzearekiko kezkarekin. Gai hori hurrengo atalean (4.6.) aipatuko dugu. Programa hauen beste ezaugarri bat zen euskal gizarteko hainbat eragile eta baliabide mota tartean sartzeko eginak zeudela.

Plan integral horien alderdi deigarrietariko bat zen osagai tekniko edo produktibo handiago bati loturik zeudela, eta horrek eragile espezializatuak parte hartzea planetan eskatzen zuen. Horrek nolabaiteko bereizketa ekarri zuen GGKEei eta izaera teknikoagoko beste talde batzuei erreserbatutako hainbat interbentzio motaren artean (GGKEei laguntzazkoagoak edo humanitarioagoak, oinarrizko beharrak asetzean kontzentratuak), bigarrenetan aipaturiko beste eragile batzuen partaidetza aurreikusten zelarik. Izan ere, prestakuntza eta laguntza teknikoari babes espezifikoak emateko ideia behin eta berriz agertu zen izaera integralko Plan edo Proiektu haiek arautzean, teknologia-transferentzia edo “abialdi ekonomikoari” egin zitezkeen ekarpena bezalako beste gai batzuekin batera. Bereizketa hori,

⁷⁹ Modu generikoan eta zehaztapen handiagorik gabe, lehenengo dekretuetan jasotako planteamendu horietariko batzuek inplizituki iradokitzen dutenez, lanbide-heziketaren eta produkzio-egituraren sektorea (bereziki kooperatibak) zirela mobilizatu beharrekoak ematen zen adituzera.

azkenean, denboran zehar mantendu ziren bi jarduera-tresna ezberdinetan gauzatu zen⁸⁰.

Jada aipatu den bezala, Garapenerako Programa Integral horiek –gero, Garapen Espezifikorako Programak izenburupean eta geroago Garapen Produktiboko eta Laguntza Teknikoko Programak bezala bildu ziren– arautzean jasotako elementuetariko bat zen haietan eragile eta baliabide sorta handi batek parte hartu ahal izateko aurreikuspena. Zentzu horretan, dekretuak erakundeen baliabideak eta baliabide teknikoak identifikatuz eta aipatuz joan ziren, unibertsitateetan, lanbide-heziketako zentroetan, erakunde publiko eta pribatuetan, osasun-zentroetan, teknologia-zentroetan, ingurumen-erakundeetan eta beste batzuetan, aldatuz zihoan eta ezaugarri komuna kide guztiak GGKEak ez ziren erakundeen eta entitateen ordezkariak izatea zuen zerrenda baten barruan. Gainera, 2000. urtetik partzuergoen ideia sartu zen lankidetzarako eta hainbat eragile eta baliabide moten artikulaziorako tresna gisa.

Oinarrizko premietara bideraturiko lankidetzak-proiektuen (GGKEei erre-serbatuak) eta esparru teknologiko-produktiboan kontzentratutako programa zabalagoen (beste erakunde batzuei irekiak) arteko bereizketak, eragile mota batzuen eta besteen arteko bereizketa-joera indartu zuen, hainbestera non 1996an aipaturiko bi kapitulu bereizketa eragile moten arabera ezarri zen (izenburuan bertan jada), eta ez helburuaren arabera. Horrek guztiak ez zuen lagundu lehendik zegoen hainbat susmo txar desagerrarazten, bereziki GGKEetan enpresen aldera, eta aldi berean, nabarmen mugatu zituen elkarren ezagutza sakontzeko aukerak. Gai horretara aurrerago itzuliko gara. Izan ere, oso bakanak izan ziren bi eragile mota horien arteko berariazko lankidetzak egin zuten programa integralak edo izaera tekniko-produktiboko programak. Geroago, Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaileak egin zirenean, bereizketak bereziki nabarmendu zuen interbentzioen garrantzia eta, hainbat eragileren integratzeari dagokionez, sindikatuetarantz eta gizarte-mugimenduetarantz zabaldu zen harremana, enpresen kasuan murriztu egin zen bitartean, gizarte-ekonomiarenak eta kooperatibak bakarrik aipatuz, baldin eta konpromiso eskuzabal bat ziurtatzen bazuten.

Azkenik, azpimarra daiteke momentu batzuetan, Plan Integral haiek administrazioaren, GGKEen eta unibertsitateak, enpresak edo prestakuntza

⁸⁰ 1990 eta 1992 urteen artean, bi tresnak bi dekretu arautzaile desberdinetan gauzatu ziren; 1993tik aurrera ordea, dekretu bakar baten parte izan ziren kapitulu ezberdin gisa.

teknikoko zentroak bezalako beste erakunde batzuen arteko elkarlanaren itxurako itun publiko-pribatuen aldeko nolabaiteko apustuaren adierazpena izan zirela. Zentzu horretan, Kudeaketa Batzordeak erakunde publiko zein pribatuen prestakuntzarako eta laguntza teknikorako programetan parte-hartzea lortu ahal izateko beharrari egindako hainbat aipamen ikus daitezke, zeinak 1990eko hamarkadaren erdialdean desagertu baitziren.

Lankidetzarako proiektu eta programetan sartutako pertsonen heziketa-rekin eta prestakuntzarekin zerikusia duena da adierazi beharreko beste gai interesgarri bat. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, kezka hori borondatezko lankideak gehitzeko laguntza-dekretuetan ageri izan da, eta baita garapenerako hezkuntzari loturiko hainbat lan-ildotan ere; adibidez, lankidetzan espezializaturiko prestakuntzara (batez ere unibertsitate mailakora) bideraturiko jardueretan; izan ere, gai hau garrantzitsua da, euskal gizarteko baliabide gehiago ez ezik, baita prestakuntza hobea dutenak ere mobilizatzeko garaian. Gainera, azpimarra daiteke aurreikuspen hori aztertutako ibilbide guztian agertu dela –lehen dekretuetatik azken Plan Zuzendutako arte–, euskal lankidetzaren nortasun-ezaugarrietako bat izateraino⁸¹.

Garapenerako lankidetzarako euskal gizartearen baliabideen mobilizazioari dagokion atal honen barruan, beharrezkoa da Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa aipatzea, 1993an hasi zena Kultura Sailarekin elkarlanean, zeinak izan baititu beti Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzari buruzko eskuduntzak. Programa horren bitartez, dozenaka euskal gazte gehitu nahi zen urtero lankidetzaren zereginetara. Horretarako, prestakuntzarako hainbat baldintza betetzea eskatzen zuten⁸². Gainera, denborarekin, handituz joan ziren gai honen dekretu arautzaileen kopurua eta parte har zezaketen pertsonen lanbide-profila. Dena dela, nabarmendu beharra dago Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa, bai bere sorkuntzan bai bere garapenean, lotuago egon dela euskal gazteriaren sentsibilizazioari eta gai hauetarantz hurbiltzeari, pertsona horiek beren ezagutzen bitartez egin zezaketen ekarpen espezifikoari baino. Programa horrek aldaketa txiki batzuk izan zituen urteetan zehar, sarbide-baldintzei, hautaketa-prozesuari eta GGKEek bertan duten parte-hartzeari dagozkionak, nahiz eta aldaketa handirik gabe mantendu den oro har gaur egunera arte.

⁸¹ Zentzu horretan, esan daiteke EAE nazioarteko erreferentzia bihurtu dela garapenerako lankidetzan espezializatutako graduondoko unibertsitate-heziketaren esparruan.

⁸² Programa honen beste helburuetako bat, garai hartako arduradunen iritzia arabera, behar den kualifikazioarekin hainbat euskal gazte nazioarteko hainbat lankidetzaren erakundetara sarbidea izateko baldintzak sortzea zen.

Foru-aldundiek eta udalek aukeran dauden baliabideei buruz izan dituzten ikuspegiak dagokienez, hainbat aipamen ikus daitezke dekretuetan eta deialdietan. Adibidez, 2006ko dekretuan lankidetzak-lana babesteko beharri erreferentzia egitea planteatzen zuen Arabako Aldundiak. Bertan arabar gizarteko sektore espezifikoak zeuden sartuta, eta eskualdeko berezko baliabideekin lotzeko komenigarritasunari egindako apelazio baten gisa interpreta daiteke lankidetzak. Gainera, 2009an, Foru Aldundi horrek Arabako errealitatearen diagnosi-mapa⁸³ argitaratu zuen, zeinak garapenerako lankidetzari buruzko atal espezifiko bat gehitzen baitzuen, nahiz eta bertan jada burututako jardueren edo jada lankidetzarekin loturiko baliabideen berri ematen zen (GGKEak, udalak, parrokiak...), beste esparru batzuetan aukeran izan zitezkeen gaitasunen berri eman baino gehiago. Bere alde-tik, hiru Aldundien baterako Plan Zuzentzaileak (2009-2011) helburutzat hartzen du gizartearen eta herritarren parte-hartzea sustatzea solidaritate eta lankidetzak-ekintzetan, parte-hartze horri erakundeen eta gizarte-mugimenduen bitartez lehentasuna emanez, eta hori gizartearen baitan dauden baliabide berriak eta ahalmen posibleak baliatzearen aldeko apustu gisa ere uler daiteke.

Udalei dagokienez, zentzu horretan kezka handiago bat ikus daiteke, plangintza-dokumentu ezberdinetan nabarmendu daitekeena. Bilboko Udalak bere lehen Plan Zuzentzailean jada udalerriko hainbat baliabide, entitate eta gizarte-erakunde lankidetzak-estrategian inplikatzeko agindu zuen, bereziki nabarmenduz erakunde feministak, unibertsitateak eta etorkinen elkarteak. Bigarren planean, berriz, kezka hori Bilboko gizartearen beste esparru batzuetara zabaldu zen; adibidez, enpresetara edo komunikabideetara.

Gasteizko Udalak bere Plan Zuzentzailean (2010-2013) hainbat alditan azpimarratzen du lankidetzak-lanean udalerriko pertsonak eta erakundeak inplikatzeko beharra, bai lankidetzak-proiektuei dagokienez, bai sentsibilizazio-koei eta garapenerako hezkuntzakoei dagokienez, nahiz eta bigarren kasu horretan analisi espezifikoago bat egiten den, aurrerago ikusiko den bezala. Eta Donostiako Udalarik dagokionez, Tokiko Planaren (2010-2013) hitzaurrean bertan agertzen dira lankidetzaren oinarri gisa –nahiz eta geroago ez diren analisi zehatzago batean adierazten–, udalerririk berak baliabideei buruz duen kezka eta Donostiako gizarte-egiturari buruzko aipamenak. Hala

⁸³ Gizarte Sustapenerako Zuzendaritzak bultzatutako ikerlanaren helburu orokorra hau da : “*Arabako Taldeen diagnostiko bat egitea, tokiko errealitatea aztertuz lau alorren inguruko elkarten mugimenduaren arabera: gazteria, lankidetzak, berdintasuna eta immigrazioa*”. (Arabako Foru Aldundia, 2009).

ere, bereziki nabarmentzen da GGKEen kasua haien hirian errotzea ziurtatzeko garaian, beren benetako presentzia, gaitasuna, eragina eta efektua ezagutzeko xedeaz, eta erregistratu diren GGKE atzerritarren ordezkariak azterketa xehe bat egiteko beharra planteatuz.

Azkenik, EAEko administrazio publikoetan bertan dauden baliabide teknikoak eta giza baliabideen gaineko ikuspegia, dauden baliabideen eta lankidetzari egin diezaioketen ekarpenaren inguruko analisiaren alderdi espezifiko bat da. Oro har, esan daiteke alor honetan dagoen kezka nahiko txikia izan dela Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien kasuan, eta denborarekin murriztu ere egin dela; izan ere, 90. hamarkadan hainbat programa planteatu ziren Eusko Jaurlaritzaren sail ezberdinen partaidetzarekin⁸⁴. Hala ere, esperientzia horiek ez ziren hurrengo hamarkadan hasitako hausnarketan parte izan, zeinak Lankidetzeta Legea eta Plan Zuzentzaileak osatuz bukatu baitziren. Lankidetzeta Legeak ez du ia gai horren berri ematen, lankidetzeta-programetara langileak sartzeko arautzeari dagokionez izan ezik⁸⁵. Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaileetan, berriz, gai hori ia nabarmendu gabe agertzen da, hiru aldundien baterako Plan Zuzentzailean gertatzen den bezalaxe.

Udal maila ordea emankorragoa izan da norberaren baliabideak lankidetzan baliatzeko gaiari ekiteko orduan, aspaldi samarretik datorren kezka baita. Hala, 2000. urtean jada Gasteizko Udalak azpimarratzen zuen lankidetzeta-helburuak eta interbentzio-esparruak tokiko administrazioaren beraren eta, aurrerago azaltzen den bezala, udalak berak edo tokiko enpresek egiten-jakite handiagoa zuten sektoreen eskumenen argitan definitzeko beharra. Kezka hori, partez, Gasteizko hiriko esperientziara bertara ere zabaldu zen. Bere alde-tik, Plan Zuzentzaileak (2010-2013) baliabide hauetariko batzuk zehazten

⁸⁴ 90eko hamarkadan Eusko Jaurlaritzaren hainbat sail, hala nola Osasuna, Justizia edo Hezkuntza, lankidetzari buruzko eztabaidari eta programa batzuetan zuten partaidetzari gehitzea sustatu zen. Aipaturiko sailak hainbat batzorde mistotan agertu ziren, adibidez, Kubarekin edo SEADarekin gauzatuakoa, eta, jasotako informazioen arabera, interes handi samarra erakutsi zuten kanpora ateratzeko eta lankidetzeta-programetan parte hartzeko. Urte haietan Gobernuaren sailek hainbat jardura autonomo ere egin zituzten, zeinak, Lankidetzeta Zuzendaritza alde batera utzita, hainbat jardura burutu zuten Tindufeko saharar kanpamentuetan, koordinazio-arazo batzuk sortu zirelarik.

⁸⁵ Legeak 29. Artikuluan hau agintzen du: *“Euskal administrazio publikoek, araudi aplikagarriaren inguruan, beren langileek garapenerako lankidetzeta-proiektuetan parte har dezaten sustatuko eta erraztuko dute, bereziki langile horiek egin dezaketen ekarpena oso onuragarria izan daitekeen kasuetan, beren prestakuntza profesionala eta teknikoa eta jardura burutuko den esparruan duten esperientzia kontuan hartuz”*. Aldi berean, Legeak aurreikusten du zerbitzu berezietara edo antzekoetara pasatzea garapenerako lankidetzeta-programetan eta proiektuetan edo ekintza humanitarioetan lankide boluntario edo profesional gisa parte hartzen duten euskal administrazio publikoak zuzentzen dauden langileak.

ditu, bereziki garapenerako lankidetzaren esparruko lanari eta erakundeen indartzeari dagokionez. Hurrengo azpi-atalean arituko gara horri buruz⁸⁶.

Bilboko Udaleko Plan Zuzentzaileek ere gai horiek aipatzen dituzte eta hausnarketa bat proposatzen dute tokiko administrazioaren beraren ahalmenaz eta aurrekontuaren zati bat zuzenean kudeatzeko beharraz, partaidetza hori modu eraginkorragoan gerta litekeen hainbat gai edo esparru seinalatuz. Eta Donostiako Udalarai dagokionez, Tokiko Planak (2008-2011) lankidetzara gehi litezkeen sailen eta udal-atalen azalpen bat eransten du Eragileen atalean, honako hauek aipatuz: Hezkuntza eta Kirola, Gazteria eta Giza Eskubideak, Agenda 21, Hirigintza edo Urak.

Toki-Garapenerako, Sentsibilizaziorako eta Garapenerako Hezkuntzarako baliabideak

Aukeran dauden baliabideei eskainitako arreta da gai honen inguruan aztertu dugun beste alderdi bat, 4.4. puntuan espezifikoki adierazitako bi auziri begira: alde batetik, garapenerako tokiko lankidetzari eta erakunde-sendotzeari, eta, bestetik, sentsibilizazioari eta garapenerako hezkuntzari dagozkionak.

Gai horietariko lehenengoari buruz, zeina tokiko lankidetzari eta erakunde-sendotzeari dagokiona baita, eta Eusko Jaurlaritzari dagokionez, ez dago EAEn esparru honetan dauden ahalmenei edo gehi litezkeen moduari buruzko hausnarketa jakinik. Berezi nabarmena da hori lehen Plan Zuzentzailea egin aurreko dekretuetan, non, bestalde, toki-garapeneraren eta erakunde-indartzearen inguruko gogoeta ez baitzen lehentasunezko helburu bezala agertzen. Horren ondorioz, gai honi buruz hainbat dokumentutan sakabanaturiko ohar eta aipamen batzuk baino ezin dira aurkitu. Adibidez, borondatezko lankideentzako hainbat laguntza-dekretuk, 2005ekoak adibidez, hauen lana esparru honetan kontzentratu behar zelako ideia planteatu zuten (bertako erakunde-sendotzea) pobreziaaren aurkako borrokaren lehentasunezko jarduera-ildo gisa.

Jada azpimarratu den bezala, Eusko Jaurlaritzaren lehen Plan Zuzentzailearekin (2005-2008) protagonismo handia eskuratu zuen tokiko gaitasun- eta erakunde-sendotzeak, zehar-lerro gisa planteatuz eta lankidetzajardueretan ikuspegi horren ondorioei buruzko hainbat gogoeta jasotzen zituen atal

⁸⁶ Garrantzitsua da aipatzea 1996an jada Gasteizko Udalak inkesta bat egin zuela udal mailako hainbat zerbitzuren artean, eskuragarri zeuzkaten baliabideei eta gaitasunei buruzko lehen diagnostiko bat osatzeko helburuarekin. Horri dagokionez, ikus Gabilondo (2008).

bat gehituz. Hala ere, atal horretan ez da inolako analisisirik egiten EAetik helburu horretarako espezifikoki ekar litezkeen gaitasunena edo baliabideena, gai horiei buruzko hausnarketa teorikoak planteatu besterik ez baitira egiten. Gehienez ere, hegoaldeko eta iparraldeko erakundeen eta tokiko botereen arteko elkartzea eta hartu-emanaren errazteko beharra aipatzen da, gaitasunen elkarrenganako indartze-estrategia bat bideratuz, zeinak aditza emango bailukeen EAEko tokiko erakundeen aukeren balorazio positibo bat esparru honetan. Bigarren Plan Zuzentzaileak (2008-2011) modu berean errepikatzen du aipamen hori.

Foru-aldundien kasuan are argiagoa da tokiko garapenaren esparruan dauden gaitasunei eta erakunde-sendotzeari buruzko erreferentzia-falta. Kasu honetan, Tokiko Giza Garapenari buruzko lerro estrategiko bat garatu zen arren, hau ez da esparru honetan mobiliza daitezkeen baliabideei buruzko inolako analisisitan zehazten.

Ez da gauza bera gertatzen udalen kasuan, non boterearen eta tokiko erakunde-indartzeari buruzko erreferentziak esparru honetan berezko gaitasunak izateari lotzen baitzaizkion ia beti. Bilboko lehen Plan Zuzentzaileak (2006-2009) azpimarratzen zuen jada arlo hau, tokiko botereak indartzeko ildo estrategikoaren barruan, planteatuz Bilboko Udalak berak, tokiko izaera duen erakunde bat izanik, metaturiko ezagutza asko eta kudeaketa-esparru espezifikoetan eta tokiko estrategietan sorturiko gaitasunak dituela. Filosofia hori bera mantendu zen bigarren plan zuzentzailean.

Bere aldetik, Gasteizko Udalak, 2010-2013ko Plan Zuzentzailean, berezko gaitasunak dituela aitortzeaz gainera tokiko garapenerako programetan eta proiektuetan inplikatzeko, zerbitzu- eta kudeaketa-esparru gisa identifikatzen ditu batzuk, garapen-bidean dauden herrialdeetako tokiko erakundeen interesekin eta beharrekin bat eginez. Horien artean honako hauek aipatzen dira: ura, ingurumen-saneamendua, hondakinen kudeaketa, hirigintza, gizarte-zerbitzuak, haurtzarolari zuzenduriko zerbitzuak, gazteria, hirugarren adina, osasuna eta kontsumoa, kultura eta ondare historiko-artistikoa, ingurumen-jasangarritasuna eta Agenda 21, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna eta abar. Eta Donostiako Udalarik dagokionez, esan daiteke bere Tokiko Planean ez dela gai honi buruzko hausnarketa berezirik egiten, nahiz eta, jada aipatu den bezala, eragileen atalean udal-zerbitzuekin loturiko hainbat baliabide aipatzen diren.

Azkenik, interbentzioetarako baliabideen gai honi dagokionez, tokiko garapenaren eta erakunde-sendotzearen esparruan, azpimarratuko dugu

ez dagoela Tokian Tokiko Garapen Agentzietan buruzko erreferentziarik, batzuek aktiboki garapenerako lankidetzaren interbentzioetan parte hartu badute ere, ikertu ez diren udaletan (Irunen kasua) beren lankidetzaprograma propioak izatera heldu direlarik.

Lehenago aipaturiko bigarren gai espezifikoari dagokionez, azpimarratu beharra dago kasu honetan badirela lan partzial ugari garapenerako hezkuntza aztertzeke erabiliak, nahiz eta ez den diagnostikorik egin jarduera-esparruan bertan dauden baliabide espezifikoak eta gai horiekin loturiko hainbat esparrutako lan-aukerei buruz ere. Bereziki nabaria da hori Eusko Jaurlaritzaren eta batez ere Gasteizko Udalaren kasuetan⁸⁷. Zentzu horretan (bi erakunde horiei dagokienez behintzat) ezin da esan dauden baliabideei eta ikusirik mugei buruzko diagnostikorik edo hausnarketa kritikorik egin ez denik. Arazoa, gehienbat, hausnarketa horiek plangintza-dokumentuetan modu sistematikoan txertatzeko zailtasunean datza, jada aipatu den bezala. Plangintza-dokumentu horiek oro har nolabaiteko inertzia adierazten jarraitu dute egin beharreko jarduera motak eta horretarako dauden baliabideak aztertzeke orduan.

Bestalde, dekretuen eta erakunde batzuen eta besteen planen bilakaera dela medio, argi ikusten da hainbat aipamen daudela ekintza horietan hainbat eragile mota tartean sartzeko edota hainbat baliabidez baliatzeko aukerari edota komenigarritasunari buruzkoak. Eusko Jaurlaritzaren dekretuetan nabaria da hori 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, eta batez ere, 1996tik aurrera. Urte hartan sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren gaiak Eusko Jaurlaritzaren dekretuen kapitulu espezifiko baten parte izaten hasi ziren. Harrezkeroztik, sarritan errepikatu dira unibertsiteari, ikerketa-zentzuei, ikastetxei, hezkuntza ez-arautuaren baliabideei eta abarrei buruzko aipamenak, emandako trataera oso desberdina izan bada ere. Zentzu horretan, hezkuntza arautuaren baliabideekin loturiko guztia planteatzeko modua aldakorra dela esan daiteke; izan ere, momentu batzuetan nolabaiteko garrantzia ematen zitzaizela bazirudien ere, garrantzi hori desagertuz joan zen.

Eusko Jaurlaritzaren lehen Plan Zuzentzailean (2005-2008) sentsibilizazioari eta garapenerako hezkuntzari buruzko arloz arloko ildo bat garatu den arren, ez zen hausnarketa espezifiko bat planteatzera iritsi euskal gizartean

⁸⁷ Gai honi buruzko beste lan batzuen artean, Lankidetzak eta Garapen Ekimenei buruzkoak ikus daitezke (2002, 2004 eta 2005), Gasteizko Udalarena (2004) edo Argibayrena (2008).

dauden eta helburu horretarako mobiliza daitezkeen baliabideei eta eragileei buruz. Harturiko ikuspegia lan-esparruei eta helburu-sektoreei buruzko gogoetan oinarritzen da gehienbat. Horrek, adibidez, ikastetxeak edo bertako irakasleak jardueren hartzaile gisa planteatzera eramaten du, protagonista bezala planteatu ordez. Antzeko zerbaite gertatzen da lana planteatzeko orduan GGKEak baliabide nagusia diren beste esparru batzuetan, bien bitartean, aipaturiko gainontzeko sektoreak eta erakundeak hartzaile gisa agertzen direlarik. Ikuspegi horrek berak jarraituko zuen oro har bigarren Plan Zuzentzailean. Hala eta guztiz ere, azken urteotako hainbat dekretutan partzuergoak bultzatzeko beharra ere planteatu da irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta Garapenerako hezkuntza-proiektuetarako hezkuntza-erakundeen artean, eta horrek gai honi buruz neurri batean desberdina den ikuspegi bat aditzera ematen du.

Bere aldetik, Foru Aldundien Plan Zuzentzaileak (2009-2011) bere aurkezpenetik jada berrikuntza bultzatzeko beharra jasotzen zuen sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza-gaietan, berrikuntza hori gizarteko hainbat sektore inplikarazteko helburuari lotuz. Ondoren, 3.4. kapituluko garapenak hainbat hausnarketa eta proposamen-ekarpen egiten du lan hori hainbat eragile eta baliabiderek lotzeko, bai hezkuntza arautuaren esparruan (debate kurrikularerako diziplina anitzeko taldeak, irakasleak, GH ikerketa-taldeak...) bai hezkuntza ez-arautuarenean (eskuragarri dauden baliabideen zentroak, aisialdi-esparruak...) edo izaera informalekoarenean (komunikabideak eta abar).

Udalei dagokienez, Gasteizkoak espezifikoki ekiten dio gai honi bere Plan Zuzentzailean (2010-2013) sentsibilizazioari eta garapenerako hezkuntzari eskainitako kapitulu zabalean, eginkizun honetan lagun dezaketen hainbat baliabide eta eragile identifikatuz. Funtsean hiru multzotan banatzen dira: batetik GGKEak, hirian agerpena, jarduera eta egitura dutenak, eta baita beste talde eta gizarte-eragile batzuk ere; bigarrenik, hezkuntza-erakundeak eta hezkuntzako profesionalak. Eta, azkenik, udala bera hezitzaile gisa, hainbat baliabide mota aipatuz: adibidez, udaleko sailtakoak eta zerbitzuakoak, zeinek informazio-, hezkuntza- eta gizarte- eta kultura-programak dituzten, hiritarrei oro har, edota garapenerako hezkuntza zeharkakotzen den edo udaleko komunikabideekin erantzukizunak dituzten sektore espezifikoei zuzenduak.

Bilbori dagokionez, bertako plan zuzentzaileek garapenerako hezkuntzaren ikuspegia udal-programetan eta sail desberdinen jardueretan txertatzeko

beharra planteatzen dute, nahiz eta ez duten ezer gehiago zehazten, ezta xede honetarako erabil daitezkeen baliabideak espezifikatzen ere. Eta Donostiako Udalaririk dagokionez, azpimarratuko dugu ez dela baliabideen analisi espezifikorik planteatzen, udal-administrazioa hezkuntza-zentroekin elkarlanean aritzeko komenigarritasuna aipatzen bada ere, solidaritatearen kultura garatze aldera⁸⁸.

Eragileei eta beren egokitasunari buruzko debatea

Euskal gizartearen eta bere erakundeen baitan dauden baliabideei buruzko diagnostikoen ahultasunak (edo gabeziak), aurreko ataletan azpimarratu denez, eragin erabakigarria izan zuen azkenean eragile potentzialei buruzko debatean eta politika-dokumentu ezberdinetan aitorturiko Lankidetzak Era-gileen geroagoko definizioan.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, beharrezkoa da azpimarratzea lehen Plan Zuzentzailea egin arte, 2005-2008an, ez zela inolako analisi espezifikorik egin gai honi buruz, eta horren ondorioz, eragileei buruzko definizio zehatzik ere ez zen egin. Hala ere, eta inplizituki gertatu zen arren, gai honi buruzko eztabaida etengabea izan da euskal garapenerako lankidetzaren hastapenetatik, bereziki GGKEak protagonista nagusi edo ia protagonista bakar gisa kontuan hartzeko⁸⁹ edo eragile-aniztasun handia zegoela aitortzeko orduan. Hain zuzen ere, analisi espezifikorik ez bazegoen ere eragileen gaiari eta batzuek eta besteek egin zezaketek ekarpenari buruz, lehen urteak (eta batez ere 1990-1995 bosturtekoa) enpresen paperari,

⁸⁸ EAEko hezkuntza-administrazioarekin kolaboratzeko zegoen kezka lehenagokoa zen Donostiaren kasuan; izan ere, 2003ko *Nondik-Nora* txostenean jada hitz egiten zen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin gai horri buruzko adostasunetara iristeko beharraz.

⁸⁹ Azpimarratu beharra dago EAEko ia erakunde guztien filosofian GGKE nozioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen nozioarekin parekatu zela lehenengo urteetan. Horren ondorioz, erlijio-kongregazioak edo fundazioak ere sartzen ziren kategorian horretan. Kasu batzuetan erlijio-kongregazioak bere horretan aipatzen dira, beste batzuetan ez. Eusko Jaurlaritzak lehenengo urteetan ematen zien garrantziaren eta paperaren adibide bat 1985-1995 Memorian ikus daiteke, non hitzez hitz honako hau irakur daitekeen: *"GKE bat denari buruzko definizio zehatzik ez izateak diru-laguntzetara sarbidea izateko aukera ematen die era askotako taldeei (...). Sarrituenak funtsean nolabaiteko joera konfesionalekoak izaten dira eta, batzuetan, erlijio-ordenak. Talde horiek duten misiolari-espereientzia eta -tradizioarengatik azal daiteke auzi hau, baina, batez ere, diru-laguntza bat emateko orduan, laguntza jasoko den eremuan tokiko bazkideak edo langileak ba ote dauden baloratzen delako, laguntzaren norakoa eta erabilera kudeatzeaz eta kontrolatzeaz arduratu daitezten. Eta, mundu guztian zehar barreiatuak dauden kristau-komunitateak dira, baina zuzen ere, ezaugarri horiek dituztenak"*. (Eusko Jaurlaritza, 1996). Nolanahi ere, bereizketa hori garrantzia galduz joango zen erlijio-kongregazio asko azkenean beste figura juridiko batzuk sortuz joan ziren neurrian (eta ez erlijio-kongregazioek soilik, beste erakunde batzuek ere hala egin baitzuten, adibidez, sindikatuek) Elkartei buruzko Legearen babespean deialdiatar joateko GGKE gisa.

kooperatibei edo hainbat zentro teknologikori edo lanbide-heziketako zentro pribaturi buruzko polemika gogor batek markatu zituen. Polemikak eragile haiek lankidetzaren programetan parte har zezaten bide espezifiko bat irekitzearekin zerikusia zuen. 1990ean jada, dekretuak agintzen zuen Eusko Jaurlaritzaren kofinantzaketa handitu egingo zela proiektuak “Euskal Herriko beste enpresa edo erakunde batzuek” ere finantzatzen edo “EAEko enpresek edo tokiko erakundeek” parte hartzen bazuten haiek bideratzen. Enpresei buruz egindako aipamena esplizitua izan zen 1991ko dekretuan, non diru-laguntzen onuradun gisa aipatzen ziren, GGKEez gain. Ondoren, enpresei eta beste erakunde pribatuei egindako aipamena jada eragilearen tipologia zabalago baten baitan planteatu zen, zeinentzako aurretik aipaturiko Programa Integralak sortu baitziren. Azkenik, jada 2005eko Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzailearekin, berriro ere definitu zen lankidetzaren eragile desberdinen papera. Hartan, proiektu emankorretan eta laguntza teknikoan parte hartzen zuten enpresak zeharkako parte-hartze ordezkatzailerak batera baztertuak izan ziren, gizarte-ekonomiaren, kooperatiben eta baita irabazi-asmoko beste erakunde batzuen esparruan ere, baldin eta konpromiso solidarioa eta eskuzabala ziurtatzen bazuten⁹⁰.

Nolanahi ere, beharrezkoa da azpimarratzea, enpresen presentzia hainbat politika-dokumentutan oro har (estalia batzuetan eta esplizitua beste batzuetan) ez zela bat etorri bere ekarpenari buruzko analisi espezifikoarekin, eta are gutxiago beste eragile batzuekin partekaturiko diagnostikoarekin. Horrek tentsio-foku bat bihurtu zuen gai hau, eta tentsio horrek zaildu eta nabarmen atzeratu zuen eragilearen auziari eta EAEko erakunde eta organizazio batzuek eta besteek lankidetzan joka zezaketan paperari buruzko debatea. Bizkaiko Aldundiak 2001 eta 2004 urteen artean kapitala gehienbat publikoa duten enpresei emandako trataera ere ez zen bat etorri analisi edo justifikazio zehatz batekin. Gero desagertu egin zen, inolako azalpenik gabe.

Eragilearen gaiari buruzko debatea areago zaildu zuen beste elementu bat, lehen urteetan zehar, Eusko Jaurlaritzak atzerriko euskal elkarteetan paperari behin eta berriz egindako aipamena izan zen, eta GGKEak gero eta gogorrago

⁹⁰ Aipa daiteke enpresei emandako tratamenduak iruzkin espezifiko bat merezi izan zuela aipaturiko planean, honako hau azpimarratuz enpresei buruz: “Ez dituzte GGKEek proiektuen kudeaketan garrantu dituzten gaitasunak, ezta baien adierazgarritasunik eta gizarte-egitura aktiboa sortzeko gaitasunik ere Ipar/Hego desberdintasunen aurka borrokatzeko. Kasu askotan, zaila da koherentzia mantentzea irabazi-asmorekin bilaketa naturalaren eta lankidetzaren helburu bertsiki sozialen eta irabazi-asmorik gabekoen artean, eta horren ondorioz epe laburrerakoak eta interesatuak diren ikuspegiak eta proiektuen kudeaketaren disfuntzioak sortzen dira. Hala ere, sektore honek duen garrantzia azpimarratu beharra dago, giza gaitasun eta gaitasun tekniko oso espezifikoak baititu, beste lankidetzaren eragileek ez dituztenak eta funtsezkoak direnak pobreziaren aurkako borrokan”.

jarri ziren beren posturan. Jadanik lehenengo dekretuan (1989koa) GGKE onuradunek jasotako diru-laguntza handitu egingo zela aipatzen zen, proiektuan herritarrek edo atzerriko euskal komunitateek parte hartzen baldin bazuten. Sektorearen zati handi batentzat, horrek esan nahi zuen gobernuak bere ekimenak atzerrian proiektatu nahi zituela garapenerako lankidetzaren bitartez, eta elkarte hauen bitartez lankidetzaren gaineko nola-baiteko kontrola izan nahi zuela.

Hala ere, mende berriaren hasieratik, bigarren mailan geratu zen eragileei buruzko debata (bere alderdirik publikoenean behintzat) eta aldi berri bat hasi zen, non gobernuaren eta GGKEen arteko elkarlana eta akordioa areagotu baitziren, lankidetzak-politiken diseinuan erdiguneko tokia betetzeari ekin ziotelarik. Ikuspegi berri hori, 2001-2005 bosturtekoan zehar sortzen joan zena eta Eusko Jaurlaritzaren lehen Plan Zuzentzailean jada hainbat adierazpen izan zituen, 2007ko Euskal Lankidetzak Legearen aldarrikapenarekin ezarri zen behin betiko. Alde batetik, erakundeek bere parte hartzeko aukera ahalik eta gehien mugatu zen, programetan funtsen zati bat bakarrik kudeatuz, eta, bestetik, Lankidetzak Eragileak “garapenerako lankidetzarekin lotura espezifikoak duten erakunde publiko zein pribatu” gisa definitu zituzten (8. art.); baina horrek, praktikan, nabarmen mugatzen zuen egoera. Azken gai horri dagokionez, beharrezkoa da ohartaraztea ezen, interpretat badaiteke ere gizarte-erakunde eta entitate gehienek zerikusia izan dezaketela lankidetzarekin, lankidetzan interesgarriak diren gaien inguruan lan egiten duten neurrian, Legearen zentzua (eta dagokion interpretazioa) oso norabide ezberdinean zihozela: loturatzat ulertzen zen garapenerako lankidetzan espezifikoak jardutea (erabat edo neurri batean).

Horri dagokionez, oso adierazgarria da nola ulertzen diren eragileak genero-ikuspegiaren zeharkakotasunarekin eta emakumeen ahalduzarekin ere loturiko interbentzioei aurre egiteko dituzten gaitasunen ikuspegitik. Legeak eta Plan Zuzentzaile gehienek GGKEen alde (lankidetzarekin lotura espezifikoak eta lehentasunezko eragileak dituzten erakunde gisa) egingdako apustu irmoak hainbat arazorekin topo egin du, GGKEek aipaturiko ikuspegiaren erronkei erantzuteko benetan dituzten gaitasunekin loturik, eta horrek, jada azaldu den bezala, erakunde batzuk tresnak bideratzera bultzatu ditu GGKEak esparru horretan indar daitezkeen; beste batzuek, ordea, emakumeen mugimenduetan dagoeneko bazeuden gaitasunez baliatzearen aldeko apustua egin dute. Aukera horiek, noski, kasu askotan elkarren osagarriak izan daitezke.

Eragileen eta bereziki GGKEen gizarte-errotzeari dagokionez oro har, dekretuek eta deialdiek GGKEek EAEn (Eusko Jaurlaritzaren kasua) edo dagokien lurraldean (aldundiak eta udalak) egoitza izan zezaten eskatu izan dute. Espedientea betetzeko baldintza hori formalki bakarrik bete zitekeelarik –zuzendaritza berezi baten edo antzeko baten bitartez–, eta benetako errotzerik gabe gizarteko beste baliabide batzuk mobilizatzeko edo gizarteak berak proiektuan parte hartzeko, lurraldean benetako lana ziurtatzen duten mekanismoak sartuz joan dira. Mekanismo horien artean daude gizarte-oinarriari buruzko informazio-eskaera edo eremuko ekintzak, burututako Garapenerako Hezkuntza-ekintzen inguruko baldintzak edo alderdi hauen balorazio positiboa baremazio-irizpideetan.

Eusko Jaurlaritzak eta gainontzeko erakundeek GGKEen alde egindako apustua finantzaketa-funts berrien hornidurarekin batera joan izan da oro har, eta horrek eragileen indarrean edo ahultasunean eragin zuzena duen lankidetzeta-politikaren dimentsio bat planteatzen du. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, 2002ko dekretuak (Lankidetzarako Zuzendaritzaren aldi politiko berrian lehenengoa⁹¹) gobernuaren kofinantzaketaren ehunekoa nabarmen handitu zuen GGKEek proposaturiko interbentzioetan. Jarduera kopuru handiagoa burutzeko aukera zabaldu bazen ere (askoz ere ekimen gehiago bideratzen lagunduz) ondorio negatibo bat ere izan zuen epe ertain eta luzera, hots, GGKEek administrazioaren funtsekiko zuten mendekotasun geroz eta handiagoa⁹².

Gainontzeko erakundeek halaber GGKEen aldeko apustu argi bat mantendu izan dute, geroz eta aipamen sarriagoak egin arren beste eragile batzuk gehitzeko beharraz. Hiru aldundien baterako plan zuzentzailean planteatzen da hori, eta baita udaletako plan zuzentzaileetan ere. Bilboko lehen Plan Zuzentzailean (2006-2009) GGKEei emandako lehentasuna justifikatzeko, erakunde horiek “Hegoaldeko herrialde pobretuen eta Bilboko biztanleriaren arteko benetako konpromiso solidarioa hobekien bermatzen dutenak” direla esaten zen. Horren ondorioz, agindu zen GGKEek zuzen-

⁹¹ Aurrekoak (2001) lehenagoko urteetako luzatu behar izan zuen, ez baitzegoen behar adina denborarik dekretu berri bat egiteko.

⁹² Badirudi Eusko Jaurlaritza bera bere lehen Plan Zuzentzailean (2005-2008) arazo hauetako batzuen jakinaren gainean dagoela honako hauek azpimarratzen dituenen: *“Euskal GGKEek finantziario publikoarekiko menpekotasun handia dutela eta gizartearen duten irudi positiboa ez dela era adierazgarrian finantza-laguntzan ezta borondatezko partaidetza aktiboan ere agertzen. Beren egiturak kasu askotan ez dira indartsuak, eta aski murrizak dira elaborazio teorikorako eta estrategiak gauzatzeko dituzten gaitasunak. Gainera, lankidetzarako funts publikoak ugaritzeak erakundeen gebiegizko sorkuntza eragin du, eta erakunde horiek kasu batzuetan Hegoaldeko erakundeen finantza-bitartekari hutsak bihurtzen dira, Euskadin eragina duen benetako lanik gabe, gizarte-ordezkaritza gabe eta definituriko estrategiarik gabe”*.

nean kudeaturiko zenbatekoak ez zirela inoiz lankidetzak-aurrekontuaren funtsen %75 baino gutxiago izango. Bigarren Planean (2010-2013) analisia gehiago zabaldu zen; izan ere, GGKEen paperaren garrantzia aitortu arren, diru-laguntzekin lotura handiegia zutela eta bestelako ekimenetan partaidetza gutxi zutela adierazten zen, eta, aldi berean, kontuan hartu beharreko eragile berrien kopuru handiago bat aipatzen zuen (gizarte-erakundeak, unibertsitateak, enpresak, komunikabideak...).

Gasteizko Udalak Plan Zuzentzailean (2010-2013), gai honetan mantendu duen jarrerak, gai honi emandako garrantzia eta GGKEekiko menpekoezia den lankidetzaren iraunkortasunarekiko kezka islatzen ditu. Bereziki nabaria da hori GGKEek kudeatu beharreko lankidetzak-aurrekontuan gutxieneko ehuneko batzuk zehaztearen desegokitasunari buruzko hausnarketan⁹³, gutxieneko horiek planaren aukerak edo koherentzia bera muga ditzaketelakoan.

Eta Donostiako Tokiko Planari dagokionez (2008-2011), ez da inolako analisirik egiten eragile batzuen edo besteen paperaren inguruan edo GGKEekiko menpekoezia den eredu baten abantaila edo arazoaren inguruan. Aipatu bezala, nolabaiteko arreta mantentzen da jarduerari eta erakunde horien benetako adierazgarritasunari buruz, udalerrian benetako errotzea ziurtatzea eskatuz, baina ez doa haratago.

Azkenik, azpimarratuko dugu EAEko erakunde gehienek GGKEen alde egindako apustuari, ñabardura ezberdinekin, erakunde publiko hauen arteko koordinazio falta nabarmena gehitu zaiola. Horren ondorioz, leihatilak eta finantza-ildoak ugalduta egin dira, horrek proiektuen adierazpenean eta aurkezpenean iningeniaritza konplexu bat garatzea ekarri du, eta azken batean, aipaturiko GGKEekiko menpekotasuna areagotu du.

Lankidetzak-eragileen definizioa eta identifikazioa

GGKEak ez diren beste erakunde batzuek bete lezaketan papera izan bada ere eragileei eta eragileek dekretuetan eta plan zuzentzaileetan duten iru-

⁹³ Horri dagokionez, Gasteizko Plan Zuzentzaileak (2010-2013) zera azpimarratzen du: “Gutxieneko edo gehieneko ehunekoak eragileen mailen arabera finkatzeak eta GGKEek kudeatutako lankidetzari esplikizituki ehuneko zehatz bat bermatzeko asmoak, beste gizarte-erakunde batzuek edo udal mailakoek abian jarritako lankidetzak mugatu borren ondorioz, ez du ia zerikusirik lankidetzaren kalitatearekin eta eraginkortasunarekin, ezta birian harreman solidarioak indartzearekin ere. Planaren xedea ez da aurreikusitako lerroekin egindako jarduerak koherenteak murriztea”.

diari buruzko debatearen funtsezko auzia, denborarekin, eta batez ere lehen plan zuzentzaileak egin zirenean, gai honek profil zehatzagoak hartu zituen, horietariko bakoitzaren identifikazioa edo identifikaziorik-eza espezifikoki planteatuz. Eusko Jaurlaritzaren lehen Plan Zuzentzaileak (2005-2008) lankidetzeta-eragileak definitzera bideraturiko arau bat planteatu zuen, hiru irizpide handietan oinarrituz: euskal gizartean adierazgarritasuna eta gizartean eragiteko gaitasuna; inpaktu sendoko eta biderkatzaileko prozesuak eta estrategiak sortzeko gaitasuna; lankidetzeta errazteko eta lankidetzeta-eragileen arteko sinergiak sortzeko gaitasuna. Halaber, aurreikusi beharreko eragile guztien izendatzaile komun gisa planteatu zen irabazi-asmorik ez izatea. Horren ondorioz, honako eragile hauek aintzat hartu ziren: Eusko Jaurlaritza, EAEko Administrazio publikoak, irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk (erlijio-kongregazioak, ikastetxeak, osasun-zentroak, unibertsitatea, sindikatuak, gizarte mugimenduak) eta NN.BBetako Erakunde Aldeaniztun ez Finantzariak.

Lehenago aipatu bezala, 2007ko Legeak ikuspegi hori berretsi zuen, hiru eragile mota zehaztuz (9. Art.): a) Euskal Administrazio publikoak eta horiei loturiko bestelako erakunde publikoak; b) garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak (GGKE); eta c) lege honen printzipio eta helburuen baitan garapenerako lankidetzeta-ekintzak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk, adibidez, unibertsitateak, sindikatuak edo bestelako gizarte-erakundeak. Salbuespen gisa, Legeak beste erakunde batzuk gehitzeko aukera ere aurreikusten du, interbentzioaren izaera teknikoak justifikatzen baldin badu, eta beti ere, jada definituriko eragileen eskutik; eragile horiei legokieke, hain zuzen ere, beste erakundeen partaidetza eskatzea. Gainera, bere 10. artikuluan Lankidetzeta Eragileen Erregistro bat planteatu zuen Legeak eta horretarako dagokion dekretua aldarrikatu beharko litzateke. Hala ere, gaurko egunean ez da oraindik halakorik argitaratu.

Bere aldetik, Eusko Jaurlaritzaren bigarren Plan Zuzentzaileak, aurreko planean jada aipaturiko eragileei buruzko hainbat gogoeta egiteaz gain⁹⁴, erakunde posibleen multzo bat gehitu zion zerrendari, Hegoaldeko Eragile izenpean bilduak. Nekazarien, emakumeen, giza eskubideen, GGKEen edo tokiko erakunde publikoen mugimenduak aipatzen dira besteak beste.

⁹⁴ Adibidez, interesgarria da unibertsitateari egotzitako paper bikoitza, heziketaren esparruko eragile bezala baina baita lankidetzeta-interbentzioetako eragile bezala ere: *“Unibertsitatea erreferentzia bat da pobrezia-aren aurkako estrategientzako babes akademiko eta praktikoan, baita Planean parte hartzen duten hainbat eragileren gaitasunak indartzeko ere”* (EJren Plan Zuzentzailea, 2008-2011).

Foru-aldundiei dagokienez, baterako Plan Zuzentzaileak (2009-2011) hainbat eragile mota planteatzen ditu: a) GGKEak eta haiekin pareka daitezkeen bestelako pertsona juridikoak, lankidetzak helburutzat dutenak edo esparru horretan esperientzia dutenak; b) gizarte-lanean esperientzia duten sozietate zibileko beste eragile batzuk; c) tokiko botere publikoak (aldundiak, udalak, *Euskal Fonda*...); d) lankidetzak deszentralizatuaren Nazioarteko, Estatuko eta bestelako Erakunde Publikoak, baita Hegoaldeko Estatu-tuetako ordezkariak ere.

Eta azkenik, udalen plan zuzentzaileek hainbat modutan definitu dute Eragileen auzia. Hortaz, Bilboko Udalak bere lehen Planean (2006-2009) bere politika honako hauen bitartez bideratzea aukeratu zuen: GGKEak, *Euskal Fonda*, Udaleko Andrazkoen eremua bera edo emakumeen erakundeak, unibertsitateak edo etorkinen elkarteak bezalako beste eragile batzuk. Bigarren Planean (2010-2013) Eragileen definizioa hobetu egiten da, ondorengo hauek identifikatuz (udalaz beraz gain): GGKE; b) *Euskal Fonda*; c) Beste gizarte-erakunde batzuk (erakunde feministak, etorkinen elkarteak); d) Unibertsitateak; e) Enpresak; eta f) Komunikabideak. Gasteizko Udalak, bere Plan Zuzentzailean (2010-2013) plana zatitzen den bi jarduera-esparru handiren arabera bereizten ditu Lankidetzak Eragileak: Lankidetzan Jardutea eta Hirian Jardutea. Lehenengo esparruan honako hauek sartzen dira: a) GBHetako Erakundeak eta Eragileak; b) GGKEak; c) hiriko beste gizarte-erakunde batzuk (etorkinen elkarteak, lankidetzan inplikatzeko diren beste esparru batzuetako taldeak); d) Udala bera; e) Euskal Fonda; f) Udalak parte hartzen duen sare edo koordinazio-esparruak; g) Udalak parte hartzen duen erakundeak edo beste esparruetako sareak. Eta bigarren esparruari dagokionez (hirian jardutea) ondorengo eragileak nabarmentzen dira: a) hirian esperientzia duten GGKEak; b) hainbat esparrutako erakundeak eta gizarte-taldeak; c) hezkuntza-erakundeak eta hezkuntzako profesionalak; eta d) Udala hezitzaile gisa.

Eta Donostiako Udalarik dagokionez, Tokiko Planak (2008-2011) Eragile zere-ntza luze bat erakusten du. Horien artean honako hauek daude: a) Udala bera (hainbat atalen bitartez) eta Lankidetzarako Udal Kontseilua; b) *Euskal Fonda*; c) hirian benetako presentzia duten GGKEak; d) irabazi-asmorik gabeko elkarteak, gizarte-erakundeak eta entitateak (hezkuntza-erakundeak, sindikatuak, erlijio-kongregazioak...); e) koordinakundeak, sareak, GGKE plataformak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak; f) EJRen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzak-zuzendaritzak; g) gizarte-komunikabideak; h) lankidetzan, sentsibilizazioan eta garapenerako hezkuntzan lan egitea helburutzat duten enpresak.

4. koadroa: Lankidetzeta-eragileak Plan Zuzentzaileetan	
	Definituriko Eragileak
Eusko Jaurlaritza	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritza. - GGKE. - EAEko Administrazio publikoak. - Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk (erlijio-kongregazioak, ikastetxeak, osasun-zentroak, unibertsitatea, sindikatuak, gizarte-mugimenduak). - NN.BBetako Erakunde Aldeaniztun e z Finantziariak. - Hegoaldeko garapen-eragileak (nekazarien, emakumeen, giza eskubideen, GGKEen, tokiko erakunde publikoen mugimenduak).
Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> - GGKEak eta haiekin pareka daitezkeen bestelako pertsona juridikoak. - Gizarte-lanean esperientzia duten gizarteko beste eragile batzuk. - Tokiko botere publikoak (aldundiak, udalak, Euskal Fundoa...). - Lankidetzeta deszentralizatuaren nazioarteko, estatuko eta bestelako erakunde publikoak. - Hegoaldeko estatuetakordezkaritzak.
Bilboko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - GGKE. - Euskal Fundoa. - Bestelako gizarte-erakundeak (erakunde feministak, etorkinen elkarteak). - Unibertsitateak. - Enpresak. - Komunikabideak.
Gasteizko Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Garapenerako Lankidetzeta. - GBHetako Erakundeak eta Eragileak. - GGKE. - Hiriko beste gizarte-talde batzuk (etorkinen elkarteak, lankidetzan inplikatzaren diren beste esparru batzuetako taldeak). - Udala bera. - <i>Euskal Fundoa</i>. - Udalak parte hartzen duen erakunde-, sare- edo koordinazio-esparruak. - Sentsibilizazioa eta GH. - Hirian presentzia duten GGKEak. - Hainbat esparrutako elkarteak eta taldeak. - Hezkuntza-erakundeak eta hezkuntzako profesionalak. - Udala hezitzaile gisa.
Donostiako Udala	<ul style="list-style-type: none"> - Udala bera (hainbat atalen bitartez) eta Lankidetzarako Udal Kontseilua. - <i>Euskal Fundoa</i>. - Hirian benetako presentzia duten GGKEak. - Irabazi-asmorik gabeko elkarteak, gizarte-erakundeak eta entitateak (hezkuntza-erakundeak, sindikatuak, erlijio-kongregazioak...). - Koordinakundeak, sareak, GGKE plataformak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak. - Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzeta-zuzendaritzak. - Gizarte-komunikabideak. - Lankidetzan, sentsibilizazioan eta garapenerako hezkuntzan lan egitea helburutzat duten enpresak.

Laburbilduz, esan genezake politika-dokumentuetan bi joera nagusi planteatu direla lankidetzak-eragileen gaiari buruz urteetan zehar. Alde batetik, EAEko erakundeek GGKEak finkatu dituzte bultzaturiko interbentzioen protagonista nagusitzat; eta, bestetik, azken urteotan beste eragile batzuk identifikatu dira eta haiengana zabaldu da jarduera, beste leku batzuetan dauden joeren ildotik.

Hala ere, hausnarketa bikoitz horrek ez du garapen bera izan plan zuzentzaileetan eta beste politika-dokumentu batzuetan, hainbat tresna kontuan hartzeko orduan. Jada aipatu den bezala, azken urteotan aurrera egin da GGKEak indartzeko beharrean, geroz eta zabalagoak eta konplexuagoak diren erronka batzuei aurre egin ahal izateko, bai planteaturiko helburuetan bai gai batzuen zeharkakotasunaren eskakizunetan agertzen diren xedeetan (generoa, ingurumena, GG.EE...) ⁹⁵. Hala ere, ez da analisi paralelorik edo debate sakonik egon eragile horiek txertatzeko moduari, haien ekarpen espezifikoei edo beren jardueren osagarritasunari buruz. Horretarako tresna espezifikorik ere ez da garatu, adibidez, beste eragile batzuek hainbat errealitate sozial eta kulturalen inguruko ezagutza-gaitasunak edo lankidetzaren kudeaketa-tresnen erabilera areagotu ahal izateko ⁹⁶.

Gogoeta orokorrak

Garapenerako lankidetzarako dauden baliabideei eta jardueraren esparruan bertan aukeran dauden eragileei buruzko analisisa nahiko desberdina izan da (eta baita kontraesankorra ere) EAEko erakunde batzuetan eta besteetan. Oro har, esan daiteke hainbat debate eta zenbait eztabaida egon direla lankidetzak-jardueretan parte har dezaketen erakundeek, organismoek eta eragileei buruz; aitzitik, EAEn lankidetzarako eskuragarri dauden baliabideei eta gaitasun teknikoei buruz ez da ia eztabaidarik egon. Horrek, ondorio gisa, protagonistetan (eragileak eta erakundeak) kontzentraturiko kezka ekarri du, dauden gaitasunetan kontzentraturiko analisi baten kalterako (eskuragarri dauden baliabideak, gaietan esperientzia eta abar). Kezka hori udaletako plangintza-dokumentuetan baino ez da islatu.

⁹⁵ Plan Zuzentzaileak berak (2008-2011) auzi hau argi eta garbi planteatzen du honako hau aipatzen duenean: "GGKEek oraindik bide luzea egin behar dute. Hala ere, Plana GGKEen hobekuntza-prozesuetan laguntzen saiatzen da, beziketako eta laguntza teknikoko hainbat prozesu eskainiz edo laguntza-deialdi berriak eta espezifikokoak sortuz GGKE indartsu, trebatu eta sendoen eraikuntzan aurrera egiteko."

⁹⁶ Lankidetzak GGKEak ez diren beste eragile batzuetara zabaltzeko eskuragarri dauden mekanismo bakanen artean Bilboko Udalak duela gutxi etorkinen elkarteetarako egin dituen deialdiak daude, edo Gasteizko Udaleko urteanitzeko deialdiak, non GGKE eskatzaileak proiektuan hiriko beste gizarte-erakunde bat sar dezan eskatzen den.

Oro har, dekretuetan eta plan zuzentzaileetan eragile batzuek eta besteez egindako aipamena eta haiez pixkanaka egin den aitorpena, ez datoz bat eragile horiek egin ditzaketen ekarpen espezifikoek eta eragileen osagarritasunari buruzko diagnostikoarekin; aitzitik, hainbat eragilek finantzaketa aurkitzeko eta lankidetzaren programetan parte hartu ahal izateko planteaturiko eskaerei erantzuten diete⁹⁷. Zentzu horretan, eragileei buruzko eztabaida oso lotua egon da finantza-baliabideetara sarbidea izateari buruzko debatearekin eta ez, komeni zen moduan, eragile batzuek eta besteek izan ditzaketen ekarpenak egiteko gaitasunarekin eta egokitasunarekin. Lehen urteetan sortutako mesfidantzek eragina izan dute seguru asko auzi honetan.

Horren guztiaren ondorioz, oso gutxitan agertu dira oro har eragile batzuek eta besteek bete dezaketen paperari buruzko analisia eta debatea, eta planteatu direnean ez da gaiari buruzko apriorismorik gabeko diagnostiko bat egiteko izan, proposamen zehatzei edo hartutako jarrerari erantzuteko baidik. Denboraren poderioz eta diagnostiko-gabezia horren ondorioz, GGKE indartsuenen presentzia eta eragin geroz eta handiagoarekin, beste instantzia batzuetako buruen esperientzia arrakastatsu garbirik gabe eta beste arlo batzuetatik planteaturiko eskaera bakanekin batera, azkenean erakundeek GGKEak garapenerako lankidetzaren eragile nagusi eta batzuetan ia bakar gisa aitortu dituzte.

Eragile batzuen eta besteen aukerei buruzko debateak (edo debate ezak) politikaren orientazioa bera baldintzatu du, zeina GGKEen sektorearen barruko erakunderik aktiboenek eta gaitasunik handiena dutenek planteaturiko aukerek markatu baitute neurri handi batean. Horren ondorioz, txikiagoa izan da beste eragile batzuen ekarpena. Zentzu horretan, badirudi eragozpenak dituela aurrera egiteko erakunde batzuetako eta besteetako arduradunek azken urteotan politika irekiago baten komenigarritasunari buruz egindako aitorpenak; izan ere, urte askotan zehar bultzaturiko politikak lankidetzaren egitura jakin bat finkatu du, eta ez da erraza egitura horri lankidetzaren esparruan bertan esperientzia gutxiago duten eragi-

⁹⁷ Arazoa gainera aspaldikoa da; izan ere, jada aipatua zen Eusko Jaurlaritzak 2001ean eskatu zituen lanetan, non hitzez hitz honako hau irakur zitekeen: *“Euskal garapenerako lankidetzaren antolamenduen analisiak erakusten du GGKEen jarduerak babestean kontzentratzen den politika bat dela. Beste eragile batzuen balizko parte-hartzea kontuan hartzen bada ere, bazterrekoa da eragile horiek benetan duten presentzia. Dirudenez, ez administrazioak, ez enpresek ezta beste eragile batzuek ere ez dute beren lekua aurkitu laguntza-politikan. Ezaugarri hori aldatu egin beharke lankidetzarako politika sendo bat eratu nahi bada etorkizunean, gizarte-gaitasun guztiak barne hartuko dituen eta euskal gizarte osoan errotuko dena”*. (Alonso, 2001).

leak txertatzea⁹⁸. Esparru horretan garrantzi handia hartzen du GGKEen finantza-menpekotasunak. Bestalde, beharrezkoa da nabarmentzea, bost urte geroago, ez dela bete Lankidetzak Legean Eragilean Erregistroaren Sortze Dekretuari buruz adierazten dena, eta hori gai honen inguruan sortzen diren etengabeko zailtasunen erakusgarri bat gehiago da.

Eta dauden gaitasun eta baliabide teknikoek dagokienez (erakunde-esleipenaz haraindi), diagnostiko-gabezia eman da aditzera, orain arte egon ez delarik EAEk esparru horretan dituen berezko gaitasunei eta gaitasun horiek lankidetzak-lanera gehitzeko moduari buruzko proposamenik, ezta generikorik ere. Esparru honetan egin diren aurrerapauso bakarrak administrazioaren beraren barruan dauden hainbat baliabideren identifikaziora mugatu dira, batez ere udalen kasuan eta bereziki Gasteizkoan. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da azpimarratzea lankidetzak deszentralizatuaren berezko elementu gisa hartzen diren bi gaitetan (tokiko garapeneren aldeko apustua, eta erakundeen indartzeari babesa alde batetik, eta sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza bestetik) esparru horietan dauden gaitasunei buruzko aipamenak zabalagoak direla beste helburu batzuetarako erabil daitezkeen baliabideak baloratzen direnean baino, nahiz eta ez dagoen horiei buruzko diagnostiko espezifikorik ere. Eta gai baten eta bestearen artean ñabardurak eta desberdintasunak antzeman diren arren, kasu honetan udalak dira berriro ere beren plangintza-dokumentuetan gehien aurreratu dutenak.

4.6. Bideratu diren lankidetzak-harremanak

Atal honetan, bideraturiko lankidetzak-harremani erakunde batzuen eta besteen plangintza-dokumentuetan emandako trataera aztertzen da, eta, horren baitan, abian jarritako lankidetzak-modalitate ezberdinak eta baita harreman horien jarraipenari, garrantziari eta elkarrekikotasunari buruzko gogoetak ere.

GGKE-en bitartekotzaren aldeko apustua eta zuzeneko lankidetzaren ahulezia

Euskadin azken hamarkada eta erdian sortu den bezalako lankidetzarako eredu eta eragile-mapa zehatz bat finkatzeak, argi baldintzatu ditu ezarritako lankidetzak-harremanek harturiko norabidea eta modalitateak. Eredu hau, gainera, GGKEek proposaturiko interbentzioetako proiektuen bitartez,

⁹⁸ Eragozpen horiek etorkinen elkarrekin, giza eskubideen babeseko kolektiboekin edo emakume taldeekin loturiko hainbat sektore txertatzeko saioretan nabarmendu daitezke. Batzuetan, erakunde horiek esperientzia gutxi dute proiektuen kudeaketaren mundu konplexuan.

oso zentratua dago finantza-funtsen kudeaketan eta bideratzean, eta ez du ia loturarik gizarte-bitartekari gisa eta gizarte osoaren beste baliabide solidarioen katalizatzaile gisa haiek joka lezaketen lotura-paperarekin⁹⁹.

Ikuspegi horren funtsezko efektuetako bat zuzeneko lankidetzaren presentzia eskasa izan da (ia hautemanezina hainbat erakundetan), hau da, nabarmena da administrazio publikoek berek burututako lankidetzaren falta. Zuzeneko lankidetzaren ahultasuna EAEn azken urteotan behin eta berriz planteaturiko arazo bat da, bai hainbat lan eta ikerketetan (Alboan, 2007; Gabilondo, 2008; Unceta et. al., 2011) bai erakunde batzuen plangintza-dokumentuetan, bereziki Bilboko eta Gasteizko udaletakoetan. Eta lankidetzeta deszentralizatuan nahiko zabaldua dagoen gaia baldin bada ere, Euskal Herrian askoz ere ezaugarri nabariagoak erakusten ditu.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, hainbat plangintza-dokumentuk zein dekretuk eta deialdik, ez dute ia administrazioa bera zuzenean inplikatzeko aukera aurreikusi¹⁰⁰, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren esparruari dagokion salbuespenen batekin. Dokumentu batzuetako aipamen laburrek baino ez dute erakusten gai honi buruz badela nolabaiteko interesa, baina horrek ez dakar gaiaren trataera espezifikogorik¹⁰¹. 90eko hamarkadaren erdialdeko hainbat dekretuk, administrazioak sentsibilizaziorako programak edo ekintzak burutzeko aukera jasotzen dute, gaia gehiago zehaztera iritsi gabe. Edo beste zentzu batean, dokumentu batzuetan dauden baremazio-irizpideak aipa daitezke, adibidez, 2003ko dekretua, non “kontrapartea tokiko edo eskualdeko udalerrri edo erakunde adierazgarri bat izan dadin” positiboki baloratu beharreko elementu gisa agertzen den. Hala ere, kezka horren adierazpenak ez dakar hausnarketarik EAEko kontrapartea edo bazkidea ere erakunde adierazgarri bat izateko interesari buruz.

Guztiarekin ere, ikuspegi horren adierazpenik argiena –administrazioaren beraren aukerak nekez ikertzen eta balioesten dituen– 2007ko Lankidetzaren

⁹⁹ Horri dagokionez, ikus K. Unceta (2000).

¹⁰⁰ Alboan elkarteak gai honi buruz egon daitekeen azalpen bat planteatzen du, gaia GGKEen artean eragiten zuen mesfidantzarekin lotuz eta honako hau azpimarratuz: “*Beste aldi batzuetan egon diren esperientzia batzuetatik ondoriozta dezakegu administrazioen zuzeneko lankidetzeta esparru zaila zela azterketa publikorako, eta ikusgaitasunarekin eta erkidegoko errealitatearen beraren kanpo-politikaren legitimazioa bilatzearekin zerikusi handiagoa zuten beste motibazio batzuek lankidetzeta solidarioaren helburuak desagerrarazteko arriskua zegoela*” (Alboan, 2007).

¹⁰¹ Lehenengo urteetako lankidetzaren arduradunek diote zentzu horretan egin zirela hainbat Batzorde Mistotan zehaztu ziren lan batzuk (lehenago aipatu ditugunak) Gobernuko hainbat sailek parte hartzen zutenak. Gai horiek ordea ez zuten oihartzunik izan politika-dokumentuetan, zeinak ia guztiak dirulaguntzen deialdietan kontzentratuak baitzeuden.

Euskal Legean agertzen den muga da zalantzarik gabe, non hauxe planteatzen den hitzez hitz: “Eusko Jaurlaritzak eta berari loturiko erakunde publikoek beren lankidetzak-aurrekontuaren %10eko muga izango dute, alde biko edo alde aniztuneko lankidetzak-jardueretarako”. Lege maila eman zitzaion erabaki horrek, praktikan erakutsi zuen administrazioak berak uko egiten ziola lankidetzak-politikan modu aktiboagoan sartzeari, dauden baliabideak eta horien balizko inplikazioa aztertzekeo beharra alde batera utziz¹⁰². Horrez gain, auto-mugatze horrek plangintzak-dokumentuetan dauden hainbat kezkarekin kontraesanean gertatzen zen. 2005-2008ko Plan Zuzentzaileak hain zuzen ere, administrazio publikoen inplikazioari buruzko interesa planteatzen zuen, honako hau azpimarratuz: “Tokikoari lehentasuna ematen dion lankidetzak batek elkargune-balioa izan behar du Iparraldeko eta Hegoaldeko eragileentzat, batez ere tokiko boterearen indartzea lehentasuneko sektore-ildo bat denean”. Gainera, jarduera horietarako “funts guztien gutxieneko % 10” gordetzekeo beharra justifikatzen zuen. Gogoan hartzekoa da Plan Zuzentzaileak gutxieneko % 10 horri egiten dion aipamenaren eta, aitzitik, gehienekoetan oinarritzen den Legearen arteko desberdintasuna.

Beren aldetik, aldundiek ez dute beren Plan Zuzentzailean gai honi buruz inolako hausnarketa espezifikorik planteatzen, ezta foru-administrazioetako zuzeneko interbentzio-esparru propioak izan daitezkeenei buruz ere. Gai hauen inguruan egiten den aipamena nahiko generikoa da, gobernuz kanpoko eragileen lankidetzak deszentralizatua eta lankidetzak deszentralizatua ofiziala bereiztea aholkatuz, eta azken horri buruz foru-aldundietako lankidetzak beteko duen papera definitzekeo beharra iradokiz. Lekuan bertan egiten eta gauzatzen diren Tokiko Giza Garapenerako estrategiei buruz hitz egitean baino ez da aipatzen “foru-administrazioetako eta lurralde historikoetako beste erakunde publiko eta pribatuetakoko eragileen presentzia erakundeen indartzearen laguntza teknikorako”.

Hiru hiriburuetako udalen kasuan aurkitzen ditugu gai honi buruzko aipamenik gehienak eta zabalduenak. Tokiko lankidetzaren esparruan dauden espezifikotasunengatik azal daiteke hori; izan ere, udaletan errazagoa da zuzeneko lankidetzaren ahalmena eta administrazioaren beraren inplikazioa ia naturalki azaltzea interbentzioetan. Lehenago aipatu den bezala, Bilboko

¹⁰² Interpretazio desberdinak daude gai honi buruz. Horri dagokionez, lehenago jada aipatu da GGKEek Legearen tramitazio-prozesuan zehar planteatu zuten eskaera. Alboanek bere aldetik adierazten du “*praktika txarretan ez erortzekeo abalegina, GGKEen beren jarrera gaiari dagokionez eta agian, nolabaiteko inertzia*”. (Alboan, 2007).

Udalak bere lehen Plan Zuzentzailean jada gai horri buruzko hainbat hausnarketa planteatu zituen, gutxienez aurrekontuaren % 10 tokiko administrazioetik bertatik kudeatzeko beharra aginduz. Bigarren Plan Zuzentzaileak (2010-2013) beste urrats bat egin zuen, alderdi hori lehenago ia tratatu ez izana mugatzat hartuz (abantaila konparatiboak egon arren), norabide horretan aurrera egiteko beharra azpimarratuz eta horren baitan zeuden gaitasun teknikoak behin eta berriz nabarmenduz. Horrez gain, plan horren lau helburu nagusien artean udalak lankidetzaz-eragile gisa duen papera indartzearena aurreikusen da, jarduera-ildo espezifikoak planteatuz horretarako, adibidez, ekimen jakinen bultzada edo udalbatzaren barruko lankidetzaz-programaren zeharkakotasuna.

Gasteizko Udalaren Lankidetzaz Plana da (2010-2013) gai honen inguruan aurreramendurik handiena egiten duena, eta dokumentuaren hainbat atal-letan agertzen da behin eta berriz, protagonismo handiagoa hartzeko asmoa espresuki azpimarratuz, bere finantzazaz-papere hutsaz haraindi. Garapenerako lankidetzaz bideratzeko bi bide edo tresna sortzea da agian alderdirik adierazgarriena, eta gai honi eskainitako garrantziaren erakusgarri gisa balio du: alde batetik, GGKEei eta beste hiri-erakundeek bideratutako finantza-ildoak, eta, bestetik, udal mailako lankidetzaz, zeinaren barruan hainbat modalitate sartzen diren, eta bereziki udalak herrialde-kontraparteetako erakundeekin egiten duen zuzeneko eta aldebiko lankidetzaz. Gainera, planaren ildoetariko bat (LD6) tokiko inplikazioa sakontzeko erabiltzen da espezifiko, bai lankidetzaz-programetan bai sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzakoetan, hainbat bide proposatuz horretarako. Lehenengo barruan, toki-garapeneraren eta erakundearen indartzearen inguruko gaiei emandako garrantzi berezia azpimarratu behar da. Eta azkenik, lehenago esan den bezala, aipaturiko plan zuzentzaileak hainbat jarduera-gune eta esparru identifikatzen ditu, non bere kudeaketa-gaitasunek bat egin dezaketen tokiko erakunde-kontrapartearen premiekin.

Bere aldetik, Donostiako Udaleko Tokiko Planak ere (2008-2011) udalak zuzenean bultzaturiko lankidetzazaren aipamena egiten du, zeina udal-autonomiaren adierazpen gisa planteatu zen, eta, horretarako, zuzendaritzen, gune eta zerbitzu ezberdinen artean osagarritasun eta koordinazio handiago baten beharra azpimarratzen da. Nolanahi ere, gai horren trataera nahiko orokorra da, zuzeneko lankidetzazarako aurrekontu-aurreikuspen txiki bat egiten bada ere plana indarrean dagoen lehen urteari buruz. Gainera, tokiko administrazioaren zuzeneko jarduera eta GGKEek eta beste erakunde batzuek burututakoa osatzeko garrantzia adierazten da.

Azken horrekin zuzenean loturiko gai bat erakundeen arteko itunei edo itun publiko-privatuei dagokiona da. Kasu horretan erakunde horiek lankidetzarako programak eta proiektuak abian jartzeko duten interesari edota aukerari buruzko hainbat aipamen daude. Eusko Jaurlaritzaren kasuan eta 90eko hamarkadaren lehen zatian, behin eta berriz planteatu zen Kudeaketa Batzordeak erakunde publiko eta pribatuen partaidetza bultzatzeko ideia, prestakuntza eta laguntza teknikoko programetan. Garapenerako hezkuntzaren esparruari zehazki dagokionez, hainbat dekretuk irabazimorik gabeko erakundeen eta hezkuntza-erakundeen artean partzuergoak sustatzeko komenigarritasuna planteatzen dute, GGKEen eta ikastetxeen (publiko zein pribatu) arteko elkarlan gisa uler litekeen gauza. Udalaren esparruan, Gasteizko Udalak ere hainbat deialditan adierazten zuen hitzarmenen egokitasuna, udalei beste erakunde batzuekin batera aritzeko aukera emango lieketen tresna gisa (hori itun publiko-privatuen moduan uler daiteke), ohiko deialdien bitartez ezinezkoak izango liratekeen konpromisoak eta ekarpen ekonomikoak edo teknikoak onartuz¹⁰³.

Geroago, Plan Zuzentzaile ezberdinek gai horren berri ematen jarraitu dute, akordioak bilatzeko eta eragile eta erakunde mota batzuen eta besteen arteko sinergiak sortzeko beharra planteatuz, gizarte zibileko erakundeak eta administrazio publikoak berak barne hartuz. Hainbat dokumentutan aipaturiko hitzarmenen ideiarekin lotu izan da hori, zeinak, kasu batzuetan, administrazioan bertan sorturiko edo besteetan alde biko akordioetatik eratorritako ekimenak, zeharka eta beste erakunde batzuen bitartez, bultzatzeko sortuak eta batez ere erabiliak izan diren.

Interbentzioen behin-behinekotasunari eta barreiamenduari buruzko debata

EAEn jarraituriko ereduak lankidetzak-harremanen ikuskeraren inguruan eduki ahal izan dituen inplikazioei buruz kontuan hartu beharreko bigarren alderdia, interbentzioen zatikatzeari eta askoren izaera behin-behinekoari eta jarraipenik gabeari buruzkoa da. Hain zuzen ere, aztertutako dekretu eta deialdi askok hartutako ikuspegiaren emaitzetako bat izan da jardueren finantzaketarako leihatila berri moduko bat balitz bezala ulertu dela lankidetzak-politika; horrek, aurrerago aztertuko den bezala, behin-behineko behar eta eskaerei estuegi loturiko dinamika baterako bidea eman du. Nolanahi ere, plangintza-dokumentuek ez dituzte proiektuak eta lankidetzak

¹⁰³ Hitzarmenak onartzeko Arauek (2001) hitzarmenak arautzen zituzten eragile, helburu, baldintza, onarpenaren garrantasun eta abarri dagokienez.

burututako praktikak kontraparteen arteko elkarlanerako ibilbide sendotan kokaturiko ekintza gisa sortu, gehiago edo gutxiago, behin-behineko interbentzio gisa baizik, zeinak ez dauden nahitaez etorkizuneko jarraipen bati lotuak.

Jada aipaturiko Plan Integralen jarduera-ildoak izan zen lehen dekretuetan lankidetzeta-jardueren behin-behinekotasuna edo sakabanatzea gainditzeko asmoari buruz agertzen den adierazpenetako bat, zeinak, hainbat erakunderen baterako ahaleginaren adierazpen gisa ez ezik, epe ertainerako egonkortasunaren eta lanaren aldeko apustu gisa ere ulertzen diren, pape-raren gainean behinik behin.

Denboraren poderioz, aurrera egin da berehalakotasuna gainditzearen eta epe luzerago lan egiteko beharraren ideian. Hala ere, ideia hori proiektuen urte anitzeko finantziario baterako ezarritako aurreikuspenen kontzentratu da espezifikoki, urte bat baino gehiago iraungo luketen eta beraz, finantziarioa luzaragoan jaso ahal izango luketen interbentzioak bultzatzeko aukera zehaztuz¹⁰⁴. Hala ere, esparru honetan ez dago hausnarketarik kontrapartee-kiko harremanetan (proiektu batzuez edo besteez haraindi) jarraipen handia-go bat izateko beharrari buruz, edo epe ertainerako lanak elkarlan-harreman egonkorragoak eta emankorragoak ezartzen egin dezakeen mesedeari buruz, organizazio eta erakunde kontraparteen indartzea barne.

Erakunde batzuetako eta besteetako dekretuetan eta plan zuzentzaileetan dauden lankidetzeta-jardueren sakabanatze/kontzentrazioaren arazoari buruzko hausnarketak aztertzen direnean, jardueren koordinazio handia-go bilatzeko joera nabaria antzematen da, eta baita sinergiak sortzekoa ere, lehen garaietako aipaturiko Plan Integralen kasuan bezala. Hala ere, denbora pasatu ahala, kezka horrek ez du berrikuntza nabaririk ekarri politikaren diseinuan (politikaren diseinua aipaturiko sinergien lorpenerantz bideratuko luketen lerrotatzeak, murrizketak edo baremoak gehitzeko gai direnak); beraz, ia ez da helburu eta ahaleginen bateratze hori erraztuko duen formularik proposatu.

Guztiarekin ere, geografikoa izan da zalantzarik gabe plangintza-dokumentu gehienek lankidetzaren sakabanatzearen edo zatiketaren arazoari ekiteko orduan arreta berezia jarri duten esparrua. Hain zuzen ere, estrategia

¹⁰⁴ Hala ere, eta paradoxikoki, azken urteetan zehar araudiak jarduera bakoitzeko gehieneko zenbatekoak edo erakunde bakoitzeko gehieneko jarduera kopurua gehituz joan dira, eta ez gutxienekoak, nahiz eta benetan gehieneko horiek aski altuak izan diren batez besteko zenbatekoaren pixkanakako gorakada gerta dadin, gehienekotik gertu dauden zenbatekoekin finantzatutako proiektu askorekin.

geografikoki kontzentratzearen ideian izan du funtsezko adierazpena aipaturiko sakabanatzeari eta horrek dakarren lankidetzak-politikaren eraginkortasun txikiagoari buruz euskal erakundeek duten kezka. Hori zuzentzeko, lehentasuneko herrialdeen zerrendak osatu dira, bultzaturiko proiektu eta jarduerak gehienak bertan multzokatzeko.

Interbentzioak kontzentratzeko aipaturiko lehentasun geografikoak ezartzeko kezka elementu positiboak ditu zalantzarik gabe, lankidetzak-politikaren kudeaketa arrazionalizatzen eta errazten dutenak. Hala ere, lehentasuneko herrialdeak egoteak ez du bere horretan ziurtatzen lankidetzaren sakontasun handiagorik; izan ere, bideratutako jarduerak jarrai dezakete behin-behinekoak eta epe ertainerako egonkortasunik eta hedaturik gabeak izaten. Gainera, lehentasuneko hartzen diren herrialde batzuk India, Angola edo Peru bezain handiak direnean (EAEko erakunde batzuek lehentasuneko hartzen dituzten herrialdeen adibide batzuk jartzearen baino ez), muga hori are nabariagoa da; izan ere, herrialde horietako batean 20 edo 30 lankidetzak-jarduerak kontzentratzeak ez du ziurtatzen behin-behineko interbentzioak izango ez direnik, sektore ezberdinetan eta baita elkarrengandik urrun dauden lekuetan ere oso kontraparte ezberdinak dituzten hainbat erakunde burutuak. Zentzu horretan, esan daiteke plangintza-dokumentuetan nolabaiteko gainjartzea dagoela izaera ezberdina duten hiru gairen tratuaren: kontzentrazio edo sakabanatze geografikoa, jardueren jarraipena eta zatiketa.

Bestalde, politikaren eraginkortasunari buruzko hausnarketan herrialde-kategoria arretagunea bihurtzeko gogo bizia, ahaleginen kontzentrazioaren eta sakabanatzea gainditzearen ikuspegitik, kontraesanetan dago aztertutako ia dokumentu guztietan dagoen helburuarekin, zeina baita tokikotasuna politikaren ardatz nagusietako bat bihurtzea. Kontuan hartzen da ahaleginek maila horretan, herrialde mailan baino gehiago, izan dezaketela sendotasunik handiena eta sor ditzaketela ondorioz esanguratsuenak. Zentzu horretan, badirudi hainbat erakundetako (aldundietako eta Gasteizko Udalean izan ezik) ikusirik joera, lehentasun geografikoa Planetako zatirik garrantzitsuenetako bati ematea, gehienbat lankidetzak zentraletik planteaturiko eta ia AEEE guztiek ihardetsitako inertzia orokorrarekin bat datorrela, eta ez hainbeste gaiari buruzko hausnarketa zabalago eta autonomoago batekin.

Horren guztiaren ondorioz, sakontasun handiagoko bilatzearen ikuspegitik, oinarri gutxi izan du ia beti lehentasuneko herrialdeen zerrenda bat definitzeko, gehienetan, justifikatzeko, pobrezia maila, giza garapenaren indizea (GGI), herrialde horietan euskal erakundeek lehendik interbentzioak

egotea edo Euskadin herrialde horietatik etorritako etorkinak izatea bezalako irizpideetan oinarri hartuz. Ez herrialde horien eta EAeren artean osagarritasunik izatea, ezta Euskadin beste lurralde batzuetako ezaugarriekin eta arazo espezifikoekin loturik dagoen esperientzia ere, ez dira agertzen lehenetasunezko herrialdeen aukerarako kontuan hartu beharreko elementu gisa.

Lehenago esan den bezala, gai honetan deigarria da Lankidetzeta Legeak berak planteatzen duela lehenetasunezko herrialdeen ikuspegia hartzeko premia eta, are gehiago, herrialde horiek aukeratzeko jada irizpide batzuk ezartzen dituela; eta horrek, erakunde bakoitzaren politika-ahalmen eta behar aldakorrei egokitzeko aukerak baldintzatzeaz gain, legeari baino gehiago, gehienbat Plan Zuzentzaileei dagozkien alderdiak arautzen hastea dakar, zentzua gal dezaketen eta plangintza-aldi batzuetatik besteetara alda daitezkeen irizpide batzuk ezarriz (irizpide horien balorazioa alde batera utzita). Hala ere, azpimarratu dugun bezala, erakunde guztiak ez datoz bat gai honi emandako garrantzian. Adibidez, Aldundietako Plan Zuzentzaileak (2009-2011) ez du lehenetasunezko herrialdeen inolako zerrendarik antolatzen, bai euskal gizarteko bai tokiko gizarteko eragile kopuru handiago bat bereganatuko dituzten proiektuak errazteko premian dagoen sakabatatzeari buruzko hausnarketan kontzentratuz, lehenago azpimarratu diren kezketatik hurbilago dagoen irizpidea gertatzen dena.

Udalei dagokienez, Bilbokoak lehen Plan Zuzentzailean (2006-2009) jardueren kontzentrazio geografiko baten beharra planteatu zuen, oro har aipaturikoen oso antzekoak diren irizpideetan oinarri hartuz, eta, kasu honetan, honako irizpide hauetan kontzentratzen zen: pobrezia mailak, udalaren aurreko ibilbidea bera edo lurralde batzuetan edo besteetan udal-funtsekin lanean ari ziren GGKE kopurua. Gero, Bigarren Plan Zuzentzailean (2010-2013), Bilboko etorkinen jatorrizko herrialdeei buruzko irizpidea gehitu zen. Gasteizko Udalaren ikuspegia aldundietakoenetik gertuago dago; izan ere, Plan Zuzentzaileak (2010-2013) ez du lehenetasunezko herrialde edo guneen mugarik planteatzen ere, nahiz eta ahaleginak espazio mailan kontzentratzeko eta denbora mailan ekimenen jarraipen handiagoa egiteko beharra azpimarratzen den. Baina Gasteizko Udalarentzat eraginkortasun handiagoari buruzko kezka era berezian lotzen da interbentzioak tokiko lurralde-esparru batera mugatzeko beharreakin, alde batera utzirik hainbat salbuespenentzako aukera. Eta Donostiari dagokionez, Tokiko Planak (2008-2011) zonei eta herrialdeei lehenetasuna emateko beharra planteatzen du. Horretarako, honako hauek ezartzen ditu jarraitu beharreko irizpide gisa: dauden harremanen jarraipena, GGKEen eta beste hiri-erakundeen esperientzia lurralde ezberdinei dagokienez, kogarapen-jarduerak bultzatzeko aukerak eta, azkenik, Giza Garapenaren Indizerik baxuena.

5. koadroa: Hainbat politika-dokumentutan zehazturiko lehentasunezko herrialde edo guneen definiziorako irizpideak	
	Irizpideak
2007ko Lankidetza Legea	<ul style="list-style-type: none"> a) Giza Garapenaren Indizea. b) Giza eskubideen haustura larriak eta orokorrak pairatzen dituzten komunitateak eta herriak. c) Gune gatazkatsuak eta larrialdi humanitarioko egoeran daudenak. d) Herri eta herrialde pobretuak, zeinekin Euskadik aurreko lankidetza-esperientzietatik sorturiko harreman bereziak dituen. e) Euskadira etorkin asko datozen zonak eta herrialdeak.
Eusko Jaurlaritzaren Lehen Plana 2005-2008 (20 herrialde edota lurralde)	<ul style="list-style-type: none"> a) Pobreziaren garrantzia eta eragina (diru-sarrerren, errentaren, giza garapenaren eta beharren pobreziaren adierazleak). b) Lankidetzan pilatutako elkartze-estrategia edo aurretiko esperientzia, euskal eragile kopuruaren eta erabilitako finantza-funtsen garrantziaren arabera. c) Plan Zuzentzailearen estrategiarekin bat datorren herrialdeen marko politiko instituzionala. d) Herrialdeen gaitasuna politikak eta garapen-estrategiak ezartzeko.
Eusko Jaurlaritzaren Bigarren Plana 2008-2011 (22 herrialde edota lurralde)	2007ko Legean aurreikusitako irizpideak onartzen ditu, aparteko garrantzia emanez garapenerako lankidetzan aurretik zeuden harremanei eta esperientziari.
Aldundien Plan Zuzentzailea 2009-2011	Ez da lehentasunezko herrialderik jartzen.
Bilboko Udalaren Lehen Plana 2006-2009 (13 herrialde edota lurralde)	<ul style="list-style-type: none"> a) Pobrezia mailak, errentan eta GGJan oinarri hartuz. b) Udalaren lehenagoko jardunbidea. c) Herrialde batzuetan eta besteetan udal-funtsekin lanean ari diren GGKE kopurua.
Bilboko Udalaren Bigarren Plana 2010-2013 (12 herrialde edota lurralde)	<ul style="list-style-type: none"> a) Bilboko etorkinen jatorrizko herrialdeak. b) Giza Garapenaren Indizea. c) Lankidetza propioaren aurreko jardunbidea.
Gasteizko Plan Zuzentzailea (2010-2013)	Ez da lehentasunezko herrialderik aurreikusten.
Donostiako Tokiko Plana 2008-2011 (10 herrialde edota lurralde)	<ul style="list-style-type: none"> a) Lehendik zeuden harremanen jarraipena. b) GGKEen eta beste hiri-talde batzuen esperientzia lurralde ezberdinei dagokienez. c) Garapen-jarduerak bultzatzeko aukerak. d) Giza Garapenaren Indizea.

Iturria: Egileen elaborazioa.

Ikuspegi geografikoa alde batera utzi gabe, azken urteotan sakabanatzearen arazoa konpontzeko hainbat bide proposatzen saiatu da Eusko Jaurlaritza, Herrialdeko Estrategia izena duten plangintza-tresnen tipologia berri baten bitartez. Lankidetzaren Euskal Agentziaren definizioaren arabera, hauxe da tresna horien helburua: “Herrialde jakin bateko emakumeen eta gizonen garapenerako ahaleginak planifikatzea eta koordinatzea. Helburua proposameneren eta ikuspegi atomizazioa gainditzea da, eragile ezberdinen artean koordinaturiko jarduerak lortu nahian, lehentasunezko jardueraresektoreetan oinarri hartuz eta gutxienez lau urteko denbora-ikuspegi batez baliatuz”. Hala bada, helburua da, herrialde jakin bat oinarritzat hartuz, lankidetzaren zatiketa txikiago baten ildotik aurrera egin ahal izateko formulak bilatzea, zatien artean harreman egonkorak eratzen laguntzea eta, horren ondorioz, garapen-prozesuen abiaraztea sustatzea, epe luzeko denbora-etorkizun batekin. Planteamendu horrek, zalantzarik gabe, lankidetzeta-politikaren hedadura handiago eta sakonago bateranzko aurrerapausoa adierazten badu ere, galderak planteatzen jarraitzen du baliabideen osagarritasuna ulertzeko moduari edo lankidetzeta-politikari egonkortasun eta hedadura handiagoa emango lioketen eragileak txertatzeari buruz.

Geografiaz gain, denborarena da lankidetzeta-jardueren sakabanatze-kontzentrazioari buruzko hausnarketetan agertzen den beste dimentsio bat. Hau da, epe ertaineko lanari buruzko kezka eta jardueren jarraipena. Kasu honetan, plangintza-dokumentuek planteatu dituzten erantzunak batez ere interbentzioen urteanizkotasuna erraztearen ildotik joan dira, interbentzio horien eraginkortasun eta jasangarritasun handiagoa bermatzeko bide gisa. Lankidetzako programazioaren urtebeteko muga gainditzeko kezka 90eko hamarkadan egondako lehenengo debateetan agertu zen, eta kezka hori muga hori gainditzeko gai diren tresnak diseinatzeke ahaleginetan zehaztu da.

Modu ezberdinetan agertu da hau dekretuetan eta plangintza-dokumentuetan, bi urteko programen eta proiektuen aurreikuspenetik hasita aipaturiko herrialdeko planetaraino, zeinetan lau urteko etorkizuna aurreikusten den. Foru-aldundien kasuan ere, plan zuzentzaileak hainbat egoera planteatzen ditu bi urteko finantziatorako, bai lankidetzeta-proiektuetarako, bai sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza-proiektuetarako. Gauza bera gertatzen da udalen kasuan ere. Dena dela, Gasteizko Plan Zuzentzailearen (2010-2013) kasuaren espezifikotasuna aipa daiteke; izan ere, “urteko proiektu kateatuen” ideia aipatuz, lankidetzeta-jardueren jarraipen bat bermatu nahi

zen¹⁰⁵, talde gasteiztarren eta garapen-bidean dauden herrialdeetako proiektuetako protagonista diren taldeen arteko harremanak eta topaketak erraztearekin batera. Horrek, zalantzarik gabe, balio erantsi bat ematen zion jardueren jarraipenari buruzko hausnarketari, beste dokumentu eta plan zuzentzaile batzuen aldean.

Nolanahi ere, beharrezkoa da azpimarratzea jarraipenaren gaia arazo bat dela (finantziarioaren alderdiari dagokionez) eta dimentsio politiko hutsaz haraindi doazen ondorioak izan dituela (lankidetzak-ikuspegi bati edo beste bati erantzuteko zentzuan); izan ere, esparru horretan lehen zeuden administrazio-mugek eta aurrekontu-ekitaldien urteroko logikak plangintzaren jarraipena baldintzatu dute.

Elkarguneen eta elkarrenganako lankidetzaren sorkuntza

Politiken logikak bideraturiko interbentzioen garrantziarekin eta sakontasunarekin duen loturari buruz aurreko atalean planteaturiko hausnarketarekin jarraituz, azken zati honetan dokumentu ezberdinek lankidetzak-sareen eta kontraparteen arteko elkarketa egonkorren gaiari nola ekiten dioten aztertzen da, lankidetzak deszentralizatuaren elementu berritzaileenetako eta egokienetako bat izan litekeelakoan.

Gai honi buruzko kezka garapenerako lankidetzak herrialde edo erakunde emaileen eta herrialde edo erakunde hartzaileen arteko baliabideen transferentziaz haraindi eramateari loturik dago. Aitzitik, elkarrekikotasun- eta egonkortasun-printzipioetan oinarritzen diren beste lankidetzak-formula batzuk zein neurritaraino esploratu diren ala ez aztertzea da helburua. Elkarrekikotasun-ideiak esperientziak eta ezaguerak elkarren artean trukatzeko aukerarekin du zerikusia; egonkortasunarenak, ordea, behin-behineko proiektuetan bakarrik oinarritzen ez den harreman bat planteatzen du.

Bi ideiak bat datoz garapenerako lankidetzak elkargune gisa ulertzeko moduan, eta ez baliabideen transferentzia hutsera mugatzen den esparru gisa. Gainera, ekonomiaren eta gizartearen prozesuek globalizazioaren markoan jasandako aldaketa handiek elkargune horiei bidea emateko beharra eta aukera indartzen dituzte. Hain zuzen ere, esparrurik desberdinenetan sortutako elkarrekiko menpekotasunek ekarri dute dagoeneko lurralde bati

¹⁰⁵ Lankidetzak tokiko giza garapenaren prozesu jarraiketari kontzentratzeko beharra ere nabarmentzen du planak.

soilik mugatutako arazorik ez egotea, aldiz, arazoak oso esparru desberdinetan gertatzen diren prozesuekin loturik daude. Horren ondorioz, beste lurralde aberatsagoetako dinamikek gehiago edo gutxiago pobretutako eskualdeen garapen-prozesuak baldintzatzeaz gain, prozesu ezberdinak, oro har, elkarrekin loturik daude eta elkarri eragiten diete, egoera berri bat ekarriz emaitza gisa, non munduko edozein lekutan gizatalde ezberdinek bizi dituzten arazoez geroz eta garrantzi handiagoa eskuratzen duten nazioarteko mailan.

Egoera horretan, beharrezkoa da lankidetzaren politikaren gaitasuna baloratzea, partaidetza-harreman jarraikiak eta egonkorak sustatu eta babestu nahi badira. Honen inguruan azpimarratu behar den lehenengo gauza da euskal erakundearen plangintza-dokumentuetan hainbat aipamen planteatzen badira ere (batzuk oso interesgarriak), sorturiko ereduaren ezaugarri orokorrek planteamendu hori baldintzatu eta mugatu egiten dutela. Hain zuzen ere, lankidetzaren harremanen protagonismoa ia bakarrik GGKEen esku utziz, zailagoa bihurtzen da elkarrekotasunak bilatzea eta lortzea, eta berriro ere nabarmentzen da proiektuen burutzearen bitarteko baliabideen transferentzia eta erakunde horiek duten finantza-bitartekari izaera. Elkarrekotasun-harreman egonkorak eraikitzeak ordea, kezka-, gaitasun- eta esperientzia-marko partekatu bat izatea eskatzen du, eta horrek nolabaiteko espezializazio maila eskatzen du, oso arlo zehatzetan (giza eskubideak, generoa, ingurumena, nekazaritza, goi-mailako hezkuntza...); GGKE gehienek ez dute eta nekez lor dezakete espezializazio hori, emakumeen elkarteek, giza eskubideen babeserako elkarteek, talde ekologistek, nekazari-organizazioek, unibertsitateek eta abar ez bezala.

Lankidetzarako harreman berri baten ideia, baliabideen transferentziaz haraindi kokatzen dena eta elkarlanerako lotura egonkorak eraikitzearen aldeko apustua egiten duena, modu desberdinetan agertzen da (nahiz eta beti puntualki) Eusko Jaurlaritzaren bi plan zuzentzailetan¹⁰⁶. Hala bada, tokiko garapenaz eta tokiko erakundearen indartzeaz hitz egitean adibidez, lankidetzak Iparraldeko eta Hegoaldeko tokiko eragileen elkargune gisa balio behar duela esaten da, honako hau planteatzera iritsiz: “Eusko Jaurlaritzak, tokiko administrazio gisa, Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundearen eta tokiko boterearen arteko elkartzeari eta hartu-emanari erraztu behar du, gaitasunaren elkarrenganako indartze-estrategia batean”.

¹⁰⁶ J. A. Alonsok 2001ean euskal lankidetzaren inguruan egindako txostenak jada gai hori aipatzen zuen, eragile mota ezberdinen artean “*harreman gertuagokoak eta horizontalagoak, elkarrenganakoak eta orekatuagoak*” sortzeko beharra planteatzerakoan..

Kezka horiek berak agertzen dira eragileen kapituluan, gizarte-mugimenduez hitz egitean, Iparraldeko eta Hegoaldeko gizarte-mugimenduen arteko elkarguneak sortzeko prozesuak elkartze-printzipioan oinarritzen den jarduerarako funtsezko irizpidea ere badirela planteatuz. Plan horiek are esplizituagoak dira emakumeen mugimenduak aipatzean, berdintasunaren sustapenean lanean ari diren Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeen organizazioekiko edota feministekiko loturen eta itunen izaera estrategikoa defendatuz eta honako hau azpimarratuz: “Elkarrizketa bultzatuko da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenean lan egiten duten organizazioekin, bai Iparraldeko herrialdeetan zein Hegoaldekoetan”. Ildo beretik, Foru Aldundien Plan Zuzentzaileak (2009-2011) espezifikoki planteatu zuen Iparraldeko eta Hegoaldeko organizazio feministekin eta emakumezkoenekin partaidetza-harremanak sustatzeko premia. Bestalde, eta emakumeen organizazioei buruzko gogoeta horrez haraindi, badirudi aldundien plan zuzentzaileak kezka hori bera duela, modu orokorrago batean, aldundien lankidetzak tokiko erakunde publikoen arteko lankidetzak zuzena ahalbidetzen duela eta gizartearen arteko elkarrizketa ere erraz dezakeela azpimarratzen baitu, euskal eta tokiko organizazioen bitartez.

Kezka hauek udal-esparruan aurkitu dute egonlekurik aproposena, zailtzarrik gabe. Gainera, hori aspaldiko kontua da; izan ere, 1993an Gasteizko Udalaren deialdiak senidetzeen lehentasuna aipatzen zuen, eta 1997an Donostiakoak azpimarratzen zuen Donostiako biztanleriaren eta lankidetzan diharduten gainontzeko komunitateen arteko esperientzien hartu-emanaren errazten zuten proiektuei lehentasuna emateko beharra. Bere aldetik, Bilboko Udalak 2001eko deialdian jada arautzen zuen lehentasuna emango zitzaizela Bilboko organizazioen eta elkarrekin eta GBH-erako komunitateen arteko harremanak sustatzen zituzten proiektuei.

Geroago, Plan Zuzentzaileak egin zirenean, kezka hori geroz eta nabaria- goa egiten hasi zen, eta zertxobait gehiago zehazten. Hala, Bilboko Udalaren lehen Plan Zuzentzaileak (2006-2009) Hegoaldeko eta Iparraldeko erakundeetako eragile guztien agenden inguruan elkartzea errazteko beharra planteatzen zuen. Bigarrenak, ordea, Hego-Iparraldeko langile, teknikari eta politikarien gaitasunetan eta ezagutzetan sinergiak bilatzeko eta trukatzeko komenigarritasuna azpimarratzen zuen, edozein finantza-harremanaz haraindi, elkartze-printzipio baten inguruko gogoetatik abiatuta. Donostiako Udaleko Plan Zuzentzaileak ere (2008-2011) espezifikoki planteatzen du elkarguneak, hartu-emanetarako eta elkarrengandik ikasteko, itunak eta sareak egiteko esparruak sustatzeko beharra, prozesuaren eta jardueren jarraipenaren ildotik.

Baina Gasteizko Udaleko Plan Zuzentzailea da (2010-2013), zalantzarik gabe, ikuspegi horri garrantzirik handiena ematen diona, solidaritatea elkartzeko eta elkarrenganako ezagutzarako esparru gisa bultzatzeko joera duen ildo espezifiko bat planteatzeraino. Planaren hasierako zatian ere, non plana inspiratzen duten printzipioak aurkezten diren, solidaritateari elkar-gune gisa espresuki egiten zaion aipamen bat gehitzen da, ildo hori gainera jarraipenik gabeko behin-behineko harremanekin nekez bateragarria dela azpimarratuz. Orobat nabarmentzen da elkartze-itun eta harreman egonkorrak eraikitzeari buruzko kezka interbentzioen finantziarioari emandako trataeran, lehenago jada aipatu bezala, era horretan tresna hauek Gasteizko kolektiboen eta garapen-bidean dauden herrialdeetako proiektuetako protagonista diren kolektiboen arteko harremanak eta elkartzeak erraztu ditzaten. Zentzu horretan, beste dokumentu batzuetan (Unceta et al. 2011) defendatu dugun lankidetzalogika batekin lotuko litzateke jada aipatu dugun Gasteizko Udalaren “urteko proiektu kateatuen” ideia, non kide diren kontraparteen arteko lankidetz egonkorra, jarraitua eta epe ertainekoa, finantziarioa behar duten jardura zehatzek markatua egon daitekeen, baina ez horietan bakarrik oinarritua¹⁰⁷.

Azkenik, azpimarratuko dugu Gasteizko Udalarentzat, elkargune moduko lankidetzalogika horrek zuzeneko harremana duela udalaren beraren egin-kizunarekin. Alde batetik, logika horrek udal mailako lankidetz deritzonarekin (Gasteizko Udalak berak burutu duena) duen zerikusia defendatzen da, garapen-bidean dauden herrialdeetako kideekin hartu-emanak areagotzeko beharra aipatuz eta proiektuetan udaleko langile teknikariek parte har dezaten ahaleginduz. Eta, bestetik, udalak bide horretan aurrera egiteko bete dezakeen bitartekotza-papera azpimarratzen da, herriko kolektiboen, erakundeen eta GGKEen garapen-bidean dauden herrialdeetako kolektibo, erakunde eta GGKEekin elkartzea erraztuz.

Azken ohar hori gorabehera, eta jada egindako hainbat aipamenen salbuespenarekin, lankidetzaharreman egonkorrak ezartzeari buruzko kezka ez da ia senidetzeen gaiarekin lotu, nahiz eta nozio horrek tradizio handia izan udal-esparruan eta horren pean elkarguneen sorkuntza bultzatzeko aukera egon, bai administrazioaren beraren, bai gizarte-erakunde ezberdinen partaidetzarekin ere. Senidetzeak, ordea (egon direnean), adierazpen

¹⁰⁷ Logikoki, hori eraginkorra izan daiteke, desiragarria den bezala, aurrekontuek koherentzia-ildo bat jarraitzen badute; izan ere, Udal honek 2012rako iragarri dituen murrizketekin, tresna horrek zentzua galtzen du eta, horren ondorioz, berriro ere ziurgabetasun- eta jardueren puntualtasunera itzuliko ginateke, urteroko deialdiei leporatzen zaion horretara hain zuzen ere.

sinboliko gisa planteatu dira oro har, eduki eskasarekin. Eta, edonola ere, ez dute egonkortasunik aurkitu aztertutako plangintza-dokumentuetan, tresna interesgarri posible gisa lankidetzak-eredu egonkorrago eta elkarrenganakoago bat diseinatzeke orduan.

Gogoeta orokorrak

EAEko hainbat erakunderen plangintza-dokumentuetan aurreikusiriko lankidetzak-harremanak neurri handi batean bat datoz eredu tradizionalekin, nahiz eta kasu batzuetan berrikuntza-elementu oso interesgarriak nabarmentzen diren. Oro har esan daiteke lankidetzak-politikak, zentzu horretan, bi ezaugarri nagusi izan dituela: lehenik eta behin, erakunde pribatuen aldeko apustua (bereziki GGKEak) interbentzio gehien bitarteko erakunde gisa, zuzeneko lankidetzaren eta gaitasunen beren aldeko apustu handiago baten kaltetan; eta bigarrenik, burututako ekintzetariko askoren behin-behinekotasuna eta ezarritako harreman askoren jarraipen eskasa. Horrek guztiak egonkortasun eta iraunkortasun eskaseko lankidetzak-harremanak ekarri ditu, politiken norainokoa eta euskal gizartearen eta munduko beste gizarte batzuen arteko lotura sendoagoak eta elkargune emankorragoak osatzeko aukera mugatuz.

Aipagarria da oro har lankidetzak-interbentzioetan administrazioen zuzeneko partaidetzari emandako trataera laburra. Beste AA.EE eta lurraldeetan ez bezala, EAEren kasuan gabezia hori gehiago edo gutxiago errotutako praktikaz haraindi joan da; are gehiago, (autonomia-administrazioaren kasuan) izaera politikoa eskuratzera iritsi da, Lankidetzak Legeak bera administrazio publikoen eginkizunak mugatzen baititu. Denboraren poderioz, indartuz joan zen administrazioari jokatzea dagokion papera jardueren finantzatzaile hutsarena delako ideia; gizarte zibileko eragileak arduratuko dira, ordea, jarduera horiek burutzeaz¹⁰⁸. Horrek ondorio garrantzitsuak izan zituen, ez bakarrik ezarritako lankidetzak-harremanen izaeran, baizik eta baita beste hainbat kontutan ere, adibidez, aurreko atalean jorraturikoe-tan, Euskadin dauden baliabide tekniko eta instituzional eta giza baliabide desberdinen mobilizazioari dagokionez, lankidetzan erabiltze aldera.

Horrela, administrazioetan dauden hainbat baliabide eta gaitasun lankidetzak-politikatik eta horien bitartez ezarritako harremanetatik kanpo geratu dira oro har. Baina deigarriena da gai honi buruzko hausnarketarik

¹⁰⁸ Hainbat arduradun publikok aitortzen dute erakundeentzat ere eredu hau funtzional samarra geratu dela praktikan, administrazioaren beraren erantzukizunak mugatzen eta lor daitezkeen emaitzei buruzko kritika-eremua murrizten duen heinean.

ez dagoela lankidetzaren mota horren abantailei edo eragozpenei buruzko balorazioak eta analisiak egiten dituzten politika-dokumentuetan. Udalek zentzu horretan egiten dituzten oharra salbuesten badira, ez dago zuzeneko lankidetzari eta erakundeen paperari buruzko hausnarketarik lankidetzaren estrategia orokorrarekin, baremazio-irizpideekin edo senidetzeen eta jarraipen-harremanen ezarpenarekin lotzen duenik.

Jardueren sakontasunarekiko eta jarraipenarekiko kezka nahiko agerian egon da, auzi honi buruzko debata oro har bi alderditara mugatu bada ere: jarduerak lehentasunezko hartzen diren herrialdeetan kontzentratzeko kezka eta urte anitzeko finantziario-tresnen sorkuntza, eztabaidaz kanpo geratzen direlarik garrantzitsuagoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk, lankidetzaren egonkortasunari eta sakontasunari eragiten diotenak. Horietako bat, elkarrekikotasunean eta egonkortasunean oinarrituriko elkarte- eta partaidetza-harremanak sustatzeari dagokiona, geroz eta gehiago aipatzen da azken urteotako plangintza-dokumentuetan. Hala ere, elkarte- eta lankidetzaren berriak eratzeko beharri buruz sarritan egiten diren oharrek ez dute ia elkarrekikotasunik aurkitu bermatuko dituzten edo ikusgai bihurtuko dituzten formulak edo tresnen aurreikuspenak. Plangintzaren logikak, ordea, oraingoan, proiektuetan oinarrituriko filosofia batetik gertu egoten jarraitu du, eta proiektu horiek, aldi berean, geroz eta gehiago oinarritu dira beren finantziario-baldintzetan.

Herrialde mailan lehentasun geografikoak ezarri lankidetzaren eraginkortasun handiagoaz hornitzeko ahaleginari dagokionez, ahalegin horrek plangintza-prozesuaren hainbat arazo jarri dituela agerian esan behar da. Alde batetik, gai honi ekiteko orduan erakunde ezberdinek partekaturiko irizpideen gabezia aipa daiteke, eta baita EAEren eta bertako lurralde ezberdinen arazoak eta aukeren osagarritasunari buruzko aipamenik ez egotea ere. Horrela, lehentasunak, azken batean, gehienbat alde aurretik zegoen esperientzian oinarrituz definitu dira; eta horrek, praktikan, alde aurretik egindakoa ontzat ematea dakarrela suposatzen du, EAEko baliabide eta eragilean ezaugarri eta aukera propioen egokitzapen handiago edo txikiagoa aztertu gabe.

Baina gainera, ia erakunde guztiek, sakabanatzea saihesteko xedeaz, tresna nagusi gisa lehentasun geografikoari eman dioten garrantziak, herrialdeak hartzea erreferentziazko elementu bakar gisa ekarri du praktikan. Hau, jarraipenari laguntzeko eta sakabanatzea saihesteko kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuen hausnarketa estrategiko baten kaltetan izan da, estatu-nazioez haraindi eta gehienbat tokiko garapenari emandako lehentasunaren ildotik, lurralde-auziaren trataerari berari buruzko hausnarketa baita ere baztertuz.

4.7. Informazio publikoko eta euskal gizartearen parte hartzeko tresnei buruzko ikuspegia

Lankidetzaren politiken eta jardueren gardentasunari emandako garrantziarekin eta haien definizioan eta jarraipenean gizarteak izan duen parte-hartzeari emandako trataerarekin lotutakoa da lanaren zati honetan ekin diogun azken gaia. Horretarako, alde batetik, informazio publikoko mekanismoen aurreikuspena eta politikaren kontu ematea aztertuko ditugu, eta, bestetik, bereziki gizartearen eta lankidetzak-eragileen iritzia bideratzera orientaturiko tresnei dagokiena. Bi gai horiek oso estu lotuak daude elkarrekin eta zuzenean eragiten dute lankidetzak-politiken kalitatean, debatea erraztuz edo zailduz, eta, modu orokorragoan, gizartearen dauden sentsibilitate ezberdinak bideratuz.

Datozen lerroetan laburki aztertuko dugu bi gai horiek hainbat dokumentutan nola landu diren. Alde batetik, aurreikusitako informaziorako hainbat tresna orokor aztertuz, lortu nahi diren helburuen, abian jarritako interbentzioen eta lortutako emaitzen berri gizarte osoari emateko gai direnak. Eta, bestetik, lankidetzak-eragileen zuzeneko partaidetza antolatzeke aurreikusitako organoak aztertuz.

Gizartearen informatzeko tresnak

Politika-dokumentu ezberdinak gai hauetara nola gerturatzen diren aztertzeke orduan lehen alderdi interesgarria da dokumentu horiek informazio-, gardentasun- eta partaidetza-printzipioen inguruan egiten duten gogoeta aztertzea, eta baita mekanismo espezifikoeke burutzen duten definizioa ere, gizarte osorantz informazio-fluxua eta bere kasuan hiritarren iritziak jasotzeke kanalak irekitzea ziurtatze aldera.

Azpitarratu beharra dago Lankidetzaren Euskal Legeak ez duela inolako aurreikuspenik egiten gai honen inguruan. Erakundeak, beraz, ez daude legez behartuak iritzia publikoari informazioa ematera, eta gai honi ekiteke modua erakunde bakoitzaren borondate politikoaren arabera da azken finean¹⁰⁹. Hori izan da, segituan ikusiko den bezala, benetan gertatu dena; izan ere, dokumentu eta plan zuzentzaile ezberdinek oso modu ezberdinean ekiten diote gaiari. Legeak informazioaren auziari buruz agintzen

¹⁰⁹ Legearen hitzaurrean modu lausoan aipatzen dira politikaren gauzatzearen eraginkortasuna eta gardentasuna. Horietarako “*beharrezkoa bideratu da kudeaketa-egitura egoki bat sortzea, zeinak, funtsen, erabilera hobereena ziurtatuko duen eta erabat bermatuko dituen proiektuen aukeraketa-zereginak, jarraipena eta egindako lankidetzaren ebaluazioa*”.

duen aurreikuspen bakarra Parlamentuari dagokiona da, zeinari Jaur-laritzak urtero Lankidetzarako Plan Zuzentzailearen betetze mailari eta bertan jasotzen diren aurreikuspenen gauzatze mailari buruzko informazioa bidali behar dion.

EAEko erakunde desberdinen plangintza-dokumentuei dagokienez, Plan Zuzentzaileak egitean hasten da gai hauen inguruko gogoeta; izan ere, horien aurretik erakunde batzuek egindako informazio-ahaleginak ez zioten erantzuten gai honi buruzko alde aurreko hausnarketa bati. Hala ere, oso desberdina izan da informazio-gaiek plan batzuetan eta besteetan jaso duten trataera. Eusko Jaur-laritzaren kasuan, bere lehen Plan Zuzentzaileak (2005-2008) bultzaturiko lankidetzaren oinarritzko printzipioen artean honako hauek azpimarratzen ditu: solidaritatea, elkartzea, prozesu endogeneoiei laguntzea, integritasuna, koordinazioa eta erantzunkidetasuna, baina ez da gardentasuna edo partaidetza bezalako beste printzipio batzuen inolako aipamenik egiten. Kalitatezko egitura-lankidetzaren sustatzeari dagozkion gaiak planteatzera bideratua dagoen I. Arauan, 1.1. puntuak “lankidetzaren garden eta solidarioa egiteaz” hitz egiten du, gardentasun horren berri eman dezaketen beste inolako zehaztasunik edo adierazpenik gabe. Izan ere, Plan Zuzentzailearen zati batean ere ez da aipatzen politikari eta garapenerako lankidetzaren interbentzioei buruzko informazioa eta gardentasuna ziurtatuko duen mekanismoik edo tresna espezifikorik eratzeko beharra¹¹⁰.

Bigarren Plan Zuzentzaileak ere (2008-2011), ez du gardentasunaren gaiari buruzko inolako aipamenik gehitzen euskal lankidetzaren printzipioen artean. Hala ere, Lankidetzarako Euskal Agentzia berriaren sorreraz diharduen atalean honako hau azpimarratzen da: “Ekimen ezberdinen izapidea bizkortuko duen Kudeaketa Sistema bat ezarriko du, gardentasuna eta, ahal den neurrian, horien izapidearen aurreikuspena bermatuz”. Nolanahi ere, bigarren Plan Zuzentzailean ere ez da gardentasunarekin, informazioarekin edo gizarte osoari kontu-ematearekin zerikusia duen helbururik aipatzen.

Foru Aldundien baterako Plan Zuzentzaileak ere (2009-2011) ez ditu ia gardentasunari eta gizartearen lankidetzaren politikaren inguruan informatzeari buruzko gaiak garatzen. Gaiari egiten zaion aipamen bakarra erantzunkidetasunari buruz hitz egitean baino ez da planteatzen, zeina integritasunarekin, elkartzearekin, koordinazioarekin, elkarlanarekin eta koherentziarekin batera,

¹¹⁰ Gaiaren aipamen generiko bakarra egiten da, kudeaketa egoki baterako ezinbestekoak diren ezaugarriez hitz egiterakoan. Ezaugarri horien artean gardentasuna, efikazia, eraginkortasuna eta kontuen berri emateko betebeharra daude.

Planaren printzipio inspiratzaileak diren. Erantzunkidetasun-printzipio horren barruan lankidetzako, sentsibilizazioko eta garapenerako hezkuntzako estrategien kalitatea, efikazia, eraginkortasuna eta gardentasuna areagotzeko beharra aipatzen da, baina ez da gai horrekin zerikusia duen aurreikuspenik egiten edo helburu zehatzik aipatzen.

Udal-esparruan aurkitzen dugu lankidetzak-politikei buruzko gardentasunari, informazio publikoari eta kontu-emateari dagokion garapenik handiena. Bilboko Udalak, bere lehen Plan Zuzentzailean (2006-2009), gardentasuna printzipio gisa zuzenean aipatzen ez bazuen ere, zeharka aipatzen zuen solidaritate printzipioaren barruan, gardentasun hori lankidetzak solidariorantzat beharrezko baldintza bat zela azpimarratuz. Bigarren Planak ordea (2010-2013) jada kalitatearen, eraginkortasunaren eta gardentasunaren printzipioak gehitzen ditu esplizituki, honako hau azpimarratuz: “Hiru alderdi horiek (aurreko Planean espresuki agertzen ez direnak) ebalua daitezkeen emaitzei begira planifikatutako eta orientatutako (Bilboko Udalaren) kudeaketa baten beharra islatzen dute. Gainera, emaitza horiek gaitzetzeko eragileei eta hiritarrei jakinarazi behar zaizkie”. Gogoeta horrekin bat eginez, Planak arau espezifiko bat gehitzen du “gardentasun-politika bat indartzera bideratua, komunikazio eta informazio iraunkor eta jarraitu baten eta Bilboko Udalaren kontu-emate garden baten bitartez, bere Garapenerako Lankidetzak politikari dagokionez”. Horretarako, hainbat konplimenduetan adierazle sortzen dira, eta horien artean burututako ebaluazio guztiak (bitartekoak edota amaierakoak), zein Garapenerako Lankidetzaren urteroko memoria guztiak, tokiko webaren bitartez zabaltzeko konpromisoa dago. Gainera, azken horiei dagokienez, ildo, helburu eta emaitza bakoitzerako lortutako aurrerapausoak deskribatutako dituztela zehazten da, definituriko adierazleetan oinarri hartuz eta orobat benetan erabilitako aurrekontuari erreferentzia eginez (aurreikusitakoaren aldean), arloka, sektoreka, modalitateka eta tresnaka bereizita. Azkenik, Bilboko Udaleko Plan Zuzentzaileak komunikabideen papera aipatzen du hiritarrentzako informazio-kanal gisa, burututako jardueri eta garapenerako lankidetzak konprometitutako baliabide publikoei dagokienez, *“Udalaren beharrezko gardentasunari eta kontu-emateari begira.”*

Bere aldetik, Gasteizko Udaleko Plan Zuzentzaileak ere (2010-2013) hainbat aurreikuspen espezifiko ezartzen ditu informazio publikoaren esparruan. Alde batetik, Garapenerako Lankidetzak Zerbitzuak abian jarritako jardueri buruzko urteroko Memoria bat egiteko hartutako konpromisoa jasotzen du. Memoria hori, Hiritarrekiko Harremanen Sailaren Memorian egoteaz gain, Gasteizko Udalaren web-orrian ere eskuragarri egongo da. Aldi berean,

Plan Zuzentzaileak adierazten du, jendartean zabal dadin, CD euskarrian ere argitaratuko dela eta udalaren web-orrian eskegiko dela. Gainera, Planak bide ezberdinak zehazten ditu tokiko komunikabideen bidezko lankidetz-politikaren zabalkunderako. Alde batetik, Garapenerako Lankidetz Zerbitzuak udalaren web-orrian mantenduko duen azpi-saila aipatzen du, non udalaren lankidetzari dagozkion informazioak (planak, memoriak eta abar) zein eskaerak aurkezteko eta diru-laguntzen kudeaketarako beharrezkoak diren tresnei dagozkionak gehituko diren, edota lankidetz-zerbitzuak berak antolatutako jardueren informazioa. Eta, bestalde, tokiko aldizkariak ere erabiliko direla planteatzen da, bai hiritarrei bai udaleko bertako langileei lankidetz-politikari buruzko informazioa emateko. Azkenik, Donostiako Udaleko Tokiko Lankidetz Planak (2008-2011) gardentasunari buruzko hainbat aipamen generiko planteatzen dituen arren, ez du inolako konpromisorik hartzen informazio publikoari, kontu-emateari, memorien elaborazioari edo tokiko web-orriaren bidezko zabalkundeari buruz, eta hori ez dator bat praktikan gai honi buruz erakutsitako kezkarekin, aplikazio-analisiaren atalean ikusi ahal izango den bezala.

Azpinarratu beharreko gai bat da, gizarte osoaren eta iritzi publikoaren lankidetzari buruzko informazioari emandako trataeraren analisisan, eragin handiagoa nabarmentzen dela sentsibilizazioaren ideian, partaidetzaren ideian baino. Horren ondorioz, dokumentu askok sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza-estrategiaren parte gisa tratatzen dute informazioaren gaia, askoz gehiago azpinarratuz garapen-prozesuei loturiko arazoen azalpena edota salaketa (pobrezia, giza eskubideen bortxaketa eta abar) edo horien jatorria, interbentzio-estrategiari berari buruzko informazioa eta horren emaitzak baino. Egia da garapenerako hezkuntza-estrategia gartuagoa duten erakundeek bi gai horien arteko lotura planteatzen dutela, garapenaren arazoei buruzko informazioa oinarria eta baldintza dela adieraziz, lankidetzan partaidetza handiagoa izatea nahi bada. Hala ere, lankidetz-politikaren, Kontseiluen debateen, ebaluazioen eta abarren azalpen publikoaren trataerak ez du ia lekurik aurkitzen sentsibilizazioari eta garapenerako hezkuntzari buruzko analisi horietan.

Azkenik, EAEko administrazio publiko ezberdinen arteko elkarlanerako aukerei egindako erreferentzien ia erabateko gabeziari dagokiona da egin beharreko gogoeta bat, informaziorako tresna koordinatu edo bateratuak aintzat hartzeari begira. Honi dagokionez, salbuespen bakarra Gasteizko Udalarena da, zeinak bere Plan Zuzentzailean (2010-2013) espresuki azpinarratzen duen udalak, ahal den neurrian, euskal erakundeek babestutako eta egindako lankidetzaren hobekuntza dakarten ekimenak bultzatzeko

konpromisoa hartzen duela, lehentasunezko zatik joaz, beste gaien artean, euskal lankidetzak publikoaren informazioa jasotzea eta informazio horretara sarbidea izatea. Gabezia horren ondorioz, erakunde bakoitzak bere aldetik prestatu du -prestatu duenean- norberaren informazio publiko-rako mekanismoen sorkuntza eta diseinua, alde batera utziz gainontzeko erakundeekin bateratu ahal izatea. Aplikazioaren kapituluak itzuliko gara gai honetara.

Partaidetzak-organok

Hasiera-hasieratik nabarmendu zen eduki behar zirela garapenerako lankidetzaren esparruan lan egiten duten gizarte-eragileen partaidetzak bideratuko zuten kide organo kolegiatuak, nahiz eta hau, batez ere, GGKEetatik planteatu zen, lankidetzak-funtsen banaketari gardentasun handiagoa emateko helburuarekin, bereziki erakunde eta administrazioen arteko eztabaidak behin eta berriz errepikatu ziren urte batzuen ostean.

1998an, eta Eusko Jaurlaritzako Lankidetzak Zuzendaritzan egindako hainbat aldaketarekin bat eginez, Eusko Jaurlaritzak dekretu bat aldarrikatu zuen, zeinaren bitartez Euskadiren Garapen Lankidetzarako Aholku Kontseilua sortu baitzen¹¹¹, Administrazio Publikoen, Gobernu Kanpoko Erakundeen eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko beste Gizarte Eragile batzuen partaidetzaren organo-sustatzailerik gisa, Garapenerako Lankidetzari buruzko politiketan.

Kontseilua horri atribuzioa erruz eman zitzaion: aholkularitzarako, politikarizpideen eta lehentasunen ezarpenerako, gizarte-eragileen jardueraren gaineko zaintzarako, proiektuak ebaluatzen irizpideen osatzeko, sentsibilizazio-jarduerak bultzatzeko, larrialdi-esparrurako jarduerak proposatzeko, ikerlanak eta txostenak egiteko eta abar. Hemen interesatzen zaigun ikuspegitik abiatuz, Kontseilua eskuduna zela nabarmenduko dugu garapenerako lankidetzak-politikei dagozkien gizarte zibilaren ideiak eta proposamenak biltzeko, eta baita euskal gizarteak Kontseiluak berak urtero egindako lanaz informatzeko, zein garapenerako laguntzaren kalitatea eta gardentasuna zaintzeko ere.

¹¹¹ Dekretuaren hitzaurreak Kontseiluaren sorrera justifikatzen zuen honako hau azpimarratuz: “*Gaur egun eskuratutako tamainak eta etorkizuneko bazkunde-aukerek tartean dauden hainbat eragileren bilera- eta partaidetzak-plataforma bat sortzea abolkatzen dute Euskal Garapenerako Lankidetzaren egungo egoerari buruzko baterako gogoeta bati bidea emateko eta jarduteko bide berriak esploratzeko, betiere Garapen Bidean dauden Herrialdeetara bideratutako ekintza solidarioen kalitatea, eraginkortasuna eta gardentasuna handitzeko helburuari jarraituz.*”

Eta Kontseiluaren osaketari dagokionez, honako hauez osatzea erabaki zen: FOCADeko Kudeaketa Batzordeko hamar kideak, EUDELeko ordezkari bat, euskal GGKEetako zazpi ordezkari, Euskadin dauden Erlijio Ordenetako ordezkari bat, Garapenerako Lankidetzarekin zerikusia duten esparruetan lan egiten duten erakundeetako bi ordezkari (horietariko bat, lanbide-heziketaren sektorekoa, eta bestea mikroenpresen edota kooperatiben sorkuntzari lotua) eta azkenik, bere jatorriagatik *Garapen Bidean dauden Herrialdeekin* lotura zuen pertsona bat. Ikus daitekeen bezala, osaketa horrek formalki sortutako organizazio edo erakundeetako pertsona adierazgarrien eta sektore zehatzei edo baita herrialdeei ere loturiko pertsonen nahasketa arraro bat islatzen zuen (antolaketak berak hautapen-prozesu bat egitea behartzen zuelarik). Horrek zilegitasuna kentzen zion, jakina, erakundeen ordezkariari.

Kontseiluaren osaketak hainbat kritika jaso zituen, Kontseiluak, bai zuzenean edo bai *lotura zuten* pertsonen hautaketaren edo kooptazioaren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren erabateko kontrola suposatzen zuelakoan. Aldi berean, analisi batzuek (jada aipaturiko Alonsorenak bezalakoak) azpimarratu zuten nabaria zela Kontseiluaren osaketan unibertsitatearen, sektore pribatuaren eta lankidetzeta-adituen gabezia (Alonso, 2002)¹¹². Hainbat sektoretatik azpimarraturiko beste gabezieta bat¹¹³Euskal Fardoarena izan zen. Erakunde horrek EUDELek baino esperientzia eta ordezkatzeko handiagoa zuen lankidetzaren esparruan, eta, hala eta guztiz ere, Kontseilutik kanpo geratu zen, EUDEL kide bihurtu zen bitartean.

2008an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilu berriak ordezkatu zuen Aholkularitza Kontseilua, zeina 2007ko Lankidetzeta Legean aurreikusitako organoa zen eta aurrekontuaren inguruan hainbat berrikuntza zituen, funtzioen definizio apur bat ezberdinarekin eta ordezkari-erakunde berri batekin. Zentzu horretan, araudi berrian ia ordezkatzeko paritario bat sustatu zen administrazioaren zatiaren eta organizazioei eta gizarte-erakundeiei zegokienaren artean. Administrazioari dagokionez, aipagarriena izan zen gehitu zirela Eusko Jaurlaritzako hainbat sailtako ordezkariak –bazirudien hori lankidetzeta-interbentzioetan Administrazioaren inplikazio handiago bat

¹¹² Dekretuak Kontseiluaren lehendakariari baino ez zion egozten kasu bakoitzean tratatuko ziren gaietan espezializaturiko pertsonen balizko partaidetza eskatzeko gaitasuna (hitza bazuen baina botorik ez). Bestalde, 2001ean Eusko Jaurlaritzak Kontseiluari Unibertsitateko ordezkari bat gehitzea proposatu zuen. Une hartan GGKEek ez zuten proposamena onartu.

¹¹³ Alboanek (2007) gabezia hori anomalia bat zela esan zuen, Kontseiluan lankidetzeta eragile guztiak ez, baizik eta “*ia guztiak*” egotea zekarrela esanez.

bilatzera bideratua zegoela–, zein Euskal Fondoaren ordezkari bat –horek aurretik Aholkularitza Kontseilutik baztertu izana konpontzen zuen– eta Emakunderen beste bat –lankidetzaren orientazioan genero-ikuspegia azpimarratzearen aldeko aukera argia erakutsiz–. Eta atal sozialari dagokionez, Koordinakundeko GGKEez gain, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragileen ordezkariak gehitu ziren, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kideak ez zirenak eta Lankidetzak Legean aurreikusiriko Eragileen Erregistroan erregistratuak zeudenak¹¹⁴. Halaber, beharrezkoa da aipatzea organo formal eta legezko gisa aurkeztu den Kontseiluaz gain, Lankidetzak Legeak bere 17. artikuluan arautzen duela Plan Zuzentzaileak egiteko “egokiak diren partaidetza- eta kontsulta-mekanismoak ere bideratuko dituela garapenerako lankidetzaren eragileen artean dauden sentsibiltate eta proposamen ezberdinak ezagutzeko”.

EAEko gainontzeko erakundeei dagokienez, garrantzi desberdina izan dute partaidetzarekin loturiko kezkek. foru-aldundien kasuan, ez da inolako partaidetza-organorik aurreikusi horietako batean ere, eta baterako Plan Zuzentzaileak ere (2009-2011) ez zuen inolako aurreikuspenik egiten honi dagokionez. Lankidetzaren, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren estrategien kalitateaz, efikaziaz, eraginkortasunaz eta garrantzutasunaz hitz egitean baino ez zen aipatzen “gizarte zibileko sektore adierazgarrien partaidetza-esparruak” bermatzeko beharra.

Udaletan ia hasieratik egon zen gai hauei buruzko analisia, hainbat Kontseiluren sorkuntza ekarri zuena, norik bere Plan Zuzentzaileak argitaratu baino nahiko urte lehenago. Donostiako Udala izan zen hiruren artean Lankidetzaren esparruaren partaidetzarako eta kontrolerako organo bat sortu zuen lehena (eta EAEko lehen erakunde publikoa). Hori 1996an gertatu zen Garapenerako Lankidetzaren Tokiko Kontseiluaren eraketarekin eta Giza Eskubideen defentsarekin¹¹⁵, geroago Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzarako Aholkularitza Kontseiluari bidea emango zion 2008an. Bere aldetik, Gasteizko Udalak Garapenerako Lankidetzak Kontseilua sortu zuen 1999an, organo aholku-emaile gisa. Bilboren kasuan, 2005ean sortu zen Lankidetzarako Tokiko Kontseilua, izaera aholku-emailea, informatzailea eta erakundearen, gizartearen eta

¹¹⁴ Kontseiluaren osaketari egindako kritiketako baten arabera, bertan ez dira hiru hiriburuetakoa Udalak agertzen, espero izatekoa zen gauza, kontuan harturik hirurek duten esperientzia eta jardunbide luzea.

¹¹⁵ Udal honetan partaidetzaren gaiari ematen zaion garrantzia jada 2003ko *Nondik-Nora* txostenean agertzen zen, non gaiak leku garrantzitsua hartzen duen.

hiritarren parte-hartzea zuen kide anitzeko organo gisa, Garapenerako Lankidetzaren eta Bilboko Udalaren Solidaritatearen politikaren definizioarako eta jarraipenerako. Gainera, Lehen Plan Zuzentzaileak Bilboko emakumeen erakundeen eta erakunde feministen partaidetza planteatu zuen lankidetzaz-estrategian. Horretarako, bere presentzia erraztu beharra zegoen Kontseiluan zegoen komisioan.

6. koadroan aztertu diren EAEko erakunde bakoitzerako aurreikusi diren hainbat partaidetza-organori (Kontseiluei) buruzko informaziorik garrantzitsuenak jasotzen da. Aldundien kasua salbuesten badugu, zeinek, azpimarratu dugun bezala, ez duten era horretako organoen sorrera aurreikusi, bai Eusko Jaurlaritzak bai udalek funtzio kopuru eta mota zabalago egotzi diete Kontseiluei. Oro har, funtzio horiek plangintza estrategikoa, politiken koherentzia, lankidetzaren kalitatea eta gardentasuna edo erakundeen arteko koordinazioa bezalako gaiei buruzko kezka nabariaren erakusle dira. Hala ere, Kontseiluen kargu utzitako erantzukizun guztien irakurketa arretatsu batek gutxienez zalantza-izpiren bat sortzen du aipaturiko funtzioak burutzeko bideragarritasunari buruz, batez ere kontuan hartzen bada ez dagoela aurreikuspenik beren funtzionamendurako baliabideen zuzkiduraz¹¹⁶.

Kontseilu horien osaketari dagokionez, ordezkartzaren ideia gailendu da EAEko eremu orokorrean; Udalei buruzkoetan ordea, dagokion erregistroan dauden lankidetzaz-erakunde guztien presentzia aurreikusten da –Kontseiluaren osoko bilkuran behintzat–, Kontseilu iraunkorarentzat printzipioz jarraituagoa eta eraginkorragoa den lan-eremu bat geratzen delarik. Hala ere, kasu bakoitzarentzako ezartzen den bileren aurreikuspenak ez du argi erakusten funtzioen banaketa hori.

Azkenik, Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren eta Kontseilu Errektorearen artean funtzioak gainjartzeko arriskua da beste gai deigarri bat; izan ere, bi Kontseiluek plangintza-estrategikoaren esparruko erantzukizunak dituzte, bultzatu eta burutu beharreko planekin eta jarduerekin lotuak. Halaber, gainjarpenak gerta daitezkeela nabarmentzen da Kontseiluaren hainbat zerreginen eta Erakundearen Arteko Kontseiluaren esku utzitakoen artean¹¹⁷.

¹¹⁶ Bilboko udalak urteroko aurrekontu txiki bat aurreikusten du Kontseiluak funtziona dezan. Horrek Kontseiluaren idazkaritzaz arduratzeko kontratazio bat eskatzen du.

¹¹⁷ Horien artean EAEko Administrazio Politikokoetako Koherentziarekin eta EAEko hainbat Administrazioen ekimen eta txostenei buruzko debatearekin zerikusia dutenak daude.

6. koadroa: Lankidetzak Kontseiluen osara eta eginkizunak					
	Aurreikusitako izendapenak eta lan-batzordeak	Sorrera-urtea	Osaketa	Eginkizunak	Ezarririkoa aldizkako tasuna
EAE	Euskadiko Garapenerako Lankidetzaren Aholkularitza Kontseilua	1998	FOCADeko 10 kide EUDELEko ordezkari 1 GGKEetako 7 ordezkari Erlitio Ordenetako ordezkari 1 Lotura duten erakundeetako 2 ordezkari (lanbide-heziketa eta kooperatibak) GBHei jatorriagatik loturiko pertsona 1 Emakundeko ordezkari 1 (1999tik) Hautzaroaren esparruko ordezkari 1 (2000tik)	FOCADA aholkatzea garapenerako lankidetzak-gaien inguruan. Politikaren irizpideak eta lehentasunak proposatzea. Horien kalitateak, eraginkortasuna eta gardentasuna zaintzea. Esparru horretan lan egiten duten gizarte-eragileen jokabide zuzena zaintzea. Proiektuak ebaluatzeko irizpideak proposatzea. Sentibilizazioerako eta GHrako ekimenak proposatzea eta sustatzea. Nazioarteko gomendioak betetzea sustatzea. Hondamendi eta larrialdi-egoerei aurre egiteko ekimenak proposatzea. KEIak lankidetzaren esparruan egindako arauen aurreproiektuak aurretik ezagutzea. Euskal Administrazio Publikoek beste politika batzuek Garapenerako Lankidetzak Programaren helburuekin duten koherentziari buruz aholkatzea. Ipar/Hego desberdintasunen ezagutza sustatuko duten ikerlanak edota txostenak egitea. Urteroko txosten bat idaztea EAEn edo EAEn egindako garapenerako lankidetzari buruz legebiltzarrean bideratzeko. Gizarte zibilaren garapenerako lankidetzak-politikei buruzko ideiak eta proposamenak jasotzea. Euskal Gizarte Garapenerako Lankidetzaren Aholkularitza Kontseilua urtero garatutako eginkizunaz informatzea. Elkarteak, jardunaldiak, kongresuak edota solidaritateari eta garapenerako lankidetzari dagokion jardueren antolamendua proposatzea. Erakunde publikoen eta gizarte-eragileen arteko jarduerak-irizpideak proposatzea eskualde- edota herrialde-esparruko proiektuak garatzeko. Administrazio publiko zein pribatuekin harremanak eta /edo hitzarmenak sortzea sustatzea.	4 ohiko bilera urtean

Jarraipena

	Aurreikusitako izendapenak eta lan-batzordeak	Sorrera-urtea	Osaketa	Eginkizunak	Ezarrirako aldizkakotasuna
EAE	<p>Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua (oharra: eginkizun guztiak, lehenengoa izan ezik, EAEko erakunde guztiari buruzkoak dira)</p> <p>Batzordeak:</p> <p>Batzorde iraunkorra</p> <p>Laguntza</p> <p>Humanitariorako Batzordea</p> <p>Udalbatzarak sor ditzakeen beste Batzorde batzuk.</p>	2008	<p>Lankidetzaren ardura duen kontseilariari.</p> <p>Jauriaritzako hainbat sailerako 8 ordezkari</p> <p>Lankidetzarako Euskal Agentziaren Zuzendaria.</p> <p>Legebiltzarreko GG.EEen Batzordearen burua.</p> <p>Emakundeko ordezkari 1</p> <p>Aldundietako 3 ordezkari</p> <p>EUDELEko ordezkari 1</p> <p><i>Euskal Fonda</i>ko ordezkari 1.</p> <p>Euskadilko GGKEen Koordinakundearen burua.</p> <p>Koordinakundearen GGKEetako 9 ordezkari.</p> <p>Lankidetzarako beste gizaite-eragile batzuen eta Koordinakundetik kanpo dauden GGKEetako 6 ordezkari.</p>	<p>Aldez aurretik eta demagorez informatzea Ejjaren Lankidetzaren inguruko xedapenak.</p> <p>Aldez aurretik eta demagorez informatzea Agentziaren egituraz eta antolakuntzaz.</p> <p>Aldez aurretik eta demagorez informatzea bi urteko eta urtebeteko Planaz eta horien ebaluazioez.</p> <p>EAEko Administrazio Publikoaren politiken koherentsiari buruz urtero informatzea.</p> <p>EAEko administrazio ezberdinen ekimenak eta txostenak ezagutzera eta eztabaidatzea.</p> <p>Lankidetzaren kalitatea hobetzeko ekimenak proposatzea.</p> <p>EAEko Lankidetzaren Eragileak aholkatzea.</p> <p>Txosten monografikoak egiteko proposatzea eta eztabaidatzea.</p>	4 ohiko bilera urtean

Jarraipena

	Aurreikusitako izendapenak eta lan-batzordeak	Sorrera-urtea	Osaketa	Eginkizunak	Ezarritako aldizkakotasuna
EAE	Lankidetzarako Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea	2010	Agentziaren burua. Beste sail batzuetako eta Eusko Jaurlaritzako erakundeetako lau ordezkari. Garapenerako Lankidetzaren euskal Kontseiluko hiru kide ordezkari, atal sozialeko partaide direnen artean hautatuak. Bi kide Eusko Jaurlaritzaren izenean. Kontseiluko idazkaritza izango duen Agentziaren zuzendaria.	Agentziaren jardueren plan orokorrak onartzea. Laguntza eta diru-laguntza ezberdinen deialdiak onar daitezzen erabakitzea eta adostea eta baita horiek emateko oinarritako irizpideak ere. Agentziaren urteroko aurrekontu-aurreproiektua egitea. Agentziaren jardueren urteroko memoria onartzea. Langileen eta beren ordainsari-erregimenaren inguruko proposamenak egitea. Agentziaren antolakuntza eta funtzionamendurako araudia aldatzeko proposatzea. Eusko Jaurlaritzari Agentziaren zuzendariaren izendapena eta kargu-uztea proposatzea. Agentziaren zuzendaritzaren kudeaketa kontrolatzea eta horri dagokion erantzukizunak eskatzea. Agentziaren jokabidearen jarraipena, ikuskapena eta kontrola. Araudiak Agentziaren kargu uzten duen beste edozein funtzio.	Lau bilera urtean
Arabako Aldundia					
Bizkaiko Aldundia					
Gipuzkoako Aldundia					

Jaraipena

	Aurreikusitako izendapenak eta lan-batzordeak	Sorrera-urtea	Osaketa	Eginkizumak	Ezarritako aldizkakotasuna
Bilboko Udala	Lankidetzaren Tokiko Kontseilua Batzordeak: Batzorde Betearazlea Lanerako beste Batzorde posible batzuk	2005	Udalbatzarra: Udala Udal Erregistroan dauden GGKEak. Udal-ordezkanitza duten alderdi politikoa (botonik gabe). Batzorde Betearazlea Udaleko 2 ordezkari. GGKEetako 4 ordezkari. GGKEetako beste 2 ordezkari (botonik gabe). Idazkaria (botonik gabe).	Udala aholkatzea Solidaritategaren eta Garapenerako Lankidetzaren inguruan. Lehentasunak eta jarduera-irizpideak proposatzea eta Lankidetzaren kalitatea, efikazia, eraginkortasuna eta gardentasuna zainitzea. Araudiak, ordenantzak eta deialdiak eta diru-laguntzak idazten parte-hartzea. Udalbatzararak kontsultatuniko gaien alde irizpena ematea eta udalbatzarari proposamenak egitea. Lau urteko Plan Estrategiko bat bultzatzea. Lankidetzan egiten diren tokiko jarduerak ebaluatu eta urteroko txosten bat egitea. Tokiko gainontzeko politiken eta Lankidetzarako politikaren arteko koherentzia sustatzea. Deialdien ebazpena informatzea. Garapenerako Sentsibilizazioa eta Hezkuntza sustatzea. Hiritarren partaidetza sustatzea. Erakundeen arteko Lankidetzeta sustatzea.	Udalbatzarra: Sei hilero egindako ohiko bilera bat. Batzorde Betearazlea: Lau ohiko bilera urtean
Gasteizko Udala	Garapenerako Lankidetzeta Kontseilua Batzordeak: Lanerako beste Batzorde posible batzuk.	1999	Alkatea edo zinegotzi ordezkaria. Udaleko alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bana GGKE bakoitzeko ordezkari bana. Tokiko lankidetzarekin loturiko beste erakundeetako ordezkariak. Pertsona adituak edo garrantzitsuak (botonik gabe).	Garapenerako Lankidetzaren kalitatea sustatzea. Udalemirako proposamenak egitea garapenerako lankidetzaren esparrurako. Hiritarren eta eragina jasan duten sektoreen partaidetza sustatzea. Informazioa, jaraipena eta garapenerako lankidetzaren urteroko ebaluazio-programak eztabaidatzea. Erakunde publiko eta pribatuak lankidetzan egiten dituzten jardueren koordinazioa bultzatzea. Politiken eta tokiko jarduera-integralen ezarpena bultzatzea. Garapenerako lankidetzari buruzko ikerlanak eta txostenak bultzatzea. Gai horretako heziketaren diseinuan parte hartzea.	Hiru hilero egindako ohiko bilera bat.

Jarraipena	Aurreikusitako izendapenak eta lan-batzordeak	Sorrera-urtea	Osaketa	Eginkizunak	Ezarritako aldizkakotasuna
Ayto. de Donostia	Garapenerako Lankidetzarako eta Giza Eskubideen Babeserako Tokiko Batzordea.	1996	Alkatea Lankidetzaren eta Tolerantziako zinegotzia. Udal-taldeetako ordezkariak. Donostiako GGKEetako ordezkariak. Izaera juridikoa duten eta irabazi-asmorik ez duten lankidetzaren proiektuei loturiko beste erakunde batzuk. Alkateak izendaturiko teknikari adituak. GGEEen elkarteetako ordezkariak.	Garapenerako udal-laguntzak ematea zuzendu behar duten iniziatibak eta lehenitasunak proposatzea. Tokiko Gobernuak onartu aurretik aurkezten diren proiektuei buruz informatzea. Jarduera-programak aurkeztea. Proiektuen gauzatzearan eta Garapenerari emandako udal-laguntzaren betetze maila orokorraren aldizkako jarraipena. Donostiaren artean, bereziki gazteriaren artean, Hegoaldeko herrialdeetako solidarietate eta lankidetzaren printzipioak zabaltzea. Sentsibilizazio-kanpainak garatzea GGEEen, bakearen eta tolerantziaren alde.	Ez da zehazten

Jarraipena	Aurreikusitako izendapenak eta lan-batzordeak	Sorrera-urtea	Osaketa	Eginkizunak	Ezartutako aldizkakotasuna
Donostiako Udala	<p>Aurrekuzarako eta Garapenerako Hezkuntzarako Aholkularitza Kontseilua.</p> <p>Batzordeak:</p> <p>Batzorde iraunkorra.</p> <p>Lanerako beste Batzorde posible batzuk.</p>	2008	<p>Alkatea edo lankidetzat-esparuko ordezkaria.</p> <p>Lankidetzako ordezkari zinegotzia.</p> <p>Lankidetzari edota garapenerako hezkuntzari loturiko eta Udal Erregistroan dauden GGKE, Fundazio edo irabazi-asmorik gabeko erakunde bakoitzeko ordezkari bana.</p> <p>Euskadiko GGKEen Kudeatzaileko ordezkari bat.</p> <p>Gipuzkoako ordezkari bat.</p> <p>Udal-talde bakoitzeko zinegotzi bana.</p> <p>Interesatuak dauden pertsonen zerrenden parte direnen artean zozketa bidez hautatutako hiru pertsona fisiko.</p>	<p>Lehenetsunak eta jarduera-irizpideak proposatzea eta lankidetzaren kalitatea, eraginkortasuna eta gardentasuna zaintzea.</p> <p>Lau urteko Plan Estrategiko bat bultzatzea.</p> <p>Jardueren urteroko Programa eta dagokion memoria bultzatzea.</p> <p>Lankidetzarako eta GHRako proiektuen, programen eta tokiko neurrien elaborazioan aholkatzea.</p> <p>Deialdi publikoan oinarritarako eta proiektuen hautaketarako irizpideetan aholkatzea.</p> <p>Lankidetzarako eta GHRako udal-funtsen erabileraren ebazpen-proposamenaren aurreko txosten bat igortzea (hala eskatzen bada).</p> <p>Lankidetzaren eta GHren esparuan egiten diren udal-jarduerak urtero ebaluatzea.</p> <p>Udalbatzarak eskatutako beste gai batzuei buruzko irizpena igortzea.</p> <p>Tokiko gainontzeko politiken eta Lankidetzarako eta GHRako politikaren arteko koherentzia sustatzea.</p> <p>Hirian Lankidetzarako eta Garapenerako Hezkuntzarako dinamikak sustatzea.</p> <p>Lankidetzaren Euskal eta Estatu mailako Legearen eta gai horretan Nazioarteko erakundeetatik jaiotako gomendioen betetze egokia sustatzea.</p> <p>Batzordeari ematen zaion beste edozein funtzio.</p>	Lau aldiz urtean

Gogoeta orokorrak

Puntu honetara iritsi garenez, alderdirik aipagarrienak azpimarra ditzakegu gardentasunaren eta plangintza-dokumentuetan informazioari eta partaidetzari emandako trataeraren inguruko gogoeten inguruan.

Oro har, hainbat kontraesan ikus daitezke plangintza-dokumentuen baitan informazioari emandako trataeran, gai horiek interbentzioen abiarazteari dagokionean indar handiagoz azpimarratuz eta gutxiagoz asmoa debatea, jarraipena eta politikaren beraren ebaluazioan parte-hartzea planteatzea denean. Bigarren eremu horretan erreferentziak urriak dira eta erakunde batzuetan ez dira agertu ere egiten. Gizarte-partaidetzarekin eta batez ere gizarte osoarentzako informazio-mekanismoen eta tresnen berrikustearekin loturiko helburuak definitzeko eta zehazteko dagoen kezka urrian islatzen da hori guztia politiken debatean. Bi erakundek baino ez dituzte helburuak planteatzen eta konpromiso esplizituak definitzen beren plan zuzentzailetan azken gai horri buruz: Bilboko eta Gasteizko Udalak. Dena den, plan zuzendari guztien artean, inon ez da aurkitzen nazioarteko iradokizunei buruzko aipamenik, ezta IATI-tik ateratako arauari buruz ere (IATI: International Aid Transparency Initiative, Accrako ekintzarako planean lortutako akordioetatik sortu zen).

Jada aipatu den bezala, informazioari dagozkion gaiak planteatzeko nola-baiteko joera nabaritzen da sentsibilizazio-estrategiaren parte gisa. Horrek alde positiboak baditu ere, hiritarrek informaziora duten sarbidearekin loturiko alderdiei buruzko hausnarketa espezifikokoago bat eragozten du (memoria ekonomikoak, datu-baseak, egindako ebaluazioen emaitzak eta abar), gardentasunaren printzipiotik abiatuz funtsezkoa dena, baina, bestalde, oso gutxi agertzen dena plangintza-dokumentuetan. Deigarria da, eta baita kezkarria ere, aipamenik ez izatea (jada aipaturiko Gasteizko Udalarena izan ezik) erakunde batzuek eta besteek emandako informazioa bateratzeko beharrari edo esparru horretan baterako strategiaren bat planteatzeko komenigarritasunari buruz.

Bestalde, eta Kontseiluen bitartez ezarritako partaidetza-kanalei dagokienez, batzuen eta besteen definizioan dauden desberdintasunak nabarmendu daitezke, bai funtzioei bai ordezkaturiko erakundeei dagokienez. Baina, ezberdintasun horiez haraindi, agian garrantzitsuena erakunde horiei emandako erantzukizunen handitasuna eta garrantzia azpimarratzea da, dauden erronka handi batzuen –adibidez, politiken koherentziari, kalitateari edo erakundeen arteko koordinazioari dagozkien erronken– hartzaiz-

le bihurtzeraino. Kasu batzuetan plan zuzentzaileetan eta beste politika-dokumentu batzuetan ebatzirik ez dauden gaiak dira, eta ez dirudi gai horien ebazpena Kontseiluen bidetik aurkitzen erraza izango denik.

Azkenik, nolabaiteko zailtasuna adierazten da garapenerako lankidetzan lan egiten duten baina gai honetan bakarrik espezializaturik –GGKEak dauden bezala– ez dauden erakundeen ordezkariak zehazteko. Neurri handi batean Lankidetzaren Erregimenaren erregistroen antolakuntzari eskaintako arreta eskasarekin du horrek zerikusia, eta, modu orokorragoan, zeregin horretara gizarte-eragileen mota ezberdinak gehitzeko hainbat dokumentutan ezarritako murrizketekin. Azken horren adibide bat da, hainbat AAEtan gertatzen denarekin alderatuz, Unibertsitatea inoiz ez dela aipatzen Kontseiluetako kide izan daitekeen erakunde gisa.



5. kapitulua.

EAE-ko erakundeen lankidetzaren politikaren kudeaketa eta aplikazioa



Azterlanaren bigarren zati honetan, lankidetzeta-politika (zeinaren diseinua jada aurreko ataletan aztertu den) praktikan nola aplikatu eta gauzatu den aztertuko dugu. Zeregin konplexua da, izan ere, askotan eskuragarri dagoen informazioa urria edo osatugabea den hainbat esparrurekin du zerikusia. Gure kasuan, informazioaren zati bat (burutu diren interbentzioei dagokiona) dokumentatua badago ere, beste zati bat (ezarritako baliabideei eta diseinaturiko tresnen funtzionamenduari dagokiona) sakabanatua eta jaso gabe dago. Horren ondorioz, urte hauetan zehar lankidetzeta-politiken kudeaketarekin zuzenean harremanetan egon diren pertsonak ahoz transmititu duten informazioa jo behar izan da kasu askotan.

Bestalde, alde batetik, aplikazio-analisiaren oinarrizko zati batek sortutako helburuen eta lehentasunen artean dagoen harremanarekin zerikusia du, eta bestetik, praktikan burutu diren interbentzioekin. Horri dagokion arazo nagusia interbentzio horien inguruko informazio egokia izateko posibilitatean datza, eta hori funtsezkoa da ikertu diren erakunde guztiak barne hartzen dituen baterako analisi orokor bat egin nahi bada. Hala ere, interbentzioei dagokien informazioak hutsune ugari ditu, eta gainera, ez da erakunde batzuen eta besteen artean homologagarria (informazio-sistemetan gabezia garrantzitsuak daudelarik) Hori, logikoki, muga garrantzitsua izan da aplikazio-analisi hau lortzeko.

Aplikazio-analisi honen garrantzia hainbat faktoreren mendekoa da. Alde batetik, erabilitako baliabideen balorazioa dela medio, diseinatu diren politikaren koherentzia eta bideragarritasuna azter daitezke, eta, horrez gain, baita hainbat erakundetan potentzialki beste batzuk baino garrantzitsua goak diren prozedurak eta formulak ere. Eta bestetik, beharrezkoa da politikaren eraginkortasunaren azterketa aipatzea, erabilitako baliabideen eta baliabide horien funtzionamenduari buruzko gogoetaren eta azterketaren bidez.

Aplikazio-analisiarekin loturiko hainbat gairi ekiteko, bost multzo handitan banatu dugu kapitulua, aztertu ahal izan diren alderdirik esanguratsuenak laburbilduz.

Lehenengo multzoan politiken aplikaziorako aurreikusitako eta erabilitako baliabideen azterketa egiten da, eta bai bere autonomia eta erakunde-antolakuntza, bai zuzkidura eta prestakuntza teknikoa edo diseinaturiko informazio-sistemen kalitatea ere lantzen dira.


Bigarren multzoak kudeaturiko funtsen orientazioari buruzko ikuspegi orokor bat adierazteaz dihardu, politikaren gauzatzeari buruzko lehen diagnostiko bat egiteko aukera emango duten hainbat joera aurkeztuz.

Hirugarren multzoak diseinatu den politikaren eta burutu diren interbentzioen arteko harremanaren analisi bat egiten du, arreta berezia jarriz alde aurretik ezarritako lehentasunetan, kontuan hartutako eragileengan eta aurreikusitako lankidetzarako modalitate eta tresnetan.

Laugarren multzoa koordinazio-mekanismoei eta mekanismo horiek funtzionatzeko izan duten moduari buruzkoa da.

Eta, azkenik, bosgarren multzoan informazio baliabideak, partaidetza-mekanismoak eta helburu horretarako aurreikusitako organoen funtzionamendua abiarazteari buruzko gaiak aztertzen dira.

3. grafikoa: Aplikazio-analisan kontuan hartutako hainbat auzi, gaika multzokatuta



Azken batean, kapitulu hau lankidetzak-politiken gauzatzeari eta horretarako erabilitako baliabideei eta tresnei dagokien auzien azterketan kontzentratzen da, zeinari Aplikazio- edota Kudeaketa-analisi izena eman zaion¹¹⁸. Planteamendu horren arabera, ondorengo atalek esparru honetan egindako analisiaren berri ematen dute, aipaturiko bost multzoak erreferentzia gisa hartuz.

¹¹⁸ Espainiako Lankidetzaren Ebaluazioen Kudeaketa Eskuliburuak azpimarratzen du Kudeaketaren edota Aplikazioaren Ebaluazioaren helburua, "GLOa bere formatu eta plangintza maila ezberdinetan nola kudeatzen eta aplikatzen den baloratzea dela. Helburua interbentzioaren plangintza- eta kudeaketa-zentroek diseinua, aplikazioa, jarraipena eta ebaluazioarekin harremana duen gaitasuna aztertzea da, eta kudeaketa-zentroek, emailek eta hartzaileek zeregin horietan duten konpromisoa eta koordinazioa ikertzea, bakoitzaren papera, antolakuntzaren egokitasuna eta baliabideen hornikuntzaren nabikotasuna zebatzuz" (Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritza, 2007).

5.1. Politiken aplikaziorako ezarritako baliabideak

Lehen azpimarratu den bezala, lankidetzaren politikaren aplikazioa baloratzeko orduan aztertu beharreko lehenengo gaia da zer baliabide erabili den, eta nola, aplikazio hori gauzatzeko; izan ere –eragin mailan lorturiko emaitzez haraindi–, horrexen menpe dago plangintza-dokumentuetan aurreikusia dagoena egiteko aukera bera.

Oro har, beharrezkoa da politika hauen aplikazioaren ezaugarri izan den baliabideen urritasuna nabarmentzea, eta bereziki deigarria gertatzen da, administrazioko beste esparru batzuekin eta horiek kudeatu behar dituzten baliabide kopuruekin alderatzen bada. Arazo hau aztertutako erakunde guztietan agertzen da, hainbat nabardurarekin; izan ere, guztietan erabiliko baliabideak ezegonkorrak eta eskasak izan dira, lortu nahi ziren helburuen izaera eta esleitutako finantza-baliabideen garrantzia kontuan hartzen badira bereziki. Hala ere, erabili diren baliabideekin lorturiko arazoak zuzkidura kuantitatibo hutsaz haraindi doaz, eta eragina dute beste gai batzuetan, hala nola, erakunde-organigramaren barruan lankidetzak duen kokapenean, pertsona erantzuleen esperientzian eta prestakuntzan edo dauden informazio-sistemetan. Politikak praktikan gauzatzeko gaitasunean ez ezik, eraginkortasunean ere zerikusia duten gaiak dira, jarraian adieraziko ditugun moduan.

Lankidetzaren autonomia eta artikulazio instituzionala

Garapenerako lankidetzak ezin badu eztabaida politikoa erabateko baztertu, ezta adituek kudeaturiko gai tekniko hutsa izan nahi ere, egia da izugarri konplexua eta espezializatua den zeregina dela, non oso zaila den hainbat dinamika eta lankidetzaren harreman martxan jartzea. Horregatik, lankidetzaren politikak, praktikan gauzatu ahal izateko, halako autonomia bat behar du kudeaketan, erakunde ezberdinetako gobernu-organismoetan gertatzen diren aldaketez haraindi nolabaiteko jarraipena ahalbidetuko duena. Bistan denez, horrek zerikusia du jarraipen hori ahalbidetuko duten oinarritzko adostasunen beharrezko bilaketarekin. Premia hori lan honen aurreko atalean aipatu dugu.

Hala ere, gauza da euskal erakunde batzuetan garapenerako lankidetzak ez duela behar duen jarraipena izan kudeaketari dagokionez, momentu askotan gertaturiko aldaketa politikoen zoriaren mende egon delarik. Autonomia Erkidegoko funts gehienak kudeatzen dituen Eusko Jaurlaritzaren kasuan, lankidetzaren zuzendaritzarako eta kudeaketarako egitura bat antzeman daiteke,

zeinaren artikulazio-organikoa aldatuz joan den denboran. Zuzenean Lehendakariaren menpe egon ondoren eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzako kide izan ondoren (EAJ-PNVren politikaren zuzendaritzapean) Lankidetzak Zuzendaritza Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailera atxikita egotera igaroz, kasu horretan EB-IUren politikaren zuzendaritzapean, indar politiko hori 2001ean hiruko gobernuan sartu ostean. 2009an, gobernu-aldaketa berriarekin, Lankidetzak Zuzendaritza Gizarte Gaietarako Sailean kokatu zen hasieran eta gero, 2011n, Lehendakariaren kokatu zen berriro ere, bi kasuetan PSE-EEren politikaren zuzendaritzapean.

Aldaketa horiek guztiek hainbat ondorio negatibo izan dituzte; izan ere, giro horretan, ziurgabetasun- eta haustura-momentuak izan dira, bai politikaren orientazioan, bai lankidetzaren funtzionamendu eraginkorrean eragina izan dutenak¹¹⁹. Zentzu horretan, Lankidetzarako Euskal Agentziaren sorrerak aldaketa kualitatibo bat ekarri du kudeaketa ulertzeko moduan, zeinak jarraipen handiagoa ziurtatu behar lukeen lankidetzaren orientazioan eta gauzatzean, autonomia handiagoarekin eta inoiz gobernuen eta beren zuzendaritza organoen aldaketen ostean gertatu diren hausturarik gabe.

Aldundien kasuan, jada lehenago azaldu da hasieran beren funtsak Eusko Jaurlaritzatik kudeaturiko FOCADi ematen zizkiotela, eta, hortaz, ez zeukaten espezifiko garapenerako lankidetzaz arduratzen zen administrazio-unitaterik. Aldundiek FOCAD pixkanaka utzi zutelarik, aldundietako sailak hasi ziren lankidetzak kudeatzen. Arabaren kasuan, gaia Diputatu Nagusiaren Sailari atxikita egon zen 1999 eta 2007 urteen artean, Gazteria eta Gizarte Sustapen Sailera pasatuz 2008an. Urte hartan Garapenerako eta Giza Eskubideetarako Lankidetzak Zerbitzua sortu zen sail horren barruan. Bere aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundia lankidetzak-gaiez arduratu zen 2004 eta 2007 artean Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzerako Sailetik, eta 2008an Garapenerako Lankidetzaren, Berdintasun Politikaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza bat eratu zuen, Kirol eta Kanpo Ekintza Sailera atxikia. Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundia lankidetzarako bere funtsak zuzenean kudeatzen hasi zen 2001ean Diputatu Nagusiaren Kabinetearen bitartez. 2007an Berdintasunerako eta Hiritarren Eskubideetarako Zuzendaritza sortu zen, Kabinete horri berari atxikia, zeinaren betebeharrerako bat

¹¹⁹ Elkarrizketatu ditugun pertsona batzuek lankidetzak Lehendakariari atxikita egotearen garrantzia babestu dute, bere barne-legitimazioari eta gobernuko gainontzeko sailetan eragiteko duen gaitasunari begira, era horretan politika publikoaren izaera indartuz, ikuspegi sektorialago baten edo laguntza-politikaren aurka, zeinak lankidetzak beste sail batzuetara eramango lukeen, adibidez, Gizarte Ongizatera.

garapenerako lankidetzeta baita; geroago, 2011tik gaur egunera arte, Zuzendaritza hori Gizarte Ekintzako Sailaren menpe egotera igaro zen.

Nolanahi ere, beharrezkoa da azpimarratzea, aldundiei dagokienez, ez zirela, FOCADetik atera ahala, lankidetzaren kudeaketarako organo berrien definizioa eta zuzkidura egin; aitzitik, horren ordez, lankidetzarekin zerikusia zuten zeregin gehienen kanpo-azpikontratazioa aukeratu zen, kasu askotan horren barruan zegoelarik deialdien arauak idaztea, baremazioa eta proiektuen puntuazioa, espedienteen jarraipena, eta abar. Aukera hori justifikatzeko, neurri handi batean administrazio-gastuak ahalik eta gehien murriztean oinarrituriko eraginkortasun-idea batetik abiatu ziren aldundiak; eta gai horrek, inondik ere, zerikusia zuen lankidetzarako berezko politika bat izateari uko egitearekin eta lankidetzeta bera diru-laguntzen deialdietara mugatzearekin. Alderdi horiek geroago baino ez ziren zuzenduz eta baliabide gehiagoz hornituz joango, Eusko Jaurlaritza alde batera utzirik, aldundien lankidetzeta osatzen eta aldundien arteko elkarlana abian jarri zenean.

Azkenik, hiru hiriburuetako udalei dagokienez, bakoitzak bere egoera berezia aurkezten du. Gasteiz da, zalantzarik gabe, ibilbide luzeena duena lankidetzaren kudeaketari dagokionez. Lankidetzeta-zerbitzu hori, zeinaren sorkuntza erabaki aitzindaria izan zen espainiar Estatu osoan, alkatetzaren menpe zegoen hasieran, geroago Ekonomia Sustapenerako Sailean kokatzera igaroz (1992), non lanpostu bat eman zitzaion eta teknikari bat kontratatu zen 1993an. 1995ean Gizartegintzara pasatu zen, eta 1998an Lehendakaritzaren menpeko sail bat sortu zen, geroago Hiritarrekiko Harreman izena hartu zuena, 2011n Gizarte Gaietarako Sailari atxiki zitzaion arte. Bilboko Udalaren kasuan, lankidetzeta-jarduerak zuzenean Alkatetzaren menpe egon ziren hasieran, baina 2003tik aurrera Emakume eta Garapenerako Lankidetzan kokatu ziren, eta geroago jada Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritartasunekoan. Eta Donostiako Udalarari dagokionez, 1996an Lankidetzeta eta Tolerantzia Saila sortu zen. 2007tik aurrera ordea, lankidetzeta gaiak Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta, Berdintasuna eta Giza Eskubideen Zuzendaritzara igaro ziren.

Erakunde batzuen eta besteen lankidetzeta-egituretan egondako aldaketa askok oso lotura estua dute garapenerako lankidetzaren nolabaiteko autonomia –garapenerako lankidetzeta aldaketa politikoetatik datozen ondorioetatik aparte utziz– mantenduko luketen oinarritzko adostasun batzuen gabeziarekin. Euskal lankidetzaren historia laburrean izan diren hainbat pasartek zentzu horretan lankidetzeta-politikaren eraginkortasuna eta sinesgarritasuna

murriztu duten arazoak berri ematen dute. Horren adibide garbia izan zen 2001ean –Eusko Jaurlaritzan gertatu zen aldaketarekin– ordu arteko lankidetzak-politika berrikusteko ireki zen prozesua bertan behera uztea¹²⁰. Izan ere, prozesu hartan euskal gizarteko eragile askok parte hartu zuten, arazoak diagnostikatu zehatz bat eginez eta lehen aholku multzo bat sortuz; dokumentu haietan zeuden (eta bertan behera utzi ziren) gomendioetako batzuk gaur egun oraindik ere Euskadiko lankidetzak-politiketan egin gabe dauden errotrak dira: esate baterako, EAEko erakundeak arteko koordinazioa eta osagarritasuna, GGKEan oinarritzen den ereduak gaunditzeko beharra, gizarteko hainbat baliabide mota mobilizatzeko komenigarritasuna, erakundeak beren inplikazioa lankidetzan edo egonkorragoak diren beste lankidetzak-harreman batzuen sustapena.

Foru aldundiekin gertatu zena politikak-aldaketek eragindako ezegonkortasunaren eta arazoak beste erakusle bat da. Alde batetik, aldaketa horietako batzuk aldundiek FOCAD pixkanaka bertan behera utzi izanaren jatorria izan ziren, funts komun hori mantentzeko zailtasuna erakutsiz indar politikoko berak lau erakundeak gobernatzeari utzi zionean¹²¹. Berrikiago, eta baterako plan zuzentzailearekin ahaleginak koordinatzeko bizitako esperientziaren ondoren, 2011ko hauteskundeetako emaitzek eta ondorengo aldaketa politikoei alde batera utzi zuten egindako lana, hiru foru-erakundeetako bakoitza bere planteamendu berezira itzuliz eta aldeak aurretik burututako hausnarketan atzera eginez (zentzu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak lehenengo planean egindako lanarekin jarraitu nahi duela aipatu behar da).

Udal mailako eremua da seguru asko lankidetzaren autonomia handiena mantentzea lortu duena aldaketa politikoei dagokienez. Hori, zalantzarik gabe, udaleko administrazio-egitura batzuen potentzial handiarekin eta urteetan zehar iraun duten pertsona batzuek duten esperientzia handiarekin lotua dago. Gasteizko Udala da horren adibide adierazgarria, zeina duela gutxi lankidetzako aurrekontuen bat-bateko murrizketa egin arte –asaldura handia eragin duena, Gasteizko Udala beti aitzindarizat eta ereduakotzat hartu izan den erakundeak izateagatik– lankidetzaren orientazio berari eutsi dion, lau indar politikoko desberdineko alkateak izan arren¹²².

¹²⁰ Ardatz nagusi gisa, jada aipaturiko J. A. Alonsok euskal garapenerako lankidetzaren indarrei eta ahultasunei buruz eskatu zuen ikerlan-diagnostikoa izan zuen gogoeta-prozesuaz ari gara.

¹²¹ Urte batzuetan zehar, aldundiek FOCAD erakundeak izandako partaidetzak Eusko Jaurlaritzako koalizio politikoei bat egin bazuen ere, Eusko Jaurlaritzaren barruan lankidetzaren erantzukizunak beti EAJ-PNV alderdiaren gidaritzapean jarraitu zuen, zeinak aldundietan ere gobernatzen zuen.

¹²² EA, PNV, PP eta PSE. J. A. Cuerdak lehenengo bietako kide gisa izan zuen gisa alkate-kargua.

Lantalde teknikoak: zuzkidura eta espezializazioa

Aurrekoaren garrantzi bera du lankidetzaren zuzendaritzen eta zerbitzuen zuzkidurari eta zeregin horrez arduratzen diren gizataldeen esperientziari eta prestakuntzari dagozkion alderdiak. Eta zentzu horretan beharrezkoa da azpimarratzea, aipaturiko aldaketa organikoez haraindi, ahultasun argi bat egon izan dela historikoki EAEko erakunde gehienetan.

Zentzu horretan nabarmendu beharreko lehen gaia lankidetzeta-politike-tarako dagoen aurrekontu-zuzkiduraren (hau da, administratu beharreko funts guztien batuketara) eta kudeaketara bideraturiko sailen kopuruaren artean ikusitako alde handia da. Eusko Jaurlaritzaren kasuan eta 7. koadroan ikus daitekeen bezala, lankidetzeta kudeatzeaz arduratzen diren gizataldeentzat esleituriko kontu-sailek ez zuten ia aldaketarik jasan 2006 eta 2010 arteko aldian, eta lankidetzeta-aurrekontuak, berriz, ia % 50 hazi ziren urte horien artean. 2011. urtean betiko hautsi zen joera hori, Lankidetzarako Euskal Agentzia sortu zenean¹²³.

7. koadroa: Langileen aurrekontua, Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren aurrekontu orokorraren gainean (euroak milakotan eta ehunekoak) (*)							
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Lankidetzarako aurrekontua	32.217	34.039	39.000	45.000	51.000	51.006	51.006
Lankidetzaren Zuzendaritzako langileen aurrekontua	287	336,6	342,1	361,7	376,7	355	954 (381)
Langileen aurrekontua/ lankidetzaren aurrekontua	% 0,89	% 0,99	% 0,99	% 0,80	% 0,74	% 0,70	% 1,87 (% 0,74)

(*) Parentesi arteko zifrak eta ehunekoak benetan burututako sailekin bat datoz (123. oin-oharra ikusi). Iturria: Egileen elaborazioa, EAEko Aurrekontu Legeetan eta haiei dagokien memorietan oinarriturik egina.

Hiru hiriburuetakoko foru-aldundien eta udalen kasurako ezin izan da gai horretan behar bezala oinarrituriko kalkulu bat egin; izan ere, Gasteizko kasuan

¹²³ Aurrekontuko partida 2011ean jada kontuan hartzen bazen ere, Agentziarako langile berrien kontratazioa atzeratu egin zen azkenean; ondorioz, aurreikusitako aurrekontuko partida hein batean baino ez zen gauzatu.

izan ezik¹²⁴, Berdintasun, Partaidetza, Giza Eskubideak edo beste batzuk barne hartzen dituzten beste esparru zabalago batzuetan murgilduta agertzen da lankidetzaren esparrua. Nolanahi ere, gai konplexua da eta ezin da horren inguruko konparazio zehatzik egin aldagai ezberdinei emandako erakundeen eta gai horretan parte hartzen duten kudeaketa-ereduen artean.

Gauza bera gertatzen da Garapenerako Lankidetzaren esparruaren eta erakunde bakoitzaren beste esparru edo zerbitzuen artean dagoen diferentziarekin, kudeaketa-aurrekontuaren/aurrekontu orokorraren ratioari dagokionez. Azterlan batzuek datu deigarriak argitaratu dituzte auzi honen inguruan¹²⁵; hala, orokorrean, lankidetzaren arduradunek zuzkidura txikiagoa jasotzen dute beren esparruetan, beste batzuekin alderatuz, eta agindutako zereginaren garrantziaren argitan batez ere. Zentzu horretan, eta jada gairik logika batez ari bagara ere, momentu batzuetan lankidetzarako baliabide teknikoaren eta giza-baliabideen zuzkidurarik txikiena eraginkortasun-seinale gisa identifikatu zen, igorle-hartzaile harremanaren logika baten baitan, non kudeaketa-gastuak murriztu beharra zegoen, zeina kontuan hartzeko helburu bat izanez ere, ezin da erreferentzia bakarra izan¹²⁶. Dena dela, aipagarriena da ezarritako baliabideak ez direla plangintza-dokumentuetan planteaturiko eskakizun doktrinal altuetatik sortutako beharrei egokitu eta ezta horietan aurreikusitako tresnen geroz eta barietate eta sofistikazio handiagoari ere.

Lankidetzak-politiken kudeaketarako baliabideen zuzkidura eskas horrek, gainera, kontraste handia sortzen du 2005etik aurrera, ondoz ondoko plangintza-estrategien ereduarekin. Zentzu horretan, deigarria da plan horietako batzuen anbizioa (bai definizio doktrinal handietan, bai beste helburu, arau eta zeharkakotasun-eskakizunen adierazpenean), plan horiek martxan jartzeko gai izango diren taldeak eratzeko premiari planetan eskainitako arreta gutxiarekin alderatuz. Logikoki, horrek azkenean eragina izan du hainbat erakun-

¹²⁴ Gasteizko Udalerako lankidetzak-aurrekontu osoaren inguruko langileen ratioa % 5 inguruan kokatu zen 2010 eta 2011. urteetan.

¹²⁵ Alboanek, EAEko aurrekontuetan oinarri hartuz, Garapenerako Lankidetzan langileen gastua kudeatutako aurrekontuaren % 0,87 zela adierazten zuen. Horren ondoan, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzan, % 5,11 zen; Ondare Historikoan % 6,07, eta Kanpo Ekintzan % 30,02. (Alboan, 2007).

¹²⁶ Kontuan hartu beharra dago nazioarteko erakundeek egitura sendoak izatearen garrantzia aldarrikatzen dutela politiken eta lankidetzak-funtsen kudeaketari aurre egin ahal izateko, nahiz eta kostua % 6ra arte mugatzeko gomendatzen den, alor honetan egitura gairik garrantzitsuak eta gehiegizko gastuak egon ez daitezela.

detako lankidetzaren kudeaketa-egitura gehien ahultasunean¹²⁷. Azken urteotan, erakundeetan bertan ere hasi da nabarmentzen egin diren plan zuzentzaileetatik eratorritako erronkei aurre egiteko erakundeek duten ahultasun-arazoa. Horren adibidea da Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzailearen (2008-2011) III. Arauan jasotakoa, zeina lankidetzeta-eragileen erakundeak indartzera bideratua dagoen eta non administrazioari berari atal berezi bat eskaintzen zaion.

Gai horri eskainitako arreta espezifiko baten gabezia lankidetzaren kudeaketaz eta jarraipenaz arduratzen diren gizataldeetan ematen den txandakatze handian agertu da azkenean. Bereziki garrantzitsua izan da hori Eusko Jaurlaritzaren kasuan (zeina, bestalde, funts gehien kudeatzen dituen erakundea den), non langile teknikarien kontratazioan behin-behinekotasuna eta ezegonkortasuna izan diren ezaugarri nagusiak. Lehenengo urteetan zehar gainera, langileak alde aurreko inolako antolamendurik gabe hartu ziren, kudeaketa-, jarraipen- eta baita lankidetzaren ebaluaziozereginetarako ere esparru horretan esperientziarik edo alde aurreko harremanik ez zuten pertsonak kontratatuz. Geroago, alderdi hori aldatuz joan zen, Lankidetzeta Zuzendaritzara ondo prestaturiko pertsonak eta baita eremu geografiko zein tematikoetan (garapenerako hezkuntza, generoa¹²⁸) espezializaturikoak gehituz, nahiz eta ezegonkortasun handiko baldintzetan, askotan pertsona bekadunetara edo Sail arduradunaren buru ziren talde politikoek zuzenean egindako izendapen askeko aholkularietara jotzen zelarik.¹²⁹ Azkenik, aurrerago aipatuko dugun Agentziaren eraketak egoera berri bat ekarri du Eusko Jaurlaritzaren lankidetzeta-kudeaketarako eta langile teknikari espezializatuen kontrataziorako.

Aldundien kasua besteak ez bezalakoa da, jada aipatu bezala. Hasieran, kanpoko aditu taldeetara jotzea aukeratu zen, eta haiei zegokien politika-

¹²⁷ Lehenago aipatu bezala, politika kudeatzeko behar adina baliabide ez izateak kritikak hartu zituen eta eztabaidagaia izan zen 2007ko Lankidetzaren Euskal Legea egiten zen eta parlamentuan onartzen zen bitartean. Adierazgarria da ere Bilboko Udaleko Plan Zuzentzaileak (2010-2011) aurreko urteetan bizi izandako egoera nola deskribatzen zuen ikustea: *“tokiko lankidetzeta-taldeak gainezka egin zuen, gehienbat langileak eta beren hezkuntza jarraitua falta zirelako, baina baita erantzukizuna, egitura, prozedurak eta barne-tresnak apur bat zehaztugabeak zeudelako.”*

¹²⁸ Erakundeen lantalde teknikoek orientatzeko edota bultzatutako interbentzioetan genero-gaien benetako zeharkakotasuna bermatzeko duten ahultasunak kezka eragin ditu Eusko Jaurlaritzako edo Bilboko Udaleko hainbat dokumentutan. Azken honen kasuari buruzko kezka eraginez Emakume Sailean partaidetza murriztu egin da politika aplikatzeko prozesuaren fase desberdinetan.

¹²⁹ Kalidatea erakundeak egindako Eusko Jaurlaritzaren Ebaluazio Txostenak 18 espezializazio-bekadunen partaidetza ere azpimarratzen zuen (6 urteko), Garapenerako Lankidetzeta Zuzendaritza zereginetan laguntzen (Garapenerako Lankidetzaren Euskal agentzia, 2011).

ren orientazioaren eta jarraipenaren pisu guztia. Hala ere, 2007an zuzendaritzak sortu ondoren, funtzio horiek partekatu egin ziren erakunde bakoitzeko langile teknikarien eta kanpo-aholkularitzaren artean.

Azkenik, udalak izan dira lankidetzak kudeatzeaz arduratu diren taldeetan egonkortasunik handiena izan dutenak, bereziki Bilbo eta Gasteizen kasuetan. Lehenago jada aipatu den bezala, Gasteizek izaera egonkorreko langile teknikari adituak ditu 1993az gero, eta, Bilboren kasuan, lankidetzak-teknikari lanpostua duela gutxi (2007an) sortu bazen ere, udaleko langile teknikariek zeregin horiek egin izan dituzte 1996tik, gero eta espezializazio eta prestakuntza gehiagorekin. Donostiako Udalarik dagokionez, 2001ean sortu zen lankidetzak-teknikari batentzako lanpostu bat. Gainera, hiru kasuetan lankidetzan lan egiten duten pertsona kopurua handituz joan da urteekin.

EAEko erakundeen lankidetzarako kudeaketa-taldeak zuzkidura, jarraipen eza eta batzuetan baita prestakuntza eskasak ere, ondorioak izan ditu politiken aplikazioan erakutsitako eraginkortasun handiagoaz edo txikiagoaz haraindi doazen hainbat alderditan, erakunde horiek politikak diseinatze-ko edo lankidetzaren eragile bihurtzeko duten gaitasunean ere eraginez. Izan ere, esparru hauetan dagoen ahultasunak era erabakigarrian eragin du EAEko administrazio publikoek gai horretan *know-how* batez, ezagutza eta esperientzia metatuaz hornitzeko duten ahalmen txikian, jakintza eta eskarmentu horretatik lankidetzak-politika orientatzeko eta kudeatzeko zereginari sendotasun handiagoz ekin ahal izateko. Lan honen lehen zatian aipatu diren arazoetako askok gai horretan dute jatorria hain zuzen ere; gainera, erakundeen inplikazio txikiago baten egokitasunean oinarritzen den doktrina bat indartu da kasu batzuetan, estrategiaren parterik handiena GGKEen ardurapean utziz. Zentzu horretan azpimarra daiteke egindako lanaren analisiarekiko kezkarik handiena (zuzeneko lankidetzaren inguruan egindako gogoeta barne) eta dokumentu, azterlan eta ebaluazioen sorrerarik garrantzitsuen Bilboko Udalaren kasuan, eta bereziki Gasteizkoan eman dela batez ere, non lantalde teknikoek eta pertsona arduradunek jarraipen handiena izan baitute.

Erakundeek lankidetzaren kudeaketarako, jarraipenerako eta ebaluaziorako erabilitako baliabideak aztertzeko orduan ere baloratu dugun elementu bat, administrazioaren beraren hainbat sail, eremu edo zerbitzuetan dauden beste pertsona eta baliabide teknikoak tartean sartzeko gaitasuna izan da. Alor horretan esperientziak ere nahiko urriak izan dira, hainbat dokumentu eta plan zuzentzailetan horiei buruzko aipamenak egiten badi-

ra ere¹³⁰. Zentzu horretan kezka adierazi duten bakarrak udalak izan dira, administrazioaren beraren langile teknikariak tartean sartzea lortu dutelarik, ez bakarrik proiektu zehatzen gauzatzean baizik eta, kasu batzuetan, baita interbentzio-proposamenen balorazio-fasean ere, horien finantziatorako planteatu diren hainbat proposameni buruzko iritzi tekniko espezializatu bat aldarrikatuz. Ildo horretatik esperientzia interesgarriak egon dira ur eta saneamenduari buruzko proiektuetan (Bilbon eta Gasteizen) edo generogaiekin zerikusia duten beste batzuetan (Bilbo), non udalaren esparruak berak lankidetzaz gain generogaiez arduratzeak hainbat sinergia eta harreman ahalbidetu dituen.

*Informazio-Sistemak*¹³¹

Lankidetzeta-politiken aplikaziorako ezarritako baliabideei dagokionez nabarmendu den arazo nagusietako bat, Informazioaren Trataera Sistemai eta prozesu guztian zehar informazioa kudeatu beharreko moduari buruzkoa da. Gai nagusi hau lotua dago bai informazioaren arkitekturarekin (hau da, kudeaketaren eraginkortasun handiagoa lortzeko erakunde baten barruko baliabideen, erabileren eta informazio-fluxuen antolaketa egoki batean), bai IKTak sisteman modu egokian integratzearekin.

Garapenerako lankidetzari dagokionez EAEko erakundeek duten informazioaren arkitekturak, prozesu osoan eragina duten eta kudeaketa zailtzen duten hutsune asko erakusten ditu, berez urriak diren baliabide batzuen lana ugarituz. Bai proiektuei dagokien informazioa biltzeko eta sisteman sartzeko moduan, bai informazio hori gordetzeko eta tratatzeko moduan agertzen da hutsune hori. Gai horien artean lehenengoari dagokionez (informazioa biltzearena), aztertu diren zazpi erakundeen artean, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako eta Bilboko Udalek baino ez dute dokumentazioa beren bulego birtualetik bidaltzeko aukera ematen. Gainontzeko erakundeek, ordea, dokumentazioa paperean aurkeztea nahi dute¹³², bai erregistroan bertan bai posta bidez, nahiz eta erakunde guztiek (Arabako Foru Aldundiak izan ezik) sarearen bidez eskakizun-orria jaisteko aukera ematen duten (testu-fitxategi, pdf edo bi formatuetan, kasuak kasu). Logikoki, horrek suposatzen du administrazioako langileek berek jasotako

¹³⁰ Jasotako iritzi batzuek Eusko Jaurlaritzaren kasuan koalizio gobernuetan planteatzen ziren zailtasunak aipatzen dituzte, gai batzuetan indar politiko desberdinek kudeatutako sailen artean kolaborazio urria zegoelarik.

¹³¹ Atal honetan erakunde ezberdinen web-orriei egiten zaizkien erreferentzia guztiak (baita 5.5. atalean ere) 2012ko apirila baino lehenago egindako bilaketetan oinarritzen dira.

¹³² Nahiz eta kasuren batean euskarri elektronikoren batean ere aurkez daitekeen.

informazio guztia sisteman sartu behar dutela, horrek eskatzen duen denborekin.

Eta bigarren gaiari dagokionez –informazioa gordetzeko moduenak– hainbat euskarritan egiten da. Formatuen aldaerak, kasurik sinpleenetan, finantzatu diren jardueren zerrendak izan daitezke –testu-fitxategi edo pdf formatuan, erakundearen barne-dokumentuak edo argitaratu diren memorien edo txostenen parte izan daitezkeenak– edota eragileen beren programetatik ateratako zerrendak, kalkulu-orriak edo datu-baseak berak barne direla. Erakunde guztiek ez dute finantzaturiko jardueren informazioa kudeatzeko datu-baserik, eta eragozpen handia da gordetako informazioa erabiltzeko orduan eta akatsak egiteko arriskua areagotzen du gainera informazioa erabiltzerakoan. Adibidez, deialdi ezberdinetako jarduerak alderatzeak, estatistikak egiteko xedeaz, datuak beste euskarri batera eramatea eskatzen du (kalkulu-orria, datu-basea, informatika-programa) praktikan jardueraz jarduera joatea eskatzen duen programa garesti baten bidez. Zentzu berean, ez da posible interbentzio batzuen urte anitzeko proiektzioa eta horien bilakaera aztertzea ere; izan ere, sistemek ez dute denboraldi ezberdinei dagokien informaziora aldi berean sartzeko aukerarik ematen. Gainera, aztertu diren erakundeen artean, batek baino ez du Lankidetzak Eragileen erregistro espezifiko bat (Gasteizko Udalak), nahiz eta erakunde horietako batzuek, diru-laguntzen hartzaile diren erakundeei, hiri-elkarteen, irabazi-asmorik gabeko erakundeen edo antzekoen erregistroan izena emanda izatea eskatzen dieten. Nolanahi ere, ez dira lankidetzak-eragileei bakarrik dagozkien erregistro generikoak¹³³.

Azpitarratu behar da ezinezkoa dela datu-base horietara edo eragileen erregistroetara urruneko sarbiderik izatea, eta horrek hainbat arazo mota planteatzen ditu. Alde batetik, deialdiak barematzen dituzten edo jarduerak tokian bertan ebaluatzen dituzten langileak kanpokoak direnean (batzuetan gertatzen da), langile horiek informazioa ezin dute sisteman sartu, eta informazio horrek administrazioko langileen eskuetatik pasa behar du nahitaez. Bestalde, eta eragileei dagokienez, sisteman sarbiderik ez dutenez gero, administrazioko langileengana jo behar izaten dute datuetan edozein aldaketa edo eransketa egiteko. Gainera, deialdi desberdinetan bidali behar dute dokumentazio berbera, eta administrazioko langile haiek behar dute kudeatu. 8. koadroan aztertu diren erakundeetan informazioa atzemateko eta lantzeko sistema desberdinak ikus daitezke.

¹³³ Era berean, ez da EAEko erakunde guztien erregistro bat sortzeko aukerari buruzko debaterik planteatu.

8. koadroa: Informazioa atzematea eta tratatzea					
	Atzematea (informazioa sartzea)		Trataera (Informazioa gordetzea)		
	Kanalak	Formatua	Euskarria eta tresnak		
				Eragileen Erregistroa	Urruneko sarbidea
Eusko Jaurjaritza	Erregistroa Posta Bulego birtuala	Papera Telematikoa	Datu-basea Testu-fitxategiak (txostenak)	Generikoak	ez
Arabako Aldundia	Erregistroa Posta	Papera	Testu-fitxategiak (txostenak eta fitxak)	ez	ez
Bizkaiko Aldundia	Erregistroa Posta	Papera	Datu-basea Testu-fitxategiak (txostenak eta fitxak)	ez	ez
Gipuzkoako Aldundia	Erregistroa Posta Bulego birtuala	Papera Telematikoa	Testu-fitxategiak (txostenak eta fitxak)	ez	ez
Bilboko Udala	Erregistroa Posta Bulego birtuala	Papera Telematikoa	Datu-basea Kalkulu-orriak Testu-fitxategiak (txostenak)	Generikoak	ez
Donostiako Udala	Erregistroa Posta Bulego birtuala	Papera Telematikoa	Datu-basea Testu-fitxategiak (txostenak)	Generikoak	ez
Gasteizko Udala	Erregistroa Posta	Papera Euskarri digitala	Datu-basea Testu-fitxategiak (txostenak)	Espezifikoa	ez

Iturria: Egileek osatua, web-orrietan eta erakundeek berek emandako informazioetan oinarriturik.

Informazio-sistemen kalitatearekin eta politikatik eratorritako erronkei aurre egiteko duten gaitasunarekin zerikusia duen bigarren gai interesgarri bat da atzeman eta gorde den informazioaren edukiri berari dagokiona. Gai horretan nabarmenena irizpide argirik ez egotea da –eta are gutxiago bateratuak– informazioa bateratzen den alorrak definitzeko orduan¹³⁴.

¹³⁴ Aspalditik datorren arazo bat da eta jada J.A. Alonsok 2001ean garapenerako lankidetzarako euskal sistemari buruz egindako txostenean aipatu zen, nomenklatura homologatu bat ez egoteak analisiak eta ikerlan konparatuak egiteko eragiten zituen zailtasunak aipatzean.

Hori, lehenik, eta behin interbentzioak multzokatzeko erabiltzen diren tresnak sailkatzeko moduan adierazten da, batzuetan elkarri gainjartzen zaizkien sailkatze nahasiak eraginez. Herrialdeak multzokatzeko kategorია geografikoak ere ez datoz bat logika estandarizatu batekin, eta, hortaz, erakunde bakoitzak bereak egiten ditu.

Interbentzio-sektoreen kasuan ikus daiteke eredu estandar batzuekiko egokitzapen handiagoa. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak CADak proposaturiko kategoriak erabiltzen dituzte; Gasteizkoak ordea AECIDak erabiltzen dituenak baliatzen ditu. Hala ere, bai Aldundiek, bai Donostiako Udalak, beren elaborazio-kategoria propioak erabiltzen dituzte interbentzio-sektoreak sailkatzeko orduan. Azkenik, modalitateei dagokienez, azpimarra daiteke hauxe dela normalean erabiltzen diren informazio-sistemekin harremanik estuena duen esparrua; izan ere, aztertu diren zazpi erakundeetatik sei sailkapen berarekin bat datoz (nahiz eta apur bat ezberdinak diren izendapenekin): garapenerako lankidetza, larrialdietarako laguntza, eta sensibilizazioa eta GH. Bilboko Udala baino ez da logika horretatik bereizten, formalki bada ere, beste bi tipologia gehituz: garapen-proiektu partekatuak eta udalak berak bideratzen dituen jarduerak.

9. koadroa: Hainbat erakunde erabilitako kategoriari informazioa arlo nagusietan sailkatzeko				
	Tresnak	Modalitateak	Sektoreak	Eskualde geografikoak
Eusko Jaurkitza	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako lankidetzeta eta GH proiektuak. • Garapenerako lankidetzaren eta laguntza humanitarioaren proiektuak. • Hitzarmenak. • Larrialdietako laguntza humanitarioa. • Genero-berdintasunerako proiektuak. • Laguntza humanitario estrategikoa. • Borondatezko lankideen zuzeneko laguntzak. • NN, BB eta bekak. • Espezializazio bekak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako lankidetzeta. • Ekintza Humanitarioa. • Garapenerako Hezkuntza. 	CAD/CRS estandarizatuak.	<ul style="list-style-type: none"> • Afrika. • Latinoamerika. • Erdialdeko Amerika-Karibe. • Europa. • Ozeania. • Hego Amerika. • Multikontinental.
Arabako Aldundia	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako lankidetzeta-proiektuak (urte batekoak eta urte askokoak). • Gizarte-sentsibilizaziorako jarduerak nazioarteko solidaritatearen alde. • Ekintza humanitarioak premia agerikotzat aitortu den testuinguruetan. • Ekintza humanitarioak eta larrialdikoak. • Hitzarmenak. • Larrialdietarako Arabar Funtsa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako lankidetzeta. • Ekintza Humanitarioa. • Garapenerako Hezkuntza. 	Ez estandarizatuak.	<ul style="list-style-type: none"> • Afrika. • Amerika. • Asia. • Europa. • Ozeania. • Interkontinental.
Bizkaiko Aldundia	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako lankidetzeta-proiektuak (urtero). • Sentsibilizaziorako eta Garapenerako Hezkuntzarako urteroko proiektuak. • Laguntza Humanitarioko proiektuak. • Hitzarmenak. • Zuzeneko lankidetzeta. 			

Jarraipena	Tresnak	Modalitateak	Sektoreak	Eskualde geografikoak
Gipuzkoako Aldundia	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako lankidetzak-proiektuak (urtero). • Sentsibilizazioak eta Garapenerako Hezkuntzarako urteroko proiektuak. • Laguntza Humanitarioko proiektuak. • Hitzarmenak. • Zuzeneko lankidetzak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioarteko garapenerako lankidetzak. • Garapenerako Sentsibilizazioa eta Hezkuntza. • Laguntza Humanitaria eta Berreraikuntza. • Harrera, garapen partekatua eta immigrazioa. • Udalak berak egin beharreko jarduerak. • Besteak. 	CAD/CRS estandarizatuak.	<ul style="list-style-type: none"> • Latinoamerika. • Afrikako iparralde eta Ekialde Ertaina. • Saharaz hegoaldeko Afrika. • Erdialdeko, Hegoaldeko eta Ekialdeko Asia. • Ozeania. • Europako Ekialdea. • Euskadi.
Donostiako Udala	<ul style="list-style-type: none"> • Diru-laguntzak. • Larrialdiko Laguntzak. • Bilboko Udalak berak egiteko jarduerak. • Euskal Fondona. • Beste jarduerak batzuk. 	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako Lankidetzak. • Sentsibilizazioak. • Larrialdiak. 	Ez estandarizatuak; Udalarenak berezkoak.	<ul style="list-style-type: none"> • Afrika. • Amerika. • Asia. • Europa. • Ozeania. • Interkontinentalak.
Gasteizko Udala	<ul style="list-style-type: none"> • Urte bateko eta urte askoko lankidetzak-proiektuak, eta urte bateko eta urte askoko GH-proiektuak. • Hitzarmenak. • Larrialdiarako Arabar Funtsa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzak. • Laguntza Humanitaria. • Sentsibilizazioak. 	AECID estandarizatuak.	<ul style="list-style-type: none"> • Hego Amerika. • Erdialdeko Amerika eta Karibe. • Magreb. • Saharaz hegoaldeko Afrika. • Asia. • Europa.

Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek berek emandako datuetan oinarriturik egina.

Erabilitako sailkapenen sendotasun handiago edo txikiagoaz gain –eta horrek lankidetzaren kudeaketarako eraginkortasun handiago batean izan dezakeen eraginaz gain– beharrezkoa da gai honekin lotura zuzena duen beste arazo bat aipatzea. Gai honi buruz EAEko erakundeetan da goen erabateko harmonizazio faltari buruz ari gara. Zentzu horretan, deigarria da (eta baita oso problematikoa ere) EAEaren tamaina duen lurralde batean, gizartearen eta erakundeen komunikazio-sareen dentsitatearekin, zazpi erakunde egotea helburu berberen inguruan lanean, eragile mota berberetan oinarrituz horretarako, baina hala ere gutxieneko harmonizaziorik ere ez duten informazio-sistematik gabe. Horren guztiaren ondorioz, EAEko erakundeek eragozpen handiak dituzte garapenerako lankidetzaren inguruko edozein koordinazio- edo osagarritasun-prozesu bultzatze-ko, nahiz eta jasotako hainbat iritziren arabera, gai hori bera hitzarmen-prozesuari aurre egiteko borondate politikoaren gabeziaren sintoma bera den¹³⁵, zeinak EAE osoan askoz ere sendoagoa den lankidetzeta-politika bat erraztu ahal izango lukeen, eta erakunde-esparru bakoitzaren autonomian edo espezifikotasunean eraginik izan gabe halere.

Genero-gaiei dagokiena oso dimentsio espezifikoa da –baina aurreko guztia argitzeko balio dezake–, eta oso aintzakotzat hartzen dira politika-dokumentu gehienetan. Alde batetik, sistema ezberdinek deskribatzaile bakar bat erabiltzen dute interbentzio bakoitzeko, eta horrek genero-helburuak presentzia nabarmena duen sektore anitzeko proiektuak baloratzea galarazten du. Bestalde, kasu askotan erakunde-hartzaileak dira sektorea definitzen dutenak. Eta azkenik, sektorea definitzen denean, erakunde bakoitzak bere sailkapen berezia erabiltzen du. Gainera, eta egiaztatu ahal izan dugun bezala, ez dago aski adostasunik plangintza-dokumentuetan erabilitako hainbat hitzen esanahiari buruz (adibidez, *emakumeen eskubi-deak*, *emakumeen abalduntzea* eta abar); hala, gero ezin dira adierazleetan zehaztu, ezin dira interbentzioak sailkatu eta ebaluazio eraginkor bat egiteko aukerak ere galdu egiten dira.

¹³⁵ Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzailean (2008-2011) gai honi dagokionez ageri den jarrerak inuzentea dirudi gutxienez; izan ere, zera dio: “*helburu zehatzei buruzko baterako plangintza estrategikoari esker, koordinaziorako egitura egonkorra sortzen badira, Euskadiko eta aipatutako herrialdeko garapen- eta lankidetzeta-eragileen artean barremana eta koordinazioa emango dira, informazio-fluxuak eta jardueren kalitatea bobetuko duten sinergiak sortuko direla*”; hala, badirudi Planak dioenaren arabera, informazio-fluxuak sarbide- eta antolakuntza-tresna espezifikorik baliatu gabe sortu daitezkeela, baina hori ez da horrela, praktikak frogatu duen bezala.

Aurreikusitako aurrekontuak betetzea

Diseinuaren analisiaren baitan zegokion atalean jada aipatu den bezala, aurrekontuen aurreikuspena da lankidetzak-politiken oinarria baloratzeko orduan kontuan hartu beharreko elementuetako bat; izan ere, horrexen menpe dago neurri handi batean epe ertainera eta epe luzera planteatzen diren hainbat interbentzioren jarraipena. Orain, Aplikazioaren zatian aurreikuspen horiek aurrekontuan benetan ipinitakoarekin alderatzea dagokigu.

Hala ere, politika publikoetan Garapenerako Lankidetzarekin konpromisoa hartutako finantza-baliabideen zenbatekoa kalkulatzeko ez da erraza. Alde batetik, ia administrazio guztiek egiten diote erreferentzia, zuzenean edo zeharka, NN.BBen erakundeak bere garaian eskatutako BPGaren % 0,7ari¹³⁶. Organo eskudunek onetsitako eta erakundeek beren web-orrietan argitaratutako aurrekontuak izan dira gure ikerlanean erabili dugun funtsezko informazio-iturria. Hala ere, horietako batzuetan garapenerako lankidetzarako programa espezifikorik ez egoteak ezinezkoa egiten du datua zehaztasunez ezagutzeko. Gainera, erakunde guztiak zuzeneko lankidetzak-programetan inplikatzearen alde egiten bada, nahitaezkoa izango da kostuen esleipenerako sistema bat abiaraztea, erakunde bakoitzak egindako ahalegina benetan ezagutzeko aukera emango lukeena. Informazio orokorrak –proiektuei eta interbentzioei esleitutako kopuruez haraindi– argibideak gehitu behar litzuke baliabide teknikoari eta giza-baliabideei, jardueretan erabilitako instalazioei edo proiektuen kudeaketan zuzenean laguntzen duten, zuzeneko lankidetzak-programetan parte hartzen duten edo eskainitako diru-laguntzak soilik kudeatzen dituzten langile teknikariei dagokiena.

Muga horietatik abiatuz, jarraian, erakundeek beren plangintza-dokumentuetan ezarritako aurreikuspenak zein neurritaraino betetzen dituzten seinalatuko dugu.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan eta bi plan zuzentzaileek (2005-2008 eta 2008-2011) barne hartzen duten aldiari erreferentzia eginez, ekitaldi bakoitzean benetan aurrekontuan sarturiko kopuruak plan horietan aurreikusitakoaren

¹³⁶ Nazio Produktu Gordinaren (NPG) % 0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialerako (GLO) zuzentzeko konpromisoak Nazio Batuen XXV. Batzar Nagusiko ebazpenean du jatorria, zeina 1970ean burutu zen eta estatu kideek berretsi zuten. Ebazpen horrek Nazio Produktu Gordinari egiten dio erreferentzia. Hala ere, euskal administrazio publikoen aurrekontu-plangintzan beste parametro batzuk erabiltzen dira erreferentzia gisa, hala nola, bateratutako aurrekontua, sarrera arrunt guztiak edo kasu batzuetan baita gastu korrontea ere. Ideia hau justifikatzeko ia beti adierazten da aipatutako erreferentziak erakunde horiek baliabideak kudeatzeko dituzten gaitasun hobea islatzen dutela. Lan batzuek proposatzen dute komenigarria dela euskal ogasunek sartzen ez duten dirua ere kontabilizatzea, enpresek egindako desgrabazioengatik edo pertsona fisikoek PFEZean deduzitzen dutenagatik, Sozietateen gaineko zergan deduzitzen dutenagatik, GGKEei egindako dohaintzengatik. (Alboan, 2007).

azpitik daude, 2005. urtea salbuesten badugu. Nolanahi ere, kontuan hartu beharra dago bigarren Plan Zuzentzailea aurreko planaren aldiaren bukararako aurreikusitakoa baino txikiagoa den aurreikuspen batetik abiatzen dela indarrean egongo den lehen urterako (2008), termino erlatiboetan (aurrekontu guztiaren ehunekoa). Egokitze garrantzitsu hori alde batera uzten bada eta bi planak bereizirik aztertzen baditugu, bigarren planari dagozkion urteak dira planteaturiko helburuaren aldean desbideratzerik handiena aurkezten dutenak, ondorengo koadroan ikus daitekeen bezala:

10. koadroa: Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaileen aurrekontuen aurreikuspenak eta adostutako aurreikuspenak (aurrekontu osoaren gaineko lankidetzarako aurrekontua, ehunekotan)								
Urtea	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Planetan jasotako aurreikuspenak	0,50	0,55	*	0,48	0,52	0,57	0,63	0,70
Esleitutako aurrekontu sailak	0,45	0,45	0,45	0,45	0,49	0,49	0,48	0,49

* Ez da lehenengo planean deskribatzen eta 2008-2011ko Planeko aurreikuspenetatik kanpo geratzen da. Iturria: Egileen elaborazioa, dagozkien aurrekontuen Legeetatik abiatuturik.

2007-2011 aldiari mugatuz (bigarren Plan Zuzentzailea erreferentzia gisa hartuz), 11. koadroak azken urteotan (2010 eta 2011) gertatu den pixkanakako desbideratzea ikusteko aukera ematen du, baita zifra absolutuetan ere, planean zehaztutako aurreikuspenei dagokienez. Nolanahi ere, eta aurreikusitako helburuei buruzko beheranzko desbideratze horrengatik ere, azken urteotako finantza-krisiaren baldintza bereziak azpimarratu behar dira. Zentzu horretan, ikusitako desbideratzeak oso txikiak dira, aldi horretan bertan beste autonomia-lankidetzeta batzuek jasan duten beheraldi gogorarekin alderatzen baditugu.

11. koadroa: Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011ko Plan Zuzentzailearen aurreikuspenak eta aurrekontuan egiaz ageri diren kopuruak (kopuru absolutuak)		
Urtea	Planaren aurreikuspena	Aurrekontuko zuzkidura
2007	39.000.000	39.000.000
2008	45.000.000	45.000.000
2009	51.000.000	51.000.000
2010	57.000.000	51.006.137
2011	62.000.000	51.006.137

Iturria: Egileen elaborazioa, Plan Zuzentzaileko eta bere Ebaluazioko zifretan oinarriturik egina (Lankidetzaren Euskal Agentzia, 2011).

Foru-aldundien kasuan, ezin da aurrekontu-aurreikuspenak zenbateraino bete diren egiaztatu; izan ere, Plan Zuzentzaileak ez zuen inolako konpromisorik zehaztu zentzu horretan. Eta udalei dagokienez, diseinuaren analisiari dagokion atalean jada azaldu den bezala, finantza-konpromisoetarako erabilitako erreferentzia ez da beti bera izan. Donostiak eta Gasteizek sarrera arrunteei buruzko ehuneko bati dagokion aurreikuspen bat planteatu zuten (% 0,9 eta % 1 hurrenez hurren). Bilbok ordea gastu arruntaren erreferentzia erabiltzen zuen (% 0,7). Aurreikuspen horien arabera, Bilboko Udalak baino ez ditu bete, ondorengo koadroan ikus daitekeen bezala:

12. koadroa: Udalen Plan Zuzentzaileetako aurrekontuen aurreikuspenak eta adostutako aurrekontuak								
		2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Bilbo (Gastu arrunten ehunekotan)	Aurreikusia	0,70	0,70	0,70	0,70	0,70	0,70	0,70
	Esleitua	0,63	0,70	0,73	0,73	0,71	0,71	0,71
Donostia (Gastu arrunten ehunekotan)	Aurreikusia	(*)	(*)	0,90	0,90	0,90	0,90	(*)
	Esleitua	(*)	(*)	0,70	0,67	0,57	0,56	(*)
Gasteiz (Gastu arrunten ehunekotan)	Aurreikusia	(*)	(*)	(*)	(*)	1,00	1,00	1,00
	Esleitua	(*)	(*)	(*)	(*)	0,88	0,78	0,18

(*) Plan Zuzentzailearen indarrean ez dagoen urtea.

Iturria: Egileen elaborazioa, Udalaren aurrekontuetan oinarriturik egina.

Azkenik, eta ezarritako aurreikuspenen betetzea aztertzeaz haraindi, ondorengo koadroak hiru udalek aurrekontuen inguruan egindako ahalegin osoari buruzko ikuspegi bat osatzeko aukera ematen du, Bilboko Udalaren kopuruak egokitu ondoren –sarrera arrunten gaineko ehunekotan adieraziz– beste udal batzuetakoekin alderatu ahal izateko helburuarekin.

13. koadroa: Hiru udalek adostutako aurrekontuak (sarrera arrunten ehunekoa) Plan Zuzentzaileak indarrean egon diren urteetan							
	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Bilbo	0,54	0,51	0,57	0,60	0,63	0,61	0,63
Donostia	(*)	(*)	0,70	0,67	0,57	0,56	(*)
Gasteiz	(*)	(*)	(*)	1,00	0,88	0,78	0,18

(*) Urte horietan adostutako aurrekontuak bazeuden ere, ez dira kontuan hartu Plana indarrean zegoen alditik kanpo egoteagatik.

Iturria: Egileen elaborazioa, Udalaren aurrekontuetan oinarriturik egina.

Beste irakurketa horretan ikus daitekeen bezala, Bilboko eta Donostiako Udalek beren sarrera arrunten oso antzeko ehunekoa eskaini dizkiote Garapenerako Lankidetzari. Gasteizko Udalak, aldiz, askoz ere ehuneko handiagoa eskaintzen zuen 2009 eta 2011 urteen artean. Hala ere, 2012ko ekitaldian udal horrek lankidetzeta-aurrekontuari dagokionez jasandako murrizketa zorrotzak ehuneko horren bat-bateko beherakada eragin du, % 0,18 arte.

Ebaluazio-sistemak

Diseinuaren atalean jada aipatu zen bezala, garapenerako euskal lankidetzaren lehenengo urteetan –90eko hamarkada ia osoan– ez zen ebaluazioaren inguruko kezkarik adierazi argi eta garbi dekretuetan edo beste politika-dokumentuetan, nahiz eta horietan batzuetan gai horietarako funtsen ehuneko bat erabiltzeko aukera adierazten zen. Hutsune hori antzeman zen jada Eusko Jaurlaritzak 2001ean eskatutako txostenean, non honelako balorazioak irakur baitzitezkeen: *“Beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak proiektuaren zikloaren kudeaketa-lanak indartzea (...) Jardueren jarraipen eta ebaluazio sistematikoak arreta berezia eskatzen du; izan ere, horren gabeziak ez die uzten arduradunei jarduera horien eraginkortasunari buruzko iritzi bat osatzen, eta aldi berean ikasteko prozesuak zailtzen ditu (...) Horregatik, beharrezkoa da ebaluazio-jarduera handiagoa egitea, nazioartean homologaturiko irizpideekin”* (Alonso, 2002).

Hain zuzen ere, lehenengo urteetan zehar ia ez zen egindako interbentzioen ebaluaziorik burutu eta egin ziren bakanak, gainera, ez ziren argitaratu. Horixe da Eusko Jaurlaritzak 90eko hamarkadan produkzio-programa batzuei edo laguntza teknikoko programei buruz eskatutako txosten batzuen kasua. Geroago, pasa den hamarkadan bi esplorazio-ikerlan egin ziren Afrikako herrialdeetan sustatu diren jardueri eta etorkizuneko aukerei buruz, baina ebaluazio-ebaluazioak egin gabe hertsiki.

Aldundiei dagokienez, Gipuzkoakoak 2010ean ebaluazio bat eskatu zion Hegoa Institutuari, Plan Zuzentzailean diseinatu zen politikak Guatemalako lau proiektutan izandako efektuak egiaztatzeko. Azkenik, azpimarratu behar da Bilboko eta Gasteizko Udalek proiektuak ebaluatzeko praktika sistematizatuago bat garatu dutela, zeinen txostenak –azkenaldiko ebaluazioei dagozkienak– gainera beren web-orrietan aurkitzen diren¹³⁷. Oro har, burutu diren ebaluazio gehienak kanpokoak eta ondorengoak dira, kasu zehatzen batean bitarteko ebaluazioak edo mistoak egin badira ere (kan-

¹³⁷ Aipaturiko web-orrietan 11 interbentzioetako ebaluazio-txostenak aurki daitezke Bilboko kasuan (proiektu zehatzak edo eremu batean burututako ekintzen multzoa) eta baita Gasteizko 12 ere (urte anitzeko proiektuak eta garapenerako hezkuntzazkoak ere eransten dituztenak).

poko langileek eta erakundekoek berekoek elkarrekin burututakoak). Bestalde, aipatu ditugun ebaluazioez gain, erakunde ezberdinetako lantalde teknikoek lekuan bertan jarraipen-misioak egiteko ohitura dute, kontraparteekin ikuspuntuak egiaztatzeko eta ebaluazio-txostenek ekarritako informazioa osatzeko aukera emanez.

Ebaluazio-esparruaren auzi espezifiko bat sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren eremuan egindako interbentzioei dagokiena da. Politika-dokumentu gehienek oso arreta gutxi eskaintzen diote gai horri. Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien kasuan bereziki nabaria da hau, alor honetako interbentzioei buruz egindako edo/eta argitaraturiko ebaluazio-faltarekin bat datorren arazoa. Udaletako plangintza-dokumentuek, ordea, modu zehatzagoan ematen dute lan-esparru horren espezifikotasunaren eta ebaluatzeko behararen berri, eta horrek araudietan eta deialdietan agertzen diren baliabideak eta beste ohar batzuk dakartza berarekin. Gasteizko Udalaren kasuan, esparru horretan ebaluaziorako metodologia espezifiko bat ere planteatzen da, Belgikako ITECO GGKEak egina¹³⁸. Gasteizko Udalak, gainera, esparru horretan ebaluazioak argitaratu dituen bakarra.

Hala ere, sentsibilizazioari eta garapenerako hezkuntzari buruz egin edota argitaratu diren ebaluazioez haraindi, beharrezkoa da erakunde batzuek eta besteek esparru horretan burutu dituzten interbentzioen garrantziari, esanahiari eta eraginari buruz duten kezka aztertzea, beren ebaluaziora hurbiltze zuhurrago bat izateko aukera emango duen metodologia baten beharri buruzkoarekin egin behar den bezala. Lehenengo alderdiari dagokionez, bai Eusko Jaurlaritzak bai Gasteizko Udalak urte hauetan zehar egindako lanaren eta aurkitutako arazoaren errealitatea hobeto ezagutzera bideratutako debateak eta ikerlanak bultzatu dituzte¹³⁹. Eta bigarrenari dagokionez, Lankidetzarako Euskal Agentziaren instantziek duela gutxi burututako lana aipatu beharra dago, non sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren esparruko ebaluazioaren arazoak aztertzen diren, lan honetan aztergai diren zazpi erakundeak aztertuz gainera¹⁴⁰.

¹³⁸ Gasteizko Udaleko Plan Zuzentzailearen arabera "multzo baten parte diren zortzi alderditan zatitutako ebaluazio bat da, eta bere emaitza ez da batuketa, baizik eta horien guztien arteko erlazioa: hautatutako problematika, identifikatutako publikoa, hezkuntza-tresnak, partaideak, zabalkundearen eraginak, hezkuntza-metodoak, prozesuaren ostean publikoan gertatutako aldaketak eta testuinguruaren eraginak".

¹³⁹ Horri dagokionez, garapenerako Lankidetzak-ekimenek egindako lanak nabarmentzen dira (2004): *Planeación Estratégica Participativa Educación para el Desarrollo*, eta Argibay (2008): *Veinte años de Cooperación al Desarrollo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz 1987-2007. Debate abierto sobre la práctica de la Sensibilización y de la Educación para el Desarrollo*.

¹⁴⁰ ECODE (2011): *Estudio sobre metodología y prácticas de evaluación de acciones de educación para el desarrollo y sensibilización en la CAPV*.

Sustatutako interbentzioen aldean burutu diren ebaluazioez haraindi, azken urteotako hainbat plan zuzentzailearen elaborazioak eta argitalpenak lankidetzeta-politiken esparrura eraman ditu ebaluazioaren auziak. Diseinuaren atalean jada azaldu den bezala, egin diren plan zuzentzaileek, xehetasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, ebaluazioa bideratzeko aukera eskaintzen duten betetze-adierazle batzuk planteatu dituzte. Orain arte bi ebaluazio egin dira plan zuzentzaileei dagozkienak: Bilboko lehen planarena (2006-2009), Hegoak burutu zuena, eta Eusko Jaurlaritzaren bigarren planarena (2008-2011) Kalidadeak burutu zuena¹⁴¹.

Bilboko Plan Zuzentzailearen ebaluazioa (2006-2009) planean bertan aurreikusitakoaren arabera egin zen, 2008an ere bertan aurreikusitako tarte-ko ebaluazioa burutu zelarik. Ebaluazioa ikuspegi parte-hartzaile batekin burutu zen, eragile desberdinen ordezkariak ziren erakundeei aholkua eskatuz. Erakunde horietako batzuk Lankidetzeta Kontseiluko kideak ziren, eta horrek gogoeta-esparrua zabaltzeko aukera eman zuen.

Eusko Jaurlaritzaren bigarren Plan Zuzentzailearen ebaluazioari dagokionez (2008-2011), Euskal Agentziaren sorrera eta Lankidetzeta Zuzendaritzan gertatu ziren aldaketak zirela medio, oraindik indarrean zegoen plan zuzentzailearen *aurretiazko ebaluazio* bat egin ahal izan zen, ondorioei itxaron gabe. Hala ere, aurretiazko dokumentu hori 2011n egin zen publikoa, Plan Estrategikoaren eta Zuzentzailearen Ebaluazio gisa. Halaber, ebaluazio hori oso metodologia parte-hartzailearekin egin zen eta ebaluazio-prozesuaren jarraipena egiteko unitate espezifiko bat ere sortu zen, GGKEen Koordinakundeko, Lankidetzeta Zuzendaritzako eta ebaluaziorako lantalde teknikoko bertako ordezkari osatua.

Lankidetzaren Euskal Agentziaren sorrera

Atal hau bukatu aurretik, Lankidetzaren Euskal Agentziaren sorrera aipatuko dugu laburki; izan ere, garapenerako euskal lankidetzeta sortu zenetik, lankidetzaren kudeaketa-tresnei dagokienez proposamen handinahiena. Agentziaren sorrerak, 2007ko Lankidetzaren Euskal Legean aurreikusita egoteaz gain, oso zabaldua dagoen premia bati erantzuten zion, zeinak sumaturiko administrazio- eta kudeaketa-zailtasun ugariekin zerikusia baitzuen (horietako batzuk lehenago aipatu dira), eta ugaritasun horrek bai administrazioari

¹⁴¹ Eusko Jaurlaritzaren lehen Plan Zuzentzailea (2005-2008) azkenean ez zen ebaluatu, adierazleen kapitulu espezifiko bat zeukan arren. Dirudienez, ez zen ebaluaziorik egin aipaturiko plana (lehenago aipatu den bezala, erreferentzia zehatza izan bazen ere eta Gobernuaren web-orrian egon bazen ere urte batzuetan zehar) ez zelako formalki onartua izatera iritsi.

berari bai gizarte-eragileei arazoak eragiten zizkien. Arazo horien artean honako hauei dagozkienak nabarmendu daitezke: ekonomia-kudeaketa eta operazioak bizkortasun eta malgutasun handiagoz egiteko gaitasuna; langile propioak izateko murrizketak, espezifikoki kontratatuak eta lankidetzak-politiken jarraipen handiagoa segurtatuko dutenak; langile horiek prestakuntza espezifikoa izateko zailtasuna, lankidetzaren ezagutzarekin zerikusirik ez duen funtzionario-sustapenaren logikari ihes eginez; edo kanpoko laguntzak eta zerbitzuak bizkorrago kontratatzeke aukera, sor daitezkeen beharren arabera.

Gai horiekin duen harremanetatik, Agentziaren sorrerak Eusko Jaurlaritzak kudeatutako lankidetzaren tamainarekin eta ibilbidearekin hobeto adosten den lantalde tekniko bat osatzeko aukera ireki du. Bederatzi lan-kontratazio egiteak¹⁴², plangintzaz eta ebaluazioaz arduratzen den pertsona bat eta koordinazio teknikoaz arduratzen den beste bat barne direla, zalantzarik gabe jauzi kualitatibo handia suposatzen du aurreko egoerari dagokionez, non arau bihurtu ziren behin-behineko kontratueta eta pertsona bekadunetara jotzea. Bi esparru nagusiez arduratuko liratekeen bi pertsona horiez gain, Agentziak sei lankidetzak-teknikari eta genero-berdintasuneko beste bat gehituko ditu, Agentziaren barruan genero-unitate bat sortzeko asmoa duen planteamendu baten baitan. Unitate hori emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera bideraturiko Lankidetzak Zuzendaritzaren ekimenen jarraipena egiteaz arduratuko litzateke, genero-ikuspegia proiektuetan eta programetan gehituz. Pertsona horiek guztiek, gainera, gai horretan esperientzia handia zutela frogatu behar zuten eta baita arlo horretan prestakuntza espezializatua zutela ere¹⁴³, prestakuntzari dagokionez aurrerapauso handia suposatzen duen gauza. Agentziaren kudeaketa ekonomikoaz eta administratiboaz arduratzen den beste langile teknikariekin osatzen da koadroa. Horregatik guztiagatik eta balorazioak egiteko goizegi bada ere, espero daiteke konponbidea aurkituko dutela (gutxienez Eusko Jaurlaritzari dagokionez) egoera berri honetan ezarritako baliabideekin zerikusia duten eta lehenago aipatu diren hainbat arazok.

Hala ere, badago Agentziaren osaketaren inguruan problematikoagoa den beste alderdi bat, bere sorkuntza-prozesua zerbait iluntzen duena. Legeak Agentziari egozten dion paperari buruz ari gara euskal lankidetzak-sistema

¹⁴² Lan-kontratazioak oso tresna garrantzitsua dira funtzionario-bideak planteatzen dituen zailtasunei aurre egiteko, planteaturiko zereginak egiteko benetan espezializatuak eta gaituak diren pertsonak aintzat hartzeko orduan.

¹⁴³ Hala ere, baldintza horren aurkako helegitea aurkeztu zen.

osoarekiko loturan. Diseinuaren analisiaren zatian jada aipatu den bezala, deigarria da Agentzia Jaurlaritzari bakarrik lotua dagoen eta Jaurlaritzaren lankidetzaren politika kudeatzean bakarrik kontzentratzen den organo gisa planteatu izana, bere helburuak definitzerakoan biribilki adierazten den bezala¹⁴⁴, nahiz eta une jakin batean Eusko Jaurlaritzaren beste sailei eta beste administrazio publikoei babesa eta laguntza eskaintzeko aukeraz hitz egiten den. Horren ondorioz, euskal lankidetzaren eraginkortasun-arazo handietako bati aurre egitea –hau da, erakundeen sakabanatzeari eta koordinazio-gabeziari– ez da Agentziaren sorrerarekin ezarri ziren aurreikuspenen eta zehaztutako helburuen parte izan, administrazioen arteko lankidetzaren printzipioen eta erakundeen partaidetzaren aipamena egin arren, horiek *“sailen eta erakundeen arteko lankidetzaren aldeko jarrera gisa ulertuz”*.

Horri dagokion planteamendurik eta Agentziaren inguruko euskal lankidetzaren erakunde-egituraren proposamen integratzaile eta egituratzaileak ez dagoelarik, legeak egozten dion koordinazioarekin loturiko funtzio bakarra oro har *“beste administrazio eta alde biko eta aldeaniztuneko agentziekiko beste garapen-politika batzuei dagokiena da, Europar Batasuneko eta Nazio Batuetako tokiko, erkidegoko eta estatuko eremuetan”*. Azkenik, hutsune horiek eragina dute Agentziaren organo zuzentzaileetan ere, non EAEko gainontzeko erakunde publikoen presentzia ez den agertzen, nahiz eta aurreikuspen bat ezartzen den, baldin erakunderen batek ohiko ekarpen ekonomikoak egingo balitu ere; kasu horretan, Eusko Jaurlaritzak beharrezko aldaketak sartu ahal izango lituzke, araudiaren bidetik, Kontseilu Errektorearen osaketan. Azkenik, azpimarratu behar da Agentziaren sorrerak ez duela inolako aurrerapausorik ekarri antolakuntzaren eremuan, eta ez duela inolako aurreikuspenik adierazi datu-baseei edo informazio-sistema homologagarriei buruz ere.

Gogoeta orokorrak

Euskal erakundeek lankidetzaren politika aplikatzeko eta kudeatzeko erabili dituzten baliabideei buruzko balorazio orokor batek ez du oso ondorio positiboak ateratzeko aukerarik ematen.

Lehenengo egiaztapena helburuen eta baliabideen artean dagoen alde handia da, hau da, politikaren diseinuan planteatzen diren helburu hain zabalak (eta batzuetan hain zehatzen) eta horiek ageriko egiten saiatzeko tresna eta baliabide urrien artean dagoena. Bai aurreikusitako edota garatutako

¹⁴⁴ *“Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren helburua Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzaren politika gauzatzeko eta plangintza egitea da, garapenerako lankidetzaren eskumena duen sailak ezarritako arauak jarraituz”* (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, 3. artikulua).

lankidetzak-tresnen mailan bai baliabide teknikoaren edo gaia kudeatzeaz arduratzen diren pertsonen beren esparruan adierazten da hori, zeinak oro har urriegiak izan diren planteaturiko erronkei aurre egiteko.

Baliabideen eskasia orokor hori eta, are gehiago, plangintza-dokumentuek horren berorren inguruan aditzera ematen duten kezka txikia, lankidetzaren gaiari eskainitako arreta eskasarekin lotzen dira, zeinari instituzionalki erantzun baitaio gizarte-eskakizunei erantzunez, baina ia inoiz ez da gogoeta espezifiko bat merezi duen gai propio gisa barneratzera iritsi¹⁴⁵. Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren kasuan Lankidetzak Zuzendaritza hainbat sailetan banatu da, eta aldundien kasuan zerbitzua kanporatu egin da. Udalek eskaini diote arreta handiagoa garapenerako lankidetzak kudeatzeaz arduratzen diren taldeen zuzkidurari, espezializazioari eta jarraipenari.

Aurretik esandakoa ezin da bereizi gizartearen hainbat esparrutan (eta baita administrazioan ere) zabaldua dagoen nolabaiteko kulturatik, zeinaren arabera lankidetzaren administrazio- eta kudeaketa-gastuak ahalik eta gehien murriztu behar diren; gai hori *“laguntza benetan bere helmugara iritsi eta bidean ez gelditzearen”* inguruko kezkan adierazten da eskuarki. Beraz, ideia zuzen batek praktika ez-eraginkor batzuk sortzeko bidea eman du, oso helburu sofistikuak zituen lankidetzak-politika bat bultzatzeko eginahalen ondorioz (plan zuzentzailetatik ondorioztatzen den bezala), oso baliabide eskasekin. Gasteizko eta Bilboko Udalen esperientziak, gainera, agerian jartzen du burututako praktikari buruzko gogoeta handiagoa egin dela eta jarduteko bide eta modu berri eta eraginkorragoak bilatu direla prestatuak zeuden eta egonkorrak ziren gizataldeen aldeko apustua egin den lekuetan. Nolanahi ere, dokumentu doktrinaletatik ondorioztatzen den eskakizun maila handiaren eta baliabideen hornidurari eskainitako arreta eskasaren eta eskakizun horiek bideratuko lituzketen taldeen prestakuntzaren artean dagoen aldeari dagokiona da garrantzitsua.

Abian jarritako ebaluazio-prozesuak direla-eta, azpimarratu beharra dago, proiektuei eta interbentzioei dagokienez, ez datozela bat aurretik ezarritako plangintza batekin eta, bi erakundetan izan ezik, ez direla argitaratzen. Azken hori arazo larri bat da; izan ere, gardentasunean eragina izateaz gain, nabarmen mugatzen du ebaluazioak eztabaidarako eta hainbat eragileren gogoetarako tresna izateko duen aukera. Eta plan zuzentzaileei

¹⁴⁵ Gai honi dagokion salbuespena, zalantzarik gabe, Gasteizko Udalaren lehenengo urteetakoa da. Alkatea, José Angel Cuerda, Euskadiko garapenerako lankidetzaren sustatzaile nagusietako bat izan zen, Udalaren barruan bultzada politiko nabaria eman ziolarik.

dagokienez, nabarmendu daiteke bi ebaluazio egin direla, planetan zehaztutakoari jarraituz. Aldundietako kasuan, planaren ikuspuntuek aldundien lankidetzan izango zuen inpaktuari buruzko ikerketa egin zen, ikuspuntu horien aplikazioari buruzko balorazio zehatza eginez. Oro har, esan daiteke plan zuzentzaileei buruz egindako ebaluazioek lankidetzeta-politiken berrorientatzean laguntzen duten edo lagun dezaketen gogoeta-prozesu parte-hartzaileak sortu badituzte ere, proiektuen ebaluazioek izaera formalagoa izan dutela, gai horien inguruko debate eta analisisetan eragin mugatua izan dutelarik. Salbuespen gisa, Gipuzkoako Aldundiak egindako ebaluazioa aipatu daiteke. Kasu honetan, proiektuak barematzeko sistema eta aldundiko ikuspegiaren egokitasuna aztertu ziren.

Azkenik, nahitaez aipatu behar dira EAEko administrazioek burutu dituzten jardueren koordinazio-faltaren arazoa eta gogoeta partekatu baten falta euskal garapenerako lankidetzeta sakontasun eta eraginkortasun handiagoz hornitzeko abian jar litezkeen baliabideei buruz. Zentzu horretan, oso deigarria da ez dagoela gutxienean ere integraturiko informazio-sistematik, ezta lankidetzaren kudeaketarako prozeduren harmonizaziora bideratutako planteamendurik ere. Azkenik, gure iritziz, Lankidetzaren Euskal Agentziaren sorrerak, zeina lankidetzaren kudeaketaren arloan dauden hutsune garrantzitsuetako asko betetzeko xedea duen tresna bat baita, hainbat arazo ditu bere sorreran bertan, eta, hortaz, Euskadiko garapenerako lankidetzaren eraginkortasunean aurrera egiteko aukera galdu bat izan liteke, bereziki erakundearen arteko koordinazioarekin eta sinergien sorrerarekin zerikusia duen gutzian.

5.2. Kudeatu diren ondasunen orientazioari buruzko ikuspegi orokorra: hainbat joera


Metodologiaren atalean jada azaldu zen bezala, aztertu diren zazpi erakundeek aplikatu duten lankidetzeta-politikaren azterketa datu-base bateratu batean oinarritu da, zeina kontsultatu ahal izan dugun proiektuei eta interbentzioei buruzko oinarrizko informaziotik abiatuz eraiki den neurri handi batean. 3. kapituluan aurkitu eta aipatu ditugun hainbat zailtasunengatik, eta arazoak sortu badira ere multzoak eta baliokidetasunak osatzeko orduan datuak homologatze aldera, datu-base horren ustiapenak EAEko erakundeek garapenerako lankidetzarako bultzatu dituzten interbentzio guztien ikuspegi orokor bat eskaintzen du¹⁴⁶.

¹⁴⁶ Lankidetzeta-interbentzio hitza proiektu, programa integral, garapenerako hezkuntza-jarduera, hitzarmen, beka-programa eta abar ugari barnean hartzeko erabiltzen dugu. Horiek guztiak lan hau egiteko sortutako datu-basean kontabilizatuak daude.

Joera orokorrak eta beren bilakaera

Euskal lankidetzak publikoaren aplikazioari lehen begirada batek, beste ezer baino lehen, aztertutako aldi osoan hainbat erakundek ordaindu dituzten funtsak geroz eta handiagoak direla erakusten du. 4. grafikoan ikus daiteke hori, non funtsen bilakaeraren berri ematen den. Hala ere, kontuan hartu beharra dago goranzko joera hori gelditu egin dela duela gutxi; izan ere, lankidetzak deszentralizatuaren beste finantzatzaile batzuen ahultzea gertatu ez bada ere, krisia joera-aldaketa bat eragiten ari da, azterketan erabilitako datuetan oraindik islatzen ez dena.

4. grafikoa: emandako funtsen bilakaera erakunde motaren arabera (1988-2008)



Iturria: Egileen elaborazioa, hainbat erakundek emandako datuetan oinarriturik egina.


Ikus daitekeen bezala, nolabaiteko gelditasun-aldi batzuk baldin badaude ere, goranzko joera argi bat dago, eta, hala, 1988. urteko 2 milioi eurotik 2008ko 71 milioi baino gehiagora pasatu ziren. Horrek % 3600eko gehikuntza orokorra ekarri zuen kontabilizatutako 20 urteetan zehar. 1998. urtea oinarri gisa hartzen badugu, orduan garapenerako euskal lankidetzak jada nolabaiteko heldutasun maila eskuratua zuelarik, azken 10 urteotan gertatutako gehikuntzak handia izaten jarraitzen du, % 250 eskuratu duelarik.

Hazkunde hori, lehenik eta behin, erakundeak pixkanaka lankidetzeta-zereginetan sartuz joan direlako azal daiteke. Lan honen sarreran jada aipatu zen bezala, jarduerak 1988an hasi ziren erakunde jakin batzuen eskutik, eta gai-nontzekoak 90eko hamarkadaren hasieran gehitu ziren. Aldundiak, hasieran beren ekarpenak FOCAD erakundeari egiten zizkioten (Eusko Jaurlaritzak kudeatua), baina 2000ko hamarkadan beren funtsak kudeatzen hasi ziren.

Erakunde bakoitza bereizirik kontuan hartzen bada, funtsek jarraitutako ibilbideak kasu guztietan goranzko joerak erakusten ditu ere, nahiz eta ñabardurak izan. Hala, Bilboko, Gasteizko eta aldundietako profilek hazkunde ia etengabea dute, eta Donostiako kasuan gorabeherak antzeman daitezke. Eusko Jaurlaritzaren kasuan nolabaiteko geldialdi bat ikus daiteke 1998-2004 aldian, zeina, neurri batean, aldundiak pixkanaka FOCAD erakundetik atara izanagatik sortu baita. Oro har, funtsen zatirik handiena kudeatu dituen erakundea (aztertutako guztiaren % 73 baino gehiago) Eusko Jaurlaritza da, eta ondoren aldundiak eta udalak.

Ordaindutako funtsez gainera, egokia da egin diren era guztietako interbentzioen kopuruaren bilakaera aztertzea. 5. grafikoan ikus daitekeen bezala, bi hamarkada horietan hazkunde nabarmena dago burututako jardueren kopuruari dagokionez, baina hazkunde hori ez dator bat osorik aurreko grafikoan antzeman daitekeen funtsen hazkundearekin. Zehazki, behin programak ezarrita zeudela, badirudi erakundeek nolabaiteko heldutasun momentu bat bizi izan zutela; baina, une horretatik aurrera, jarduera-kopurua egonkortu edo gutxitu ere egin zen, eta horrek, aztertutako erakunde guztiak oro har finantzaturiko interbentzio guztiak urteko 600 bat inguruan egonkortzea ekarri du 2004. urteaz gero, funtsak gerora igo ziren arren.

5. grafikoak: Finantzaturako interbentzio kopurua urteka (1988-2008)



Turria: Egileen elaborazioa, hainbat erakundek emandako datuetan oinarriturik egina.

Interbentzio kopuruaren bilakaera horrek –zeinak ez baitu funtsen hazkunde-erritmo bera izan–, logikoki, interbentzio bakoitzeko zenbatekoaren pixkanakako hazkundera ekarri du, zeinak, azken urteotan, 100.000 euroak gainditzen dituen batez besteko, nahiz eta alde handiak egon erakundeen eta modalitateen arabera. Gai hori aurrerago landuko dugu¹⁴⁷.

Interbentzioen tipologia

Aztertu ditugun ia 7.000 interbentzioen artean hainbat jardura mota aurki ditzakegu, herrialde desberdinetan burutu direnak, erakunde mota desberdinek kudeatu dituztenak eta zenbateko eta aldi oso aldakorretan gauzatu direnak. Interbentzioen azterketa zehaztuago batean aurrera egiteko, lehen klasifikazio bat ezarri da, ondorengo hauen arteko ohiko bereizketaren arabera: *Garapenerako Lankidetzak* (atzerrian burutzen diren jardura mota guztien laburpen gisa, bereziki proiektuak eta programak), *Laguntza Humanitarioa eta Larrialdikoa* (jardura zehatzenak, ezaugarri ezberdinak dituzten gatazka edo hondamendi humanitarioei erantzuteko jardura gisa planteatzen direnak) eta *Sentsibilizazioa eta Garapenerako Hezkuntza*, non Autonomia Erkidegoan abian jarritako jarduerak kokatzen diren, oso ekimen ezberdinak barne hartuz, adibidez, ikastaroak, erakusketak, ikastetxeekin egindako lana, zinema-erakustaldiak, bidezko merkataritzari eskainitako babesa, eragin-jarduerak, sareei edo antzekoei emandako babesa eta abar. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, *Besteak* deritzon azken atal batek Nazio Batuen erakundeetan egindako egonaldiak edo EAEko borondatezko lankideen lana finantzatzera zuzenean bideraturiko hainbat jardura jasotzen dira.

14. koadroan argi ikusten da, espero izatekoak diren aldaketekin, aztertu diren erakundeetan eredu antzeko samarra ematen dela, aipaturiko modalitateen arabera funtsak banatzeari dagokionez.

¹⁴⁷ Interbentzio kopuruaren inguruan, datu basean, finantzaturiko espediente bakoitza banaka aztertu dela azpimarratu behar da. Honek, kopuru globalaren gain-baloraketa bat egotea ahalbidetu dezake, izan ere interbentzio bat erakunde desberdinek finantzatu ahal izan dute (erakunde desberdinen arteko proiektu bateratuak, proiektu baten pean egon daitezkeen jardura desberdinak, eta abar.). Egungo informazio sistematan gehiago sakontzeko zailtasuna kontuan harturik, aipaturiko irtenbidea aukeratu da. Dena dela, koordinazioan eta sinergien sorkuntzan eragiten duen errealitatearen ulerpen hobe egin ahal izateko egin daitezkeen hurrengo ikerlanetan areta berezia merezi duen gaia da dudarik gabe.

14. koadroa: Funtzen banaketa modalitateetan, erakunde finantzatzaileen arabera (1988-2008 artean metatutako ehunekoak)					
	LH eta L	Lank.	S eta GH	Besteak	Guztira
Eusko Jaurlaritza	6,65	81,60	8,14	3,62	100,00
Arabako Aldundia	6,72	86,37	6,91	0,00	100,00
Bizkaiko Aldundia	4,89	86,65	8,47	0,00	100,00
Gipuzkoako Aldundia	4,83	82,82	12,36	0,00	100,00
Bilbo	9,47	79,62	10,91	0,00	100,00
Donostia	3,49	77,10	19,42	0,00	100,00
Gasteiz	11,69	80,49	7,82	0,00	100,00
Erakunde Guztiak	6,75	82,05	8,53	2,67	100,00


Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.

Ikus daitekeen bezala, atzerrian egiten diren *Garapenerako Lankidetzeta* interbentzioei bideratutako saila da kasu guztietan kuantitatiboki garrantzitsuena (% 80 inguru). *Sentsibilizazioari eta Garapenerako Hezkuntzari* dagokiona da bigarrena garrantziari dagokionez ia kasu guztietan, ehunekotan desberdintasun nabari batzuk ikus badaitezke ere. Zentzu horretan aipagarriak dira Bilboko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta bereziki Donostiako Udala (guztizkoaren % 19 gainditzen duten funtsekin). Azkenik, *Laguntza Humanitarioak eta Larrialdikoak* funts guztien % 7 hartzen du, denboran zehar gertatzen diren egoeren arabera aldaketak baldin badaude ere¹⁴⁸.


Hurrengo grafikoak (6.ak) aztertutako erakunde bakoitzaren jardunbide historikoa behatzeko aukera ematen du, azpimarratutako modalitate desberdinetarako. Horietako bakoitza luzera desberdineko epeei dagokie, zeinak lankidetzeta-jardueren finantziario egonkor eta arautuaren hasierarekin (desberdina kasu bakoitzean) bat baitatoz. Ikus daitekeen bezala, aurreko koadroan komentatu ditugun ehuneko metatuak ez datoz bat zehazki erakunde desberdinen jardunbidearekin, zeinek kasu bakoitzean hainbat berezitasun erakusten dituzten.

¹⁴⁸ Zentzu horretan, 1998ko kasua apur bat berezia da; izan ere, Mitch urakana zela-eta, komunikabideetan oihartzun handia izan zuena, funts hauek erakunde batzuek zuzendutakoan ia % 20 izan ziren.

6. grafikoa: Funtzen bilakaera erakundearen eta modalitatearen arabera (1988-2008, ehunekoak)




Jarraipena




Jarraipena


Bizkaiko Foru Aldundia (2001-2008)



Gipuzkoako Foru Aldundia (2004-2008)



Arabako Foru Aldundia (1999-2008)



..... LH eta L - - - - Lank. — S eta GH

Modalitate hauetako bakoitzaren arabera, burutu diren interbentzioen batez besteko aurrekontuak nahiko desberdinak izan dira, *Garapenerako Lankidetzarenak* izan direlarik, batez beste, zenbateko handiena izan dutenak (110.580 euro interbentzio bakoitzeko, aldi osoa kontuan hartuz). Erakunde motak ere eragina du jardueren finantziazioaren batez besteko kostuetan, eta ikus daiteke udaletakoek zenbateko txikiagoak dituzten interbentzioei laguntzeko joera dutela; aldundiek, berriz, batez besteko kopuru handiena duten jarduerak kudeatzen dituzte. Eusko Jaurlaritzaren kasuan batez bestekoak altuxeagoak dira. Berez, nolabaiteko espezializazio gisa uler genezake hori, erakunde bakoitzak burutu duen interbentzio bakoitzerako emandako batez besteko kopuruari dagokienez. Nolanahi ere, gai honi buruzko ikuspegi osoago eta ñabartuago batek erakunde batek baino gehiagok finantzatutako interbentzioak aztertu ahal izatea eskatuko luke¹⁴⁹, baina gaur egun ezinezkoa gertatzen da hori, eskuragarri dauden informazio-sistemen bateraezintasuna dela-eta.

15. koadroa: batez besteko zenbatekoa (eurotan), interbentzio motaren arabera (1988-2008)					
	LH eta L	Lank.	S eta GH	Besteak	Guztira
Udalak	24.394	29.104	7.613		22.089
Aldundiak	47.193	99.254	29.326		78.013
Eusko Jaurlaritza	140.798	188.759	87.103	17.339	127.972
Guztira	71.758	110.580	32.425	17.339	79.797

Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.

Bestalde, jada aipatu den bezala, interbentzio bakoitzeko erabiltzen diren zenbatekoen hazkunde garrantzitsu bat gertatu da, zeina, logikoki, modalitateen araberako interbentzioak aztertzen baditugu ere islatzen baita. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, azken urteotako batez besteko kopuruak garapenerako lankidetzaren modalitatean 350.000 eurora gerturatzen dira; neurri batean horrek hausten du proiektu txiki eta zatikatuen ideia, normalean lankidetzeta deszentralizatuarekin lotzen dena. Kasu honetan, 2007an sartu zen modalitatea, epe luzeagoak eta milioi bat euro gaindi dezaketen zenbatekoak zituen programei zegokiena, aldaketa handi bat izan zen, kopuru handiago horretan eragina izan zuena.

¹⁴⁹ Kontuan hartu beharra dago erakunde askok (bereziki GGKEek) beren proiektu-zorroak hainbat erakunderen artean banatzen dituztela, proiektu edo programen atal desberdinak aurkeztuz haiei finantzatzeko.

Ildo beretik, Gasteizko Udalak (2000tik) eta Bizkaiko Foru Aldundiak (2002tik) urte anitzeko proiektuetarako deialdiak egin dituzte¹⁵⁰, 4 urte arteko gauzatze-epareekin eta kopuru handiagoekin. Arabako Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak haien deialdiak ere moldatu dituzte, nahiz eta epemugak laburragoak izan.

Hala ere, ez dirudi bilakaera hori, zatiketa txikiagoa eta, ildo horretatik, eraginkortasunaren hobekuntza posible bat adieraz lezakeen arren, debate baten emaitza izan denik, eta ezin da politika-dokumentuetan planteaturiko helburuekin zuzenean lotu; izan ere, ez da helburu edo estrategia gisa irudikatu politika-dokumentuetan¹⁵¹. Badirudi bilakaera gehienbat erakunde eskatzaileen pixkanakako profesionalizazioaren eta baita proiektu konplexuagoei ere laguntzeko joera duten hainbat puntuazio-baremoren ondorioa dela. Era horretan, erakunde eskatzaileek txosten bakoitzeko kudeaketa-ahaleginak optimizatzen dituzte. Administrazio publikoetako lankidetzak-egitura batzuen ezegonkortasuna gehitzen zaio horri. Administrazioentzat interbentzioen kopurua murrizteak kudeaketa-zama txikiagoa eskatzen du.

Helmuga geografikoak

Jada aipatu den bezala, funtsen zatirik handiena atzerrian gauzatzen diren oso proiektu eta programa ezberdinetara zuzentzen da. Horien artean honako hauek daude: oinarrizko azpiegiturak hobetzera bideratutako jarduerak (ura, saneamendua...), gizarte-zerbitzuen prestazioa (hezkuntza, osasuna...), tokiko erakunde edo entitateen indartzea, jarduera ekonomikoaren eta sailkatzen zailak diren beste askoren sustapena¹⁵².

Hori dela eta, azpiatal honetan aipatutako interbentzioen orientazio geografikoak hitz egingo dugu, zeina aztertutako plangintza-dokumentu gehie-

¹⁵⁰ Gai honi berari buruz aipatu beharra dago proiektuei izen desberdina ematen zaiela, erakunde desberdinetan duten denborazkotasunaren arabera. Beraz, EJK, GFAak eta BFAak gehienez 24 hilabete irauten duten proiektuak urtekoak deitzen dituzten bitartean, Bilboko Udalak bi urtekoak deitzen ditu eta AFAak urteanitzekoak.

¹⁵¹ Diseinuaren kapituluan jada aipatu zen bezala, arauak, aitzitik, gehienezko zenbatekoak gehitzen joan ziren ekintza bakoitzeko edo erakunde bakoitzaren gehienezko ekintza kopuruko, eta ez aldearantziz, tarte altu samarren barruan egon arren. Lankidetzako hainbat arduradunek diotenez, interbentzio bakoitzeko batez besteko zenbatekoen kopuru handiagoa, eskuragarri dauden baliabideen araberrako kudeaketa *iraungarriago* baten logika sinplearen ondorio izan liteke.

¹⁵² Ildo horretatik, jarduera-sektoreak aztertzeko espezifikoki aurkitu ditugun zailtasunak berriro ere aipatu behar ditugu; izan ere, interbentzio askoren fitxan ez da inolako sektore-sailkapenik agertzen (batez ere lehenengo urteetan). Jada aipatu dugun erakunde batzuen eta besteen arteko sailkapenen bateratze-falta gehitu behar zaio horri, zeinak konparaziozko analisi bat egiteko aukerak mugatzen dituen.

nek garrantzitsutzat hartu duten gaia baita lankidetzaren sakabanatze edota zatikatze handiago edo txikiagoaren erakusle gisa. Zentzu horretan, eta lehenetasun geografikoak ezartzeko garrantziari buruz egiten dugun balorazioaz haraindi¹⁵³, jarduerak nola banatu diren helmuga-herrialde desberdinetan aztertuko dugu jarraian.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da aztertu diren 20 urteetan herrialde askorekin izan dela lankidetzeta, bai EAEko erakunde guztiei dagokienez (112 herrialde, ikus 16. koadroa) bai erakunde bakoitzaren kasuan, Eusko Jaurlaritzaren kasua azpimarratu behar delarik (96 herrialderekin), hauxe dela funtsen zatirik handiena ematen eta kudeatzen duen erakundea dela gogorarazi behar bada ere. Hala ere, ñabartu beharra dago sakabanatze handiko lehen inpresio hau; izan ere, koadroak berak erakusten duen bezala, funtsen ia % 50, 8 herrialde edo eskualdetara bideratu ziren eta % 75, berriz, 16 herrialdetara. Horrek erakusten du nolabaiteko fokalizazio-geografikoa dagoela ahaleginetan, nabarmenagoa dena udaletan eta aldundietan.

16. koadroa: Euskal GLO-ren hartzaile diren herrialdeen kopurua, erakundeen arabera (1988-2008)								
	EJ	AFA	BFA	GFA	Bilbo	Donostia	Gasteiz	Guztira
Funtsen % 50	8	7	6	5	6	4	5	8
Funtsen % 75	17	15	12	13	11	6	10	16
Funtsen % 100	96	51	50	39	55	39	59	112

Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.

Analisi geografikoarekin jarraituz, 17. koadroak funtsen hartzaileak diren herrialdeak erakusten ditu, gehienbat herrialde latinoamerikarrak direnak (Peru, Guatemala, El Salvador, Kuba, Bolivia eta Nikaragua % 45 dira). Horiei SEADa (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa) gehitu beharko litzaieke, jasotzen duen funts kopuru handiagatik. Herrialde bakoitzean abian jartzen diren jardueren kopurua kontuan hartzen badugu, emaitzak oso antzekoak dira, eta 8 herrialde horiek berek biltzen dute, era berean, jarduera guztien erdia baino gehiago.

¹⁵³ Ikus lan honen 4.6. atalean gai honi buruz aipatu dena.

17. koadroa: aztertutako euskal erakundeen funtsen hartzaile diren herrialde nagusiak (1988-2008)			
		Herrialde bakoitzari zuzendutako %	Metaturiko %
1	Peru	11,51	11,51
2	Guatemala	8,43	19,94
3	El Salvador	7,99	27,93
4	Kuba	6,99	34,92
5	Bolivia	5,30	40,22
6	Nikaragua	4,75	44,97
7	SEAD	4,32	49,29
8	Ekvador	4,03	53,32
9	India	3,88	57,20
10	Mexiko	3,78	60,98
11	Kolonbia	3,54	64,52
12	Venezuela	2,81	67,33
13	Honduras	2,43	69,76
14	Kongoko E.D.	2,23	71,99
15	Txile	2,12	74,11
16	Brasil	1,71	75,82


Iturria: Egileen elaborazioa, Erakundeek emandako datuetan oinarri hartuz egina.

Deigarria da euskal lankidetzaren funtsen hartzaile nagusien zerrenda honetan Mexiko edo Txile bezalako herrialdeak agertzea (ELGAko kide direnak) edo India eta Brasil bezalakoak (suspertzen ari diren herrialdeetako bi BRIC deituriko talde indartsuko kide direnak eta gaur egun ELGari atxikitzeko prozesuan daudenak). Horrek “Herrialde” kategoriari buruz dagoen interes urria dakar berriro ere lankidetzaren deszentralizatuaren analisirako elementu gisa. Seguru aski, aipaturiko lau herrialdeetan finantzaturiko interbentzioek egoera bereziki ahulean dauden gune, sektore edo komunitateekin zerikusia dute, beraz, erabili dena bezalako sailkapen geografiko batean sartzeak ez du argitzen lankidetzaren politikaren sendotasunari buruzko analisia.

Eskuragarri dagoen informazioa bereizirik behatzen badugu, erakunde ezberdinak banan-banan hartuz eta gune-geografiko handiak ezarritik erreferentzia

gisa, nahiko patroia antzekoak aurkitzen ditugu, Erdialdeko Amerikan, Kariben eta Hego Amerikan protagonismo handia dutelarik¹⁵⁴ (guztizkoaren % 70 inguru osatuz eta antzeko ehunekoak erakutsiz erakunde guztietan), eta bigarren maila batean Saharaz hegoaldeko Afrika (funts guztien % 15 inguru hartuz). Bestalde, Afrikako Iparraldera eta Ekialde ertainera zuzendutako funtsen kopuru handia deigarria da Donostiako Udalaren kasuan (% 20 baino gehiago). Hori bat dator espezifikoki SEADak gune-geografiko horretan duen presentziarekin eta saharar auziak donostiar lankidetzaren barruan duen garrantzia erakusten du.

7. grafikoa: Funtsen banaketa erakundeen eta eskualde geografikoen arabera (1988-2008)



Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.

Laburbilduz, azpimarra daiteke nolabaiteko taldekatze geografikoa dagoela hainbat herrialde eta guneetan, eta taldekatze horrek ezeztatu egiten du

¹⁵⁴ Metodologikoki, Mexikon egindako proiektuak, gehienbat Chiapaseko eskualdean kontzentratuak, Erdialdeko Amerika eta Karibeko eskualdeetara gehitu dira.

esparru honetan askotan aipatzen den balizko sakabanatzea, funtsen helmugari dagokionez behintzat. Zentzu horretan, ez dirudi oso oinarri sendoa duenik aztertu diren erakunde batzuetako plangintza-dokumentuetan hartu den bideak, hau da, lehentasun geografikoak (herrialde gisa ulerturik) hartzea estrategiaren erdigune gisa, dagoen sakabanatzea saihesteko xedeaz.

Gogoeta orokorrak

EAEko erakundeek garapenerako lankidetzan burututako interbentzioen orientazioan ikusi diren joeren alderdi nagusi gisa, lehenik eta behin azpimarratuko dugu etengabeko goranzko joera antzeman daitekeela ikerlanaren atal honetan aztertutako aldirian (1988-2008), aurrekontu-konpromisoari dagokionez. Gainera, bai Eusko Jaurlaritzan, bai aldundietan bai udaletan eragina duen joera da. Bestalde, momentu jakin batetik aurrera hazkunde horrek ez du interbentzio kopuruaren handitzea eragin; horren ondorioz, denboraren poderioz, bultzatu diren jardueren batez besteko kostu altua izan dute.

Modalitateen arabera egindako finantza-banaketak lekuan bertan burututako garapenerako lankidetzak-jardueren nagusitasun handia adierazten du, politika-dokumentuetan aurreikusitakoaren ildo beretik. Sentsibilizazioari eta garapenerako hezkuntzari dagokionez, modalitate hau bigarrena da garrantzian, Gipuzkoako erakundeek kasu nabarmendu behar delarik (Gipuzkoako Aldundia eta Donostiako Udala) % 12,36 eta % 19,42 ehunekoen hurrenez hurren. Eta interbentzio bakoitzeko batez besteko kopuruei dagokienez, altuenak garapenerako lankidetzan egindako interbentzioei dagozkienak dira, eta kopuru txikienekoak, berriz, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzari dagozkienak, eta hau, neurri batean, bat dator batzuen eta besteen ezaugarriekin.

Azkenik, eta atzerrian burutu diren interbentzioen orientazio geografikoari dagokionez, alde batetik herrialde hartzaileen sorta handia ikus daiteke (ehun baino gehiago), nahiz eta errealitatean jardueren kontzentrazio altua gertatzen den horietako batzuetan; izan ere, zortzi herrialde edo eskualdek ordaindutako funtsen % 50 hartzen dute aztertutako aldirian zehar. Bestalde, herrialde hartzaile nagusien behaketa eta garapen-bidean dauden edo errenta erdikoak diren hainbat herrialde haiei gehitzea dela medio, galdera berriak sortzen dira herrialde-kategoriaren interesari buruz, lehentasunak jartzeko orduan kontuan hartu beharreko elementu gisa. Hurrengo atalean itzuliko gara gai horretara.

5.3. Diseinatutako politikaren eta burututako interbentzioen arteko harremana

Behin EAEko hainbat erakundetatik bultzatu diren lankidetzeta-interbentzioen joera orokorrak azalduta, abian jarri den praktikaren eta plangintza-dokumentuetan planteatu diren jarraibideen artean dagoen harremana aztertuko dugu orain. Nolanahi ere, eraikitako datu-basetik eratorritako aukerretara mugatu behar izan da analisia, eta lehenago jada eman dugu datu-basearen mugen berri.

Orientazio geografikoa

Jada aipatu den bezala, EAEko hainbat erakunderen plangintza-dokumentu politikaren kalitatea hobetzeko elementu gisa planteatu izan dute interbentzioen kontzentrazio geografikoa, lankidetzeta kontzentratu beharreko lehentasunezko herrialdeen zerrendak osatuz horretarako. Horixe da Eusko Jaurlaritzaren kasua, baita Bilbo eta Donostiako Udalena ere. Aukera horren ondorioz, egokia izango litzateke zentzu horretan ezarri diren orientazioen eta politikaren babesean egin diren interbentzioen arteko kontraste bat burutzea. Hala ere, datu-basean jasotako interbentzioen denborasekuentziak (1988-2008) bitara murrizten du aipatutako kontrastea egiteko aukera: Eusko Jaurlaritzaren kasura, Lehen Plan Zuzentzailean (2005-2008) lehentasunezko zatitza jotzen diren herrialdeentzat eta Bilboko Udalaren kasura (2006-2009).


Eusko Jaurlaritzari dagokionez, lehen plan zuzentzailean lehentasunezko 20 herrialde ezarri ziren, lekuan bertan egindako lankidetzeta-proiektuetarako funtsen % 95 herrialde haiei zuzendu behar zitzaizela zehaztuz. Honako hauek ziren 20 herrialdeak: El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua, Mexiko, Kuba, Dominikar Errepublika, Bolivia, Kolonbia, Ekuador, Peru, Venezuela, Angola, Boli Kosta, Ruanda, Mozambique, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Kongoko Errepublika Demokratikoa, India eta Palestina.

Lortutako datuen arabera, hauek izan ziren Eusko Jaurlaritzak 20 herrialde horiei plana indarrean egon zen urteen bitartean emandako kopuruak (geografikoki esleitu zitekeen lankidetzeta-modalitatearen guttizkoaren gaineko ehuneko gisa kalkulatu): 2005: % 83,24; 2006: 2005: % 83,24; 2006: % 82,11; 2007: % 80,58; eta 2008: % 80,40.

Eusko Jaurlaritzak 20 herrialde horiei lehenago zuzendutako lankidetzaren jardunbidea behatzen badugu, ondoriozta dezakegu jada 2000. hamarkadaren hasieratik egonkortu samarra zegoen eredu batekin bat datorrela

plana indarrean egongo zen urteetarako aurreikusitako joera. Egia esan, 20 herrialde horietako jarduerak historikoki jada funtsen zatirik handiena hartzen zuten; izan ere, 2004an ehunekoak % 87 gainditzen zuten. Badirudi, funtsak orientatu baino gehiago –helburu horretan ez da aurrerapausorik egin, datuek erakusten duten bezala–, planak lana non egin behar den zehazteko balio izan duela, sakabanatze handiagoa saihestuz eta jarraipenean lagunduz, nahiz eta beren diskurtsoan ez duten horrela adierazten.

8. grafikoa: Lehenetasuna duten 20 herrialdeei zuzenduriko lankidetzaren ikuspegi historikoa Eusko Jaurlaritzaren lehen Plan Zuzentzailean (funts guztien ehunekoak, 1988-2008)



Iturria: Egileen elaborazioa, Eusko Jaurlaritzak emandako datuetan oinarriturik egina.

Bigarren Plan Zuzentzaileak hartzen duen aldirako, Kalidadeak egindako ebaluazioak 2008 eta 2010 arteko urteei dagozkien zifren ekarpena egiten du. Urte horietarako Txostenak adierazten du lehenetasunezko zatitza jotzen diren 22 herrialdeek funtsen % 87,44 kontzentratu zutela, lehenengo hamarre ordea (Peru, Kuba, Guatemala, Ekuador, Bolivia, El Salvador, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Kolonbia, Nikaragua eta Brasil) % 66,78 hartu zuten. Zifra horiek planean aurreikusitakoen azpitik daude (nahiz eta gertu egon); planak gutxienez funtsen % 90 lehenetasunezko zatitza jotzen diren herrialdeetara zuzentzea planteatzen zuten. Gainontzean, aipatutako ehunekoak lehenago adierazitako joerak indartzen dituzte oro har.

Aipatu dugun beste kasu bati dagokionez, Bilboko lehen Plan Zuzentzaileak lehenetasunezko 13 herrialdez osatutako zerrenda bat aurreikusten zuten, non gutxienez funtsen % 70 kontzentratu behar baitzen. Hegoak

burututako plan horren ebaluazioak adierazten zuen ehuneko horiek gainditu egin zirela plana indarrean egon zen urteetan, ondorengo koadroan ikus daitekeen bezala. Beraz, gai honen inguruan egindako aurreikuspenak soberan bete ziren.

18. koadroa: Nola bete diren Bilboko Plan Zuzentzailearen (2006-2009) lehentasun geografikoei buruzko aurreikuspenak				
	2006	2007	2008	2009
Proiektatua	1.245.114	1.530.271	1.716.280	1.824.647
Egina	1.621.702	1.723.362	1.992.183	2.504.591
Desbideratzea	+ % 30	+ % 13	+ % 16	+ % 37

Iturria: Plan Zuzentzailearen ebaluazioa (2006-2009).

Bestalde, eta EAEko erakundeen lankidetzeta-estrategiak oro har behatuz, Saharaz hegoaldeko Afrika lehentasunezko gune gisa hartzea da seguru aski gehien partekatzen den ideia (kasu honetan gehiago erantzunez kontinente horretako hainbat arazoen sakontasunarekin loturiko aukera politikoari, jarraipen-irizpide bat ezartzeko asmoari baino). Erreferentziarik esplizituenak Eusko Jaurlaritzaren kasuan gertatzen dira (2008-2011 Plan Zuzentzailea), esparru horri geografikoki funtsen % 25 esleitzeko helburuarekin¹⁵⁵ eta Bilboko kasuan (2006-2009 Plan Zuzentzailea, % 20ko helburua), gainontzeko erakundeetan ere erreferentziak badauden arren, bai zona honi zuzenean egindakoak, bai GGI baxuagoa duten herrialdeei egindakoak, zeina zona honen ezaugarri garrantzitsu bat den.

Dagoeneko aipatu den bezala, Afrikako herrialde eta eskualde askoren premia handiagoko egoera erabili izan da lehentasuna justifikatzeko, baina baita proiektuak formulatzeko, puntuatzeko eta jarraipena egiteko diseinatu den sistematik bertatik eratorritako ondorioei buruzko gogoeta ere. Aipaturiko sistema zona horretan kalte egiten ari da agian, zona horretako hainbat lekutan lan egiteak duen zailtasuna eta hainbat baldintza betetzeko dagoen zailtasun handiagoa dela eta, ekimen garrantzitsuak kanpoan uzteko arriskua dagoelarik. Hau gizartearen beraren ikuspegiarekin lotzen da (Afrikako arazoekin bereziki sentikorra dena) eta baita nazioarteko mailan lankidetzak dituen joerekin ere.

¹⁵⁵ Aipatu beharra dago Eusko Jaurlaritzak Afrika multzo gisa ulertzen duela, eta horrek SEADekin harremanetan egindako interbentzio guztiak kontuan hartzea eskatzen zuen, beste erakunde batzuek ez bezala, haiek espezifikoki Saharaz hegoaldeko Afrika aipatzen baitute.

Gai honi dagokionez, azpimarratu daiteke aztertutako aldiaren Saharaz hegoaldeko Afrikara zuzendutako funtsen proportzioak norabiderik gabeko ibilbidea jarraitu duela, bai termino agregatuei bai erakundeei dagokienez, azken urteotan zuzenduz joan den murrizketarako nolabaiteko joerarekin. Oro har, % 13 ingurukoa da batez beste, erakundeen eta urtearen arabera aldeak antzeman badaitezke ere. Arabako Foru Aldundia, 7. grafikoan ikusten genuen bezala, alderdi honi dagokionez nabarmentzen den erakundea da, funtsen % 20 baino gehiagorekin. Bilboko Udalaren kasuan ere igoera bat antzeman daiteke orientazio hau bere lehen Plan Zuzentzailean sartu zuenez geroztik (2006-2009). Eusko Jaurlaritzaren kasuan, bigarren Plan Zuzentzailearen ebaluazioak (2008-2011) Afrika guztiari zuzendutako zenbatekoak gutzitzailearen % 20,70ean jartzen ditu, eta horrek azken urteotako hazkunde-joera argia erakusten du, ezarritako aurreikuspenekin bat datorrena.

Lehentasunezko sektoreak

Politikak nola aplikatu zaizkien lehentasunezko sektoreei ikertzeak ia irtenbiderik ez duten eragozpenak aurkitu ditu, burututako interbentzioei buruz jaso den informazioaren ezaugarrietatik sortu direnak, eta teorikoki sustatu diren (baina urtetik urtera aldatzen diren) sektoreen eta erakundeek finantzaturiko interbentzioei buruz dituzten fitxetan jasotzen direnen arteko elkarrekotasun faltatik.


Zentzu horretan, politika-dokumentuek lehentasunezko sektore oso zabalak eta inklusiboak aipatzeko joera dute (oinarrizko premia sozialak, herri-ekonomia eta abar) azken batean ia edozein proiektu betetzen dituen ezaugarriekin. Azken urteotan egindako plan zuzentzaileetan baino ez dira sektore eta azpi-sektore espezifikoagoak aipatzen, zeinek, hala ere, burututako interbentzioen erregistroetakoekin bat etorri gabe jarraitzen baitute. Gainera, erregistro horiek aldatu egiten dira erakunde batetik bestera, 5.1. atalean azaldu den bezala. Praktikan, zaila gertatzen da sektoreekin zerikusia duen edozein alderdiaren jarraipena egitea, aztertutako erakundearen sektore-erregistroen tratuaren aurkitutako egoeren aniztasuna dela eta. Lehenik eta behin, aztertu den aldi luzean proiektu askori ez zaie sektorerik esleitu, eta beste kasu batzuetan, berriz, proiektuak ez daude normalizatuak. Horren ondorioz, ezinezkoa da konklusiorik lortzeko aukera emango duen estatistika-contraste zehatzik egitea.

Zailtasun hauek ikusita, gaiaren hurbilketa partzial bat egin da, tokiko indartzearekin eta garapenerako hezkuntzarekin loturiko interbentzioen azterketan kontzentratuz, bi sektore horiek gure marko teorikoan lantzen

direlako, lankidetzeta deszentralizatuak nolabaiteko espezializazio eta potentzialtasun maila erakuts dezakeen sektore gisa.

Lehenik eta behin, Tokiko garapenari eta tokiko erakundeen Indartzeari buruzko gaiei dagokienez, bi premisatetik abiatuz bilatu dugu gaira hurbiltze-ko modu bat. Lehenengoak gaia ikuspegi zabal samar batetik planteatzen du, alderdi desberdinak hartuz, hala nola tokiko boterea eta erakundeen indartzea, deszentralizazio-prozesuei emandako babesak, oinarritzko gizarte-zerbitzu publikoei eskainitako arreta edo tokiko gaitasunen indartzea, gaiari buruz burututako hainbat hurbilketen arabera (Fernández, 2006). Baina, jada esan den bezala, interbentzioen sektore-informazio egokirik ez dagoenez gero, bigarrenik erabaki da zeharkako adierazle gisa tokiko bazkidea edo kontraparte tokiko erakunde publikoa izan den jarduerak hartzea, lan mota honetan adierazgarria izango litzatekeen gauza. Hurbilketa honen emaitzak 9. grafikoan ikus daitezke, zeinak aipatutako irizpideari egokitzen zaizkion funtsen ehunekoaren bilakaera erakusten baitu.

9. grafikoa: Tokiko erakunde publikoak diren kontraparteek kudeatutako funtsen ehunekoak (1988-2008)



Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.

Ikus daitekeen bezala, hazkunde-joera bat antzeman daiteke aztertutako lehen hamarkadan, geroago jardunbide nahasiagoa hartzen duelarik. Datu horien arabera ezin da ondorioztatu politikaren aplikazioak norabide horren aldeko apustua egin duenik, hainbat baremaziotan edo diseinu-dokumentutan adierazi denagatik ere. Xehetasun handiagoz azal genezake, Eusko Jaurlaritzak esparru honetan duen nagusitasunaz haraindi (bestalde logikoa dena, hark kudeatzen baitu funtsen kopuru handiena), hainbat desberdintasun

daudela erakundeen artean, Gasteizko kasua nabarmentzen delarik (esparru honetako bigarren erakundea termino gordinetan) edo Bilboko kasuaren azkenaldi honetako hazkundera, sektore estrategiko gisa jartzen duena.

Gainontzean, era horretako kontraparteen bitartez kudeatu diren funtsen ehunekoa handiagoa da, logikoa den bezala, Zuzeneko Lankidetzaren kasuan, administrazioek beste herrialde batzuetako beren pareko kideekin lan egiteko duten joera naturala –baina oraindik oso gutxi garatu dena– erakutsiz (zuzeneko lankidetzaren % 30 baino gehiago kontraparte mota hauekin kudeatzen da).

Aipatu dugun bigarren sektoreari dagokionez, Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntzarena, azpimarra daiteke oro har jarduera horietara zuzendutako funtsen hazkundera nabarmena izan dutela 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera. Beren garrantzi erlatiboa ere haziz joan da, nolabaiteko koherentziaz erantzunez politiken diseinutik egiten zen apustuari, hau da, deialdiak sistematizatu eta aurrekontu espezifiko batez hornitzea.



Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.


10. grafikoak erakundeek guztira helburu horietara zuzendu dituzten funtsen ehunekoen hazkunderazko bilakaera erakusten du, gaur egun % 10 inguruan kokatzen dena¹⁵⁶. Lehenago jada aipatu zen bezala, kasu honetan ere desber-

¹⁵⁶ Kontuan hartu beharra dago, bere izaeratik beragatik, jarduera hauek garrantzi gutxiago dutela aurrekontuei dagokienez, oro har aztertutako aldiko jardueren % 21 badira ere.

dintasunak ikus daitezke erakundeen artean, Donostiako eta Bilboko Udalen eta Gipuzkoako Aldundiaren kasuak nabarmentzen direlarik, neurri batean politiken diseinuan egindako aurreikuspenekin bat datorren gauza¹⁵⁷.

Egindako kopuruen ekarpenari dagokionez ordea, eta joera orokorrekin gertatzen den bezala, Eusko Jaurlaritza da kopuruen zatirik handiena kudeatzen duena, eta ondoren aldundiak; ez da gauza bera gertatzen, ordea, abian jarritako jarduera kopuruari erreparatzen badiogu. 16. koadroan ikusten zen bezala, jarduera horiek oso kopuru ezberdinak inplikatzeko dituzte erakundearen arabera, eta, hortaz, mota honetako jarduera baterako batez bestekoak 87.000 euroak gaintzen ditu Eusko Jaurlaritzaren kasuan; udalentsat ordea 7.600 baino apur bat gorago kokatzen da. Desberdintasun horiek kontuan hartuz, udalak dira jarduera kopuru gehien kudeatzen dituztenak, maila txikiagokoak badira ere (ikus 11. grafikoa). Horri esker, udalen espezializazio handiago batean pentsa dezakegu, aldizkakoak eta gastu gutxiagokoak diren interbentzioen finantziarioaren aldera.

11. grafikoa: Garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza-ekimenen kopurua, erakunde motaren arabera (1988-2008)



Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.

¹⁵⁷ Gogoratu beharra dago, adibidez, Donostiako Udalak bere Plan Zuzentzailean (2008-2011) guztizkoaren % 25 baino gehiago ziren funtsen urteko aurrekontuak ezartzen zituela sentsibilizaziorako eta garapenerako hezkuntzarako.

Politika-dokumentuek berek aurreikusten duten bezala, nahiko zabalak dira, interbentzioetan, jarduera-sortak eta sektoreak sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren alorrean, eta oso gai desberdinak hartzen dituzte barnean, adibidez, argitalpenak, erakusketak, eragin- eta salaketa-jarduerak, jardunaldiak, ikastaroak, sareen babesak... Beraz, beharrezkoa izango litzateke aipatutako kopuruak eta burututako proiektuak nola zehaztu diren praktikan esparru hauetan guztietan jakiteko balorazio zehatzago bat egitea. Hala ere, azterketa hori ezinezkoa izan da, berriro ere, erakunde batzuetako eta besteetako erregistroetan dauden jarduerak modu ezberdinean multzokatzen direlako. Era berean, azpimarratuko dugu alor honetan jasotako jarduera gehienak diru-laguntzak jasotzen dituzten euskal entitateek bideratzen dituztela (batez ere GGKEak), eta administrazioek, zuzeneko betetzaille gisa, beste eragileek dutena baino pisu txikiagoa dutelarik¹⁵⁸.

Azkenik, eta jarduera horiei babesak emateko moduari dagokionez, urteroko deialdia gailentzen da baita kasu honetan ere (funtsen ia % 77k jatorri hori du), % 22 adierazgarri bat modu zuzenagoan eskainitako babesetatik baidator ere, zeinak normalean “hitzarmen” deitzen diren. Diru-laguntza mota horrek –deialditzat hartzen ez denak– jarduera jakin txikiei erantzuteko balio izan du, baina baita unibertsitateekin, GGKEekin edo antzekoekin babesak nolabaiteko jarraipenaz berritzeko ere, materialak prestatzeko, baliabideak antolatzeko eta abarretarako; horri esker, hobetu egin da interbentzio mota hauen eraginkortasuna.

Gogoeta kuantitatibo labur horiez haraindi –erregistratutako proiektuen ondorio direnak eta gure datu-basean jaso ahal izan ditugunak dira– beharrezkoa da erreferentzia labur bat egitea sentsibilizazioari eta garapenerako lankidetzari dagokion politikaren aplikazioari, zeinak, aipatu dugun bezala, ahalegin garrantzitsuak eskatu dituen eta sarritan analizatu den. Alor honen inguruan azken urteotan burututako hainbat ikerlanek –bai Eusko Jaurlaritzak bai Gasteizko Udalak bultzaturik– hainbat kezka erakusten dituzte auzi hauen eraginari buruz, jardueren sakabanatzea eta benetan duten garrantzia ezagutzeko zailtasuna aipatuz. Gai honen inguruan aipatutako alderdien artean, jardueren ugaritasunari eta GGKEen arteko koordinazio faltari dagokiona nabarmentzen da, azken horrek proposamenak ugaritzea eragiten omen duelarik; proposamen horiek, gainera, oso jarduera mota desberdinen

¹⁵⁸ Kasu batzuetan, batez ere udaletan, administrazioak berak zuzenean bultzaturiko hainbat jarduera identifikatu daitezke, hala nola ikastaroak eta jardunaldiak, baina horrelako jarduerak eskasak dira oro har, eta gainera kokatzen zailak; izan ere, batzuetan saileko aurrekontuan barreiatzen dira, beste gastu arrunten artean.

bitartez (hitzaldiak, erakustaldiak, ikastaroak, lantegiak...), askotan pertsona berak dituzte hartzaile gisa, batzuetan asetze-efektu bat ere sortzen delarik, zeinak, biztanleriaren sektore zabalagoetara iristeko zailtasunari gehiturik, nolabaiteko gogo-falta ekar dezakeen. Hezkuntza arautuarena da plangintza- eta koordinazio-arazo gehien antzeman daitezkeen alorretako bat, zeinari ahalegin asko zuzendu zaizkion, baina gutxi antolatua oro har. Ikastetxeetara iristen saiatzeko modua ere –behetik, eta jada berez nahiko lanpetua dagoen irakaslegoarekin hitzarmenak indartzearen bitartez–hainbat azterlanen arreta-gunea izan da, Hezkuntza Sailaren laguntza esplizitua beharrezkoa dela planteatuz esparru honetan aurrera egin nahi bada¹⁵⁹.


Eusko Jaurlaritzaren kasu espezifikotan, 2008-2011 Plan Zuzentzailean burututako ebaluazioak adierazten duenez, Garapenerako Hezkuntzaren eraginean aurrera egitera bideratutako jarraibidea da, eraginkortasunari dagokionez, emaitzarik okerrenak lortu dituen, funtsen banaketari buruz agindutakoa betetzeaz haraindi. Hala ere, zalantzak planteatzen dira bultzatutako jarduera ezberdinen definizio mailari buruz, gaiari buruzko gogoeta- eta eztabaida-prozesurik ez dagoela azpimarratzen da, eta berebat azpimarratzen dira jarraibideak tresna, deialdi eta baremoetara eramateko prozesuan dauden hainbat hutsune (Lankidetzaren Euskal Agentzia, 2011)¹⁶⁰. Ikusi ahal izan dugun bezala, gai hauetako batzuk EAEko beste erakunde batzuei ere badagokie. Horregatik guztiagatik, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren esparruan abian jarritako ahalegin handia –eta oro har plangintza-dokumentuetan aurreikusitakoa bete izana–lortutako emaitzak kontuan hartuz aztertu behar da. Azterketa hori burutzea errazagoa izango litzateke alor honetan beste batzuetan baino, non sakabarnatze geografikoa eta sektoriala oso muga nabariak diren. Hala ere, oztopo handia da alor horretan aurrera egiteko sektoreei eta jardueri buruzko sistematizazio eta sailkapen partekatu bat ez izatea, ebaluazioei dagokienez ere jada aipatu den bezala (5.1. atala).

¹⁵⁹ Adibidez, Arabako Garapenerako Hezkuntzarako Partaidetza-Diagnostikokoan honako hau planteatzen zen: *“Koordinatu behariko ginateteke, bereziki ikastetxeekin, ez bonbardatzeko eta GGKEen artean ez elkar zapaltzeko. Hala ere, nabiko zaila da hau, GGKEek nabi badute ere, deialdien esku baitago eta azkeneko momentura arte ez dakite proiektu bat onartua den ala ez. Honek koordinazioa zailtzen du”* (Iniciativas de Cooperación y Desarrollo, 2005); bere aldetik, *“Mírame con otros ojos-Aldatu jarrera!”* proiektuari buruz egindako txostenak azpimarratzen zuen *“ahalegin handiak egiten direla hezkuntza-alor honetan Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailetik lortzen den laguntza eskasarekin alderatuz. Bada garaia Koordinakundeak presioa egin dezan Sailean laguntza zehatzagoak eta esplizituagoak lortzeko, ikastetxeetan egiten den lana laguntza horien baldintzapean jarritz”* (Iniciativas de Cooperación y Desarrollo, 2004).

¹⁶⁰ Egiaztapen hau ez dator bat Garapenerako Hezkuntzaren alorra izatearekin eremu doktrinalen -genero-gaiekin batera- arreta gehien piztu dituenetarikoa bat.

Hainbat eragileren interbentzioa

Azpi-atal honetan, EAEko erakundeek babestutako interbentzioetan protagonismoa izan duten eragileak aztertuko ditugu. 12. grafikoak gaiaren lehen hurbilketa bat egiteko aukera ematen digu, non aldi guztian eragile bakoitzeko kudeatu diren funtsen ehunekoa erakusten den.



Iturria: Egileen elaborazioa, Erakundeek berek emandako datuetan oinarriturik egina.


Ikus daitekeen bezala, GGKEak dira funtsen zatirik handiena kudeatu duten taldea (% 71 baino gehiago). Erljio-erakundeak (kongregazioak, ordenak...) % 6,36 kudeatu dute, nazioarteko erakundeak % 4,38, eta unibertsitateak, eta ikastegietako eta ikerketa-zentro elkartuetako kideak % 3,81. Kontzentrazio garrantzitsu horrez haraindi, azpimarratu beharra dago, gutxi bada ere, urteotan aktiboki parte hartu duten eragileen aniztasun handia. Nabarmendu beharra dago eragile batzuk aztertutako ia erakunde guztietan agertzen direla, hala nola, GGKEez gain, erljio-erakundeak, nazioarteko erakundeak (UNICEF, ACNUR eta antzekoak ordezkatzan dituzten euskal elkarteak gehienbat) edo unibertsitateak eta ikastegietako eta ikerketa-zentroetako kideak. Aitzitik, beste eragile batzuek (adibidez, kolektibo profesionalek, enpresek, sindikatuek edo emakumeen erakundeek) noizbehinka bakarrik parte hartu dute lankidetzak-jardueretan, eta hori bat dator plangintza-dokumentuetan gai honi buruz agertzen den ikuspegi ezberdinarekin.

19. koadroa: Eragile motak eta entitate kopurua, erakunde finantzatzaileen arabera (1988-2008)								
	EJ	AFA	BFA	GFA	Donostia	Bilbo	Gasteiz	Guztira
GGKE	134	51	69	36	66	66	71	210
Erlijio-erakundeak	58	11	3	2	5	6	16	76
Unibertsitateak eta ikastegietako eta ikerketa-zentroetako kideak	19	1	0	0	4	2	1	22
Ikastetxeak eta Lanbide Heziketako Zentroak	10	0	2	0	1	1	6	19
Nazioarteko erakundeak	9	4	3	3	4	3	4	11
Enpresak, kooperatibak eta teknologia-zentroak	21	0	5	0	1	0	0	24
Euskal administrazio publikoak eta berekin loturiko gainontzeko erakunde publikoak	8	2	1	0	1	5	1	12
Emakumeen gizarte-erakundeak	4	0	0	0	0	1	3	6
Bestelako gizarte-erakundeak	31	2	6	1	26	14	13	73
Kolektibo profesionalak	7	0	1	0	0	0	1	9
Sindikatuak	1	0	0	0	1	1	0	2
Guztira	302	71	90	42	109	99	116	464

Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek berek emandako datuetan oinarriturik egina.

Egoera halakoa izanik, GGKEek funtsen kudeaketan duten garrantziak hainbat aldaketa jasan ditu, aldi eta erakunde finantzatzaileen arabera. 90eko hamarkadaren hasieran gertatu zen beherakada nabarmenaren ostean, GGKEen partaidetzak egonkortzera jo du, funts guztien % 70-80 inguruan, 2000. hamarkadaren hasieratik (ikus 13. grafikoa).


13. grafikoa: GGKEk kudeaturiko funtsen ehunekoaren bilakaera (1988-2008, finantzatzaile guztiak)



Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.

Eragileek duten garrantzi erlatiboa sakonduz, eta GGKEen nagusitasunaz haraindi, erakundeen lankidetzak-programetan parte hartu duten gaitzarako entitateek kudeatutako baliabideen ehunekoak aztertu dugu (ikus 14. grafikoa). Ikusi ahal izan dugunez, gorakada bat gertatu da une jakinetan enpresen, erlijio-erakundeen edo nazioarteko erakundeen garrantzian, baina, joera orokor gisa, eragile horiek kudeatzen dituzten funtsak beheranzko joera izan dute, eta azken urteotan talde horien guztien artean batek ere ez du aurrekontuaren % 5eko partaidetza eskuratu.

14. grafikoa: GGKE ez den eragile bakoitzak kudeaturiko funtsen ehunekoaren bilakaera (1988-2008)



Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.

Grafikoari begiratzen badiogu, gorakadarik deigarrienak enpresenak eta erakunde erlijiosoetakoak direla ikusiko dugu, 90eko hamarkadaren erdialdean, nahiz eta enpresek euskal lankidetzan izan duten partaidetza bazterrekoa izan den oro har, Bizkaiko Foru Aldundian noizbehinka agertu direlarik eta 90eko hamarkadan Eusko Jaurlaritzaren kasuan nolabaiteko jarraipena izan dutelarik, zenbateko apalekin izan arren, 1993. urtean


izan ezik¹⁶¹. Enpresen partaidetzan noizbehinka ikusten diren gorakadak gehienbat bultzada jakinen ondorio direla dirudi, eta ez benetako estrategia baten ondoriozkoak, Eusko Jaurlaritzak enpresen jarrera indartzeko egindako saioez haraindi (bereziki 90eko hamarkadaren hasieran), zeina ez baitzen emankorra izan. Funtsak hazi egin badira ere, jarduera kopuru txikiak egin izan dira urte bakoitzean, jardueren aldakortasun handia azaltzen laguntzen duen gauza (guztira 85 jarduera daude zerrendan, aztertu diren ia 7.000 interbentzio guztien artean). Profil berezia duten enpresak dira gainera, sektore publikotik oso gertu daudenak beren egitura, esleipen eta helburuei dagokienez eta oso kontzentratua dagoen banaketa dutenak, non 6 kasuk (EITB, AZTI, Labein Fundazioa, garapen teknologikoko Leia Fundazioa, BEAZ eta Saiolan) funtsen % 72 hartzen duten.

Erlijio-erakundeek ere nolabaiteko protagonismoa izan dute momentu batzuetan, beren garrantziak behera egiteko joera izan badu ere, 1997. urteaz gero bereziki, orduan hasi baitzen nabarmentzen GGKE berrien presentzia, zeinak kasu batzuetan erlijio-erakundeek sortutako GGKE itxurako egiturak baitziren, eginkizun horiek era aproposagoan egiteko. Azkenik, gainontzeko eragileen artean, eta garrantzi gutxiago bazuten ere, merezi du udalek *Euskal Fondoaren* bidez bideratutako baliabideen garrantzia azpimarratzea, eta horrek udaletan zuzenean burututako lankidetzak duen garrantzia indartu egiten du, batez ere gainontzeko erakundeen aldean, zeinen ekarpena zentzu horretan askoz ere txikiagoa den.

Jada azaldu dugun bezala, EAEko erakundeek bultzatutako garapenerako lankidetzak eragile asko eta mota askokoen bidez bideratu izan da. Hala ere, eragileen artean banatu diren funtsen analisi zehatzago batek erakusten duenez, entitate ugari baldin badaude ere, funts gehienak erakunde kopuru murrizt batean kontzentratuz joan dira (batez ere GGKEetan). Hala, 10 entitatek funts guztien heren bat baino gehiago kudeatu dute aztertutako aldian, eta lehenengo 20ek erdia baino gehiago kudeatu dute. Analisi hau bera urtez urte egiten badugu, aldatuz joan den kontzentrazio bat ikusiko dugu, funtsak banatuago daudelarik 90eko hamarkadaren bukaeran; aldiaren amaieran ordea, 10 entitatek funtsen heren bat kudeatzen zuten, eta 15 inguruk erdia. Erakunde ezberdinen artean hainbat aldaketa aurki ditzakegu, kontzentrazioerako joera handiagoa dagoela ikusiz Eusko Jaurlaritzaren eta Bilboko Udalaren kasuetan.

¹⁶¹ 1993an Saiolan, Azti eta Basalan enpresek Euren lankidetzak-funtsen % 33 kudeatu zuten lau proiektu handirekin Venezuelan, Kolonbian eta Argentinan, zeinak lanbide-heziketan eta produkzio-sektoreetarako teknologien transmisioan kontzentratzen ziren.


15. grafikoa: Urte bakoitzean funts guztien heren bat eta erdia kudeatu duten entitateen kopurua (1988-2008)



Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.

Kontzentrazioari buruzko analisi hau EAEko erakundeek finantzaturako proiektuetan parte hartu duten erakundeen kopuruak izan duten bilakaeraren inguruko azterlanarekin osa daiteke. Zentzu horretan, 16. grafikoa ikusten den bilakaeran hainbat antzekotasun daude erakunde ezberdinen artean; hala, hasieran eragile kopurua urtez urte handituz joan da (beren zenbatekoekin gertatzen den bezala), geroago kopuru hori egonkortu delarik eta baita behera egin ere. Eusko Jaurlaritzaren kasuan deigarria da ikustea 1998an eragileen kopurua argi eta garbi handiagoa zela (108), hurrengo hamarkadako beste edozein urtetan baino, funtsak nabarmen handitu baziren ere.

16. grafikoa: Eragile kopuruaren bilakaera erakundeen arabera (1988-2008)



Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.

Datu hauei guztiei esker, joera garrantzitsu bat ikus dezakegu, non GGKE batzuk aurki ditzakegun urtero udal edo aldundi batzuek baino funts gehiago kudeatzen dituztenak, eta erakundeek gaintzen dituzten langile kopuruak dauzkatena. Era horretan, GGKEak euskal lankidetzak publikoaren lehentasunezko protagonista izatearen aldeko apustuak eragin duen egoeran, GGKE batzuek, alderdi askotatik, garrantzi handiagoa eskuratu dute finantzatzen dituzten erakundeek berek baino.

Emakumeen erakundeei dagokiena da eragile batzuen eta besteen partaidetzarekin zerikusia duen alderdi garrantzitsu bat. Gai horrek harreman estua du 4.2. atalean azaldutakoarekin genero-zeharkakotasunari eta zeharkakotasun hori gauzatzeko GGKE batzuen gaitasunetan ikusitako eragozpeni buruz. Lehenago jada aipatu ditugun dokumentu batzuk gai horren adierazle dira. Horregatik, Roxana Voliok (2004), FOCADaren 2002ko deialdiari buruz egindako analisisan, azpimarratzen du GGKEekin izandako elkarriketatik ondoriozta daitekeela genero-ikuspeirik ez duten proiektuak baztertzea, beren iritziz, Eusko Jaurlaritzaren inposatze bat dela eta tokiko bazkideek ere inposiziotzat hartzen dutela. Horren ondorioz, eskakizun

horren eraginez, proiektu gehienek genero-analisiren bat zuten baina oso desberdinak ziren. Clara Murguialdayren analisiak ere (2008) –Gasteizko Udaleko lankidetzan dagoen genero-berdintasunari buruz–, alor honetako eragozpenak eta GGKE batzuek genero-analisiak osotasunean baliatzearen aurka duten erresistentzia planteatzen ditu.

Ondorioz, jada aipatu den bezala, azken urteotan hainbat erakundek GGKEek esparru honetan dituzten gaitasunen indartzea planteatu zuten, baina baita emakumeen gizarte-erakundeak eta erakunde feministak lankidetzaren interbentzioetara sartzeko ere. Hala ere, 19. koadroko datuei behatzen badiegu, ondoriozta dezakegu esparru honetako emaitzak nahiko eskasak direla oraingoz; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren edo Gasteizko eta Bilboko Udalen deialdietan emakumeen erakunde gutxiak parte hartu dute.

Zuzeneko lankidetzaren presentzia

Aurrekoarekin zerikusi handia duen gaia bada ere, EAEko erakunde publikoek zuzenean burututako lankidetzaren interbentzioen analisiari ekingo diogu atal honetan, bai Euskal Herrian bertan (Garapenerako Hezkuntzako jardueren kasuan), bai beste herrialde batzuetan egin direnetan (beste erakunde batzuen bitartekaritzarik gabeko lankidetzaren proiektuen bidez).

Jarduera hauek, batera hartuta, harrigarriki baxua den ehuneko bat adierazten dute funts guztiei dagokienez, eta baxua da baita lankidetzaren deszentralizazioaren ohikoa izaten denerako, oro har aldiko funts guztien % 3 baino apur bat gehixeagoan baizik ez dela kokatzen. Jarduera horiek 1992an hasi ziren eta azken urteotan garrantzi apur bat handiagoa izan dute, % 5 inguruan kokatzen badira ere erakunde guztientzat. Aipatu dira jada jarduerak hauek kontabilizatzeko dauden hainbat eragozpen; izan ere, sail bakoitzaren aurrekontuan sartuak daudenez, kanpotik finantzatutakoek baino jarraipen txikiagoa izan dezakete, hauek normalean zorrotzago zaintzen baitira. Bestalde, *Euskal Fondoaren* kasua apur bat berezia da. Funts horretan erakunde horietako batzuek parte hartzen dute; izan ere, *Euskal Fondoak* Zuzeneko Lankidetzatik oso gertu dauden jarduerak egiten ditu. *Euskal Fondoak* sartzeko aurretik aipatutako ehunekoaren nolabaiteko igoera eragin lezake, baina, nolana ere, ez lirateke % 7 ingurutik pasatuko aztertutako aldiaren azken urteetan. Hori guztia, neurri handi batean, erakunde eta alderdi politiko gehienek egindako apustu estrategiko jakin baten adierazlea da, hainbestera non bere garaian babestu egin baitzuten Legeak mugatzea administrazio publikoek lankidetzaren duten parte-hartzea.

Dena dela, lankidetzak mota horri oro har eskaintzen zaizkion funts urrien artean hainbat desberdintasun antzeman daitezke. Aldundiei dagokienez, ia ez dago zuzeneko lankidetzaren egindako lanik (% 1 baino gutxiago). Jasotako datuen artean, Bizkaiko Aldundiaren salbuespena azpimarra daiteke, zeinak hainbat ekimen garatu dituen produkzio-proiektuekin eta mikroenpresei emandako laguntzekin zerikusia duten proiektuekin Kuban eta bereziki Antioquiaren (Kolonbia), Bilboko Udala eta BBK barne hartzen dituen epe luzerako elkarlanaren eremuan.

Udalen kasuan desberdintasun nabariak ikus daitezke. Gasteizek gainontzeko udal eta aldundi guztiak bat eginda baino funts gehiago zuzendu ditu gai horretara, minoritarioa baina egonkorra den lan-ildotzat har dezakegunean (bere funtsen % 5 inguru). Funtsean hainbat udal eta unibertsitatean kontzentratuta dagoen lana da (bereziki El Salvadorren), zerbitzu publikoekin loturiko gaitan (batez ere ura eta saneamendua), lankidetzaren espezializatzearen eta inplikatzaren adibide ona izan daitekeen kasu batean. Bilboren kasuan zuzeneko lankidetzak indarra hartuz joan da duela gutxi, funtsen % 4 gairiditza iritsi delarik aztertutako aldiaren bukaeran. Gaur egun jada nahiko indartua dagoen lan-ildotzat har genezake, atzerrian jardura jarraituak egiten baitira (Kuba, SEAD) eta baita Bilbon ere (ikastaroak, jardunaldiak, zabalkundea, bidezko merkataritza...). Ikuspegi kualitatibotik abiatuz, udaletik bertatik adierazten da badirela zuzeneko lankidetzari loturiko hainbat elkarrekotasun-esperientzia interesgarri, adibidez, Cuscatlanekin (El Salvador) egiten den berdintasun-aholkularitzen trukearen kasua, *Euskal Funderoaren* proiektu jarraitu bat, zeinean beste tokiko erakunde batzuek ere parte hartzen duten. Donostiaren kasuan jardura horiek presentzia txikiagoa dute ekintzen artean (funtsen % 1 baino ez dute adierazten), nahiz eta badauden senidetze-jardura batzuk jasotzen ez direnak, beren izaeragatik edo jarduerak erregistratzeko sistemarengatik. Kasu horretan, eredu aurrekoen antzekoa da, administrazio publikoekin lan eginez eta nolabaiteko jarraipena duten ekimenak bideratuz gehienbat.

Eusko Jaurlaritzaren kasua da garrantzitsuen kuantitatiboki –bat dator kudeatutako funtsen gutzizko kopuruarekin– nahiz eta zuzeneko lankidetzaren ehuneko gutzizkoaren % 3 inguruan kokatzen den, 2002tik antzeman daitekeen goranzko joera ahul bat adieraziz. Jardueren profila apur bat desberdina da aurreko kasuen aldean. Alde batetik, kontraparte gisa aukeraturako eragileak barietatuagoak dira, administrazio publikoak barne hartuz, baina normalean baita beste erakunde batzuk ere, adibidez nazioarteko erakundeak (PNUD, UNAIDS, UNESCO...), unibertsitateak eta beste gizarte-erakunde batzuk. Kasu horretan jarduerak ez daude oinarritzko zerbitzuen

hobekuntzara edo tokiko erakundeekiko elkarlanera hain bideratuak, baizik eta gehienbat Latinoamerikan egiten diren gobernantza, sareen babesa, giza eskubideak eta abar bezalakoekin zerikusia duten hainbat gaiei ekiten zaie. Jardueren aniztasunak, udalekin alderatuz, profil berezi samar bat islatzen du; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, beste erakunde batzuek (edo erakunde aldeaniztunek) atzerrian egiten duten zuzeneko finantzaketak ez du adierazten administrazioek interbentzioetan benetako inplikazioa dutenik.

Azkenik, gehitu beharra dago azken urteotan zuzeneko lankidetzaren esparruan egin diren eta administrazioaren hainbat baliabide jokoan jarri dituzten esperientziak –orokorrean arrakastatsuak–, ez direla bat etorri neurri handiago edo txikiagoan integrala den estrategia batekin, zeina gai izango litzatekeen, epe ertainera eta luzera, helburuak markatzeko, anaitze sendoetan oinarritzeko edo erakundeen, GGKEen edo beste gizarte-eragileen arteko itun publiko-pribatuak sortzeko. Aitzitik, hainbat plangintza-dokumentutan horri dagokionez ageri diren mugen eta gehiegizko arduren ondorioz, pixkanaka gehienbat behin-behinekoak diren zuzeneko lankidetzeta-jarduerak abian jartzen hasi dira, planteamendu integralago batean bideratzea merezi luketenak.


Erabili diren hainbat tresna

Azterlanaren zati hau bukatzeko, laburki aztertuko dugu tresnen gaia, ekimenen jarraipena edo euskal erakundeetan emaile-hartzaile eskema tradizionaletik apartatzen diren lankidetzarako harreman berriak sortzeko gaitasuna analizatuz, besteak beste.

Zentzu horretan, halako inkoherentzia bat aurkitzen dugu plangintza-dokumentuen diskurtsoen –solidaritatezko harreman sendoak eraikitzeko gai den lankidetzeta eraldatzaile baten premia planteatuz– eta bideraturiko tresnen artean, batzuetan helburu horietarako desegokiak baitira. Horren adibiderik garbiena, lankidetzeta-interbentzioak egiteko erabiltzen diren diru-laguntza jakinetako deialdien nagusitasunean ikus daiteke, abian jarritako beste edozein tresnekin alderatzen badugu. Euskal garapenerako lankidetzeta publikoaren hasieratik etengabe gertatu da hau, eta funtsean EAEko erakunde guztiek jarraitu duten eredu bihurtu da¹⁶². Ildo horretatik, 17. grafikoak erakusten du,

¹⁶² Interesgarria da gogoratzea hasieran diru-laguntza horiei ematen zitzaien izaera, GGKEentzako *sariak* balira bezala, GGKEen analisi oro alde batera utziz, alde zurretik definituriko estrategia bati erantzuten dion lankidetzeta publikoko politika baten atal gisa. Hala, Eusko Jaurlaritzak 1996an argitaratu zuen memoria batean adierazten zen, beste batzuen artean, “95eko ekitaldian gobernuz kanpoko 96 erakunde izan ziren beren ardurengatik diru-laguntza batekin sarituak izan zirenak.”

aztertutako aldi osoan, urteroko diru-laguntzen deialdien bidez finantzatu-tako jarduerak izan direla nagusiak, bi urtetik beherako iraupen aurreikusia-rekin. Hitzarmenak bigarren tresna dira aurrekontuen garrantziari dagokio-nez, bitartekoek gauzatu dituzten jarduerak direlarik (zeharkakoak), baina ez dira deialdi ireki batetik pasatzen. Urte anitzeko deialdiak, bi urtetik lau ur-terako iraupena dutenak, geroz eta gehiago sartuz joan dira hainbat erakun-deren bidez, eta oraindik ere garrantzi gutxiago badute ere, denborarekin nolabaiteko garrantzia irabazten doaz. Azkenik, zuzeneko lankidetzak gisa sailkatutako jarduerak, administrazioak berak burututakoak dira, bai EAEan Garapenerako Hezkuntzaren kasuan, bai tokiko bazkide batekin kolabora-zioan beste herrialde batzuetan, baina GGKEen edo beste lankidetzak-eragile batzuen bitartekaritzarik gabe, eta iraupen desberdina izan dezakete.



Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeek emandako datuetan oinarriturik egina.

Diru-laguntzen urteroko deialdiak EAEko erakundeen lankidetzaren funtsezko tresna izan dira, beraien bitartez aztertutako funts guztien ia % 85 kudeatu direlarik. Hitzarmenen kasuan, berriz, deialdien antzekoak diren epeak aurkitzen ditugu. Zuhurtzarren osagaia eta negoziazio-aukera handiagoa kontuan hartuz, badaude hainbat hitzarmen denboran zehar mantendu direnak, baina beti ere oso epe laburrean berritzen direnak. Kontsultatu diren iturri batzuek administrazio-auzien eragina aipatzen dute garrantzi handiagoko interbentzioetan aurrera egiteko, bereziki legegintzal-di baten bukaera-aldietan, nahiz eta praktikan ez direla beste aukera batzuk aztertu ikus daitekeen, jardueren etorkizun luzeago bati begira.

Bestalde, zaila da horrek guztiak kontrapartearen arteko harremanen sendotzean duen eragina egiaztatzea. Jada aipatu den bezala, euskal erakunde kopuru txiki batek kontzentratzen ditu funts eta jarduerarik gehienak, beraz, nolabaiteko jarraipenaz hitz egin genezake funtsak bideratzen dituzten erakundeei dagokienez. Gauza bera gertatzen da, lehen esan den bezala, eskualde eta herrialde hartzaileekin. Hala ere, zailagoa da egiaztatzea jarraipen hori bera tokiko bazkideei dagokienez ere gertatzen ote den, puntu honen interesagatik ere. Urteetan zehar jarraipen kasu ugari ikus badaitezke ere, zeinetan EAEko erakundeek ondoz ondoko diru-laguntzak ematen dizkieten Euskal Herriko GGKE berberei kontraparte edo tokiko kide berberekin lan egiteko, tokiko erakundeen erregistrorik ez dagoelarik eta dauzkagun datu eskasek ez dute emaitza biribilak ematen eta, are gutxiago azter genezake harreman horien bilakaera. Nolanahi ere, agerikoa da funtzionatzeko modu honek, zeinak epe laburrerako ikuspegi bat duen edo, onenean ere, proiektu kateatuen loturaren inguruan egituratzen den, ez dela hoberena garatu nahi den lan motarako, eta eragile inplikatuak etengabeko ziurgabetasunean lan egitera behartzen ditu¹⁶³.

Bestalde, interbentzio gehienak GGKEen bidez finantzatzeko GGKEen finantza-bitartekotzan oinarritzen den eredia planteatzen du, gai ezberdinetan espezializaturiko erakundearen arteko elkarrekiko lankidetzaren harreman egonkorra gauzatzea mugatuz. Horrek gizarteko beste erakunde batzuentzako guneak gehiago zabaltzea eskatuko luke, horretarako egoiak diren tresnen sorreraren bidez.

Gogoeta-ildo berean kokatzen da senidetzeek udalen lankidetzaren politikan duten eragin eskas samarra, nahiz eta edukiz betez eta tokiko gizarte osora zabalduz gero, udalerrien artean aldebiko harreman ugari sor ditzakeen tresna bat izan. Lan honetan aztertu diren udalerrien kasuan (hiru hiriburu-takoak), SEADean izenpetutakoez gain¹⁶⁴, Gasteizko Udalak senidetzeak edota lankidetzaren harreman jarraituak bideratu ditu Cogo (Ekuatore Ginea) eta Nejapa (El Salvador) udalerriekin. Azken honetan gainera, El Salvadorreko beste udalerririk batzuentzat erreferentzia izan diren hainbat jarduerak egin dira. Bilboren kasuan, nabarmentzekoa da Medellín hiriarekin egindako senidetzea, zeinarekin hainbat elkarlan burutu diren. Eta, Donostiari

¹⁶³ Nolanahi ere, kontuan hartu behar da elementu malguxeagoak sartu direla progresiboki, adibidez, urteanitzeko deialdiak, baina oraindik nahiko sistema berria da, eta horregatik ez da aldi gutzirako datu erantsietan behar adina islatzen (erreferentzia gisa, 2008an urteanitzeko deialdiak funtsen % 13,76 ziren).

¹⁶⁴ Senidetze hauek sinbolikoak dira gehienbat; izan ere, Tindufeko errefuxiatu-esparruak banatuta dauden erakunde administratiboekin egiten dira, eta ezin dira beraz, zentzu hertsian, elkarrenganako lankidetzaren egonkor bat sortzeko aukerak dituzten udalerrien arteko senidetze gisa hartu.

dagokionez, Saharako kanpamentuetako Bojadorreko dairarekin izenpe-
tutako senidetze goiztiarra azpimarra daiteke, EAEn egindako senidetzeen
artean ezaugarri horiek dituen lehengoa, 1988an.

Gogoeta orokorrak

Atal honen inguruko gogoeta orokor gisa, esan genezake EAEko erakundeek
aztertutako aldiaren bultzatu dituzten interbentzioak bat datozela, zehaztasun
handi samarrez, plangintza-dokumentuetan planteatu zen ereduarekin, zeina
lan honen lehenengo atalean aztertu baitzen.

Zentzu honetan, bai helmuga-herrialdeak bai interbentzio-sektoreak, edo
delako politika gauzatzeko aukeratutako eragileak, planteaturiko helburu
gehienen eta abian jarritako ereduaren ildo berean kokatzen dira. Diru-la-
guntzen deialdiek beste tresna batzuen aurrean duten erabateko lehentasu-
na ere, bat dator GGKEek politikaren protagonista nagusi bezala egindako
apustuarekin, nahiz eta kontraesanetan dagoen dokumentu gehienetan
defendatzen den lankidetzak eraldatzaileago batekin, zeina epe ertaineko
estrategiak proposatzean eta elkarlanerako harreman egonkor eta elkarren-
ganakoak eratzean oinarritzen den.

Hala ere, eta egia den arren badela oinarritzko akordio bat plangintza-do-
kumentuetan proposatutako ereduaren eta politika burutzeko moduen
artean, azken urteotan eredu hori argitasun handiagoz hasi da bere mugak
erakusten. Muga horiek argitaratu diren hainbat lanetan ikus daitezke, eta
egindako elkarrizketa batzuetan ere berretsi ahal izan dugu.

Aipatu beharra dago interbentzio-eredua bere mugak erakusten hasi dela lan-
kidetzak-harreman desberdinei bidea emateko, jarraituagoak eta horizontala-
goak izan daitezke, plan zuzentzaileetan eta bestelako plangintza-dokumen-
tuetan defendatzen diren printzipioekin eta helburu nagusiekin bat eginez.
Hala ere, badirudi tresna berriak abian jartzeko eta eragile berriak gehitzeko
bidea ez dela ia emaitzak ematen ari. Alde batetik, gizarte-eragile askoren
debateak eta kezkek nazioartean gero eta gehiago zabaltzea (gizarte-mugi-
menduak, erakunde profesionalak, unibertsitateak, sindikatuak...) ez dator
bat batzuetan eragile horiek bere garapenerako lankidetzak-programetan eta
proiektuetan parte hartzean erakusten duten interes eskasarekin, oraindik
ere askotan GGKEena bakarrik den esparrutzat hartzen delarik.

Bestalde, GGKEen aldetik, hainbestearinokoa izan da kasu batzuetan (be-
reziki erakunde aktiboenen kasuan), antolamenduaren garapena eta funtzio-
namenduaren inertzia, non zaila gertatzen baita gogoeta egitea ereduaren

mugei eta lankidetzaren gizarteratzeko eta eragile kopuru geroz eta handiagoa gehitzeko beharri buruz, batzuetan errezelo- eta mesfidantza-elementua izateraino iristen delarik. Honen inguruan azpimarratu behar da erakunde batzuek hainbesteko protagonismoa eskuratu dutela, non administrazio publiko batzuek baino garrantzi handiagoa eskuratu baitute, kudeatu diren funtsen kopurua aintzat hartzen badugu¹⁶⁵.

Baina honek guztiak hainbat mehatxu planteatzen ditu sistemaren beraren biziraupenerako. Alde batetik, euskal GGKEek erakundearen funtsetik duten geroz eta menpekotasun handiagoari dagozkion mehatxuak daude, bereziki gaur egungoa bezalako testuinguru batean, zeinaren ezaugarri nagusiak administrazio batzuen finantza-zailtasun larriak baitira. Eta, honen ondorioz, GGKEek berek duten geroz eta behar handiagoa politikaren agenda markatzeko. Horrek inertzia batzuek finka ditzake, eta oztopoa izan daiteke lankidetzaren zereginetan eragile eta gizatalde berriak sartzeko.

Azkenik, zuzeneko lankidetzari dagokionez, eman diren aurrerapauso eskasek adieraz lezakete, 5.1. atalean azaldu den bezala, egoera batzuetan, lankidetzarako baliabide tekniko eta giza-baliabide gutxi dituzten hainbat erakundeek lasaiturik ikus dezaketela eginkizun batzuek GGKEek bezalako beste erakunde batzuen esku uztea. Eta hori, aldi berean, desitxuratzeko elementu bat izango litzateke, beste norabide batzuek esploratzeko eta haiekin aurrera egiteko aukerari dagokionez.

5.4. Politikaren koordinazioa eta osagarritasuna

Atal honetan lankidetzaren politikaren osagarritasuna eta koordinazioaren auzia nola planteatu den praktikan aztertuko dugu. Lan honen lehen atalean jada aipatu zen bezala, diseinuaren azterketa oso gutxi landu izan da; plangintza-dokumentuek eta plan zuzentzaileek hainbat printzipio orokor finkatu zituzten gai honen inguruan eta hainbat koordinazio-organoren definitu zituzten, baina ez zen ia ezertan gauzatu. Politikaren diseinuari emandako garrantzi eskasarekin bat eginez, politika horien aplikazioak ez ditu ekarpen bereziki garrantzitsuak egin gai honi dagokionez.

Esperientzia partekatuen urritasuna eta ahulezia orokorra

Ahultasuna da garapenerako euskal lankidetzaren ezaugarri nagusia, ahaleginen osagarritasunari eta erakunde batzuen eta besteen artean partekatutako

¹⁶⁵ Antzeko zerbait gertatzen da giza taldeekin. GGKE handi samar batek hainbat udal eta aldundik batera baino langile tekniko kualifikatu gehiago izan ditzake.

esperientziei dagokienez. Izan ere, garapenerako lankidetzak publikoko ia bi hamarkada hauetan zehar, oso bakanak izan dira EAEn instituzioen arteko elkarlan-praktikak eta haien arteko osagarritasuna bilatzeko saioak.

FOCADaren sorkuntza izan zen planteatu zen erakundeen arteko lehenengo lankidetzak-saioetako bat, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien lankidetzak-ahaleginak elkartzeko gai izango zen formula gisa. Hala ere, praktikan, funtsak aldundietatik Eusko Jaurlaritzara gehitzera mugatu zen aipatu dugun elkarlana, aldundiek uko egiten ziotelarik gai honen inguruko protagonismo orori, koordinazio-organoan leku bat izateaz haraindi. Logikoki, halako ezaugarriak dituen lankidetzak-eredu batek, behar bezalako oinarririk gabe, ezin izan zituen aldaketa politikoak jasan, eta poliki-poliki desegin zen indar politiko desberdinak boterera iritsi ahala, bai Eusko Jaurlaritzan lankidetzak arduratzen zen sailera, bai aldundietako batzuetara.

Denboraren poderioz, berpiztu egin zen aldundien arteko elkarlana, hiru aldundiek batera egin zuten eta 2009 eta 2011 urteen artean indarrean egon zen Plan Zuzentzailean agertu zelarik. Hala ere, aldaketa politikoek berriro ere hondatu zuten lankidetzak, bigarren plan zuzentzaile bat egiteari uko eginez eta lehenengoa ebaluatzeko adostasun batera iritsi gabe ere. Dena dela, elkarlan hau desegiteko azkartasunak eta erraztasunak, berriro ere adierazten dute lortutako konpromisoak zuen sendotasun eskasa, eta adostutako ideia baten benetako gabezia gobernu-taldeetako aldaketak gaindituko zituen garapenerako lankidetzak-eredu bati buruz.

Esperientzia txar horiez haratago, erakunde batzuen eta besteen praktikak urte guzti hauetan zehar, gai horien inguruko kezka eskasa adierazten du. Horren adibiderik deigarrienetako bat izan da ez dela ekimen zehatzik izan bi hamarkada baino gehiagoan prozedurak antolatu, informazioa partekatu edo baterako datu-baseak sortzera bideraturik. Honek guztiak kalte handia egin die lankidetzak-eragileei eta, modu orokorragoan, garapenerako euskal lankidetzaren sendotasunari eta kalitateari. Gabezia hori ez dator bat zentzu horretan duela urte asko egin izan diren aldarrikapenekin, bai hainbat lan eta azterketetan, bai GGKEetatik bertatik.

Azkenik, lehenago jada aipatu dugun Lankidetzaren Euskal Agentziaren sorrera-prozesua aipatu beharra dago, prozesu horrek EAeko erakundeen lankidetzak-politikaren antolakuntzan eta prozeduren eta informazio-sistemen antolakuntzan aurrera egiteko irudikatu ahal izan duen galdutako aukeraren berri emanez.

Jardunbide arrakastatsu batzuk

Hala ere, eta koordinazio-mekanismorik egon ez den arren –2009-2011 aldian aldundien artean egon zen aipaturiko elkarlanaz haraindi–, hainbat erakunderen artean baterako lana edo nolabaiteko osagarritasun maila adierazi duten hainbat ekimen nabarmen daitezke. Lehenik eta behin, bere jardunbide luzea eta erakundeen arteko partaidetzaren bidez sustatutako ekimenen kopuru handia kontuan hartuz, *Euskal Fondoa* aipatu beharra dago; izan ere, lan honetan erakundea bera aztertu ez bada ere, hainbat jarduera eta proiektu burutu ditu, zeinetan aztertu ditugun zazpi erakundeetako batzuek parte hartu duten.

Lehenago jada aipatu den bezala, euskal erakunde eta tokiko entitateetatik gauzatzen diren nazioarteko garapenerako lankidetzeta-ekimenak sustatzea, babestea eta koordinatzea da *Euskal Fondoaren* helburu nagusia. Horretarako, osatzen duten erakundeek egiten dituzten ekarpenez baliatzen saiatzen da jarduera mota ezberdinak burutzeko. *Euskal Fondoak* erabiltzen dituen irizpideetako baten arabera, tokiko erakundeek ez dituzte deialdi propioak egin behar garapenerako lankidetzeta-proiektuetarako, baldin eta 30.000 euro baino gutxiagoko zuzkidura badute. Horren trukean, beren zuzeneko partaidetza sustatzen dute hainbat udalek babesten dituzten proiektu eta interbentzio zabalagoetan.

Praktikan, *Euskal Fondoaren* lana oso proiektu desberdinetan gauzatu da, eta gehienbat bost herrialdetan gauzatu dira (Guatemala, El Salvador, Kuba, Nikaragua eta Mendebaldeko Sahara). Proiektu horietan Fondoko kide diren EAEko hainbat udalek parte hartu dute era mankomunatuan. Interbentzio hauetako gehienak oinarritzko azpiegituretan, tokiko zerbitzuetan edo tokiko erakundeen indartzean kontzentratzen dira, eta bikaintasunez erakusten du nolako emaitzak izan ditzakeen bai udalen zuzeneko inplikazioak, beren balibide teknikoaren bidez, bai erakundeen arteko koordinazioak berak.

Koordinazioaren bigarren adibide bat Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean dauden elkarlan-hitzarmenek agertzen dutena da, zeinek espezializazio- eta osagarritasun-elementuak gehitzen dituzten (Larrialdietarako Laguntza, GG.EE eta beste batzuk). Elementu horiek ekarpen garrantzitsua egiten diote euskal erakundeen egoerari, garapenerako lankidetzari dagokionez. Garapen Bidean dauden Herrialdeentzako Larrialdietarako Arabar Funtsaren kasuak (FAE) 1,5 milioi euro baino gehiago mobilizatzeke aukera eman zuen 2005 eta 2010 artean, 26 interbentzio babesteko 17 herrialdetan urte horietan zehar, GGKEen edo nazioarteko Agentzien

bidez burutu zirenak. Funts horrek ekarpen publiko zein pribatuak izan ditu¹⁶⁶.

Azkenik, beharrezkoa da hainbat erakundek burututako praktika jakin batzuk aipatzea ere, alor honetan aurrerapauso garrantzitsuak ekarri dituztenak. Antioquian (Kolonbia) egindako lanaren kasua da hau, non Bilboko Udalak, Bizkaiko Aldundiak eta BBKak parte hartzen duten; bai erakunde publikoen arteko elkarlanaren, bai itun publiko-pribatu baten esperientzia berri zaile baten adibidea da hau, Aurrezki Kutxen nolakotasun juridiko berezia gogoan harturik ere. SEADaren kasuan ere, hainbat lankidetzak-ahalegin egin izan dira eta hiru hiriburuetakoa udalek hainbat baterako jarduerak eta interbentzio garatu dituzte. Alor honetan bertan, *Euskal Fondoak* zuzentzen duen Sahararentzako Koordinazio Unitatea aipatu behar da, zeinak informazioa jasotzen duen eta hainbat erakunde barnean hartzen dituen, Fondoko kide izan edo ez.

Aurreikusitako koordinazio-organoen funtzionamendua

Erakundeen arteko lankidetzak praktikan planteatu den moduari buruzko analisisian, alderdi jakin bat aztertu beharra dago, laburki bada ere, Legean edo plan zuzentzaileetan helburu horretarako espezifikoki aurreikusitako organoen funtzionamenduari dagokiona.

Lehenik eta behin, eta Eusko Jaurlaritzak Autonomia Erkidegoa baino goragoko organoetan duen partaidetzari dagokionez, azpimarratu behar da Lurraldeen arteko Kontseiluaren alorrean ez dela partaidetzarik egon funtzionatzen aritu den lehen urteetan¹⁶⁷, eta Eusko Jaurlaritzaren azken aldira baino ez dela agertu.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak ere ez zuen parte hartu lehenengo topaketetan, zeinak 2008. urteaz gero *Autonomia Erkidegoak eta Garapenerako Lankidetzak* izenpean egin izan diren eta lankidetzaren politika autonomikoen hainbat alderdi eztabaidatu eta koordinatzeko balio izan duten. Hala ere, 2010. urteaz gero partaidetzak hori modu aktiboan burutu da, Bizkaiko Portugalete herria 2012ko martxoan egindako V. Topaketaren egoitza izateraino.

¹⁶⁶ Gasteizko udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Vital Kutxak funtsa sortu bazuten ere, AMVISA bezalako beste erakunde batzuek edo Elburgo eta Aguraineko Udalek ere hainbat kopururen ekarpena egin dute aztertutako aldira zehar.

¹⁶⁷ Garapenerako Lankidetzaren Lurralde arteko Batzordea 1998ko Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak Legean aurreikusita zegoen, nahiz eta 2000. urtera arte ez zen sortu (urtarrilaren 14ko 22/2000 Errege Dekretua). Plan zuzentzaileak egiteko debategian parte hartzea, jarduerak koordinatzea edo lankidetzan egiten diren interbentzioen baterako datu-baseen sorkuntza sustatzea nabarmentzen dira bere funtzio nagusien artean.

EAEko Erakunde arteko Batzordeari dagokionez, zeina 2007ko Lankidetzeta Legearen babesean sortu zen, jardunbide eskasa izan du, eta, horregatik, zaila da egindako lanaren norainokoa baloratzea. Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzailearen ebaluazio-txostenak berak (2008-2011), Erakunde arteko Batzordeari eskainitako atalean, zailtasun hori azpimarratzen du, Kontseiluaren sorkuntzak eragile gehien artean (Lankidetzaren Euskal Agentzia, 2011) itxaropen positiboak eragin dituela planteatzen badu ere. Hala ere, elkarrizketatu ahal izan ditugun erakundeetako arduradun gehienek uste dute aipaturiko batzordea ez dela oso eraginkorra euskal erakundeen lankidetzeta-politikaren antolakuntza handiago bat sustatzeari begira. Nolanahi ere, aipatu dugun Eusko Jaurlaritzaren bigarren Plan Zuzentzailearen ebaluazio-txostenak azpimarratzen duen bezala, eragileek ez dute batzorde horren funtzionamendua ezagutzen, eta horrek, gure iritziz, biziki eragiten dio hainbestetan aipatu den erakunde batzuen eta besteen lankidetzeta-politikaren koordinazio handiago baten premiari buruzko eztabaiden gardentasunari.

Dena dela, eta aipaturiko Erakunde arteko Batzordearen funtzionamendu formalaz haratago, aipatu dugun Lankidetzeta Legeak xedapen gehigarri bat planteatu zuen EAEko erakunde publikoen arteko elkarlan eta koordinazio handiago bat antolatzeari begira, erakunde publikoek kudeatutako funtsen kudeaketa eraginkorragoa lortzeko. Hala ere, jasotako iritzi gehienek azpimarratzen dute norabide honetan egin diren aurrerapausoak oso gutxi izan direla.

Gogoeta orokorrak

EAEko erakundeek urte hauetan zehar lankidetzeta- eta osagarritasun-gaiekin aurrerapausoak lortzeari begira egindako ahalegin eskasak dira politiken aplikazioaren hutsune handienetako bat; izan ere, plangintza-dokumentu guztietan lankidetzeta-printzipioa eskatzen zen jarraitu beharreko estrategiaren inspiratzaile gisa. Gainera, aldundien arteko elkarlan-prozesuaren bukaera, zeina 2009-2011ko baterako Plan Zuzentzailean zehazten zen, albiste txar bat izateaz gain, erakundeen arteko koordinazioari eskainitako balio eskasaren seinale da, behintzat Araba eta Gipuzkoaren aldetik, Bizkaiaren asmoa hasitako elkarlanarekin jarraitzea baitzen.

Koordinazioaren auzian abian jarritako jarduera eskasa ezin da ulertu lankidetzaren alorra gainditzen duten eta denok ezagutzen ditugun faktore politikoak alde batera utzita. Baina, aldi berean, eskasia hau lotua dago administrazio batzuek lankidetzeta-politikan duten inplikazio txikiarekin eta lankidetzeta hori deialdien bidez kudeatzearen alde egiten duten apustuarekin ere. Eraba-

ki estrategiko horren eraginez, diseinaturiko politika koordinatzeari buruzko kezka bigarren mailako auzia bihurtzen da batzuetan; izan ere, azken batean, beste erakunde batzuek bideratzen dituzte jarduera gehienak. Testuinguru honetan, administrazioek elkarlan-guneak sortzea, baremoen bitartez lehen-tasuna ematea edo herrialde-planak bezalako tresnak erabiltzea bultzatzen da. Hala ere, horiek guztiak erakundeen arteko zuzeneko elkarlanak eta koordinazioa konpentsa dezaketen mekanismoak dira, baina ez dituzte ordezkatzen. Jada esan den bezala, 2007ko Lankidetzak Legea, zentzu horretan, aukera galdu bat izan zen koordinazio eraginkor bat sustatzeko, benetako inflexio-puntu bat izan zitekeelarik erakundeen arteko antolakuntzan.

Aldez aurretik esandakoaren ildotik jarraituz, ikus daiteke zuzeneko lankidetzaren eskutik gertatu direla koordinazio-gaietan egin diren aurrerapausorik garrantzitsuenak, bai *Euskal Funderoaren* bidez bai hainbat esperientzia jakin abian jarritik, zeinetan erakunde batzuen partaidetza eraginkorrak go-goeta egitera behartu duen sinergie eta ahaleginen osagarritasunari buruz.

Azkenik, eta hainbat legetan aurreikusten diren koordinazio-organoei dagokienez, esan daiteke euskal lankidetzak publikoan utzi duen arrastoa ia hutsa izan dela. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak ez du ia lankidetzaren lurraldeen arteko Kontseiluan parte hartu. Eta EAEko bertako lurraldeen arteko Kontseiluari dagokionez, izan duen jardunbide eskasak eta hari buruz informazio publikorik ez egoteak ez du balorazio bat egiteko aukerarik eman.

5.5. Informazioko eta parte-hartze publikoko kanalen funtzionamendua

Azken atal honetan aztertzen da EAEko erakunde batzuek eta besteek nola lagundu duten informazioa gizartean zabaltzen eta gizarteak lankidetzapolitikaren inguruko orientazioan, eztabaidan eta kontrolean parte hartzen. Lankidetzaren ebaluaziorako garrantzi handia duen auzia da hau, hainbat irizpide aipagarri gogoan hartuz, adibidez, gardentasuna edo partaidetza. Horretarako, lehenik eta behin informazio publikoko tresnen auziari ekingo diogu, bigarrenik, gizarte-eragileek diseinuan, jarraipenean eta lankidetzapolitiken ebaluazioan duten parte-hartzea bideratzeko aurreikusita dauden mekanismoen funtzionamendua aztertzeko.

Gizartea informatzeko tresnak

Oro har, gardentasunaren eta informazio publikoaren inguruko kezkak ez du lehen-tasuneko arretarik jaso EAEko erakunde gehienek aldetik, lehenengo

urteetan behintzat. Denboraren poderioz, egoera hau hobetuz joan zen, eta gaur egun aipatu diren erakunde guztiek informazioa ematen dute beren web-orrien bidez, oso modu desberdinean bada ere. Hau, neurri batean, plan zuzentzaileetan gai hauen inguruan egiten den aurreikuspen eskasaren ondorioa da. Gai hau Diseinuaren atalean aipatu da jada.

Eusko Jaurlaritzak hainbat bilketa-lan argitaratu zituen 90eko hamarkadan, paperezko formatuan, geroago jarraipenik izan ez zutenak. Ondoren, une jakin batean diru-laguntzak jasotzen zituzten toki eta entitateek finantzaturako jardueri buruzko informazioa gehitu zen Jaurlaritzaren web-orrian, baina hau ere jarraipenik gabeko jarduera izan zen, mantendu ez zena. Hala ere, azken urteotan onartutako proiektuen zerrenda bat argitaratu izan da. Bestalde, 2008an Lankidetzaren Zuzendaritzak 2002 eta 2007 urteen artean burututako jardueren memoria zabal bat argitaratu zuen eta, duela gutxi, Lankidetzaren Euskal Agentziak 2011 urteari dagokion beste bat argitaratu zuen.

Aldundien kasuan ere ez da urteko memoriarik argitaratu, nahiz eta batzuetan erakustaldi publikoak egin diren burutu diren interbentzioei buruzko informazioa eskainiz hiritarrei. Bestalde, duela gutxi arte oso zaila zen onartutako proiektuei buruzko informazioa sarbidea izatea; horretarako, beharrezkoa zen zegokion lurralde historikoko Aldizkari Ofizialera jotzea. Eta, duela oso denbora gutxi, Bizkaiko eta Arabako Aldundiek aurrerapauso handia egin dute norabide horretan, eta beren web-orrietan proiektuei buruzko informazioa duen proiektuen kokatze-sistema batera sar liteke. Bizkaiko Aldundiaren kasuan sistema hori 2001etik aurrera gauzatu diren proiektuetarako dago eskuragarri (kokatze geografikorako mapak barne). Arabakoak, berriz, azken hiru urteei dagokien informazioa eskaintzen du, azken urteari dagozkion mapak bakarrik erakutsiz. Gipuzkoari dagokionez, gaur egun web-orriak Aldizkari Ofizialei dagozkien PDFak jasotzen ditu, zeinetan onartutako proiektuen berri ematen baita.

Zeregin hauetara hurbiltzeko prozesuan aldeak badaude ere, udalak dira zalantzarik gabe gaur egun beren lankidetzaren politikari buruz informazio gehien ematen duten erakundeak, ia kasu guztietan informazioa gehituz planei, araudiei, proiektuen emate-erabakiei, ebaluazio-txostenei edo Lankidetzaren Kontseiluen bileretako aktei buruz.

Ondoko koadroan ikus daiteke erakunde hauetako bakoitzak auzi honi nola ekiten dion eta nola gizarteratzen duen informazioa –azken hau informazioaren eta komunikazioaren hedapen-prozesuen batura gisa ulertuz–, dokumentu motak, edukiak eta erabilitako tresnak aintzakotzat hartuz.

20. koadroa: Informazioaren sozializazio-tipologiak, erakundeen arabera (zabalkunde eta komunikazio) (*)						
Informazioaren sozializazioa						
Zabalkunde						
	Dokumentuak	Formatua	Edukiak		Tresnak	Komunikazioa
			Eguneratuak?	Osatuak?		
	Mota					
Eusko Jaurlaritza (Lankidetzaren Euskal Agentzia)	Plan Zuzentzailea. Plan Zuzentzailearen elaborazioa. Herrialde-estrategiak. Dekretuak. Urteko memoria. Urteko urterako estatistika-memoria. Gaikako argitalpenak. Lankidetzaren kontseiluari buruzko informazioa. Lankidetzaren legeak.	pdf pdf pdf pdf pdf pdf, papera HTML pdf	bai	ez	Web orria. EHAA. Argitalpenak Profila. Facebooken Profila Twitterren. Espazioa eta bideoteka Irekian.	Profila Facebooken. Profila Twitterren.
Arabako Aldundia	Plan Zuzentzailea. Dekretuak, deialdiak. Finantzatutako jardueren zerrenda. Finantzatutako jardueren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko informazioa.	pdf, papera pdf HTML HTML	bai	ez	Web-orria ALHAO Informazio geografikoaren sistema Argazki Galeria	Bat ere ez.
Bizkaiko Aldundia	Plan Zuzentzailea. Dekretuak, deialdiak. Jardueren zerrenda. Deialdiak. Finantzaturiko jardueren buruzko azalpenen edukiak.	pdf, papera pdf HTML pdf, HTML pdf	bai	ez	Web-orria. BAO. Informazio geografikoaren sistema.	Bat ere ez.
Gipuzkoako Aldundia	Plan Zuzentzailea. Dekretuak, deialdiak. Proiektuen finantzazioari buruzko ebazpenak. Heziketa jardueren buruzko informazioa.	pdf, papera pdf pdf ppt, doc	bai	ez	Web-orria. GAO.	Bat ere ez.

Informazioaren sozializazioa						
Jarraipena	Zabalkundea			Komunikazioa		
	Dokumentuak	Formato	Edukiak		Tresnak	
			Actualizados	Completo		
	Tipo					
Bilboko Udala	Plan Zuzentzaileak. PZen laburpenak. PZen Ebaluazioak. Urtetik urterako memoria. Urteko memoriak. Memorien laburpenak. Ebaluazio-txostenak. Txostenen laburpenak. Deialdien arauak. Lankidetzeta Kontseiluari buruzko informazioa. Jardueren zerrenda.	pdf HTML pdf pdf pdf HTML pdf pdf pdf HTML, pdf HTML	bai	bai	Web-orria. Argitalpenak.	Bat ere ez.
Donostiako Udala	Tokiko Plana. Urteko Plan Eragilea. Deialdien arauak. Deialdien ebazpenak. Hitzarmenak. Hitzarmenak eta programak. Jardueret eta GSeEari buruzko informazioa.	pdf pdf pdf pdf pdf pdf, HTML pdf, HTML	bai	ez	Web-orria. Gaikako web-orria. Argitalpenak. Bideo-galeria. Profila Facebooken Profila Twitterren. Vimeoko profila.	Iradokizun-ontzia. Profila Facebooken. Profila. Twitterren. Vimeoko profila.
Gasteizko Udala	Plan Zuzentzaileak. Pzen eranskinak (azterlanak). Urteko memoriak. Urtetik urterako laburpena. Ebaluazio-txostenak. Deialdien arauak. AFako jardueren zerrenda. Lankidetzeta Kontseiluari buruzko informazioa.	pdf pdf pdf pdf pdf pdf HTML	bai	ez	Web-orria. Argitalpenak.	Bat ere ez.

(*) Lehenago ere azpimarratu den bezala, 2012ko apirila baino lehenagokoak dira erakundeetako web-orrietan egindako azken sarbideak. Iturria: Egileen elaborazioa, erakundeen web-orrien analisisian oinarriturik egina.

Ikusten den bezala, alde batzuk ikusten dira emandako informazioan, eta alde horiek eragina dute bai argitaratzen denaren edukian, bai argitaratze-ko moduan.

Erakundeen web-orrietan kontzentratuz, zeinak erakunde guztiek erabiltzen dituzten zabalkunde-tresna nagusiak baitira, ondorengo gaiak nabarmendu daitezke oro har:

- Web guztiak 1.0 dira (irakurketa hutsekoak)¹⁶⁸. Aztertutako erakunde batek berak ez du bere web-orriaren bidezko bi noranzkoko komunikaziorako aukerarik ematen, eta ez du eztabaidarako eta kontsultarako gunerik erantsen ere, foroak edo blogak bezalakoak adibidez.
- Aztertutako web-orrien artean batek ere ez du intranet korporatibo baterako sarbiderik. Aipatu diren intranet horiek daudelako argibiderik ere ez dago, zeinen bidez langile ebaluatzaileek (bai barnekoek bai kanpokoek) aukera izango bailukete barematu edo ebaluatu beharreko jarduerekin loturiko dokumentuetara sarbidea izateko eta ebaluazioen berri emateko.
- Web-orriek dituzten tresnak eskasak dira: eragile gutxik baliatzen dute Informazio Geografikoko Sistema eta baliatzen dutenek oso oinarritzko tresnak erabiltzen dituzte. Eragile batek ere ez du jarduera-bilatzailerik bere web-orrian.
- Aztertutako web guztiek dute eskuragarritasun-ziurtagiriren bat. Hala eta guztiz ere, praktikan, finantzatutako jardueren inguruko edukiek eskuraz ezin samarrak izaten jarraitzen dute kasu batzuetan.

Informazioa zabaltzeko erabiltzen diren dokumentuei dagokienez, aniztasuna ikus daiteke kopuruari eta motei dagokienez: dokumentu arau-emaileak soilik (plan zuzentzailea, dekretuak) erabiltzen dituzten eta gainontzeko gaiak buruzko informazio eskasa ematen duten erakundetatik hasita, dokumentu ugari eta era askokoak eskaintzen dituzten beste erakunde batzuetaraino, non informazioa zatikatuegia ere agertzen baita, batzuetan eskatzen denaren bilaketa eragotziz. Dokumentuei eta beren formatuei dagokienez, ondorengo auziak nabarmendu daitezke:

¹⁶⁸ Web 1.0 irakurketarako bakarrik balio duten web-orriak izendatzeko erabiltzen den izena da. Orri hauek ez diote erabiltzaileari orrialdeko edukiarekin jokatzeko aukera ematen (iruzkinak egin, galderak, artxi-boak igo eta abar). Gaur egungo joera Web 2.0etara jotzea da, erabiltzaileen partaidetzarako aukera ematen baitute.

- Gehien erabiltzen den formatua pdf-a da¹⁶⁹, batzuetan baita diru-laguntzak eskatzeko inprimakietan ere, zeinak formatu honetan bakarrik eskura baitaitezke. Horrek asko zailtzen du inprimakiak osatzeko eta bideratzeko zeregina, jada lehenagoko atal batean aipatu dugun bezala. Gai honez haraindi, esan daiteke informazioa formatu irekietan ematen ez denez, erabiltzaileek ezin dituztela dokumentuak aukeratzeko duten formatuan deskargatu.
- Erakunde batzuk duela gutxi hasi dira memorien eta beste dokumentuen laburpenak egiten eta web-orrian eduki gisa HTML formatuan sartzen. Beste batzuek, ordea, ez dituzte dokumentuak erabiltzaileei egokitzen, eta dokumentu doktrinalak eskegitzera mugatzen dira, batzuetan oso luzeak, zeinak pertsona espezializatuagoentzako bakarrik baitira erabilgarriak, baina erabiltzaileei oro har zuzendutako beste dokumentu sinpleago batzuekin batera joatea eskatzen baitute.

Zabaldutako informazioaren edukiei dagokienez, esan daiteke kasu gehienetan eguneratu egiten direla eta eskuragarri samarrak direla. Hala ere, batzuetan ez daude osatuak, bereziki aurreko aldietan finantzatu diren jardueren bilakaerari buruzko informazioari dagokionez (plan zuzentzaileek eta antzeko dokumentuek gehitzen dituzten laburpenak izan ezik).

Eusko Jaurlaritzaren kasuarentzat izan ezik, ez dago egiaztaturiko daturik informaziorako eta zabalkunde publikorako tresnei buruz lankidetzarako gizarte-erakundeek duten pertzepzioaz. Kalidadeak egindako Eusko Jaurlaritzaren bigarren Plan Zuzentzailearen ebaluazio-txostenak (2008-2011) gai honen inguruan adierazten zuen erakundeen % 80en ustez Lankidetzeta Zuzendaritzak burututako komunikazio-politika eskasa zela, kontuan hartuz gainera IKTen erabilerak, zabalkunde- eta gizarteratze-elementu gisa, 10etik 4,97ko nota eskuratzen zutela.

Informazioaren zabalkundeaz haratago, zabalkunde horrek parte-hartzearekin duen harremanean zuzenean eragiten duten bi alderdi aipatu behar dira. Hurrengo atalean arituko gara gai honen inguruan. Bi alderdi hauek lankidetzan egindako interbentzioei buruzko datu-base eskuragarrien faltaren eta komunikazio-tresnen hutsune ia erabatekoaren ingurukoak dira.

Bi gai hauetan lehenengoa arazo larria da administrazio finantzatzaileetako kideak ez diren pertsonak edo erakundeek egin nahi dituzten ikerketa- eta

¹⁶⁹ Pdf formatua inprimatuak izango diren dokumentuetarako dago bereziki pentsatua; izan ere, dokumentuaren azken aurkezpenetarako beharrezkoa den informazio guztia zehazten du, nola geratuko den xehetasunez erakutsiz, aldeaz aurreko doikuntza- edo maketazio-prozesuen beharrik gabe.

analisi-zeregin guztietarako (adibidez, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, aholkularitzak edo pertsona partikularrak), eta horrek asko zailtzen du txostenak elaboratzea, analisi kritikoak egitea edo alternatibak aurkeztea¹⁷⁰. Bestalde, muga horri erantsi behar zaizkio EAEko erakundeek erabiltzen dituzten kategorien artean inolako adostasunik ez izateak dakartzan eragozpenak, eta horrek, datu-base eskuragarri horiek egongo balira ere, bideraezina egingo luke baterako trataera¹⁷¹.

Azkenik, aipatu dugun bigarren gaiak, komunikazio-mekanismoak ia ez egotearenak, galdera asko planteatzen ditu EAEko erakundeek partaidetzaren erronka beren gain hartzen duten moduari buruz, ondorengo atalean aipatuko ditugun Kontseiluez eta beste ordezkari-organismo formalez haraindi. Gauza da, jada aipatu den bezala, web-orri guztiak 1.0 direla, eta horrek galarazi egiten du web-orrien bidezko bi noranzkoko komunikazioa. Eta beste tresna batzuei dagokienez, Donostiako Udalak eta duela gutxi Eusko Jaurlaritzak¹⁷² bakarrik egin dute aurrera auzi honetan, aurreko koadroan ikus daitekeen bezala. Oro har, sare sozialen erabilera oso eskasa da oraindik.

Partaidetza-mekanismoak

Azkenik, azken atal honetan, politiken aplikazioaren analisiari ekingo diogu, plangintza-dokumentuetan aurreikusitako partaidetza-mekanismo formalen funtzionamendua aztertuz bereziki, era berean helburu honetarako erabili diren beste tresna batzuei buruzko gogoetaren bat gehituz.

EAEaen esparruan, Lankidetzak Kontseiluak aldi desberdinak igaro ditu. Lehenengo aldia Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Kontseiluari dagokiona da, zeinak 1998tik 2008ra arte iraun baitzuen. Lehenago jada aipatu ditugu bere osaketari eta funtzioei buruz bere momentuan planteatu

¹⁷⁰ Beste AAE batzuetan badago aukera hori. Adibidez, Galiziako Xuntako Lankidetzak bere web-orriaren bidez datu-base batera sarbidea izateko aukera ematen du, eta bertan egindako interbentzio guztien informazioa lor daiteke urteka, sektoreka, herrialdeka, eragileka eta abar.

¹⁷¹ Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, Gipuzkoako lankidetzari buruzko 2008ko azterlanean, arazo honen berri ere ematen zuen, honako hau azpimarratuz: “*Gomendagarria izango litzateke erakunde guztiek baterako datu-bilketarako sistema homogeenoa eta argi bat osatzea, lankidetzarekin loturiko era guztietako gastuak Programa Funtzional batean kontabilizatuz*” (Laborra eta Rodríguez, 2009).

¹⁷² *Irekiaren baitan* –Internet bidezko hiritarren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko komunikazio-kanala (<http://www.irekia.euskadi.net/es/pages/2902>)– gune bat dauka Lankidetzaren Euskal Agentziak, orain arte oso gutxitan erabili izan bada ere.

ziren hainbat analisi kritiko. Aipatu dugun Kontseiluak egin zuen lanari dagokionez, jasotako iritziz desberdinek adierazten dute noizbehinkako funtzionamendua izan zuela, bere araudian agertzen duen aldizkakotasuna bete gabe. Horren ondorioz, ez zuen jarraipenik izan, laguntza ere irregularra izan zen, eta batez ere oso partaidetza eskasa izan zuen kideetako batzuei dagokienez. Eta burututako lanari dagokionez, berriz, esan daiteke ez zela bat etorri agindu ziren zereginekin, askotan Eusko Jaurlaritzaren eta GGKEen arteko gai jakinei buruzko eztabaida-gune bihurtuz, gogoeta estrategikoaren edo egindako lanaren analisiaren inguruan ia ahaleginik batere egin gabe. Hainbat iturrik adierazi duten bezala, dinamika honek eragina izan zuen agian Kontseiluak bere gainontzeko kideak eztabaidetan integratzeko zuen gaitasun eskasean, zeinek deserosotasunaren eta axolagabetasun arteko jarrera batekin behatzen zioten egoerari (Alboan, 2007).

Bigarren aldia Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari dagokion da, zeina 2008an sortu baitzen 2007ko Lankidetzeta Legeak aurreikusitakoaren arabera. Kontseilu berri hau 2010etik dago abian eta hainbat ohar egin dira bere lanari eta osaketari dagokionez, bere behin-behinekotasunetik hasita; izan ere, eragileen erregistroari buruzko dekretuak –zeinaren menpe dagoen formalki bere kideetako batzuen aukera– aldarrikatu gabe jarraitzen du¹⁷³. Aipatu beharreko beste gai bat bada, Plan Zuzentzailearen (2008-2011) ebaluazioaren arabera, Kontseiluaren baitan garapenerako hezkuntza sendotzeko planteatu zen helburua ez dela bete (Lankidetzaren Euskal Agentzia, 2011). Bestalde, analisi batzuek adierazten dute Kontseilua nabarmen dela informatzailea, gogoeta eta analisi sakonago baten kaltetan¹⁷⁴. Beste informazio batzuek, ordea, azpimarratzen dute azkenaldi

¹⁷³ 2007ko Lankidetzeta Legearen 10-5 artikuluan aurreikusitakoarekin bat eginez, eragileen erregistroko araubide juridikoa dekretu bidez arautu behar da, eta baita erakundeek bete behar dituzten formalitateak eta eskakizunak ere bertan erregistratzeko. Legea onartu eta bost urte geroago aipaturiko dekretuak aldarrikatu gabe jarraitzen duelarik, Lankidetzeta Kontseiluak bere sorrera-dekretuan aurreikusitako xedapen iragankorrean oinarriturik jarraitzen du. Horren ondorioz, GGKEen Koordinakundearen kide ez diren gizarte-erakundeei gordetako lekuak modu arraro samarrean bete dira, ez baita horretarako prozedura publiko jakinik izan, non parte hartu ahal izango luketen aipaturiko xedapen iragankorrean aurreikusitako erregistroetan izena emanda dauden erakunde mota ezberdinek.

¹⁷⁴ Honi dagokionez, bigarren Plan Zuzentzaileko ebaluazio-txostenak (2008-2011) azpimarratzen du *“Kontseiluak, orain arte, kontsulta- eta informazio-izaera nabaria izan du, eta batzorde iraunkorra da landu beharreko gaiak zehazten dituen. Garapenerako Lankidetzeta Zuzendaritzaren alde-tik, asmoa eta interesa ikusten dira Kontseilua eta bere Batzordeak eraginkortasun eta parte-bartze bandiako batez hornitzeko, gogoetara eta debatera bideraturik”*, aurrerago honako hau adieraziz: *“Eragileek esparru honetako parte hartzeari buruz egiten duten balorazioa positiboa da bere osaketari eta asistentziari dagokionez. Balorazio negatiboak erakundearen eraginkortasun eskasa, bere izaera informatiboa, orain arteko lorpen bakanak edo bileren maiztasuna bezalako gaietarantz bideratzen dira”*.

honetan alderdi estrategikoenei buruzko eztabaida areagotu egin dela eta funtzionamendu dinamikoago eta parte hartzaileagoa lortu dela, zeregin horretan Kontseilu Iraunkorrek lagundu duenak. Nolanahi ere dela, eta erakundeetako hainbat ordezkari adierazi duten bezala, Kontseilua Eusko Jaurlaritzaren lankidetzan kontzentratua dago espezifikoki eta ez euskal lankidetzan oro har, eragozpen gisa nabarmenduz hiru hiriburuetako udalak ez egotea bertan. Azkenik, Kontseiluaren jarduerari eta aktei buruzko informazio publikoaren eskasia nabarmendu beharra dago, gardentasunari eta debateen gizarteratzeari dagozkien auzien inguruko kezka eskasa erakusten baitute.

Diseinuaren atalean jada azaldu den bezala, foru-aldundiek beren politika-dokumentuetan ez dute inolako aurreikuspen espezifikorik egin lankidetzak-eragileen parte-hartzea bideratzera orientatuak dauden organoei buruz, eta, hala, organo horiek ez dira existitzen¹⁷⁵. Eta udalei dagokienez, Gasteizen Kontseiluak nahiko modu iraunkorrean funtzionatu du 1999tik, eta kontsulta-organo gisa ulertzen da funtsean. Kontseiluaren jardunbideak bere izaera informatiboa gailendu dela adierazten du, bertan azaldu dituelarik xehetasunez udalak burutzen dituen programak eta jarduerak edo onartu nahi dituen hitzarmenak. Esperientzia apur bat mugatu horretatik abiatuz, Plan Zuzentzaileak berak (2010-2013) gai honen inguruko gogoeta egiten zuen, Kontseiluaren izaera proposamen-egilea areagotzeko premia aipatuz, eta prestakuntza-esparru gisa erabiltzea –non erakundeek esperientziak aurkeztu ahal izango lituzketen– eta hegoaldearekiko topaketa-eta harreman-leku gisa ere ulertzeko beharra iradokiz. Bere aldetik, 2009an Gasteizko GGKEen inguruan egindako ikerlan batek (García eta Sabalza, 2009), hainbat gogoeta interesgarri planteatzen ditu, alde batzuk azpimarratuz: batetik, Udaleko Lankidetzak Zerbitzuaren eta GGKEen arteko lan-harremanak daude –edo eraginkorragoak–; GGKEen ustez harreman hauek oso onak dira oro har. Bestetik, Lankidetzak Kontseiluaren baitan sortzen diren harremanetan, elkarrizketa ez da hain arina eta eraikitzailea. Azken gai honek aipatu den Kontseiluaren ikerketa eta txostenetan jasotako gogoeta estrategiko batzuen inguruko desadostasunekin du zerikusia, genero-ikuspegia edo sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza bezalako gaien

¹⁷⁵ Hala eta guztiz ere, Arabako Foru Aldundiaren web-orrian hauxe aipatzen da: *“Inplikaturiko eragileekin batera egindako lana: Araban ezarritako GGKEak eta Euskadi-Araba GGKE Koordinakundea”*, azpimarratuz *“Arabako Aldundiak aldizkako bileren sistemarekin lortu nahi duen helburua da guztien intereseko gaiak ekitea, balako eran non lankidetzak-politika gardena izango den eta iristen erraza inplikaturik dauden eragileentzat”*.

inguruan¹⁷⁶. Bere aldetik, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak 2007an egindako txostenak bere funtzionamenduaren eta bere kideek jokatu duten paperaren balantze bat egiteko premia planteatzen zuen (Rodríguez, 2007).

Bilboren kasuan, Kontseilu Betearazlea izan da gehienbat pisua eraman duena; Kontseiluaren biltzarrek, ordea, izaera gehienbat informatzailea izan dute, parteen artean dauden desberdintasunak agerian utzi dituzten hainbat eztabaida burutu badira ere bertan. Bestalde, Kontseiluak ez ditu Bilboko hirirako lankidetzeta-proiektzioarekin zerikusia duten bere funtzioetako batzuk bete, edo ez behar zen mailan, bere kideetako batzuen iritziz. Auzi interesgarria da, bai Bilboko Kontseiluaren kasuan, bai lehenago aipatu dugun Gasteizko Kontseiluarenean, bileretako aktak eskuragarri daudela udal bakoitzari dagokion web-orrian, eta horrek Kontseiluaren baitan sortzen diren debatei buruz informatuak egoteko aukera ematen die lankidetzeta-eragileei.

Azkenik, Donostiako Udaleko Lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntzaren Kontseilua da ebaluazio sakonago bat jaso duena. Ebaluazioa Euskadiko GGKEen Koordinakundeak egin du, bere kideen artean egindako kontsulta baten bidez. Ebaluazio horretan hainbat gai interesgarri aipatzen dira, inkesta egin den erakunde gehienek Kontseiluaren funtzionamenduari buruz adierazten duten poztasun erlatiboa nabarmentzen dutelarik, funtzio gehienek betetzeari, bileren aldizkakotasunari edo planteaturiko proposamenak aintzakotzat hartzeari buruzko balorazioan islatzen dena. Hala ere, deigarria da Kontseilua, benetan informatzeko baino gehiago, kontsultarako edo gogoeta egiteko ote den, gai horretan ikusten den adostasun falta argia. Beste kontseilu batzuen funtzionamenduari buruz jaso ditugun beste iritzietan ere sumatu dugun desadostasuna da, zeinak batzordeek bete beharreko eginkizunari edo “informatzaile” eta “kontsultarako” hitzen erabilerari berari buruzko nolabaiteko irizpide-diferentzia adieraz bailezake. Azkenik, gehiengoaren partaidetza eskasari eta erakunde batzuen gehiegizko protagonismoari dagokiona da GGKEek Donostiako Kontseiluari buruz egindako ebaluazioaren beste datu nabarmengarri bat.

Kontseiluek ordezkaritza-organo formal gisa duen funtzionamenduaz haratago, beste harreman-mekanismo batzuk aipatu behar dira, azken ur-

¹⁷⁶ García eta Sabalzaren ikerketak, aipatutako txostenen hainbat baieztapenen inguruan GGKEek duten zuhurtzia aipatzen du txosten horiek GGKEen hainbat praktika zalantzan jartzen dituztenean, “nolabaiteko jarrera korporatibista” baten erreferentzia eginez, “non ideien eta gogoeten transmisioa gailentzen den koordinakundearen aldetik, zeinak GGKE kopuru handia biltzen duen, abots bakarrarekin, desadostasunik edo ñabardurarik gabe” (García eta Sabalza, 2009).

teotan paper garrantzitsu bat izan dutenak erakunde publikoen eta gizarte-eragileen artean. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, kontsultarako mekanismo informal hauek era argi goan aktibatu diren une batzuk izan dira, politiken elaborazioarekin edota politikak abian jartzearekin lotuak. 2001. urtea momentu garrantzitsua izan zen honi dagokionez; izan ere, lehenago jada azaldu den bezala, Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzak Zuzendaritzak ordura arte jarraitutako jardunbidearen indargune eta ahulguneei buruzko diagnostiko bat hastea erabaki zuen. Hainbat hilabetetan zehar, topaketak eta bilerak egin ziren J. A. Alonsok zuzentzen zuen kontsultatzaile taldearen eta gizarte eragile desberdin askoren artean; haien artean, GGKEez gain, EAEko unibertsitateetako ordezkariak, gizarte-mugimendu eta gizarte-erakundeetakoak, udaletakoak eta enpresaren eta lankidetzaren mundukoak zeuden, eta haien iritziak egindako diagnostikoari gehitu zitzaizkion.

Geroago, plan zuzentzaileak diseinatzeko, hainbat elkarrizketa- eta komunikazio-mekanismo ezarri ziren gizarte-erakundeekin ere (elkarrizketak, bilerak, alegazioak...), nahiz eta kasu horretan GGKEei eta beren koordinazio-organoei zuzenduak zeuden¹⁷⁷. Aurrerago ere, programen ezarpenaren kasuetan bezala, iradokizunak jaso dira eta GGKEekin elkarrizketa mantendu da, zeina modu ezberdinean baloratua izan den (eskasa GGKEentzat, egokia Gobernuarentzat). Bestalde, plan eta tresna handietan eragina duten kasu aipagarrienez haraindi, Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzak Zuzendaritzak harreman arin samarra mantendu du GGKEekin eta baita Unibertsitatea bezalako beste eragile batzuekin ere. Azkenik, Herrialde Estrategien formulazioan eta gauzatzean, bertan presentzia duten euskal erakunde instituzionaleri eta sozialei parte hartzeko burutu diren deialdi espezifikoak aipatu behar dira. Aldundiek ere, beren lehen plan zuzentzailearen elaborazioa zela-eta, GGKEei prozesua zabaldu zieten, hauen ekarpenak jasotzeko bilerak eta kanalak mantenduz, nahiz eta GGKEen balorazioaren arabera partaidetza eskasa izan zen, aipatutako erakundeetako arduradunek uste zutenaren aurka. Bestalde, beste gizarte-eragileei ez zitzaien prozesu hau zabaldu.

Gogoeta orokorrak

EAEko erakunde publikoek garapenerako lankidetzaren inguruan burututako interbentzioei buruzko informazio publikoko mekanismoen inguruko

¹⁷⁷ Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaileak berak (2008-2011) horren berri ematen du, honako hau azpimarratuz: “Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzak Zuzendaritzak gertaera garrantzitsu guztien gogoeta eta eztabaida egin du (planak, estrategiak, dekretuak, deialdiak) GGKEekin, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen bidez”.

balorazio orokorrak alderdi argiak eta ilunak ditu. Alde batetik, aitortu beharra dago azken bi urteotan aurrerapauso handiak eman direla tresna batzuen erabilerari dagokionez –web-orriak esate baterako– bultzatzen diren proiektu eta jardueren berri emateko xedeaz, nahiz eta argitaratzen den informazioaren kopurua eta kalitatea oso ezberdina izan, zer erakunde den.

Bestalde, eta proiektuei buruzko informazioaz haraindi, problematikoa gertatzen da gai batzuk erakundeen informazio-tresna gehienetan ez agertzea. Burututako proiektuen ebaluazioez ari gara gehienbat –zeinak Bilbo eta Gasteizko kasuetan baino ez dauden eskuragarri– eta Lankidetzeta Kontseiluen aktez –hauek ere udal hauen web-orrietan bakarrik eskuragarri daudenak–. Bi kasuotan, berebiziko garrantzia duten gaiak dira politiken gardentasuna ziurtatze aldera, eta, hortaz, gai horiek ez agertzeak arazoak dakartza.

Komunikazioari dagokionez, eskuragarri dauden tresnak ez dira lagungarriak, eta, oro har, gutxitxo erabiltzen dira IKTek gai honen inguruan eskaintzen dituzten aukerak. Hala ere, oharpen honek ezin du ezkutatu erakunde batzuek lan egiteko duten tresna falta, eta horrek nabarmen mugatzen ditu sare sozialen edo beste mekanismo batzuen bidez komunikazio-kanalak irekiak mantentzeko aukerak. Hala eta guztiz ere, leku handia dago aipatu ditugun tresnen erabileran hobekuntzarako eta, bereziki, tresnen koordinazio eta homogeneizaziorako.

Lankidetzeta Kontseiluen zuzeneko partaidetza-mekanismoei dagokienez, azpimarratu beharra dago, aldundien kasuan izan ezik, mekanismo horiek badaudela eta normaltasunez funtzionatzen dutela. Baina hala eta guztiz ere, egin beharreko zereginak betetzeko dagoen zailtasuna egiaztatzea da agian garrantzitsuena, zeregin horiek, oro har, zabalegiak izaten baitira behar bezala bideratzeko dauden benetako posibilitateentzat. Agian horregatik, kontseilu batzuetan lehentasuna eman zaie auzi informatibo eta puntualei, estrategia-eztabaiden eta epe ertaineko gaien gainetik.

Azkenik, eta Lankidetzaren Euskal Kontseiluan kontzentraturaz, jasotako informazioek eta burututako analisiek hainbat disfuntzio erakusten dituzte, hiriburuetako udalak Kontseilu horretan ez egotearekin lotura espezifikoak dutenak, udaletan gogoeta estrategikoaren maila altua den arren. Arazo hori bereziki nabaria egiten da Kontseiluak Erakunde arteko Batzordean ere ez duelako ordezkartzarik. Baina, kontuan hartuz Erakundeen Arteko Kontseiluak bi maila ezberdin dituela –teknikoa eta politikoa–, eta Kontseilua, itxuraz, gogoeta eta eztabaida estrategikorako organo nagusi gisa finkatzen ari dela, bi organo hauen papera berriz planteatu liteke, ber-

tan hiru hiriburuetakoko udalak sartzeko formularen bat bilatuz¹⁷⁸, eta formula funtzional eta praktikoren bat ezarriz zereginak banatzeko. Zentzu horretan, koordinazioaren, baterakoak eta bateragarriak diren informazio-sistemen elaborazioaren, prozeduren harmonizazioaren edo ebaluazioaren esparruan egiteke dauden erronka handiak Erakunde arteko Batzordearen arreta-gunea izan litezke, Kontseiluarentzat –praktikan gertatzen ari den bezala, antza denez– lankidetzaren orientazio estrategikoari buruzko eztabaidara eta gogoetara bideratuagoa dagoen paper bat gordez.


Nolanahi ere, eta jada aipatu den bezala, Kontseiluen bileretan izan diren debateen publizitaterik ez egotea –Bilboko kasuan izan ezik– konponbide azkarra duen arazo bat da.

¹⁷⁸ Gainera, ezaugarri horiek dituen formula batek aukera emango luke EUDEL eta Euskal Fondoko ordezkariak EAEko gainontzeko udalen ordezkariak zehazkiago burutzeko.



6. kapitulua.

Ikerlanaren ondorio nagusiak



Azken kapitulu honetan egindako azterlanetik ateratzen diren ondorio garrantzitsuenetako batzuk azaltzen dira, ondorio hauek laburbiltzen baitituzte ongien, gure iritziz, euskal lankidetzaren publikoaren lehen 25 urteetako indarguneak eta ahulguneak, eta baita egin dituen ekarpenak eta izan dituen mugak ere.

Interes handiko baina aldi berean konplexutasun handiko gai batean murgildu garelakoan iristen gara lan honen bukaerara, non ezer ez den zuria ala beltza, eta galderak ziurtasunak baino askoz ere ugariagoak diren. Hala eta guztiz ere, alderdi batzuen inguruan nahiko froga dagoela egiaztatu dugu, alderdi horiek ondoriozko elementu gisa planteatu ahal izateko. Beste kasu batzuetan, dauden informazio hutsuneez eta ikerketan zehar aurkitu ditugun mugek jarrera zuhurragoa hartzera behartzen gaituzte, hainbat gogoeta egin ditugun arren jaso ditugun iritzi kualifikatuen eta lehenago egindako beste lan batzuen ildo beretik.

Testuan zehar, EAEko erakundearen lankidetzaren politiken diseinuari eta aplikazioari buruz lortutako informazio guztia ordenatzen eta sistematizatzen saiatu gara. Uste dugu lagun gaitzakeela horrek burututako jardunbidearen eta poliki-poliki osatuz joan den errealitatearen –errealitate konplexu eta kontraesankorraren– analisi hobea egiten. Zentzu honetan, eskuragarri dagoen informazio guztia era ordenatuan eskaintzea izan da gure asmoa, irakurle bakoitzak gero bere ondorioak atera ditzan. Hala ere, uste dugu konplexutasun horrek ezin dituela ezkutatu euskal lankidetzaren publikoa denbora honetan guztian zehar izan dituen ezaugarri nabarmen batzuk. Gai horiek, nolabait ere, atal bakoitzaren bukaeran egindako balorazioetan aipatu dira eta orain, lanaren azken atal honetan, bateraturik aurkezten dira, gure iritziz berebiziko garrantzia dutenak nabarmenduz. Dena dela, ikertaldeak jasotako informazio guztian oinarrituz egindako analisisien azken emaitza dira jarraian aurkezten diren gogoetak.

1. Euskal garapenerako lankidetzaren garrantzia eta etorkizuneko erronkei baldintza hobeetan aurre egiteko aukera emango duen analisi kritiko baten premia

Nahitaezkoa da EAEko erakunde publikoek garapenerako lankidetzaren alorrean egin duten lanaren garrantzia nabarmenduz hastea, bai egin diren finantza-ekarpenengatik, bai bultzatu diren interbentzioen zabalatasun eta kopuru handiagatik. Ahalegin honen guztiaren garrantzia ulertzeko, nahikoa da esatea, 25 urteotan, aztertu ditugun zazpi erakundeek bakarrik, 850 milioi euro baino gehiago eman dituztela, 9.000 jarduera inguru finantzatzeko balio

izan dutenak (proiektuak, programak, sentsibilizazio-ekintzak, laguntza humanitariorako interbentzioak...), garapenerako lankidetzaren esparruaren baitan. Esan daiteke euskal lankidetzak publikoa aitzindaria izan dela gai honi dagokionez, eta denboran zehar beti egon dela autonomia- eta toki-administrazioen ahalegin solidarioaren buruan.

Denbora honetan guztian zehar, euskal lankidetzak aldi ezberdinak igaro ditu, eta garapenerako lankidetzaren, bere orientazioaren eta bere eraginkortasunaren hobekuntzaren inguruan egon diren eztabaida guztietan murgilduta egon da. Pasa den mendeko laurogeiko hamarkadako erasoaldi neoliberalaren goraldian bete-betean sortua izanik, euskal lankidetzak lekuak izan da lankidetzaren etorkizunari inguruko ziurgabetasunean eta 90eko hamarkadaren hasieran *laguntzaren nekearen* aipamenetan; po-breziaren eta garapenaren inguruko kezketara itzuli zen geroago, 1995eko Kopenhageko Bileratik aurrera; mende berriaren hasierarekin planteatu ziren Milurtekoaren Helburuei buruzko eztabaidetan egon da; edota Paris, Accra eta Busango goi-bileretan islatu ziren lankidetzaren kalitateari buruzko kezketan. Gaztea izan arren, urte hauetan zehar euskal lankidetzak dinamismo nabaria eta etengabeko kezka erakutsi ditu nazioarteko mailan sortuz zihoazen proposamen berriei egokitzeari dagokionez. Bide luze honetan, bai euskal GGKEek –zeinen papera funtsezkoa izan den prozesu osoan zehar–, bai erakundeetako lantalde teknikoek –estutasun eta baliabideen eskasia-egoeretan askotan– beren gain hartu dute lankidetzak-politika egunetik egunera hobetzeko lana.

Hala ere, egindako ahaleginaren eta abian jarritako lanaren aitorpenak ez dio garrantzirik kentzen –alderantziz baizik– aldi honen irakurketa kritiko bat egiteko premiari, praktikarik positiboak finkatzen lagun dezaketen alderdiak identifikatu ahal izateko, eta hain positiboak ez direnak ondo bideratzen saiatzeko, lankidetzak-politiken kalitatea hobetzen ahalegintzeko helburuarekin. Harrokeria inoiz ez bada ere bidelagun ona, are gutxiago da garapenerako lankidetzak bezain gai konplexu, zalantzarik eta aldakorraz ari garenean. Are garrantzitsuagoa da hori gaur egungo egoeran, non lankidetzak berriro ere ezohiko indarrez zalantzan jartzen den, Europako zati handi bateko administrazioak zigortzen dituen finantza-krisi garrantzitsuen ondorioz, gure gertueneko inguruan berebiziko eragina duelarik autonomia-erkidegoetan, aldundietan eta udaletan.

Bi hamarkada eta erdi hauetan euskal lankidetzak publikoak itxaropen handiak eragin ditu, bai lankidetzara bideratu diren funtsen kalitateagatik, bai azken urteotan zehar egindako gogoeta eta elaborazio doktrinalaren

mailagatik. Erakunde publikoek lankidetzara bideratutako elkarte-sarea sendotzen lagundu dute, eta sare hori erabakigarria izan da diseinatu den politikaren zati handi bat aurrera eramateko eta gure gizartean nazioarteko solidaritatearen sugarra pizturik mantentzeko. Hala ere, gaur egungo egoeran arduragabea izango litzateke kontuan ez hartzea denbora honetan zehar egon den funtsen hazkunde handia ikaragarri murrizteko posibilitatearen mehatxua¹⁷⁹, erakundeek murrizketa-bide bati ekingo baliote, Gasteizko Udalak egin duen bezala, hain zuzen ere orain arte euskal lankidetzaren aitzindari nagusizat hartzen zenak. Horregatik, beharrezkoa da urte hauetan zehar lankidetzaren munduan gertatu diren aldaketen garrantziari buruzko gogoeta egitea eta beharrezko ikasbideak ateratzea datozen erronkei baldintza hobeekin aurre egin ahal izateko.

Gauza da 1987ko eta gaur egungo egoerek ez dutela ia zerikusirik. Munduaren ikuspegia erabat aldatu da 25 urteotan. Garai hartako arazo handietako batzuek –pobrezia, desberdintasuna, desnutrizioa, genero-desberdintasuna– hortxe jarraitzen dute, eta ehunka edo mila milioika pertsonentzako mehatxu garrantzitsuak dira, intentsitatea edo profilak aldatu badira ere. Beste arazo batzuek (hala nola, ingurumenaren hondamena, giza eskubideen egoera edo krisi humanitarioa) okerrera egin dutela dirudi. Nazioarteko ekonomiak bidea eman dio mundu mailako ekonomia bati, eta askoz ere biziagoak bihurtu dira elkarrekiko menpekotasunak. Estatu-nazioen gailentasunak erabatekoa izateari utzi dio, estatupeko eragile-gune publiko eta pribatu berriak ireki direlarik lankidetzan partaidetzarako. Zerrenda amaigabea izango litzateke, baina, benetan garrantzitsua dena, eraldaketa hauen guztien gailentasuna eta euskal lankidetzaren jardunbidea horien arabera aztertzeke premia azpimarratzea da, hauxe baita bide bakarra, etorkizunari indar eta ahalmen handiagoz aurre egiteko aukera emanez, beharrezko aldaketei ekiteko.

2. Euskal garapenerako lankidetzaz sortu zen egoeraren garrantzia eta egoera hark geroagoko orientazioan eta antolakuntzan izan zuen eragina

Garapenerako lankidetzaz Euskadin sortu zen moduak eta lehenengo urteetan izan zuen bilakaerak eragin erabakigarria izan du euskal erakundeek gai honetan sartzeko eta parte hartzeko izan dituzten moduetan. Izan ere, askotan kontatu izan den bezala, hasierak zerikusi handia izan zuen garai hartan Euskal Herrian zeuden GGKE bakanek erakundearen aurrean

¹⁷⁹ Elkarriketaturiko pertsonetako baten batek burbuilaren metafora grafikoa erabili du eraso horri erreferentzia egiteko.

planteatu zituzten eskakizunekin, zeinen adierazpenik ezagunena 80ko hamarkadan milaka sinadura Eusko Jaurlaritzari ematea izan baitzen. GGKEen ekintza ausartaren ondorioz –herritar gehienek sentimendu solidarioak interpretatzen eta irudikatzen jakin zutelarik–, erakundeek, Gobernutik bertatik hasita, positiboki erantzun zioten eskakizun horri. Baina gai honetan ia inolako tradizioz edo alde aurreko esperientzia politikorik ez zegoelarik, EAEko hainbat erakunde publikok –beren adostasuna adierazteaz haraindi–, zailtasunak izan zituzten ardura hau benetan beren gain hartzeko eta euskal garapenerako lankidetzaren orientazioari buruz beren proposamen bereziak planteatzeko.

Zentzu horretan, azpimarratu behar da lankidetzari eskainitako ahaleginak –garai hartan *hirugarren munduari laguntza* deitzen zen– ordura arte nagusiki Eliza Katolikoarekin zerikusia zuten erakundeetara mugatu zirela¹⁸⁰, gaia ez zelarik erakundeen esparrura iritsi. Egoera hartan, non gai honen inguruan inolako praktika politiko-instituzionalik ez baitzegoen, hasieratik hartu ziren GGKEak bidezkoz lankidetzaren jarraibidea markatzeko, erakundeak finantziarioan kontzentratutako bigarren maila batean geratu zirelarik. Bestalde, erakunde gehienek lankidetzarekiko hartu zuten finantza-konpromiso garrantzitsua ez zen ondo ezkontzen gaiaren onarpen politikoren maila berarekin, ezta, aipatu diren funtsen orientazioaren ikuspegiari dagokionez, pareko kezka batekin ere. Eusko Jaurlaritza izan zen hasieran gai honen inguruko salbuespena. Bi urte nolabaiteko zalantzen artean igaro ondoren, non GGKEek berek hartzen zituzten funtsen orientazioari buruzko erabakiak (1988 eta 1989), Jaurlaritzak gidaritza hartu eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzari eta Euskadiren kanpo-proiektioarekin loturiko jardura guztiekin loturiko lankidetzak-estrategia bat planteatzea erabaki zuen, nahiz eta zatirik handiena Jaurlaritzatik kanpora bideratu zen, deialdien eta diru-laguntzen bidez¹⁸¹.

¹⁸⁰ Berez, Eliza Katolikoari loturiko erakundeek egin zuten sinadurak biltzeko ahaleginaren zati garrantzitsu bat, 80ko hamarkadan zehar izaera laikoa zuten beste elkarte batzuk GGKE gisa osatzen hasi baziren ere, Erdialdeko Amerikako aldaketa prozesuen edo Saharako kausaren aldekoak zirenak (Unceta, 2002).

¹⁸¹ Urte horietan bertan osatu zen Emakunde (otsailaren 5eko 2/1988ko Legea), EAEn berdintasun-politika bultzatzeko helburuarekin. Hala ere, kasu honetan planteamendua bestelakoa zen; izan ere, politika horren zuzendaritza eta aplikazioa euskal erakundeen erantzukizuna izan zen, administrazioaren hainbat egituratan zeharkakotasunaren aldeko jarrera argia hartu zuelarik eta egitura horiek politikaren aplikazioan inplikatu zituelarik. Aldeak alde, eta lankidetzaren espezifikotasuna kontuan hartuz –izan ere, politika horren aplikazioak lurraldez kanpoko izaera du funtsean–, uste dugu hasierako bi planteamendu desberdin horiek azaltzen dutela neurri batean gutxiago eztabaidatzea gaur egun berdintasun-politika, garapenerako lankidetzak-politika baino.

Eusko Jaurlaritzak 90eko hamarkadaren hasieran lankidetzaren politikaren zuzendaritza bere gain hartzeko erabaki hura, gai honetako interbentzioen finantziarioa arautzen zuten lehen dekretuen elaborazioan islatu zen, eta baita FOCAD-Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien baterako organoaren sorkuntzan, eta funtsen orientazioaren eta banaketaren ardurarik handiena Kontseilu Kudeatzaileari ematean ere. Ikerlan honen lehen atalean adierazi den bezala, erabaki hura politika-dokumentuetan jasotzen diren hainbat proposamenetan zehaztu zen, zeinek tirabira handiak eragin zituzten gobernuaren eta GGKEen artean gai jakin batzuetan, hala nola euskal elkarteei kanpoan esleitu zitzaizkien paperean edo enpresek lankidetzarako proiektu eta programetan zuten partaidetzan. Hark, gai hauen inguruan abian jarritako praktika txar batzuen ebidentziarekin batera, euskal lankidetzaren ereduaren inguruko eztabaida biziz markaturiko aldi bat eragin zuen. Udalak baino ez ziren eredu horretatik kanpo geratu; izan ere, haiek GGKEekin adostasunera iristearen aldekoagoa zen ildo batean kokatu ziren.

Intentsitate ezberdinez, sokatira hura mende berriaren hasierara arte luzatu zen, halako batean Eusko Jaurlaritzak diagnostiko- eta gogoeta-prozesu bat egitea erabaki baitzuen –eta baita hainbat erakunde eta gizarte-eragilerik kontsulta egitea ere–, euskal garapenerako lankidetzaren egoerari eta etorkizunari buruz. Aitortu zen bezala, adostutako lankidetzaren politika baten oinarria ezartzea zen prozesu haren helburua, eta politika hark bere tankera propioa izango zuen, eta gizarteko erakunde eta organizazio ezberdinak hartuko zituen bere baitan. Aipatu dugun prozesua 2001ean eten bazen ere, gobernu berriaren sarrerarekin, orduz geroztik status quo berri bat eta funtsean GGKEen protagonismoan oinarritzen zen eredu bat hedatzen joan zen¹⁸², zeina 2007an aldarrikatu zen Lankidetzaren Euskal Legeak berretsi zuen azkenik.

Euskal lankidetzaren ereduaren oinarritzeko antolakuntzan eta eragile batzuei eta besteei esleitutako paperean eragina duen egiaztapen honek ordea ez du esan nahi erakundeak eta GGKEak politikaren alderdi guztietan ados egon direnik azken urteotan, lan honen hainbat ataletan jada argi geratu den bezala. Hala ere, Legean adierazten den ereduaren ezaugarriak garrantzitsuenak oso gutxi eztabaidatu diren erreferentzia izan dira. Abian jarritako politiken alderdi batzuek erakutsi dituzten mugek eta administrazio batzuek –bereziki tokikoek– lankidetzaren esparruan ildo berriak esploratzeko eta bide berriak irekitzeko agertu zuten borondateak, zuzeneko

¹⁸² Protagonismo horren garrantzia azaltzeko, jasotako hainbat iritzik GGKEak euskal garapenerako lankidetzaren DNA izan direla adierazi dute.

lankidetzak edo eragile gehiagoren parte-hartzea bultzatuz, azken urteotan baino ez du ereduari buruzko eztabaida berriz mahairatu, lan honetan zehar adierazi dugun bezala.

3. Nazioarteko eztabaida lankidetzari eta euskal erakundeek politiken diseinuari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzko proposamen berriak hartzearen inguruan

Lankidetzak-ereduari eta eragile batzuek eta besteek bete zezaketen pape-rari buruzko hasierako eztabaidez haraindi, EAEko erakundeek urte haue-tan guztietan zehar osatu dituzten politika-dokumentuek ere lankidetzaren kalitateari buruzko nazioarteko eztabaidaren berri eman dute, pixkanaka beste alor batzuetan sorturiko jarraibide asko beretuz. GGKE askoren pro-fesionalizazioarekin eta baita gai honetan espezializatuak dauden unibertsit-ateen sorkuntzarekin edota erakunde batzuetako lankidetzaren kudeaketa-organoetan pertsona adituak sartzearekin batera gertatu zen prozesu hau. Hartan, proiektuen formulazio-teknikak, helburuak edo zehar-lerroak edo Pariseko Adierazpeneko printzipioak beretzea bezalako auziak, nahiko erraz kokatu ziren aztertu ditugun politika-dokumentuetan.

Testuan jada planteatu den bezala, nabarmendu beharra dago zeinen azkar sartu ziren aipaturiko dokumentuetako batzuetan kezka hauetako batzuk, bereziki kontraparteen partaidetzaren edo lankidetzak-politika herrialde-hartzaileen lehentasunei eta planei egokitzeko beharraren ingurukoak. Gaur egungo ikuspegitik begiratzen baditugu, 90eko hamarkadaren hasie-rako Eusko Jaurlaritzaren dekretu batzuk aitzindariak dira, argi eta garbi, Pariseko Adierazpenak geroago Jabetze edo Lerrokatze printzipioak deitu zituenen trataeran. Urte haietako beste kezka goiztiar batzuk (denborare-kin gaurkotasan handia eskuratu zutenak), jarduera integralak planteatzeko beharrari lotuak egon ziren, sakabanatzea gainditu eta eragile eta baliabide mota ezberdinak lankidetzara eraman zitzaizutenak.

Euskal erakundeen kasuan, lankidetzako politikaren etengabeko hobekuntza-eta prestakuntza-prozesu baten atal gisa planteatu da gai honetan nazioarteko jarraibideei egokitzea. Auzi honen lehenengo adierazpena formulazio-, jar-raipen- eta proiektuen ebaluazio-prozesuetan Marko Logikoaren Ikuspe-gia sartzek izan zen¹⁸³, zeina EAEko hainbat administrazioek beretu zuten,

¹⁸³ Hala ere, azken urteotan eztabaida bizia sortu da ikuspegi honen murriztasunari eta planteatzen dituen mugei buruz, garapenaren arazoan eta burutu nahi diren interbentzioen interpretazio errealista eta bateratzaile bat egiteko orduan.

eta GGKEak behartu zituen erakundeek berek sustatu eta babestu zuten prestakuntza-ahalegin handi eta txalogarri bat egitera. Aurrera eginez joan zen hurrengo auzia zehar-lerroen erreferentzia izan zen, bereziki genero-ikuspegiarena, zeinaren trataera oso zabala izan den aztertu ditugun dokumentuetan, bere norainokoaren eta mugen inguruan jada planteatu ditugun balorazioez haraindi. Azkenik, Pariseko Adierazpenean jasotzen diren printzipioei dagokien guztiak isla leiala izan du euskal erakundeek egindako plangintza-dokumentu gehienetan, dokumentu horien aplikazioan erakutsitako koherentzia gorabehera.

Hala bada, oro har esan daiteke ia tira-birarik eragin gabe sartu direla nazioarteko instantziek proposaturiko gai hauek guztiak euskal lankidetzaren dokumentu sailean. Zentzu horretan azpimarra daiteke euskal lankidetzaren aitzindaria izan dela eta gai batzuetan –genero-gaien zeharkakotasunaren inguruko kezkan esate baterako– lankidetzaren deszentralizatu osoaren buruan egon dela. Hala ere, aipatu ditugun kezka horiek ez dira beti tresna eta jarduera-ildoetan egokiro gauzatu, eta horrek haien norainokoa mugatu du. Aurrerago adierazten den bezala, euskal erakundeen politika-dokumentuak oso zorrotzak izan dira hainbat helbururen definizioan eta zeharkako ikuspegiaren aldarrikapenean, baina batzuetan hori ez da bat etorri tresnen sorrerarekin, espazioak irekitzearekin eta sortu diren aukerei erantzuteko beharrezkoa den berrikuntza mailarekin.

4. EAEko erakunde nagusiek burututako plangintza eta garapenerako lankidetzarako euskal politika publiko baten existentziari edo existentziarik ezari buruzko gogoetak

Aurreko ataletan azpimarratu dugunaz haraindi, 25 urte hauetan EAEko hainbat erakunderen lankidetzaren politikak jarraitu duten bideak elkargune gutxi izan ditu. Erakunde bakoitzak bere jardunbidea mantendu du, eta ia ez zaio arretarik eskaini gainontzeko erakundearen politikari, harik eta plan zuzentzaile mota ezberdinak sortu diren arte, batek ere ez zituelarik gainerakoak aintzat hartzen. Abian jarritako koordinazio-mekanismo formalek ez dute ia funtzionatu, eta plangintza-logikek bide dibergenteak jarraitu dituzte. Antolakuntza-ahalegin adierazgarrikerik ere ez da egon, eta muga handia izan da hori egindakoa aztertzeko eta proposamenen balizko elaboraziorako. Testuinguru honetan, ahaleginak bateratzeko edo sinergiak sortzeko egindako deialdiak –dokumentu askotan agertzen direnak–, oro har, asmo-adierazpenak besterik ez dira izan, inolako eduki praktikorik gabe. Eta hori guztia EAE bezalako esparru batean, zeinengandik beste zer-

bait espero zitekeen, duen tamainagatik eta ezaugarriengatik –erakundeen elkar-egagutza eta gertutasuna, elkartze-egituraren trinkotasuna, komunikaziorako erraztasuna, gizarte-errealitatearen ezagutza.

Errealitate hori, ordea, ez dator bat akordiorako eta baliabideak eta proposamenak bateratzeko nolabaiteko asmoa egon denean lortu diren emaitza onekin. Zentzu horretan, adibiderik arrakastatsuenetakoen artean *Euskal Fonda* aipatu behar da, zeinak bere proposamen eta jarduerekin agerian ipini dituen erakundeen arteko lankidetzaren abantailak eta balioa. Baina, era berean, aipagarriak dira Gasteizko Udalaren eta Arabako Aldundiaren arteko koordinazio- eta osagarritasun-hitzarmenak¹⁸⁴, Eusko Jaurlaritzak proposatutako herri-estrategiak egiteko erakunde batzuen arteko elkarlan hasiberria edo hiru aldundiek 2009-2011 aldian baterako Plan Zuzentzailea egiteko hartutako erabakia bera ere. Hala ere, azken hori, aldi berean, aldaketa politiko batzuk eraman ezin izan dituzten zenbait hitzarmenen ahultasunaren adierazle garbia da, eta horrek, funtsean, lankidetzari buruzko benetako ideia partekatu bat ez dagoela islatzen du.

Aurreko guztia ezin da bereizi erakunde batzuek eta besteek lankidetzapolitikak egiteko eta kudeatzeko prestatutako baliabideen urritasunetik, ezta kargu politiko batzuek lankidetzapolitiken inguruan duten interes eskasetik ere, lankidetzak babestu beharreko baina arreta espezifikoko handirik behar ez duen zerbait zela ikusten baitzuten. Horren ondorioz, lankidetzataldeek eta estrategiek indar gutxi izan dute, eta ez dute ia garrantzirik ezta onarpenik ere izan politika mailan, horrek erakunde batzuen eta besteen politikien antolakuntzaren eta integrazioaren bidetik aurrera egiteko aukerak murriztu zituelarik. Hala, lankidetzarako euskal politika integratu edo antolatutik ez egotea izan da honen guztiaren emaitza. Aztertu ditugun dokumentuek ez ezik, abian jarritako tresnek ere horren berri ematen dute, ez baitarudite baterako estrategia bat sustatzeko sortuak. Lankidetzaren Euskal Agentziak aukeratu duen ereduak izan daiteke aipatu dugun honen adibiderik garbiena.

Begiratu orokor bat emanez erakundeek zentzu horretan jarraitu duten jardunbideari, esan dezakegu kointzidentziarik handiena zerbitzuak kanpora ateratzearen aldeko apustua egiteko orduan gertatu dela, esternalizazioaren eredu

¹⁸⁴ Bi hauen eta Vital Kutxa bezalako beste erakunde batzuen artean Larrialdietarako Arabar Funtza sortzeko egindako hitzarmena, EAE bezain txikia den eremu batetik espero daitekeenaren adibide bat da, non larrialdietarako laguntza erakunde bakoitzetik bideratzea, eraginkortasun ezaren adierazle garbia den.

hori GGKEen protagonismoan oinarritzen delarik; horrek, seguru aski, are gehiago murriztu du lankidetzaren eta integrazioaren inguruko kezken esparrua eta finantziarako hainbat *leibatila* irekitzean kontzentratzen den lankidetzaren ideia indartu du, estrategia-dokumentu askotan trataera zabala eman bazaio ere printzipio eta helburu integralagoak definitzeari¹⁸⁵.

Baina agerikoa bada ere ezinezkoa dela, zentzu hertsian, lankidetzarako euskal politika batez hitz egitea, era berean, ez dago argi lankidetzarako hainbat politika publikoren aurrean gaudenik, politika publikoa –beste gauzen artean–, hartzen diren erabakietan eta burutzen diren jardueretan erakundeen inplikazioa funtsezkoa den politika delakoan ulertzen badugu¹⁸⁶. Bestalde, badirudi era honetako ikuspegi baten faltak zerikusia duela batzuetan lankidetzaren laguntza-tresna huts gisa hartu duen pertzepzioarekin, argi zehazturiko interbentzio-logikarik gabe, eta horrek indargabetu eta zaildu egiten du lankidetzaren politika publiko gisa ulertzea.

Aurreko guztiarekin loturik, berebat azpimarratu behar da finkatuz joan den koordinaziorik gabeko ereduak ez dituela kritika asko jaso, eta ez dela bereziki eztabaidaturiko gaia izan denbora honetan guztian. Arazo hau sakontzen duten argitaraturiko hainbat lan salbuesten baditugu, ez erakundeen arteko koordinazio- eta integrazio-faltak, ez datu eta prozeduren antolakuntza eskasak ere, ez dute arreta berezirik merezi izan egin diren eztabaida eta gogoetetan, nahiz eta GGKEen Koordinakundeak, Legea egin aurreko debategian, pausoak eman behar zirela zentzu horretan eskatu zuen, eta, hainbat dokumentutan, datu-bilketarako sistema homogeneoen komenigarritasuna ere planteatu zuen¹⁸⁷.

5. EAEko garapenerako lankidetzarako politikaren diseinuan antzeman den nahastea eta desordena, eta plangintzarako eskema edo jarraibide baten hutsunea

Nazioarteko esparruan sortutako printzipioak eta metodologiak politika-dokumentuetara eransteko prozesu arrakastatsuari buruz 3. puntuan esandakoaren

¹⁸⁵ Elkarrizketatu ditugun lankidetzaren arduradunetako batzuek aitortzen dute GGKEek adierazpenak egin izan dituztela erakundeen baterako politika eskatuz, baina azpimarratzen dute adierazpen horiekin batera politiken aniztasuna mantentzearen aldeko praktikak eta diru-laguntzen deialdiak zeudela.

¹⁸⁶ Politika publiko batek suposatzen duenaren karakterizazio osatuago bat Subirats et al. (2008) lanean ikus daiteke.

¹⁸⁷ Alboan-en (2007) ere hainbat kritika planteatu ziren zentzu honetan.

aldean, oso deigarria gertatzen da nolako nahastea dagoen aztertu ditugun nahiko testuren izaeraz beraz, arau mailaz, aplikazio-eremuaz edo beren printzipioen eta helburuen definizioaz beraz. Zentzu horretan, euskal lankidetzak publikoaren plangintza nahiko nahasgarria da kasurik gehienetan, eta apur bat kaotikoa ere badela esan genezake.

Baina dokumentu desberdinen artean egon daitezkeen kontraesanak –baita kontraesan juridikoak ere– eta gai askoren trataeran gertatzen den gainjartzeaz gainera, beharrezkoa da erakunde bakoitzak gauzak ulertzeko duen modu berezia azpimarratzea, plangintzaren parte izan behar duenaz edo izan behar ez duenaz, eta plan zuzentzaileen, urteko planen, sektore-plantzen, dekretuen, deialdien, diru-laguntzen eta abar eratzen dutenen arteko elementu bereizgarriak direnez. Zentzu horretan, eta erakunde batzuen eta besteen artean dauden eta testuan jada aipatu diren desberdintasunak aitortuz betiere, deigarria da aztertu ditugun hainbat planetan batzuetan politika-helburu batzuk planteatzeko erabili den orokortasun erlatiboa, eta maila gutxiagoko beste dokumentu batzuek berriz –deialdiek esate baterako– politika eratzen duten funtsezko elementuak izatea askotan, baremoen kasuan adibidez¹⁸⁸.

EAEko erakunde nagusien estrategia- eta plangintza-dokumentuak aztertu ostean, esan daiteke ez daudela bi plan zuzentzaile elkarren antza dutenik egiturari, erabiltzen dituzten analisi-kategoriari edo printzipioak, helburuak edo arauak bezalako kontzeptuak ulertzeko moduari berari dagokionez, eta horrek ikaragarri oztopatzen du dokumentu batzuen eta besteen arteko analisia eta konparaketa. Sentsibilizazioarena eta Garapenerako Hezkuntzarena da aurrerago gehiago sakonduko dugun alderdi jakin bat: gai hau, ia dokumentu guztietan, helburu gisa ulertzen da, dokumentu askotan jarduera-esparrutzat hartzen da, planen batean zehar-lerro trataera du eta Gasteizko kasuan Planaren atal bat da –*birian jardutea*–, zeina *lankidetzan jardutea* deitzen den ataletik bereizirik agertzen den.

Planen egitura nahasiak eta kontraesankorrak, eta planetan aditzera ematen diren plangintza-metodologia desberdinek, gogotik oztopatzeaz gainera lankidetzak-politiken analisia eta beren euskarria diren logiken ulermena, bete-betean eragiten diote ebaluazioaren auziari; izan ere, batzuetan, adierazleak berak planteatzen dira jarraitzen diren helburu gisa –helburu

¹⁸⁸ Gipuzkoako kasua aipatuz, Laborra eta Rodríguez (2009) azpimarratzen dute diru-laguntzen deialdien arauak lankidetzak-politikaren funtsezko euskarri doktrinara bihurtu direla momentu batzuetan.

horiek, batzuetan, zehaztasunik gabe definitzen dira–, lorpenen garrantzia baloratzeko aukera ematen duten seinale jakin gisa baino gehiago¹⁸⁹.

Azkenik, EAEko lankidetzaren plangintza-egitura konplexu eta nahasia-
ren ondorioz, erakunde askorentzat oso zaila da planteaturiko erritmoa
jarraitzea eta lankidetzaren eskakizunetara egokitzea, ez finantziazioa
jasotzeko baldintzei dagokienez soilik, baita denbora gutxiro irekitzen
doazen elaborazio- eta kontsulta-prozesu ugarietara dagokienez ere. Horrek
guztiak erakunde indartsuenen eta profesionalizatuenen protagonismoa
dakar, zeinak, azken finean, instituzioekin elkarriketa iraunkorrena man-
tentzen eta plangintza-dinamikei modurik argiengan eragiten dietenak
baitira.

6. Gogoeta teorikoari eskainitako arretaren eta helburu batzuk formulatzearen arteko aldea, eta eragile-, tresna- eta lankidetz- harremani buruzko gogoetan duten proiektzio eskasa

EAEko erakunde nagusien lankidetz-politikaren diseinua eta aplikazioa
aztertu ondoren atera dezakegun beste ondorio bat da, batetik, alderdi teo-
riko eta ideologikoei emandako garrantziaren, eta, bestetik, alderdi opera-
tiboenei eskainitako arretaren artean batzuetan dagoen aldea, azken horiek
jarduera-ildoetan eta hauetan erabil daitezkeen baliabideetan gauzatzen di-
relarik. Zentzu horretan, erakunde batzuetako lankidetzarako zerbitzu edo
sailek eta GGKEen sektore aktiboan bateraturik bultzaturiko proposame-
nek (hainbat plan zuzentzailetan islatzen dira), eragozpenak izaten dituzte
praktikan aurrera egiteko; izan ere, batzuetan ez datoz bat eragileen eta
euskal lankidetz-ereduan dauden harremanen tipologiarekin.

Oro har, azpimarratu egin behar da dokumentu askok egiten duten ahale-
gin aipagarria bere helburuengatik kezkatzen den lankidetz eraldatzaile
beterantz joateko, teknokrazia-joerek lankidetzan duten gero eta presentzia
handiagoaren aurka. Ikuspegi horretatik, azken urteotan egin diren doku-
mentu eta plan gehienek apustu argia egiten dute irismen luzeko lankidetz
bat bultzatzearen alde, pobrezia-kausetara iristeko gai izango dena, eta

¹⁸⁹ Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzaren bigarren Plan Zuzentzailearen ebaluazio-txostenak honako
hau azpimarratzen du: “Planaren egiturak berak, moduluetan, arauetan, azpi-arauetan, indar-ideietan,
adierazleetan zatitua dagoelarik, zaildu egin du azken horien neurketa helburu argietan oinarriturik
egitea. Nolabaiteko nabastea dagoela ikus daiteke arauen, azpi-arauen eta indar-ideien formulazioaren,
batetik, eta, bestetik, adierazlearen beren artean, zeinak, kasu gehienetan, eskuratu beharreko jardue-
rak diren, hainbat lorpenen edo garapen-prozesuen kalitatea neurtzeko eta baloratzeko jarduerak
baino”. Hala eta guztiz ere, txostenak berak adierazten duenez, egindako inkestaren arabera “eragi-
leen % 80ek uste du Plana zuzentasunez diseinatua dagoela” (Lankidetzaren Euskal Agentzia, 2011).

analisiak edo gogoetak ere eginez garapenaren, nazioarteko harremanen edo mundu mailako ekonomiaren alorreko arazoak bilakaerari buruz. Hala ere, lankidetzak benetan konprometitu eta eraldatzaile bat definitzeko asmo hau askotan ez dator bat politikaren alderdi jakin batzuei eskainitako arreta eskasarekin, tresnei, eragileei edo aipatu dugun lankidetzak eraldatzailearen bidea ireki lezaketen lankidetzak-harremanei dagozkien alderdiei adibidez.

Ezaugarri honek, EAEko erakundeek burututako plangintzaren atal handi batean agertzen delarik, hainbat arazo planteatzen ditu. Alde batetik, egia da definizio doktrinal handiago batek lankidetzari eusten dioten printzipioak eta esparrua mugatzen laguntzen duela, baina hainbat dokumentutan definizio hori hainbesteko zehaztasun mailara iristen da, non deserosotasuna eragin baitezake sektore batzuetan. Beste kasu batzuetan, eragile batzuek planteatzen diren eskakizunak betetzeko dituzten zailtasunetan adierazten da arazoa, genero-ikuspegiaren zeharkakotasunari dagokion atalean aipatu den bezala. Zentzu honetan, ager daitezkeen kontraesanak –bai definizioan, bai baremazio-irizpideetan– oso zorrotzak diren helburu batzuen eta burutzeko behar bezala prestatuak –eta batzuetan ezta horiekin behar adina identifikatuak ere– ez dauden baliabideen artean, nolabaiteko frustrazioa eragin dezake, diskurtsoaren eraginkortasun eskasaren aurrean¹⁹⁰.

Aurreko horrek zerikusia du, plan batzuen eta besteen atal doktrinalaren eta atalik operatiboaren artean ikus daitezkeen aldearekin ez ezik, proposatzen diren helburu ugari zabalekin eta diseinaturiko politikak aplikatzeko erabilitako giza baliabide eta baliabide teknikoaren urritasunaren artean da goen kontraesanarekin ere; eta hori, besteak beste, erakunde batzuetan eta besteetan gai honek arduratzen diren taldeen hornikuntza eskasean islatzen da. Nolanahi ere, gogoeta orokor honek ezin ditu ezkutatu gai hauen traktuan erakunde batzuen eta besteen artean dauden aldeak, eta alde horiek eragina dute bai politikaren diseinuaren barne-koherentzian, bai aipatutako diseinuaren eta bere aplikaziorako erabilitako baliabideen arteko koherentzian. Era berean, beharrezkoa da esparru honetan erakunde batzuek egin dituzten aurrerapausoak azpimarratzea, bereziki berdintasunaren auzira pertsona espezializatuak ekartzeari dagokionez.

¹⁹⁰ Horri dagokionez, deigarria da aipatu dugun Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzailearen ebaluazioak honako hau azpimarratzea: *“Kontsultatu ditugun erakundeak ados daude (% 75) plan hau dokumentu ideologizatu edo teorikoa dela esatean, erakunde guztiak agertzen ez diren diskurtso nabarmen batekin (6,15). Antza denez, desfase handia dago marko teorikoaren (bandinabiltzat hartzen da) eta teoriak benetan gauzatzeko dituen aukeren artean”*. Gainera, *“nolabaiteko zailtasuna dagoela”* adierazten da *“Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen gauzatzearen praktikara beltzeko orduan”*. Ibidem. Letra lodiak jatorrizkoarenak dira.

Guztiarekin ere, argi samar ikusten da nahiko joera orokorra dagoela planak proiektu eraldatzaile handi baten adierazpen gisa ulertzeko, proposaturiko aldaketei bidea emateko benetan dituztenak baino bertute eta gaitasun gehiago egotziz agian plan horiei. Eta, aurkako zentzuan, sakontasun guxtiagoko analisi bat ikus daiteke defendatutako printzipioek aurrera egiteko erabil dezaketen bidea planteatzeko orduan, eta hori oso modu berezian islatzen da horretarako behar diren baliabide eta tresnei buruzko eta nazioarteko gizartean gertatu diren aldaketekin duten harremanari diagnostiko eskasetan.

Horregatik guztiagatik, azpimarratu behar da, epe ertainera, nolabaiteko frustrazio-arrisku bat zabaltzeko arriskua dagoela, hainbat dokumentutan planteatu diren helburu handinahietako batzuei ekiteko zailtasunen ondorioz¹⁹¹, ez badira urrats paraleloak egiten tresna berrien, harreman-mekanismo berrien edo partaidetza-forma berrien diseinuan. Lankidetzarako eduki eraldatzaile berri baten premia behin eta berriz azpimarratzeak, gehiago joan behar luke lankidetzaren ulertzeko moduan eta bide eraldatzaile horri ekiteko beharrezkoak diren baliabide eta eragileen identifikazioan gertatu diren berrikuntzen eskutik. Zentzu horretan, ez genuke ondorioztatzea behar GGKEek euskal lankidetzaren sustatzen eta lankidetzaren hori gidatu behar duten printzipio etikoak defendatzen jokatu duten paper guztiz garrantzitsutik, eduki eraldatzailea erakunde horiek lankidetzaren protagonismoa beren gain hartzen duten bakarrak izatearen ondoriozkoa denik, dokumentu batzuetatik eta baita Legetik beretik ere ondoriozta daitekeen bezala.

7. Euskal erakundearen ahalmenari, balio erantsiari eta lankidetzaren politikaren izaerari buruzko gogoeten bakantasuna

Aurreko atalean jada adierazi den bezala, aztertu diren politika-dokumentu gehienetako arazorik nabarmenetako bat da ez dagoela haietan, pobrezia-aren aurkako eta Giza Garapenaren eta Jasangarritasunaren aldeko borrokan garapenerako lankidetzaren lanabes eraginkorragoa bihurtzeko xedeaz, Euskal Herrian dauden baliabideei eta gaitasunei buruzko analisirik eta diagnostikorik.

Izan ere, erakunde batzuen eta besteen artean alde handiak ikus badaitetzke ere, gauza da EAEko garapenerako lankidetzaren plangintza ez dela

¹⁹¹ Oso eraginkortasun txikia duen eta nolabaiteko frustrazioa eragin duen testu baten adibidea da *Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutuna*, Eusko legebiltzarrak 2007an onartu zuena, ganberako talde guztien onespenerarekin, baina baita beren pasibotasun eta axolagabetasunarekin ere kasu batzuetan.

abiatzen Euskadik –edo Euskadi osatzen duten lurralde eta udalerriek– espezifikoki lankidetzaren zereginera eta inklusiboagoa den garapen-eredu bateranzko bidean egin dezakeen ekarpenari buruzko gogoetatik. Alderantziz, hasieran euskal administrazioek auzi jakin bati buruzko gizarte-eskakizun gisa hartu zuten lankidetzak, eta pentsatzen zen auzi horren profilak gutxi gorabehera jada definituak zeudela nazioartean. Horren ondorioz, erakundeek, nagusiki, eskakizun hori jaso behar zuten, eskakizuna bideratzeko finantza-baliabideak jarri eta jada beste alor batzuetan bazeuden jarduera-pautak nolabait ere Euskal Herriaren eskalan errepikatu. Gainera, horixe zen zabaldu ziren aldarrikapenen funtsa.

Hala ere, erakundeek lankidetzan izandako partaidetza ulertzeko modu honek –euskal lankidetzaren jatorriak argi eta garbi eraginda, lehentxeago jada aipatu den bezala– alde batera utzi zuen alor honetan egin zitekeen ekarpen espezifikoa edota berezikoaren inguruko analisi zehatz oro. Aztertu dugun erakunde batean ere ez zen planteatu diagnostiko bat egiteko beharra edo komenigarritasuna jardueraren esparruan bertan lankidetzaren alde mobiliza zitezkeen gaitasunei eta baliabideei eta, beraz, partaidetzaren beraren balio erantsiari buruz. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren lehen dekretuetako batzuek kooperatiben munduaren edo lanbide-heziketaren partaidetzaren inguruan egin zituzten erreferentzia bakanak –zentzu horretan uler zitezkeenak– oharkabean pasatu ziren oharrak izan ziren, Eusko Jaurlaritzaren eta GGKEen artean enpresen paper orokorrari buruz egon zen eztabaidan.

Pasa den hamarkadaren erdialdeko plangintza estrategikoaren hasierak ez zuen funtsezko aldaketarik ekarri gai honetan; izan ere, helburuen eta arauen definizioan emandako aurrerapauso garrantzitsuak ez ziren euskal gizartearen gaitasunei buruzko gogoeta paralelo batekin batera gertatu. Lehen esan den bezala, aztertu diren erakunde guztien artean udalak dira zentzu honetan urratsak eman dituzten bakarrak, batzuen eta besteen plan zuzentzaileak konparatuz egiazta daitezkeen gauza. Hala eta guztiz ere, tokiko lankidetzaren espezifikotasunaren eta udal bakoitzak lankidetzara egin lezakeen ekarpenaren inguruan dagoen gerok eta kezka handiagoak ez du diagnostiko zehatzagoen elaboraziorik ekarri. Zentzu honetan eman diren urrats interesgarriak, administrazioan bertan zuzeneko lankidetzarako –gaiaren funtsezko alderdia zalantzarik gabe– dauden baliabideen esparruan kontzentratzen dira batez ere¹⁹², baina aurrera egin gabe tokiko gizar-

¹⁹² Jada aipatu dugun Gabilondoren (2008) lana bezala, Gasteizko Udaleko lankidetzak teknikoaren diagnostikoari buruzkoa.

tearen eta bere organizazioen baitan dauden ahalmenak kontuan hartzeko bidetik. Egiaz, partaidetza-prozesuak GGKEen esparrutik kanpo irekitzeko dauden zailtasunek asko mugatzen du aukera hau; alde batetik, prozesu horiek ez datoz bat lehendik dauden inertziekin eta, bestalde, erakunde eta gizarte-organizazio askotan lankidetzaren esparruan egin lezaketen ekarpenari buruz dagoen ezjakintasunarekin (edo kontzientzia eskasarekin).

Aurreko guztiak zuzeneko eragina du abian jarri diren lankidetzaz-politiken koherentzia eta eraginkortasunean, askotan harreman argirik ez badago ere planteatzen diren helburuen –egin nahi denaren– eta dauden baliabideen –horretarako dauden gaitasunen– artean, zeina, adibidez, geografia- edo sektore-jardueren lehentasunak ezartzen dituzten irizpideetan islatzen baita; baina irizpide horietan ez da inolako gogoetarik ikusten dauden ahalmenei edo lankidetzari eman nahi zaion balio erantsiaz.

Horrez gain, lankidetzaren beraren izaerari edo bere ekarpen espezifikuari buruzko gogoetarik ez egoteak, betikotzen laguntzen du emaile-hartzaile harreman tradizionalan oinarritzen den eredu; eredu horrekin finantza- edo teknologia-baliabideak eta jakintzak transferitu nahi dira, merkatuan eskura daitezkeenak proiektu mota ezberdinetan espezializaturiko pertsonak kontratatuz eta baliatuz. Eredu horrek ez du ia zerikusirik topagunea eta elkarrekiko kolaborazio-gunea izatea nahi den lankidetzaz batekin, zeinak euskal gizartearen baliabide propioak eta izan daitezkeen elkartze- eta elkarrekikotasun-harremanak hobeto ezagutzeagatik, eta baliabide horiek baliatzeko moduak sustatzeagatik gehiago arduratzen diren politika-bideak beharko bailituzke.

8. Zehar-lerroen garapena, beren trataeran sumatu diren aldeak eta genero-ikuspegiari dagozkion auziei eskainitako arreta berezia

Lehenago aipatu den bezala, EAeko erakunde gehienek baliatu dituzte beren politika-dokumentuetan lankidetzari buruzko nazioarteko debategian planteatu diren zeharkako kezkek, bereziki plan zuzentzaileak egiten hasi zirenetik. Hala eta guztiz ere, aldeak ikus daitezke batzuen eta besteen artean, zeharkakotasuna ulertzeko moduan; izan ere, erakunde gehienak beren gai edo helburuetan (generoa, ingurumena, giza eskubideak) zentratzen dute, baina batzuek jarduera-ildoetara ere zabaltzen dute, adibidez, Garapenerako Hezkuntzara foru-aldundien kasuan.

Aztertu ditugun dokumentuetan zeharkakotzat hartzen diren gaiak kon-

tuan hartzen baditugu, ikusten dugu euskal erakundeek tokiko garapeneren eta erakundeen indartzearen alde egiten duten apustu ausarta (tokiko boterea, partaidetza eta abar) zeharkako ikuspegi gisa adierazten dela plan zuzentzaile batzuetan; hau berrikuntza bat da beste esparru batzuetan ikus daitekeen *mainstream*arekin alderatuz, baina, gure iritziz, hainbat arazo metodologiko planteatzen ditu aplikazioan, etorkizunean aztertu beharko direnak. Edonola ere, erakunde batzuetan eta besteetan zeharkako hainbat gairen inguruan egiten den gogoetak, kasu gehienetan, ez du gogoeta horri buruzko analisirik edo justifikazio teorikorik izaten, eta horrek zeharkakotasun-kontzeptua ulertzeko moduak ere desberdinak direla ematen du aditzera.

Halaber, beharrezkoa da zehar-lerro batzuek eta besteek duten garapen desberdina azpimarratzea. Batzuk erruz tratatzen dira eta arauetan, tresnetan eta baremoetan islatzen dira, baita xehetasunez ere batzuetan. Beste batzuek, ordea, orokorrean lantzen dira, eta badirudi Euskadin gai batzuetan eta besteetan dagoen esperientzia eta jakintza maila desberdinagatik dela hori. Horrela, adibidez, genero-ikuspegia etengabe agertzen bada ere plangintzaren maila guztietan, oso eskasak dira ingurumen-ikuspegia kontuan baliatzeko moduari buruzko erreferentziak, eta nabariak gertatzen dira erreferentzia horiek praktikan gauzatzeko dauden zailtasunak¹⁹³. Horren ondorioz, kasu askotan, lankidetzak-eragileek beren proiektuen formulazio-gai batzuei buruzko erreferentzia espezifikoak planteatzeko premiarekin lotu dituzte azkenean zehar-lerroak, baina ezarritako baremazio-irizpideak gainditzeko huts-hutsik, eta oso koherentzia gutxiko interbentzio-proposamenak izan dira horren emaitza.

Lehen ere azpimarratu den bezala, genero-berdintasunaren inguruko gaiak beste batzuek baino garapen nabarmen handiagoa izan dute zeharkakotasunari dagokionez. Garapen hori, lankidetzak-proiektuetan ez ezik, garapenerako lankidetzan egindako interbentzioetan ere islatu da. Gainera, hainbat dokumentu nahiko analisi eta planteamendu sakonak egiten dituzte genero-ikuspegia jarduera-ildo eta sektore-proposamen desber-

¹⁹³ Zehar-lerroek irizpide hauetan duten garrantzia desberdina da erakunde batzuetan eta besteetan. Eusko Jaurlaritzaren kasuan (non baremazioaren % 35 suposatzen duten) azken Plan Zuzentzailearen ebaluazioak adierazten zuen erakundeek puntuaziorik hoberena genero-gaietan lortzen zutela, eta ingurumenaren gaian baxuena (Lankidetzaren Euskal Agentzia, 2011), eta hori bat dator gai batzuetan eta besteetan erakundeek duten esperientzia eta jakintza mailari buruz jada aipatu dugunarekin; honek guztiak, erakundeetan ez ezik, eragileengan ere eragina du, eta bereziki GGKEetan. Mugimendu feministan ibiliak diren emakume batzuek lankidetzaren munduarekin duten loturan aurki liteke gai baten edo bestearen zabalkunde ezberdinen azalpena, edo GGKEen Koordinakundearen Genero Taldeak duen paperean bertan, baina gauzak oso bestelakoak dira, adibidez, Euskadin lankidetzak- sektorearen eta mugimendu ekologisten artean egon den harremanean, oso eskasa izan baita.

dinetan baliatzeko moduari buruz. Hala ere, terminologia zehatzik eta adierazleei buruzko akordiorik ez dagoelarik, askotan oso zaila da interbentzioak genero-ikuspegi batetik ebaluatzea. Horregatik, eta euskal lankidetzaren publikoaren erreferentzia argia bada ere gai honi eskainitako garrantziari dagokionez, bide luzea geratzen da oraindik gai honetan aurrerapauso eraginkorragoak lortzeko.

Bestalde, genero-ikuspegiaren zeharkakotasunetik eratorritako eskakizunek agerian ipini dute muga garrantzitsuak daudela eskakizun horietako batzuk praktikara eramateko orduan. Hori dela-eta, jarduera-ildo espezifikoa sortu behar izan dira GGKEek gai honen inguruan dituzten gaitasunak indartzeko, planteatu diren erronkei aurre egiteko sumatu diren ahulguneak direla-eta. Hala ere, erakunde batzuek emakumeen organizazioak eta mugimendu feministak lankidetzarentz erakartzeko beharra nabarmendu dute; horrek gaira hurbiltzeko modu apur bat desberdina dakar, nahiz eta ez duen zertan nahitaez kontraesankorra izan, eta praktikan gauzaterakoan hainbat zailtasun aurkitu baditu ere.

Nolanahi ere dela, baliabideen eta eragileen arazoarekin lotzen dira berriro ere lankidetzaren politikaren hainbat alderdi zeharkakotzeko agertu diren mugak, eta solidaritatearen eta lankidetzaren gizarteratze handiago baten beharra planteatzen dute, pentsatu gabe GGKEak generoa, ingurumen-aztiak, giza eskubideak eta bestelako zeharkako gaietan oso espezializatuak diren erakundeak izan daitezkeenik. Gai konplexua da hau, susmo txarrak, tentsioak eta ulertu ezinak sortzen dituenak, baina ez litzateke gehiago atzeratu behar, eta errealismoz eta akordiorako asmoz heldu behar litzaioke. Zentzu horretan esan daiteke GGKEak genero-gaietan instituzionalki indartzeko aurreikusitako tresnek eredu-balioa izan dezaketela beste entitate batzuk sendotzera bideratutako balizko tresnak sortzeko, testuinguru sozial eta kultural desberdinetan lan egite aldera, edo GGKEen eta beste eragile batzuen arteko harremanak indartu eta sustatzeko, gai jakin batzuen zeharkakotasuna bultzatzeko bide gisa.

9. Tokiko garapenari, partaidetzari eta erakundearen indartzearen gaiei emandako garrantzia

Erakundearen eta tokiko botereei zein esparru honetako gizarte-erakundeei indartzeari dagozkien auzi guztiek duten garrantzia da Euskadiko garapenerako lankidetzaren plangintza-dokumentuen ezaugarri nagusietako bat. Zalantzarik gabe, garrantzi handiko auzia da, poliki-poliki pisu espezifikoa irabazten joan dena euskal lankidetzaren publikoaren baitan. Bereziki ga-

rrantzitsua izan da 2000ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, orduan hasi baitziren plan zuzentzaileak lantzen; izan ere, lehenago, gai hauen inguruan egindako erreferentziak eskasak eta gehienetan oso orokorrak ziren. Zentzu horretan, ikus daiteke garapenaren tokiko dimentsioak garrantzi handiagoa eskuratzen zuela plangintza-ahaleginak areagotzen zihoazen neurrian, arreta gai jakin batzuen inguruan kontzentratzeko beharra agerian ipiniz.

Kezka hauen adierazpenak profil desberdinak hartzen zituen erakunde batzuetan eta besteetan, beren plan zuzentzaileetan ikus daitekeen bezala. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, tokiko espazioaren eta boterearekin indartzearekin zerikusia duen eta oso gai ezberdinak –tokiko ekonomia, gizarte-erakundeak, partaidetza-prozesua eta antzekoak– lantzen dituen proposamen bat planteatzen da. Horietako batzuk xehetasun handiz daude landuak, eta garrantzi handia hartzen dute baremazio-irizpideetan ere. Udaletako plan zuzentzaileetan, garrantzi handiagoa eskuratzen du tokiko erakundeen paperari eta hauek lurraldean eragiteko duten gaitasunari buruzko gogoeta espezifikoa, azken urteotan tokiko korporazioen beren zuzeneko lankidetzaren inguruan egin diren gogoeten ildo beretik. Azkenik, eta aldundiei dagokienez, beren baterako Planak –zeinak 2009-2011 aldia hartzen zuen– gaiari buruzko ikuspegi orokorragoa hartzen du, tokiko esparrutik ulertzeko modu baten adierazpen teoriko gisa planteatuz funtsean giza garapena, hiru alderdi nagusitan kontzentratuak: erakundeak indartzea, garapenerako tokiko estrategiak babestea eta tokiko ekonomia indartzea.

Hala ere, aldeak ez dira tokikoaren aldeko apustua ulertzeko edo definitzeko modura mugatzen; aitzitik, islatzen dira gai hauek plangintza maila desberdinetan begiesten diren moduan ere. Zentzu honetan, aldaera guztiak aurki ditzakegu: jada aipatu dugun tokiko boterea edo giza garapena zehar-lerro gisa hartzetik, jarraibide gisa lantzeraino, sektore-helburu bezala aipatzetik igaroz. Gure ustez, horrek argi adierazten du gai hau ez dela oraindik behar bezala heldu, nahiz eta adostasun zabala sortu den duen garrantziari buruz, kontraste bizia sortzen duena berarekin zerikusia duten esperientzia oraindik bakanen aldean.

Gai honen trataeran ikusi dugun auzietako bat da ez dagoela gaiari ematen zaion garrantziarekin bat datorren aurrekontu-aurreikuspenik. Gure iritziz, esparru honen baitan egin beharreko interbentzioak zedarritzeko zailtasunarekin dago hau lotua; izan ere, printzipioz, proiektu orok azkenean tokiko oinarria izaten du, eta tokiko garapen- edo tokiko boterearen indartze-prozesuak babestera jotzen duen ildo baten atal gisa justifika daiteke.

Hainbat adituk adierazi duten bezala, *dena liteke* tokiko garapenaz hitz egiteko orduan. Agian horregatik aurrekontuen zuzkidurari dagozkion proposamenik zehatzenak tokiko esparruko erakundeekin egindako zuzeneko lankidetzari buruzkoak izan dira, esparru honen indartzeari argi eta garbi bideraturiko interbentzioen adierazpen gisa¹⁹⁴.

Aipatu dugun muga islatzen da azterlan honetan egindako analisisan ere. Kasu honetan, informazio egokirik ez dagoenez gero, zeharkako aldagaie-tara jo behar izan dugu, hala nola kontrapartearen izaera. Dena dela, lortu diren emaitzek ez dute inolako joera argirik erakusten, tokiko garapenari dagozkion gaiei arreta espezifiko handiagoa, egotzitako lehentasunarekin bat datorrena, ematen zaielako hipotesia bermatzeko edo ezeztatzeko. Zuzeneko lankidetzaren bakarrean aztertzen denean baino ez da nabarmentzen erakundeen indartzea eta tokiko boterea bezalako gaien inguruko geroz eta arreta handiagoa. Kasu honetan, gai hauetara bideratzen diren interbentzioen ehunekoak lankidetzarako orokorrean ikusten dena baino altuagoa da argi eta garbi, Bilboko eta Gasteizko Udalak nabarmenduz zentzu horretan.

Ezin dugu tokiko erakundeen garapen- eta indartze-gaiei eskainitako tra-taerari buruzko balorazio hau bukatu erakunde gehienetan (udaletan izan ezik) esparru honetan eskuragarri dauden gaitasunak eta baliabideak diag-nostikatzearen eta mobilizatzearen inguruan ikusten den kezka eskasa aipatu gabe. Garapenaren tokiko dimentsioan jarritako enfasia eta arreta alor honetan kontzentratzeko beharra ez datoz bat EAEn gai hauen inguruko espe-rientzia ezagutzera eta martxan jartzera eskainitako arreta urriarekin. EAEan munizipalitateak eta tokiko esparruan egin diren jarduerak (ADLen bidezko sustapen ekonomikoa barne) jardunbide luzea dute. Azkenik, aztertu diren erakundeen plangintza-dokumentuek *Euskal Fondoaren* lanari eta udale-riren elkarte horrek burututako esperientziei buruz egiten dituzten erreferen-tziak eskasak dira, zeinak tokiko indartzearen esparruan ageri diren aukerei buruzko informazio- eta analisi-iturri baliotsua izan baitzitezkeen.

10. Sentsibilizazioari eta garapenerako hezkuntzari dagozkion orientazioek lortu duten ospea, eta alor honetan egin denaren analisia

EAEko erakundeek bultzatu dituzten garapenerako lankidetzaren politiken artean, nahiko akordio zabala dago hezkuntzari dagozkion gaiek lortu duten garran-

¹⁹⁴ Bilboko eta Gasteizko Udalek egiten dituzten aurrekontu-erreserben kasua da hau, udal-erakundetik bertatik burututako proiektuetarako.

tziaren inguruan, erakundeen barruko gai *izar* bat izateraino. Alde batetik, finantzatu diren jarduera ugariekin eta alor honetan burutu den aurrekontu-ahalegin handiarekin du horrek zerikusia. Hala ere, hau estimazio orokorra da; izan ere, ezinezkoa da kopuru zehatz bat aipatzea, sailkapen desberdinak baitaude. Gure kalkuluek garapenerako hezkuntzarako 1.500 interbentzioetatik gertu dagoen zifra bat ematen dute 1988 eta 2008 artean (gure azterketa estatistikoak hartzen duen aldian), eta interbentzio horiei orduz geroztik egin diren 300 interbentziotik gora erantsi behar zaizkie. Eta, finantza-terminoetan, 67 milioi euroak gainditu ditu urte hauetan zehar aztertu ditugun zazpi erakundeek alor honetara egindako ekarpenaren kopuru orokorrak.

Hala ere, ez dira zifrak gai honi garrantzia ematen dioten elementu bakarra, baizik eta urte guzti hauetan zehar gai honi buruzko politika alde batera eta bestera orientatzeko abian jarritako ahaleginen kopuru handia, zeinak hainbat dokumentu eta debaketan, mintegitan, txostenetan, batzarretan eta abarretan islatu baitira. Era berean, horrek guztiak eragina izan du aztertu diren politika-dokumentuetan, non bereziki oparoak diren garapenerako hezkuntzari buruzko diagnostikoak eta proposamenak.

Aipatu ditugun dokumentuen hurbilketa batek dokumentu horietan ageri den gai-sorta ikaragarri ugaria baloratzeko aukera ematen du, ondorengoak bezain bariatuak diren gaiak barne hartzen dituzten: helburuak, eragin beharreko auziak, tresnarik egokienak, zehar-lerroak baliatzea –genero-gaie-tan enfasi berezia jarritz–, helburu-taldeak, lan-metodoak, esparru arautu, ez arautu eta izaera informalekoak... Zerrenda oso luzea da, eta erakunde batzuetatik besteetara aldatu egiten da gainera. Hala ere, aztertu diren gaien eta planteatu diren proposamenen gai-zabaltasun horretan bertan, debataren aberastasuna ez ezik, garapenerako hezkuntzaren nolabaiteko identitate-krisia ere islatzen da; izan ere, behin eta berriz eztabaidatzen dira garapenerako hezkuntzaren helburu espezifikoak, eta ez dago haien inguruan behar besteko akordiorik¹⁹⁵.

Jada planteatu den bezala, alde batetik konpondu ez den arazo bat dago, hezkuntza-sistemaren paperarekin eta epe ertain eta luzerako lanarekin zerikusia duena, eta horrek gaiaren inguruko trataera nahasi samar bat ekarri du, 25 urteotan luzatu dena. EAEko hezkuntza-aginte gorenaren duen

¹⁹⁵ Ikus Argibayren lan interesgarria (2008), zeinak, Gasteizko esperientzian oinarritua egon arren, EAEko esparru guztietan dauden arazo eta zailtasun multzo bat deskribatzen duen. Horrez gainera, pista asko ematen ditu GHren helburu espezifikoaren inguruan planteatzen den debate konplexuari buruz, hitzarmen orokor handiez haratago.

erakundeak, hau da, Eusko Jaurlaritzak, gai honi eskaintzen dion arreta eskasa gehitu behar zaio gainera arazo honi, zeina, bestalde, sailen arteko politiken integrazio eta koherentzia eskasaren erakuslea baita. Baina, gai honez haratago, garatu beharreko lanaren eta gizartearen hainbat esparrutan (hezkuntza-sistema, sektore espezifikokoak, publikoa orokorrean...) espero daitezkeen emaitzen inguruko irizpide argirik ez izatea –bi hamarkada baino gehiagoren ostean–, oztopo bat izaten hasi da, bai alor honetako politiken definizioa, bai abian jarritako praktiken eta beren emaitzen ebaluazioa bera baldintzatzen dituena.

Gure ustez, aurreko guztia ezin da bereizi gaur egun eragileek lankidetzaren alorrean eta, bereziki, lankidetzaren deszentralizatuarenean, garapenerako hezkuntzari jokatzeko dagokion paperari buruz partekatzen duten diagnostiko-faltak planteatzen duen arazotik. Gai honek alde handiz gainditzen du EAEko esparrua, eta nazioarteko gizartean eta garapen-prozesuetan egon diren aldaketekin dago lotua, lankidetzaren eragileen eta helburuen analisi horrek dakartzan ondorioekin; gai hauez guztiez aritu gara lan honetan eta beste batzuetan. Zentzu honetan, garapenerako hezkuntza-politiken diseinuak lankidetzaren-organizazioak izateak ezaugarritzen dituen esparru baten barnean jarraitzen du; lankidetzaren-organizazio horiek arduratuko lirateke beren diskurtsoa eta kezkek gizarte osoan zabaltzeaz, kontzientzia maila altuagoak, munduko arazoaren aurreko jarrera arduratsuagoak eta organizazio horien lanarekiko atxikimendu handiagoa lortuz. Orain arte, politika-dokumentuak ez dute ia ahaleginik egin garapenerako hezkuntza solidartatearen alorra praxitik abiatuta zabaltzera bideraturiko tresna bihurtzeko, era horretan gizartearen konpromisoa inplikazio solidario eta aktibo batean ere adieraz dadin, nazioarteko arazoetan eta lankidetzan, esparru eta sektore desberdinek–hala nola, gizarte-mugimenduak, sektore profesionalak, unibertsitateak, zerbitzu publikoak eta abar–, zuzenean parte hartuz eta ez bakarrik GGKEen lana babestearen bidez.

Testu honen lehen zatian jada azpimarratu dugun bezala, gai hauei buruzko ereduak lan batzuek garapenerako hezkuntza kontzeptu orokor gisa ulertzeko beharra planteatzen dute gaur egun; lankidetzarekin zerikusia du, baina gainditu ere egiten du, alor eta herrialde oso desberdinetan sortzen diren bidegabekeria- eta bazterketa-egoeren aurrean hartu beharreko konpromiso handiago baten defentsarekin loturik. Paradigma-aldaketa bat da, eta zuzenean eragiten du garapenaren gaien pertzepzioan eta gai horien inguruan kokatzeko moduan. Aztertu ditugun plangintza-dokumentuetako batzuek gogoeta orokorrean sartzen dituzte kezka hauetako batzuk, baina orokorrean proposamenak falta dituzte eraginkorrak izan daitezkeen.

Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren alorrean egin diren interbentzioek, oro har, aipatu ditugun arazo hauek mahairatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, euskal lankidetzak alor honetan egiten duen lanaren ezau-garri bereziki positibo batzuk azpimarratu behar dira. Garapenerako lankidetzan lan egiten duen jende gehienaren konpromiso maila altua, baina baita heziketa eta prestakuntza ere gehien adierazi den alderdietako bat da zalantzarik gabe, formulazio-, jarraipen- eta proiektuen ebaluazio-tekniken erabilera gainditzen duena, garapenaren erronken inguruko eztabaidekin eta kezkekin zerikusia duten beste hainbat auzitara zabalduz. Hala ere, gai hau ez da kasualitatearen emaitza, baizik eta, jada esan den bezala, bat dator erakundeek eta GGKek lankidetzak maila teoriko eta teknikoan indartzearen alde egindako apustuarekin, eta hori bai estrategia-dokumentuetan bai babestu diren interbentzioetan islatu da. Bereziki interesgarria da administrazioak, unibertsitateak eta GGKEek berek lankidetzarako heziketa espezializatuari eman dioten baterako bultzada; horren emaitza, jakina den bezala, Euskal Herrian bertan eta atzerrian asko baloratzen den garapen eta lankidetzako graduondo- eta doktoretza-eskaintza da.

Azkenik, sentsibilizaziora eta garapenerako hezkuntzara bideratu diren interbentzioak eta lan-ildoak ebaluatzeko izan diren zailtasunak eta esparru honetako esperientzia eskasa aipatu behar dira, zeinak alor honen inguruko gogoeta eta aurrerapausoak oztopatzen baititu. Lankidetzaren Euskal Agentziak duela gutxi eskatu zuen diagnostikoak –lan honetan aztertu diren zazpi erakundeei buruzkoa gainera–, arazo hauetako batzuen berri ematen du¹⁹⁶. Nolanahi ere, eta aipatu ditugun indargune eta ahulgunez haraindi, beharrezkoa da alor honetan piztu diren gogoeten eta eztabaiden aberastasuna eta zabaltasuna aitortzea eta azpimarratzea. Alor hau da, bestalde, gehien aztertu denetako bat –generoarenarekin batera– euskal garapenerako lankidetzaren historian.

11. Burutu diren interbentzioen eta plangintza-dokumentuetan planteatu diren helburu eta lehentasunen arteko koherentziari buruzko gogoeta orokorra

Politika publikoen esparruan egindako ebaluazio-analisi orok baloratzea eskatzen du, alde batetik, proposatzen den ereduaren eta formulatzen diren lehentasunen arteko koherentzia, eta, bestetik, aipatu dugun politika-

¹⁹⁶ ECODE (2011): *Estudio sobre metodología y prácticas de evaluación de acciones de educación para el desarrollo y sensibilización en la CAPV.*

ren eremuan egiazki burutu diren interbentzioak. Kasu honetan, bultzatu diren jardueren azterketan, eta jarduera horiek ezarritako jarraibideekin eta lehentasunekin duten aldean gauzatu da. Dagokion atalean jada aipatu den bezala (5.3.), ezinezkoa da baterako balorazio bat egitea, plan batzuen eta besteen artean gai honi dagokionez planteatu den logika desberdina eta aztertu diren erakundeek informazioa kudeatzeko erabiltzen dituzten sistema desberdinak direla-eta. Erakunde guztiek ez dituzte gainera lehentasunak alor beretan jartzen.

Alabaina, zailtasun metodologiko hauez haraindi, gai honi buruz egin ahal izan dugun hurbilketak nahiko elkarrekikotasun handia agertzen du proposamenen eta burutu den praktikaren artean, eta hori aztertutako alor guztietan islatzen da: lehentasun geografikoetan, interbentzio-sektoreetan, lankidetz-eragileengan edo diseinatu diren tresna nagusietan. Hala ere, ohar orokor honi nabardura batzuk erantsi behar zaizkio, hainbat alderdiri dagozkienak. Alde batetik, beharrezkoa da ezarri diren helburuetako batzuen zabaltasuna azpimarratzea, bereziki sektore jakin batzuei dagokionez –adibidez, *lehentasunezko premia sozialak* edo *herri-ekonomia*–, zeinak irizpide nahiko lasai bat erabiltzeko aukera ematen duen bertan interbentzio mota ezberdinak sartzeko orduan. Hori areagotu egin da gainera, diru-laguntzak jasotzen dituzten interbentzioek alde aurretik –zehaztasun handiagoz edo txikiagoz– diseinatu diren baremo batzuk gaudituz behar dituztelako, finkatutako lehentasunekin bat eginez. Hala bada, alor batzuetan, politikaren eraginkortasuna –ezarri denaren eta burutu denaren arteko elkarrekikotasun gisa ulertua– ia erabatekoa da¹⁹⁷.

Kontuan hartu beharreko beste elementu bat, alde aurretik ezarritakoaren eta praktikan egindakoaren arteko politiken koherentzia aztertzeko orduan, erakunde gehienek erabiltzen duten ikuspegi berezia da, nolako interbentzioak diren: deialdien bidezkoak edo hitzarmenen, zuzeneko lankidetzaren eta beste hainbat tresnen bitartez bideratuak. Beste interbentzio mota hauetan askoz ere zailagoa da interbentzioen koherentzia baloratzea, ez baitago interbentzio horien inguruko behar adina informazio, eta ez daude irizpide berberen arabera sailkaturik. Bestalde, deialdietan aplikatzen diren baremoak ez dira oro har beste jarduera mota hauetan aplikatzen,

¹⁹⁷ Honen adibide garbia da –nolabait ere bere gisa betetzen den profezia baten antza duena– Eusko Jaurlaritzaren bigarren Plan Zuzentzailearen ebaluazioaren gairai buruz egiten den gogoeta, honako hau azpimarratzen duenean: “*Onartu diren jarduera guzti-guztiak ezinbestean kokatzen dira Planak zehazturiko sektoreetan (% 31 herri-ekonomiara bideratzen duelarik, % 27 oinarritzko premia eta lehentasunetara, eta % 18 emakumeen abalduntzera), zuzenean islatzen baitira tresnen baremazioan*” (Lankidetzaren Euskal Agentzia, 2011). Oharra: letra lodia gurea da.

eta horrek, koherentzia mugatzeaz gain, gardentasunari eragiten dio, eta erakundeek zuzenean egindako lanari buruzko kanpoko pertzepzioa ere baldintza dezake.

Burutu den azterlanaren ondorio garrantzitsu bat lehentasun geografikoen benetako esanahiari dagokiona da, planteatzen dituzten planetan agertzen diren bezala. Oro har, gai horri aski garrantzi ematen zaio interbentzioen sakabanatzea saihesteko duen hautatze- eta kontzentrazio-printzipio baten adierazpen gisa. Gainera, azterlanean ikusi ahal izan dugun bezala, irizpide hau erabiltzen duten erakundeak modu eraginkorrean aritu dira aplikazioari dagokionez; izan ere, gai honen inguruan planteatu diren helburuak neurri handi batean betetzen dira eta, kasu batzuetan, %100ean. Hala ere, diseinuaren analisiaz diharduen lan honen lehen atalean eztabaidatu dugun bezala, uste dugu lehentasun geografikoak (lehentasunezko herrialde gisa ulerturik) ezartzea ez dagoela behar adina justifikatua ikuspegi teorikotik, politikaren jarraipen-berme gisa. Azpimarratu den bezala, herrialdeen erreferentzia baino askoz ere garrantzi handiagoko aldagaiak izan daitezke, politikaren jarraipenerako eta sakontasunerako, eta besteak beste, kontraparteekin epe luzerako harremanak finkatzea edo interbentzioak lurralde mugatuagoetan kontzentratzea, bereziki lehentasunezko zatik jo diren hainbaten tamaina eta aniztasuna dutenean.

Azkenik, kontuan hartu behar dugu, oro har, ezarri diren aurreikuspenen eta burutu diren interbentzioen arteko elkarrekikotasun handiagorik ere, planteatutako ereduaren hainbat alderdi nolabaiteko neke-sintomak hasi dira agertzen, bereziki tresnekin eta eragileekin zerikusia dutenak. Jada adierazi den bezala, alor hauetan ere, sustatu diren jarduera gehienak bat datoz aurreikusitako ereduarekin, azken urteotan aipatu dugun ereduaren eraginkortasuna zalantzan jartzen duten ahotsak sortu badira ere –bereziki udaletatik–, lan-ildo berriak eta lankidetzak-tresna berriak esploratzeko beharra planteatuz.

12. Ia huts-hutsik GGKEen paperean oinarritzen den ereduaren mugak, eta horrek euskal lankidetzak-sistemaren sendotasunean dituen inplikazioak

Lehenago azpimarratu dugunarekin loturik, euskal lankidetzak-ereduaren ezaugarriak eta eraginkortasunari dagozkien hainbat arazo daudela da lan honetatik ondorioztatzen den ikerketa-emaitza garrantzitsuenetako bat. Gai

hauen artean aintzat hartu beharreko alderdi nagusiak, hain zuzen ere, tresnei eta eragileei dagozkienak dira, zeinak, azken finean, erabakigarriak diren ezarritako lankidetzaz-harremanak aztertzeko orduan.

Jada aipatu den bezala, aztertu diren zazpi erakundeen lankidetzaz-politikak gehien partekatzen duen ezaugarria eredu esternalizatu baten alde egiten duen apustua da; hau da, interbentzioak administrazioaz kanpoko erakundeek burutzen dituzte, eta administrazioak batez ere finantzatzaile-eginkizunak betetzen ditu. Apustu hau are gehiago gauzatzen eta indartzen da GGKEak hartzaile nagusizat eta, batez ere, hizketakide ia bakartzat hartuz, horrek oso paper garrantzitsua ematen dielarik politikaren diseinuan bertan. Bestalde, eta aukera honen ildo beretik, politika aktibo bat garatu da GGKEen indartze instituzional, tekniko eta teorikorako, zeinak oso prestakuntza ona eskuratu duen eta debatera ekarpenak egiteko gaitasuna duen lankidetzarako gizarte-sare bat ekarri baitu (erakunderik aktiboenen muinari dagokionez behintzat)¹⁹⁸.

Apustu honen alderdi positiboak agerikoak dira eta zabalki aitortzen dira. Gainera, jada azpimarratu den bezala, euskal garapenerako lankidetzaren historia ezin da bereizi GGKEek egindako ahaleginetik eta lanari eskainitako arduragatik, eta haien parte-hartzerik gabe imajinaezinak izango lirake eskuratutako lorpen guztiak. Erakunde hauek lankidetzaz solidario eta eskuzabal baten alde egin duten defentsa, interes politikoek edo komertzialek baldintzaturiko beste interesei kontrajarririk, etengabea izan da urte hauetan guztietan, eta, hala, lankidetzarako egitura sozial baten eraketa ekarri du, helburuengatik kezkatzen dena, intelektualki arduratzen dena eta gizarte-konpromiso altua duena. Hala ere, euskal lankidetzaz-sistemaren alderdi positibo hauek ezin dituzte bertan ageri diren beste elementu batzuk ezkutatu, zeinek epe laburrera eraginkortasun-hutsuneak islatzen dituzten, epe ertainera ereduaren izaera eraldatzailea zalantzan jartzen duten eta epe luzera eredu hori ahul dezaketean, nekez jasagarria izango den eredu bilakatu arte.

Lan honetan luzaz aztertu den alderdi hauetako bat eragile eta gizarte-sektore berriak garapenerako lankidetzaren zereginari batzeko agertu diren

¹⁹⁸ GGKEen sektoretik sortu diren eta lan honetan zehar aipatu diren hainbat dokumentu horren adibide garbia dira. Zentzu horretan, Koordinakundearen Eragin Politikoko Taldearen (lehenago Erakundearen Taldea deitzen zena) paper aktiboa nabarmendu beharra dago arautegi, plangintza eta abarri buruz egindako solasaldiei eta proposamenei dagokienez.

eragozpenei dagokiena da¹⁹⁹, horrek, kasu batzuetan, lankidetzari ahalmen eta dimentsio eraldatzaile handiagoak eman ahal izango bailiokete. Muga hau bereziki garrantzitsua da gaur egungo munduan, non elkarrekiko menpekotasunak oso nabarmenak diren eta gizarte-jarduera guztiek nazioarteko dimentsioa duten, edo inguru horrek objektiboki baldintzatzen dituen behintzat. Gainera, azken urteotan gizarte-erakundearen kopuru adierazgarri batek halako dinamismo bat erakutsi du nazioarteko solidaritatearen esparruan, nahiz eta lankidetzarako organizazio tradizionalen logika bera ez izan beti. Bestalde, eragile batzuek gizarte- eta kultura-testuinguru ezberdinetan lan egiteko duten esperientzia-faltari edo oinarrian duten praktika eskasari buruz inoiz nabarmendu izan diren arazoez ez lukete aitzakia izan behar aipatutako arazo horiek zentzu horretan konpon lezakeen ahalegin planifikatu bat planteatzeko²⁰⁰. Arazo horiek aintzat hartu behar dira, baina ez aipatu dugun zentzuan aurrera egiteko ahaleginak blokeatzera iristeko punturaino.

Gai honi buruzko bigarren alderdi bat administrazioek berek lankidetzan duten paperari eta gai hau planteatzen den moduari dagokiona da, bai politika-dokumentuetan, bai erakunde batzuen eta besteen praxian. Jada aipatu den bezala, euskal lankidetzak-eredua bereziki iheskorra da erakundearen papera kontuan hartzeko orduan, horien zuzeneko partaidetza Legez mugatzera iritsi arte. Hala ere, lehen urteetako hainbat praktikak eragin zuten mesfidantza ulergarriaren eta lankidetzaren balizko desnaturalizazio baten inguruko beldurraren ondorioz, jarrera kontserbadoreegia sortu da,

¹⁹⁹ Bestalde, aspaldi aipatu den kezka batez ari gara. Eusko Jaurlaritzarentzat duela 10 urte baino gehiago egindako txostenean, Alonsok hau azpimarratzen zuen: “*Lankidetzak deszentralizatuak gai izan behar du arau- eta tresna-esparru bat osatzeko, gizarte-eragile guztiak laguntza-politikan integratu abal izateko. Ezin dugu laguntza GGKEei bakarrik dagokien esparru gisa kontuan hartu*”. Eta jarraian hau eranstean du: “*Aniztasun horren integrazioa ez da lortzen desio bat adierazte hutsarekin. Beharrezkoa da arauak eta tresnak finkatzea eragileetako bakoitzak bere tokia aurki dezan laguntza-politikan*” (Alonso, 2002).

²⁰⁰ Adierazgarria da zentzu honetan GGKEen Koordinakundeak Eusko Jaurlaritzaren 2010eko Lankidetzaren Urteko Planaren Zirriborroaren inguruan egindako iruzkina, non, inguruan dauden ahalik eta gizarte-ahalmen gehienak mobilizatzeko xedeaz, eragile berriak erakartzeko egiten zen proposamenari erantzunez, honako hau esaten zen: “*Guk ere sumatzen dugu badaudela beste gizarte-eragile batzuk, ez zehazki GGKEak, Lankidetzak deszentralizatuak aberastu lezaketenak, bereziki GGKEen osagarriak diren guneean, baina eragile horiek (garapenerako GGKEek bezalaxe) egiazaturiko esperientzia aski, kudeaketa-gaitasuna eta ebaluatutako jarduerak izan behar dituztela defendatzen dugu, lan ona egin dezaketela frogatu abal izateko, ez bakarrik beren intereseko gune tematikoan, baizik eta nazioarteko lankidetzan espezifikoki. Beraz, eragile posible horien batzuek irizpide zorrotzak bete behar ditu (baliabideetara sarbidea izateko denbora-progresibitatea, kudeatu beharreko funtsen proportzionaltasuna, gainontzeko tokiko eragileekin koordinatzeko gaitasuna), eragile guztiei aplikatzen direnak baitira. Guk defendatzen dugun irizpidearen arabera, ez dugu nahi GGKEak izatea garapenerako lankidetzak-eragile bakarrik, baina ez dugu nahi edozein erakundek eragile bihurtzeko aukera izatea, iparraldean gizarte-auzietan lan egiten duelako zirkunstantziagatik huts-butsik*” (Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, 2010) (letra lodia jatorrizkoarena da).

zeinak, erraztasunak eman ordeztu baremoak, jarduera-irizpideak, kontrolak edo jokabide-kodeak finkatzeko, nahiago izan duen gaiari era murriztaile eta kuantitatiboan ekitea, arreta funtsen esleipenean jarriz eta bigarren maila batean utziz egin daitezkeen jardueren egokitasunari buruzko debatea. Hala ere, eta udalen kasuan izan ezik, egin den politika-dokumentuen analisiak ez dute ikusarazten kezka handirik alor hauetan, ezta praktika egoiak aztertzeke edo esperientzia pilotuak bultzatzeko aurreikuspenik ere.

Gai hauen berei dagokienez, aipatu beharra dago azken urteotan enpresek lankidetzaren programetan parte hartzeke duten aukera isilarazteke egin den itxurazko ahalegina. 90eko hamarkadan identifikatu ziren arazoek eta lankidetzaren doakotasunean oinarritzeke premia ezin eztabaidatuzkoak, ez lukete oztopo bat izan behar gai honen inguruan eztabaidatzeko, lankidetzarako esperientzia pilotuak aztertzeke eta partaidetzaren hori interesgarria izan litekeen baldintza espezifikoak planteatzeko²⁰¹.

Puntu honetara iritsita, hainbat galdera planteatzen dira jarraitu dena bezalako dinamika bat bultzatu duten arazoieki buruz, hark eratu baitu azkenean gaur egun ezagutzen dugun euskal lankidetzaren eredu. Jadanik aipaturiko alderdi historikoen garrantziaz gainera, jasotako iritziek lan honetan zehar aletu diren hainbat elementuri eragiten diote (esperientzia eskasa edo txarra, inertziak, epe laburreko ikuspegia, aldaketarako erresistentzia...). Hala ere, datu batzuek pentsatzera bultzatu gaitzake eredu oro har erabilgarria izan dela praktikan, bai GGKEentzat bai administrazioentzat ere²⁰², eta planteatu ziren helburuetako batzuk lortzeke balio izan duela, nahiz eta azken urteotan hainbat arduradunek eredu hau eta abian dauden gaitasun instituzional eta sozialen ustiapen hobeagoa berrikusteko eskatu duten. Horri guztiari gehitu behar zaio Lankidetzaren Legea onartu eta bost urte geroago, oraindik ez dela Legean aurreikusten den Erregilearen Erregistroaren Dekretu Arautzailea aldarrikatu, eta gai honen inguruan erakutsi den interes eskasaren adierazlea da hori inondik ere²⁰³.

Azkenik, honekin guztiarekin zerikusia duen arazo bat, azpimarratu beharrekoa, ereduaren egitura-ahultasuna eta aurreikus daitezkeen jasangarritasunak.

²⁰¹ Eztabaidagune handia dago gai honen inguruan, honako hauekin zerikusia duena: interbentzio-sektoreak, balizko enpresen izaera eta tipologia, erabili beharreko baliabideak, erabilera-baldintzak, jokabide-kodeak, fiskalizazio- eta kontrol-mekanismoak eta abar.

²⁰² Zentzu horretan, egin ditugun elkarrizketetan ikusi ahal izan dugu bai erakundeek, bai GGKEek, uste dutela beste alderdiak erantzukizun berezia duela amaierako ereduaren.

²⁰³ Bestalde, baliagarria izango litzateke hori Erregistro bakar bat egiteko, erakunde guztien artean adostutakoa eta erakunde guztientzat baliagarria.

sun eskasa da, baldin eta erakunde publikoen finantza-krisia larriagotzen bada. Izan ere, egiaztatu ahal izan den bezala –eta kontsultatu ditugun pertsona askok berretsi duten bezala–, lankidetzak-politiken lehen 25 urteotako protagonista ia bakarrak diren euskal GGKEek finantza-menpekotasun garrantzitsua dute erakunde publikoetako funtsei dagokienez, hori, neurri batean, ereduak berak eragin duen egoera delarik. Fenomeno honen ondorioz, bere bertutez haraindi –lehenago jada aipatu dira–, gizarteko gairontzeko dinamikekin lotzeko arazoak dituen lankidetzarako antolamendu-egitura bat zabaldu da, eta egitura horrek ahultasun bat eta dirudienek gainera datorkigun egoera konplexuari aurre egiteko mugak dakartza.

13. Lankidetzak-politikaren kudeaketa-, jarraipen- eta ebaluazio-sistemei eskaintako arreta, eta sistema horien hornikuntza eta kualifikazio eskasa

Lankidetzak-politikak aplikatzeko erabilitako baliabideen auzia da EAEko erakundeen kasuan ikusi den muga garrantzitsuenetako bat. Duela urte asko azpimarratzen eta nabarmentzen den arazoa da, eta, neurri handi batean, politikaren potentzialtasuna eta kalitatea baldintzatu ditu, diseinu-ziklo osoan, jarraipenean, kudeaketan eta ebaluazioan eraginez. Hainbat alderdi nabarmendu daitezke gai honen inguruan.

Lehenengoa garapenerako lankidetzak erakundeek tratatu duten moduarekin eta egin dioten aitorpen politikoarekin dago lotua. Auzi hauek zuzeneko eragina dute jada aipatu ditugun politikaren zeharkakotasun-aukeretan, eta, hortaz, bere koherentzia orokorrean, administrazioen gobernu-ekintza osoaren baitan. Ikuspegi honen arabera, kaltegarriak izan direla uste dugu administrazio batzuetan lankidetzaren kokapen instituzionalean egon diren aldaketak, eta kontsultatu ditugun hainbat iturrik, gainera, iritzi hau bera partekatzen dute. Kalte hori larriagotu egin da dokumentu batzuetan politika koordinatzeko eta bestelako sailletara proiektatzeko aurreikusitako tresnei eskaini zaien arreta eskasaren ondorioz.

Bigarren gaia lankidetzak-politikak aplikatzeko martxan jarri diren giza-baliabideen garrantziari –kuantitatibo eta kualitatiboa– espezifikoki dagokiona da. Jada aipatu den bezala, balantzea orokorrean nahiko negatiboa da, bereziki erabili diren bitartekoak eta kudeatu, jarraitu eta ebaluatu behar diren baliabideen kopurua konparatzen baditugu, eta gogoan hartuz gero plan zuzentzailetan planteatu diren helburu handinahiekin duten harreman eskasa ere. Garrantzitsua izan da (bereziki aldundien kasuan), lankidetzaren kudeaketaren hainbat alderdi esternalizatzeko joera, eta hori, neurri batean,

lankidetzari emandako barneratze eta balio politiko eskasaren ondorioa izan da, bereziki lehenengo momentuetan. Hala ere, joera honek estrategien analisi- eta elaborazio-lanaren jarraipena murriztu du, berrelikadurarena oztopatuz. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, gizatalde-hornidura eskasaz gain, enpleguaren egonkortasunik eza izan da historikoki arazoa. Udalen kasuan baino ez da nolabaiteko egonkortasuna eta jarraipena antzematen Lankidetzaren Zerbitzuen lanean, aspalditik baitituzte langile tekniko espezializatuak, horrek esperientziak pilatzen, diseinua hobetzen eta politikaren kudeaketa hobetzen joateko aukera eman duelarik.

Inguruan dauden informazio-sistemei dagokiena da testuan zabal aztertu eta azaldu den arazo espezifiko bat, lankidetzaren kudeaketa egoki baterako egokienak izatek oso urruti baitaude. Zentzu honetan, garrantzitsua da azpimarratzea, oro har, ez dituztela egindako interbentzioen hainbat alderdi jasotzen, eta horrek zaildu egiten ditu ondorengo analisia eta ebaluazioa, eta baita informazio hori eragileen eta orokorrean publikoaren zerbitzura jartzea ere. Gainera, erakunde batzuen eta besteen informazio-sistemak bateraezinak dira; izan ere, bakoitzak bere kategoria eta nomenklatura bereziak erabiltzen ditu, eta horrek galarazi egiten du aurrera egitea EAeren esparruan lankidetzaren politika antolatua eta integratua baterantz, estatistiken trataera eta konparaziozko ikerlanak oztopatuz era berean. Beste arazo erantsi bat da IKTak ez direla behar adina erabiltzen informazioaren kudeaketa-prozesu osoan, eta horrek eraginkortasun-falta dakar, eta, kasu batzuetan, ahalegin handiak egin behar izaten dira datuak transkribatzen, on-line inprimakien eta antzeko beste tresna batzuen bidez zuzenean gehi daitezkeen arren.

Erabili diren baliabide eskasak ere islatu dira ebaluazioaren alorrean. Politika-dokumentuek gai honen inguruan egin duten gogoeta ez da inondik ere maila berekoa izan, alde handiak ikusi ahal izan direlarik aurrekontuen aurreikuspenak eta hornikuntzak ezartzeko orduan. Azken urteotan egin diren plan zuzentzailetako arauetan, ez da ez ebaluazio planik ez konpromiso espezifikorik aurreikusten aipatu ditugun planak indarrean egongo diren urteetarako. Zentzu honetan, eta proiektu, programa, sektore edo herrialdeei dagokienez, egin diren ebaluazioak ez datoz bat alde aurreko plangintza-logika batekin, gehienbat egoera jakinen arabera hartutako erabakiekin baizik, batzuetan burutu diren jarraipen-lanekin bat baldin badatoz ere. Eta plan zuzentzaileen beren ebaluazioari dagokionez, aipatu ditugu jada aurkitu diren arazoak, bukatua dagoen planen baten ebaluaziorik eza barne, era horretan planean bertan aurreikusten dena ere bete gabe.

Azkenik, duela gutxi martxan jarri den Lankidetzaren Euskal Agentziaren garrantzia aipatu beharra dago. Testuan jada adierazi dugun bezala, Agentzia oso urrats garrantzitsua da planteatu diren eskakizunekin hobeto adosten eta eraginkorragoa den lankidetzaren kudeaketa-egitura bat sortzeko, eta euskal garapenerako lankidetzaren eragile gehienak ados daude balorazio honekin. Hala eta guztiz ere, eta dagoeneko ere aipatu dugun bezala, gure iritziz, diseinatu den agentzia-eredua ez dator bat euskal lankidetzaren oinarritzko premia batzuekin, erakunde batzuen eta besteen politiken koordinazioari eta antolakuntzari dagozkion premiekin adibidez, eta, hala, Eusko Jaurlaritzaren Agentzia bat besterik ez da gertatu. Ikuspegi honen arabera, uste dugu Agentziaren sorrera-prozesua galdutako aukera bat izan dela lankidetzak sistema eraginkorrago eta sinergia handiagoak sortzeko gauza den baterantz aurrera giteko.

14. Gardentasun- eta partaidetza-printzipioen inguruko gogoeta, eta helburu horietarako aurreikusi diren tresnen eta sistemen funtzionamendua

Gardentasun- eta partaidetza-printzipioen analisiari eta horiek EAEko erakundeek lankidetzak politiken diseinuan eta aplikazioan agertzen diren moduari buruzkoa da aurkezten dugun azken ondorioa. Gai honi dagokionez, aurreikusi diren partaidetza-mekanismoetan eta informazioa gizarteratzeko sortu diren sistemetan jarri du arreta gure azterlanak.

Partaidetza-tresnei dagokienez, eta erakundeek eta GGKEen artean komunikazio-kanal informal ugari egon badira ere, garrantzitsuena aztertu diren erakunde guztietan Lankidetzak Kontseiluak sortu eta abian jarri izana da eragileekiko elkarrizketa bermatzeko formula gisa, hala nola debatea eta izan ditzaketen kezkek aintzat hartzea, bai diseinuari bai politikaren kudeaketari dagokionez. Lehenik, azpimarra daiteke Kontseiluetarako finkatu den eraketak fidelki islatzen dituela lehenago aipatu dugun lankidetzak-eredua eta GGKEen nagusitasuna, politika gauzatzeaz arduratzen diren lehentasunezko eragile gisa. Beste gizarte-erakunde batzuek Kontseiluetan izan duten presentzia askoz ere txikiagoa izan da eta, horietako batzuetan administrazioaren beraren hainbat instantzia eta sailen inguruan planteatu den partaidetzari dagokionez, izenezkoa izan da soil-soilik (lankidetzako arduradunena izan ezik).

Azterlan hau egin den bitartean jaso diren informazioen arabera, Kontseiluen funtzionamenduak neurri batean bakarrik erantzun die ezarri diren aurreikuspenei eta horietan jarritako itxaropen guztiei. Alde batetik, kasu

batzuetan, Kontseiluek ez dute egotzi zaien funtzioen batzuk bete, harritzekoa ez den gauza, funtzioen zabaltasunari erreparatzen badiogu. Eta bestetik, nolabaiteko nahasmena dago Kontseiluen izaerari eta kontsultatzen, gehienbat, debate- eta proposamen-eredu baterantz duten orientazioari buruz. Lehenengo kasuan, eragiteko gaitasun handiagoa edo txikiagoa duten administrazioetatik sortzen diren proposamenak eztabaidatzen dituzten organoen aurrean egongo ginateke; bigarrenean, berriz, Kontseiluak osatzen dituzten kide ezberdinetatik sortutako proposamenak eztabaidatzeko (eta baita politiketan integratzeko ere) alorrez ariko ginateke. Nolanahi ere, Kontseilu batzuei formalki eskatu zaizkien funtzio ugari eta askotarikoetatik jaio diren arazoak daudela dirudi, zaila baita funtzio horiek burutzea baliabide gehiagorik izan gabe. Eta bigarrenik, hainbat iturrik diotenaren arabera, zaila da debate jakin batzuk bideratzea, lankidetzaren ereduari eta eragile batzuen eta besteen paperari dagozkien estrategia-gaiei buruzkoa bereziki, eta horrek moteldu egin ditu gai batzuei buruzko eztabaidak.

Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren osaketari eta Kontseilu hau hiru hiriburuetako udaletan ez egoteari dagokiona da jaso diren iritzietatik ondorioztatzen den alderdi jakin bat, udalek jokatu duten papera garrantzitsua izan bada ere, bai gogoeta doktrinalean eta plangintza estrategikoan, bai burutu den praktikari dagokionez ere. Badirudi EUDEL-en ordezkariak bat eta *Euskal Fondoaren* beste bat egotea ez dela nahikoa nolabaiteko bazterketa-egoera hau arintzeko, bereziki Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailerako zortzi ordezkariaren presentzia –izenezkoa gehienbat– kontuan hartzen badugu. Disfuntzio honek garrantzi handiagoa hartzen du kontuan hartzen bada hiru hiriburuetako udalek ez dutela zuzeneko ordezkariak Erakunde arteko Batzordean ere. Horregatik guztiagatik, eta bigarren ondorioan euskal lankidetzaren publikoaren antolakuntzari buruz jada azpimarratu dena kontuan hartuz, beharrezkoa da gure iritziz bi organoen paperaren inguruko gogoeta egiten hastea (Lankidetzaren Euskal Kontseiluaz eta Erakunde arteko Batzordeaz), bakoitzak jokatu behar duen paperaren ingurukoa, eta baita organo horiek hiru hiriburuetako udaletan espezifikoki sartzeko moduaren ingurukoa ere. Udalen gogoetek eta esperientziak (horietako asko lan honetan zehar azaldu dira) ekarpen interesgarriak izan daitezke euskal lankidetzaren orientazio estrategikoarentzat.

Informazioa gizarteratzearen gaiari dagokionez, Informazioa partekatzeari buruzko kezka eskasa nabari da; izan ere, plangintza dokumentuek apenas islatzen dute gaia eta IATI (International Aid Transparency Initiative) proposatutako ildoan erreferentziarik ere ez da agertzen. Aplikazioaren esparruan, gainera, egindako azterlanari esker ondoriozta dezakegu hutsune garrantzitsuak


daudela, batez ere burutu diren interbentzioen zabalkundeari eta ezaugarri dagokienez. Erakunde batzuek interbentzio horiei buruzko informazioa eskaintzen badute ere, normalean osatugabea izaten da. Aukerarik ez dago izaera publikoa duten datu-baseetara sartzeko, abian jarri diren politiken alderdi jakinak ezagutzeko edo horien inguruko ikerketak egiteko. Arazo honi, erakunde batzuen eta besteen informazio-sistemen artean dagoen eta jada aipatu dugun koordinazio-falta gehitzen zaio. Azkenik, erakunde batzuek (Eusko Jaurlaritzak bezala) ez dituzte Kontseiluaren bileretako aktak argitaratzen, eta horrek argi erakusten baitu gardentasunaren inguruan dagoen kezka eskasa, gai honi dagokionez behintzat.

Erabili diren tresnei dagokienez, esan dezakegu informazioaren gizarteratzea funtsean web-orrien bidez egiten dela gaur egun. Hala ere, eta dagokion atalean jada aipatu den bezala, web-orri guztiak 1.0 dira (irakurketa hutsekoak), hau da, aztertu ditugun erakundeen artean batek ere ez du alde biko komunikaziorako aukerarik ematen bere web-orriaren bidez. Bestalde, eta Donostiako Udalan eta duela gutxi Lankidetzaren Euskal Agentzian izan ezik (zeinak gune bat baitu Irekia-n), ez da ia urratsik eman komunikazio handiago baterantz, ez dira eztabaida- eta kontsulta-guneak aurreikusi (foroak edo blogak adibidez), eta oso arreta gutxi eskaini zaio sare sozialen erabilerari.

Laburbilduz, esan daiteke hainbat galdera daudela EAEko erakundeek gardentasun- eta partaidetza-erronkak beren gain hartzeko duten moduari buruz –ezarri diren mekanismo formalez haraindi–, gai horien inguruko kezka eskasa aditzera ematen dutenak, eta bai Kontseilu batzuen funtzionamenduan bai informazioa gizarteratzeko erabili diren tresnetan islatzen direnak. Hala ere, esan beharra dago bi auzi hauek ez dutela eztabaida handirik sortu eta ez dutela proposamen alternatiborik eragin lankidetzaragilean aldetik.



Epilogo:
EAEko erakunde publikoak eta euskal
lankidetzaren sistemaren etorkizuna



Bukatu baino lehen, EAEko erakunde publikoek garapenerako lankidetzan bete duten eta etorkizunean bete dezaketen paperari buruzko gogoeta orokor bat planteatu nahi genuke.

Azken 25 urteotan eratu den euskal lankidetzeta-sistemak bi oinarri nagusi izan ditu: erakunde publikoen finantziazioa eta GGKEen lana. Biak izan dira erabakigarriak eratu den ereduaren funtzionamendurako eta lorpen garrantzitsuak egiteko. GGKEen parte-hartzerik eta lanik gabe, erakunde publikoek ezingo zuten diseinaturiko lankidetzeta-politika burutu eta, agian, lankidetzeta-politikarik ere ez litzateke izango. Eta, era berean, erakunde publikoen finantziatorik gabe, GGKEek ezingo zituzten beren proposamenak gauzatu, ez zituzten dauzkaten kudeaketa- eta lan-egiturak sortuko eta agian, GGKE asko ez ziren sortu ere egingo.

Hala ere, ezin da ahaztu euskal lankidetzeta-sistema hau sortuz joan den testuingurua: alde batetik, lehen urteetan gizarte-giro egokia eta nazioarteko solidaritatearen aldeko nolabaiteko mobilizazioa egon ziren, eta giro hark planteatu ziren eskakizunetako asko onartzera bultzatu zituen erakundeak. Eta bestalde, 25 urte hauetako askoren ezaugarri izan diren nolabaiteko oparoaldi ekonomikoko baldintzek garapenerako lankidetzaren finantziazioa handitzen lagundu dute erakundeentzako gastu politikorik gabe.

Ondo jakina den bezala, egoera ekonomikoa errotik aldatu da azken hiru urteotan, eta zuzeneko eragina izan du aipatu ditugun erakunde gehienen finantza-gaitasunean. Baina gainera, egoera ekonomikoaren aldaketa hori duela 25 urtekoarekin zerikusi gutxi duen testuinguru sozial batean gertatu da, orduko hark nazioarteko solidaritate-mugimendu indartsu baten sorrera bultzatu baitzuen Euskadin. Gaur egungo egoeran ezin da aurreikusi lankidetzara bideratzen diren kontusailetan egon daitezkeen aurrekontu-murrizketek gizarte-aurkaritza handia izango dutenik, Gasteizen (edo Euskal Herritik kanpo, AA.EE eta udal askotan) gertatu denak erakusten duen bezala. Kontsultatu ditugun pertsona batzuek esan duten bezala, gizartean azken urteotan gutxituz joan dira inplikazioa eta nazioarteko solidaritatearen aldeko mobilizazioa, lankidetzarako baliabide publikoak handitzen ziren ia proportzio berean.

Horrek guztiak hainbat galdera planteatzen ditu erakundeek iraganean izan zuten paperaz eta euskal lankidetzeta-sistema indartzen eman dezaketen laguntzaz, seguru aski oso aldekoa ez den egoera batean. Zentzu horretan, eta gaia agortzeko asmorik izan gabe, bost erronka nagusi planteatuko ditugu.

Lehenik eta behin, beharrezkoa da aurreikusi diren finantza-konpromisoak mantentzea, ahal den neurrian, gaur egun konpromiso horiek murrizteko dauden presioei amore eman gabe. Erakunde publikoek lankidetzarekin duten finantza-konpromisoa ez da tresna huts bat, alor honetan burutzen diren jardueretako asko babesteko beharrezkoa dena. Gizarte-justizia unibertsala ulertzeko modu baten adierazpena ere bada, eta –hau ia garrantzitsuagoa da– aukerakoa izateaz haratago doa. Nazioarteko lankidetzarekiko konpromiso publikoa, hiritarren zeretatik datorren kuota baten ekarpenaren bidez, berez da gaur egungo munduan dauden hainbat eratako desberdintasunei buruz hiritarren sentsibilizazioan lagun dezakeen printzipio-deklarazio bat.

Bigarrenik, erakunde publikoek ez lukete beste batzuek egiten dituzten jardueren finantzazailerak hutsak izaten jarraitu behar, azken urteotan gertatu den bezala. Erakundeek askoz ere konpromiso sendoagoak hartu behar dituzte lankidetzaren ideiarekin, beren politika desberdinetan zeharkakotuz, eta koherentzia-gaietan askoz ere zorrotzagoak izanez. Era berean, erakundeek zuzenean inplikatu behar lukete beste herrialde eta lurralde batzuetako kontraparteekin loturak eta lankidetzak-harremanak eratzen, eskura dauzkaten bide eta baliabide garrantzitsuez baliatuz, gaur egunera arte ez baitira ia erabili. Zentzu honetan, lankidetzak-jarduerak finantzatzeko erabili den diruak ez luke kasu askotan erakundeek egiaz erakusten duten inplikazio eskasa ezkututzen jarraitu behar, horrek, batzuetan, garrantzi gutxioko gai batekin lotu baitu lankidetzak azkenean²⁰⁴.

Hirugarrenik, erakunde publikoek modu aktiboagoan lan egin behar lukete plangintza-dokumentuetan orain arte diseinatu diren estrategiak bideragarriak egiten, proposamen ideologikoak eta bertan planteaturiko konpromisoak asmo onen deklarazio huts bihurtuta utzi gabe. Horrek suposatzen du arindu egin behar direla dokumentu horietan planteatzen diren helburu zorrotzei egokituko zaizkien bideen eta baliabideen bilaketa eta mobilizazioa. Horretarako, lankidetzaren esparrua zabaldu behar da, eragile berriak erakarriz eta solidaritatearen eta lankidetzari buruzko debateen gizarteratze handiago bat sustatuz. Gainera, gizarte-baliabide berrien mobilizazioa ere ezinbestekoa bihurtzen da erakundeen finantza-konpromisoak mantentzeko eta egiaztatzeko, lankidetzaren isolamendua edo hauek organitzazio espezializatuei bakarrik dagozkien gaiak –baita funtsen murrizketak ere– direlako ideia baztertuz.

²⁰⁴ “Bigarren mailako ikasgaia”, erakundeen ordezkarietatik jasotako hainbat iritzik diotenaren arabera.

Laugarrenik, eta aurrekoarekin oso loturik, erakunde publikoek solidaritatearen eta lankidetzaren ideia integralago bat bultzatu behar lukete, gaur egungoa bezain interdependentea den mundu batekoa izateak dakartzan arazo eta erronka guztiei loturik. Horrek bat egiten du Garapenerako Hezkuntzari buruzko beste ikuspegi bat bultzatzeko beharrarekin, zeinak *beste batzuen* (itxuraz *gureekin* loturarik ez duten) arazoen inguruko kontzientzia gainditzen duen, bete-betean sartzeko mundu mailako hiritartasunaren esparruan, inplikazioa eta elkarrekikotasun handiagoa eskatzen duten eta *guztionak* diren arazoetan. Zentzu horretan, kontuan hartu behar litzateke, *laguntzari* edo emaile-hartzaile harremanari buruzko ikuspegi tradizionala (zeinak bereziki helburu horretarako sortu diren erakundeen esku uzten duen lankidetzaren ardura, eta egoera hori bultzatu den garapen-ereduari buruz ez duen galdetzen) desegokia izateaz gainera gaur egungo errealitateko arazoei aurre egiteko, galarazi egiten duela mundu mailako hiritartasun globalaren kontzientzia hartzea.

Azkenik, EAEko administrazio publikoek gogoeta sakon bat egin behar lukete garapenerako lankidetzaren erakunde-egiturari buruz, egungo ereduaren eraginkortasun-hutsuneak gainditzen saiatzeko. Ez dirudi logikoa edo eramangarria denik plan zuzentzaile desberdinak dituzten zazpi erakunde egotea, zeinek alor guztietan lan egitea planteatzen duten –lankidetzaren teknika, garapenerako hezkuntza, erakundeen indartzea, laguntza humanitarioa...–, antzeko deialdiak bultzatzen dituzten eta gainera, informazio-sistema ezberdinekin eta adostu gabeekin lan egiten duten²⁰⁵. Euskal lankidetzaren sistemaren sustapenak erakunde publikoen eginkizuna arrazionalizatzea behar du, estrategiak antolatze-ko, gune eta tresna komunak sortzeko, espezializazioak eta osagarritasunak sustatzeko, eta prozedurak, erregistroak, datu-baseak eta informazio-sistemak antolatze-ko.

Euskadiko garapenerako lankidetzaren erakundeen lehen 25 urteotako historia laburraren alderdi bereziki garrantzitsuren bat azpimarratu behar bagenu, esango genuke, zalantzarik gabe, bere espiritu solidarioarekin konprometitua dagoen eta nolakotasun eraldatzaile batekin kezkatua dagoen eredu bat indartu dela denboraldi honetan. Eta hutsune batzuk nabarmendu behar bagenu, erakundeetan lankidetzaren sistema integralago bat antolatze-ko eta, aldi berean, euskal gizartearen gaitasunak beretzeko eragozpenak nabarmenduko genituzke.

²⁰⁵ *Euskal Fonda* eta udal ertain eta txiki ugari gehitu behar zaizkie, gainera, erakunde horiei.

Gauzak nolabaiteko distantziaz begiratzen baditugu, Euskadik denbora honetan guztian bizi izan duen egoera ekonomiko, politiko eta soziala kon-tuan hartuz, litekeena da emaitza orokorra lor zitekeen hoberenetako bat izatea, nahiz eta, jada esan dugun bezala, gogoeta kritiko batzuk aintzata-go har litezkeen eta hobeto aprobe-txa litezkeen hobekuntzarako aukerak. Zentzu horretan, euskal gizarteak lankidetzak-sistema indartsuago bat eta bere gaitasunekin adostuagoa sortzeko dituen aukera handiak az-pimarratzea gustatuko litzaiguke, eta ikuspegi kritiko eta berritzaile bat hartzeko premia, zeinak, jada lortu denetik abiatuz, hobeto erantzun ahal izango dien etorkizuneko erronkei.


Euskadik tradizio handia du solidaritatean eta internazionalismoan, zeinak, erlijio-misioen historiatik hasita eta GGKEen duela gutxiko jardunbidera arte, esperientzia eta ezaupide ugari eratu dituen munduko eskualde eta herrialde oso desberdinetako errealitate sozial eta kulturallean. Era berean, Euskadik era askotako gizarte-, unibertsitate- eta erakunde-mugimenduak ditu, bai oso esparru ezberdinetan dituzten gaitasun handiak, bai nazioarte-ko gizartearen arazoetan duten geroz eta inplikazio handiagoa erakutsi di-tuztenak. Eta azkenik, argi agertu dira lankidetzaren esparruan baliatu diren aukera gehienetan Euskadik dituen erakundeen eta sektore publikoaren ahalmenak. Egiaz, ez da batere erraza ahalmen eta aukera horiek guztiak integratzea eta osatzea, baina horixe da irtenbide bakarra.

Baina, inolako zalantzarik gabe, ziklo bat itxi dela baieztatu dezakegu, ez euskal lankidetzarentzat bakarrik, baita orokorrean lankidetzak deszentra-lizatuarentzat ere. Ezagutu dugun ereduak seguru aski ezingo da betiko-tu, eta ez dago argi gaur egungo garapenerako lankidetzaren erronkei eta premia erantzuteko gai izan daitekeenik ere. Idaztear dago oraindik zer gertatuko den datozen urteetan solidaritatearen esparruan, eta neurri handi batean, lankidetzaren gizarte-mugimenduak izango duen indarguneen eta gaur egun dituen egitura mailako ahulguneak gainditzeko gaitasunaren ara-berakoa izango da. Zentzu horretan, ez litzateke historia ahaztu behar, eta komeni da gogoraraztea, duela 25 urte erakundeak pixkanaka lankidetzan sartuz joan baziren, neurri handi batean garai hartan GGKEek ordezkatzan zuten aldeko gizarte-giroa zegoelako sartu zirela.

Azken urteotan, EAEko erakundeek, plan zuzentzaileen eta bestelako plangintza-dokumentuen bidez, berretsi egin dute lankidetzak solidario eta eraldatzaile batekiko duten konpromisoa. Zalantzarik gabe, abiapuntu ona da datozen erronkei aurre egiteko. Baina ez da nahikoa izango. Etor-kizunean, oso faktore desberdinen araberakoa izango dira garapenerako

lankidetzaren iraunkortasuna eta indarra, eta erakunde publikoek hartzen duten papera eta aipatu ditugun erronkei ematen zaien erantzuna egongo dira haien artean. Nolanahi ere, euskal lankidetzaren indartzeak eta bere politiken sendotasunak zuzeneko harremana izango dute une jakinetan egindakoa aztertzeko gaitasunarekin, lorpenak egonkortzeko eta mugak gainditzeko aukera emango duten ondorioak atereaz. Guk, geure aldetik, azterlan honek horretan lagundu izana espero dugu.

Bibliografia



- Alberdi, Jokin (2010): El futuro de la cooperación autonómica al desarrollo: estudio del marco jurídico-político de la cooperación pública vasca. IVAP. Bilbao.
- Alboan (González et al.) (2007): Zenbakiez haratago: La cooperación al desarrollo vasca a debate. Ikerketa saila, 3. alea. Bilbao.
- Alonso, José. Antonio (Zuz.) (2002): Evolución y especialización sectorial y geográfica de la cooperación vasca. Agentes e instrumentos. Eusko Jaurlaritzako Lankidetzazuzendaritza. Gasteiz. Mimeo.
- Alonso, José. Antonio (2001): Sistema vasco de cooperación al desarrollo. Diagnóstico y propuestas (lehenengo zirriborroa). Eusko Jaurlaritzako Lankidetzazuzendaritza. Gasteiz. Mimeo.
- Argibay, Miguel (2008): Veinte años de Cooperación al Desarrollo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz 1987-2007 abierto sobre la práctica de la Sensibilización y de la Educación para el Desarrollo.
- Argibay, Miguel, Celorio, Gema eta Del Río, Amaia (2005): Garapenerako Hezkuntza. Euskal Lankidetzaz Publikoa, Eskuliburu Didaktikoak, 8. alea. Gasteiz.
- Argibay, Miguel, Celorio, Gema, et al. (2009): Educación para la Ciudadanía Global: debates y desafíos. Hegoa. Bilbao.
- AZ Partaidetza (2009): Mapa diagnóstico de la realidad alavesa: igualdad, cooperación, inmigración y juventud. Gasteiz.
- CAD/ELGA (2011): Busango Deklarazioa. http://www.aideffectiveness.org/busanhlf4/images/stories/hlf4/OUTCOME_DOCUMENT_-_FINAL_EN.pdf
- CAD/ELGA (2003): Erromako Deklarazioa. <http://www.oecd.org/dataoecd/54/50/31451637.pdf>
- CAD/ELGA (2005): Garapenerako Laguntzaren Eraginkortasunaren Inguruko Pariseko Deklarazioa. <http://www.oecd.org/dataoecd/61/20/34605377.pdf>
- CAD/ELGA (2008): ACCRAko Ekintza Programa. <http://www.oecd.org/dataoecd/58/19/41202043.pdf>
- CAD/ELGA (2010): Estándares de Calidad para la Evaluación del Desarrollo. Garapenean Laguntzeko Kontseilua. Paris.
- Carballo, Silvia, eta Rodríguez, Natalia (2008): Análisis de la cooperación pública en Gipuzkoa 2005-2007. Euskadiko GGKE Koordinakundea-Gi-

puzkoako Foru Aldundia. Donostia

Cuerda, Jose Ángel (1993): *La Cooperación Municipal e Interregional en Europa*. Estrasburgo. Mimeo.

ECODE (2011): *Estudio sobre metodología y prácticas de evaluación de acciones de educación para el desarrollo y sensibilización en la CAPV*. Lankidetzaren Euskal Agentzia.

Erdialdeko Amerikarekin Lankidetzarako Euskal Funtsa (1990): *Primer encuentro municipal vasco por la cooperación internacional*. Topaketaren dokumentuak. Bilbao.

Erkidegoetako GGKEen Koordinakundearen Elkarteak, (2008): *Garapen deszentralizatuko erakundearen diru-laguntzen deialdi publikoetarako, lankidetzak proiektuetarako eta Garapenerako Hezkuntzarako irizpideak bateratzeko Gida*. Espainiako Garapenerako GGKE Koordinakundea.

Euskadiko GGKE Koordinakundea (2008): *Sistema-Evaluación del proceso para la incorporación del proceso de la perspectiva de género en las ONGD vascas*. GGKEen Koordinakundea-Kalidadea.

Euskadiko GGKE Koordinakundea (2006): *Propuestas de la Coordinadora sobre la Ley de Cooperación*. http://www.congde.org/uploads/289_1.pdf

Euskadiko GGKE Koordinakundea (2010): *Aportaciones de la Coordinadora ONGD de Euskadi al Plan Anual de Cooperación del GV 2010*. Mimeo.

Euskadiko GGKE Koordinakundea (2011a) *Documento de historia*. 2011ko iralaren 17ko batzarra.

Euskadiko GGKE Koordinakundea (2011b) *Coherencia de políticas públicas*. Mimeo.

Euskadiko GGKE Koordinakundea (2011c) *Evaluación Consejo de Cooperación de Donostia*. Mimeo.

Fernández, Gonzalo (2006): *“¿Es el desarrollo local el ámbito más adecuado para la cooperación descentralizada?”* in PTM-Mundu Bat: Riesgos y oportunidades en la cooperación descentralizada. Gakoa, Donostia.

Gabilondo, Aitor (2002): *Del Plan de Acción Positiva a la incorporación de la perspectiva de género en los proyectos de cooperación: la experiencia del Ayuntamiento de Gasteiz*. Genero eta garapenari buruzko Jardunaldiaren aurkeztutako txostena.

- Gabilondo, Aitor (2008): La cooperación técnica del Ayuntamiento de Gasteiz. Garapenerako Lankidetz Zerbitzua. Gasteiz.
- García, Yeni eta Sabalza, Michel (2009): Estudio sobre las ONGD de Vitoria-Gasteiz. Gasteizko 2010-2013ko Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentailerako lanak. Hegoa. Bilbao.
- Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetz Zerbitzua (2004): Proceso de Sensibilización y Educación para el Desarrollo (http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=contenido&idioma=es&uid=495b6d5e_11)
- Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetz Zerbitzua (2008): Declaración Institucional sobre Comercio Justo. <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/32614.pdf>
- Hegoa (1990): Evaluación, estado actual, y perspectivas de la Cooperación y la Ayuda al Desarrollo en el País Vasco. Mimeo. Bilbao.
- Hegoa (2009): Evaluación Final I Plan Director de Cooperación al Desarrollo del Ayuntamiento de Bilbao (2006-2009). Bilbao.
- Laborra, Julia eta Rodríguez, Natalia (2009): Análisis de la cooperación pública en Gipuzkoa 2008. Euskadiko GGKE Koordinakundea.
- Lankidetz eta Garapen ekimenak (2002): Nuevos debates y propuestas de Sensibilización y Educación para el Desarrollo en Vitoria-Gasteiz (<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/2495.pdf>)
- Lankidetz eta Garapen ekimenak (2004): Eragiten - Planeación Estratégica Participativa (PEP) de Educación para el Desarrollo de la Dirección de Cooperación al Desarrollo del Gobierno Vasco, 2003ko irailetik 2004ko ekainera arte.
- Lankidetz eta Garapen ekimenak (2005): Diagnóstico Participativo de Educación para el Desarrollo en Álava. Euskadiko GGKE Koordinakundea, Arabako ordezkariak.
- Legarreta, Josu (1998): *Cooperación Pública Vasca*, in Revista Española de Desarrollo y Cooperación, 3. alea. IUDC. Madril (101-115 orriak).
- Martínez, Ignacio y Sanahuja, José Antonio (2009): La agenda internacional de eficacia de la ayuda y la cooperación descentralizada en España. Carolina Fundazioa, 38. lan-dokumentua.
- Murguialday, Clara (2008): La equidad de género en la cooperación al de-

sarrollo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz: balance de una década y propuestas. Mimeo.

Murguialday, Clara, Del Rio, Amaya, Anitua, Estibalitz eta Maoño, Cristina (2000): Perspectiva de género en las ONGD vascas. Hegoa, Bilbao.

Rodríguez, Natalia (2007): Análisis de la política de cooperación al desarrollo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (1996-2006). Euskadiko GGKE Koordinakundea. Mimeo.

SETEM-Emaús-Bakeaz (2008): El comercio justo y el consumo responsable en la política de cooperación al desarrollo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Mimeo.

Subirats, Joan, Knoepfel, Peter, Larrue, Corinne eta Varonne, Frederic (2008): Análisis y gestión de políticas públicas. Ariel. Bartzelona.

Unceta et al. (2011): La cooperación al desarrollo descentralizada: una propuesta metodológica para su análisis y evaluación. Hegoa. Bilbao.

Unceta, Koldo (2000): *Las ONGD y los nuevos retos de la solidaridad*, in Intermon: La realidad de la Ayuda 2000-2001, 56-60. orriak. Intermon. Bartzelona.


Unceta, Koldo (2002): La sociedad civil vasca y su contribución solidaria hacia un desarrollo humano y sostenible: luces y sombras del movimiento de cooperación al desarrollo de Euskal Herria. Euskal Ikasketen XV. Kongresuaren aktak. Donostia (497-509. orriak).

Viadero, Maria (2010): La incorporación de los derechos de las mujeres y la equidad de género en los procesos de desarrollo y cooperación: El caso del Gobierno Vasco. Ikasketa Feminista eta Generokoak, UPV/EHU. 2010eko irailean aurkezturiko tesina (mimeo)

Volio, Roxana (2004): Diagnóstico de género de la convocatoria del 2000 del FOCAD. Mimeo.




1. eranskina: Elkarrizketatu ditugun pertsonak



- Txuri ARAMBURU
- Javier ARELLANO
- Marta ARES
- Juana Mari ASTIGARRAGA
- Juan Maria BALERDI
- Andrés BASAURI
- Mikel BURZAKO
- Gema CELORIO
- Alfonso DUBOIS
- Natxo EGUIZABAL
- Fernando FANTOVA
- Gonzalo FERNÁNDEZ
- Aitor GABILONDO
- Lara GONZÁLEZ
- Igor IRIGOYEN
- Iñigo ITURRATE
- Josu LEGARRETA
- Iñaki MARKIEGI
- Elo MAYO
- Clara MURGUIALDAY
- Puri PÉREZ
- Miguel PÉREZ
- Natxo RIBECHINI
- Natalia RODRÍGUEZ
- Seve ZUBIRI

2. eranskina:

Aztertu den erakunde-dokumentazioa



Eusko Legebiltzarra

- Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea.
- Herrialde Txirotuetikiko Justizia eta Elkartasunerako Kartari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legea.
- Ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duena.
- “Emakunde” Emakumearen Euskal Erakundearen sorrerari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legea.

Eusko Jaurlaritzza

a. *Plan Zuzentzaileak*

- Garapenerako Lankidetzarako Plan Zuzentzailea 2005-2008.
- Garapenerako Lankidetzarako Plan Estrategiko eta Zuzentzailea 2008-2011.

b. *FOCADaren Kudeaketa Batzordeari dagozkion dekretuak*

- Urtarrilaren 30eko 18/1990 Dekretuaren bidez sortutako Hirugarren Munduko Kooperazio eta Laguntzarako Fondoaren Kudeaketa Batzordea eta Babes eta Laguntza Teknikoko Batzordea.
- Urtarrilaren 11ko 233/1995 Dekretuaren bidez sortutako Hirugarren Munduko Kooperazio eta Laguntzarako Fondoaren Kudeaketa Batzordea eta Babes eta Laguntza Teknikoko Batzordea.
- Martxoaren 26ko 57/1996 Dekretuaren bitartez aldatu zen Hirugarren Munduko Kooperazio eta Laguntzarako Fondoaren Kudeaketa Batzordea eta Babes eta Laguntza Teknikoko Batzordea arautzen duen Dekretua.
- Martxoaren 26ko 57/1996 Dekretuaren bitartez aldatu zen Hirugarren Munduko Kooperazio eta Laguntzarako Fondoaren Kudeaketa Batzordea eta Babes eta Laguntza Teknikoko Batzordea arautzen duen Dekretua. (Akatsen zuzenketa).
- Urriaren 19ko 350/1999 Dekretuaren bidez FOCADeko Kudeaketa Batzordea arautzen da.
- Martxoaren 30ko 350/1999 Dekretuaren bidez FOCADeko Kudeaketa Batzordea arautzen da.

c. Lankidetzak Kontseiluei dagozkien Dekretuak

- Martxoaren 24ko 53/1998 Dekretuak Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Kontseilua eratu zuen.
- Otsailaren 1eko 22/2000 Dekretuak Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Kontseilua sortzeko Dekretua aldatu zuen.
- Martxoaren 24ko 53/1998 Dekretuak Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Kontseilua eratu zuen.
- Otsailaren 1eko 22/2000 Dekretuak Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Kontseilua sortzeko Dekretua aldatu zuen.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren irailaren 16ko 158/2008 Dekretua.

d. Diru-laguntzen Deialdien Dekretuak

- Proiektuetarako diru-laguntzazko dekretuak: 1989-2011 urteak (urteroko deialdia).
- Programetarako diru-laguntzazko dekretuak: 1990, 1991, 1992, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012 urteak.
- Laguntza Humanitariorako diru-laguntzazko dekretuak: 2008-2012 urteak (urteroko deialdia).
- Euskal Gazteria Lankidetzan proiekturako diru-laguntzazko dekretuak: 1993-2011 urteak (urteroko deialdia).
- NN.BBetako Erakundeetarako diru-laguntzazko dekretuak: 1997-2011 urteak (urteroko deialdia).
- Euskal borondatezko lankideentzako diru-laguntzazko dekretuak: 1995-2011 urteak.
- Genero-berdintasunaren aldeko erakundearen aldeketa prozesuetarako diru-laguntzazko dekretuak: 2009, 2010, 2011 urteak.

e. Txostenak eta memoriak:

- Urteko memoriak: 2010. urtea.
- Hainbat urtetarako memoriak:
 - 1988-1991 Memoria: Garapenerako Euskal Lankidetzak Publikoa. Hirugarren Munduari Laguntzak.

- Euskal Lankidetzaren Publikoa: Hirugarren Munduari Laguntzak (1985-1995).
- 1988-1997 Memoria: Garapenerako Euskal Lankidetzaren Publikoa. Hirugarren Munduari Laguntzak.
- Hirugarren Munduari Laguntzak. Balantzea eta etorkizuna. Euskal Lankidetzaren Publikoari buruzko jardunaldiak (1992).
- 2002-2007 Memoria.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

a. Memoriak

- 2011ko Urteko Memoria. Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Diagnostikoa.

b. Ebaluazioak

- 2008-2011ko Garapenerako Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen ebaluazio parte-hartzailea. Kalidadea.
- ECODE: Estudio sobre metodología y prácticas de evaluación de acciones de educación para el desarrollo y sensibilización en la CAPV.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak

- Garapenerako Lankidetzarako Plan Zuzentzailea 2009-2011.

Arabako Foru Aldundia

a. Senidetzei dagozkien dekretuak

- 807/199 Erabakia, azaroaren 10eko Diputatuen Kontseiluarena, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoaren Kubako Errepublikan Camagueyko probintziarekin senidetzea erabakitzen den, Poder Popular alderdiaren Probintziako Batzarraren ordezkariarekin asmo-agiri bat sinatuz.

b. Diru-laguntzen oinarri arautzaileak

- 12/2002 Foru Dekretua, otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez 2002 ekitaldirako garabidean dauden herrietan ekintzak kofinantzatzeko diru-laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onartzen dira, eta Gobernu Kanpoko Erakunde eta Instituzioen arteko kofinantzaketan Hitzarmena onartzen da, lankidetzaren proiektuetan egingo diren ekarpenak arautzeko.

c. Diru-laguntzen deialdien dekretuak

- Proiektuetarako diru-laguntzazko dekretuak: 1999-2011 urteak.
- Laguntza Humanitariorako diru-laguntzazko dekretuak: 2000-2008 urteak.
- Lekualdatzeetarako diru-laguntzazko dekretuak: 2001-2011 urteak.
- Proiektuetarako diru-laguntzazko dekretuak: 2004-2011 urteak.
- Proiektuetarako diru diru-laguntzazko dekretuak: 2005-2011 urteak.
- Garapenerako Hezkuntzarako diru-laguntzazko dekretuak: 2010. urtea.
- Generorako diru-laguntzazko dekretuak: 2010 eta 2011 urteak.

Bizkaiko Foru Aldundia

a. Diru-laguntzen deialdien dekretuak

- Lankidetzak, sentsibilizazio- eta garapenerako hezkuntza-proiektuetarako diru-laguntzazko dekretuak: 2001-2012 urteak (urteroko deialdia).
- Genero-ikuspegia aplikatzeko diru-laguntzazko dekretuak: 2008-2012 urteak (urteroko deialdia).

Gipuzkoako Foru Aldundia

a. Diru-laguntzen deialdien dekretuak

- Lankidetzak-proiektuetarako diru-laguntzazko dekretuak: 2004-2011 urteak (urteroko deialdia).
- Sentsibilizazio- eta garapenerako hezkuntza-proiektuetarako diru-laguntzazko dekretuak: 2004 – 2011 urteak (urteroko deialdia).
- Larrialdi-proiektuetarako diru-laguntzazko dekretuak: 2009-2011 urteak (urteroko deialdia).

Bilboko Udala

- Alkatetzaren Dekretuz, behin betiko onartzen da Garapenerako Lankidetzari eta Sentsibilizazioari laguntzak emateko Araudia, zeina 2001eko apirilean onartu baitzen Udalbatzarrean.

a. Plan Zuzentzaileak

- Garapenerako Lankidetzarako Plan Zuzentzailea 2006-2009.

- Bilboko Udaleko Garapenerako Lankidetzarako II Plan Zuzentzailea (2010-2013).

b. Diru-laguntzarako deialdiak

- Proiektuetarako diru-laguntzetarako deialdiak: 2005-2011 urteak.
- Sentsibilizaziorako diru- laguntzetarako deialdiak: 2005, 2007 urteak.
- Sentsibilizazio- eta garapenerako hezkuntza-proiektuetarako diru- laguntzetarako deialdiak: 2008-2011 urteak.
- Proiektuetarako diru- laguntzetarako deialdiak: 2007-2011 urteak.
- Sentsibilizaziorako biurteko diru- laguntzetarako deialdiak: 2005-2007 urteak.
- Sentsibilizazio eta Garapenerako Heziketako biurteko diru- laguntzetarako deialdiak: 2008-2011 urteak.

c. Bilboko Lankidetzaren Udal Kontseilua

- Bilboko Lankidetzaren Udal Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendurako araudia.

d. Txostenak eta memoriak

- Urteroko memoriak: 2002-2010 urteak.
- Hainbat urtetarako memoriak: 11 urte Lankidetzan: Garapenerako Lankidetzarako Memoria 1995-2005.

Donostiako Udala

a. Plan Zuzentzaileak

- Lankidetzarako eta Garapenerako Hezkuntzarako Tokiko Plana 2008-2011.

b. Diru-laguntzen deialdiak

- Proiektuetarako diru-laguntzetarako deialdiak: 1995-2012 urteak.
- Sentsibilizazio-programetarako diru-laguntzetarako deialdiak 1995-2007 urteak.
- Sentsibilizazio- eta garapenerako hezkuntza-proiektuetarako diru-laguntzetarako deialdiak: 2008-2012 urteak.

c. Lankidetzarako eta Garapenerako Hezkuntzarako Abolkularitza Kontseilua

- Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzarako Abolkularitza Kontseiluaren Araudia, 2008.

d. Ebaluazioak

- Nondik Nora: Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren 6 urteko ebaluazioa Donostian. Azken txostena, 2003.

Gasteizko Udala

a. Plan Zuzentzaileak

- Garapenerako Lankidetzarako Plan Zuzentzailea 2010-2013.

b. Diru-laguntzen deialdiak

- Proiektuetarako diru-laguntzetarako deialdiak: 1993-2011 urteak.
- Hainbat urtetarako proiektuetarako diru-laguntzetarako deialdiak: 2003-2010 urteak.
- Sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzarako diru-laguntzetarako deialdiak: 1993-2010 urteak.
- Garapenerako Hezkuntzarako hainbat urtetarako diru-laguntzetarako deialdiak: 2005-2010 urteak.
- Sentsibilizaziorako diru-laguntzetarako deialdiak: 1996-2011 urteak.
- Laguntza Humanitariorako eta Larrialdikorako diru-laguntzetarako deialdiak: 1998, 2010 urteak.

c. Garapenerako Lankidetzak Kontseilua

Garapenerako Lankidetzak Kontseiluaren funtzionamendurako Barne Araudia, 2004.

d. Txostenak eta memoriak

- Urteroko memoriak: 1994-1997 eta 2003-2010 urteak.
- Hainbat urtetarako memoriak: Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzak Politikaren Analisia 1996-2006.

Euskal Fondoa

a. Txostenak eta memoriak

- Jardueren memoria: 1994-2010 urteak.

Diputatuen Kongresua

- Uztailaren 7ko 23/1998 Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Legea.

MAEC-AECID

a. Lurralde arteko Batzordea

- Urtarrilaren 14ko 22/2000 Errege Dekretua, zeinaren bidez Garapenerako Lankidetzaren Lurralde arteko Kontseiluaren osaketa, eskumenak, antolakuntza eta funtzioak arautzen diren.

b. Plan Zuzentzaileak

- Espainiar Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2001-2004.
- Espainiar Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2005-2008.
- Espainiar Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2009-2012.


c. Ebaluazioa

- Espainiar Lankidetzaren Ebaluazioen Kudeaketarako eskuliburua. DG-POLDE-MAEC (2007).



3. eranskina:

Kontsultatu diren web-orriak



- www.lankidetza.info
- www.elankidetza.euskadi.net
- www.irekia.euskadi.net
- www.alava.net
- www.bizkaia.net
- www.gipuzkoa.net
- www.bilbao.net
- www.donostia.org
- www.vitoria-gasteiz.org
- www.euskalfondoa.org
- www.ongdeuskadi.org
- www.congde.org

4. eranskina:

Euskal Fondoko kide diren tokiko erakundeen zerrenda (2012ko apirila)



Araba	Kide Kopurua: 31
Aguraingo udala	Ribera alta-erribera goitiako udala
Aiarako udala	Gasteizko udala
Alegria-dulantziko udala	Zigoitiako udala
Amurrioko udala	Arabako foru aldundia
Arraia-maeztuko udala	Antoñanako administrazio batzarra
Arrazua- ubarrundiako udala	Elosuko administrazio batzarra
Aramaioko udala	Eginoko administrazio batzarra
Asparrenako udala	Ilarduiako administrazio batzarra
Barrundiako udala	Izarrako administrazio batzarra
Elburgoko udala	Lasarteko administrazio batzarra
Elvillarreko udala	Manzanoseko administrazio batzarra
Iruraiz-gaunako udala	Maturanako administrazio batzarra
Lagrango udala	Mendiolako administrazio batzarra
Lantaroneko udala	Onraitako administrazio batzarra
Laudioko udala	Troconizeko administrazio batzarra
Arana-haranako udala	
Bizkaia	Kide Kopurua: 34
Abadiñoko udala	Gernikako udala
Amorebieta-etxanoko udala	Getxoko udala
Abanto-zierbenako udala	Güeñeseko udala
Arrankudiagako udala	Larrabetzuko udala
Arrigorriagako udala	Loiuko udala
Atxondoko udala	Lekeitioko udala
Alestiko udala	Mallabiako udala
Basauriko udala	Maruri-jatabeko udala
Berrizeko udala	Mungiako udala
Bilboko udala	Ondarroako udala
Durangoko udala	Sestaoko udala
Elorrioko udala	Sopelanako udala
Erandioko udala	Trapagarango udala

Ermuako udala	Trucios – turtziozeko udala
Etxebarriko udala	Zaldibargo udala
Galdakaoko udala	Zamudioko udala
Gatikako udala	Zierbenako udala
Gipuzkoa	Kide Kopurua: 35
Adunako udala	Itsasondoko udala
Anoetako udala	Lasarte-oriako udala
Aramako udala	Lezoko udala
Asteasuko udala	Lizartzako udala
Astigarragako udala	Mutrikuko udala
Arrasateko udala	Oiartzungo udala
Villabonako udala	Ordiziako udala
Debako udala	Orexako udala
Donostiako udala	Orioko udala
Errenteriako udala	Pasaiako udala
Hernaniko udala	Soraluzeko udala
Hernialdeko udala	Tolosako udala
Hondarribiko udala	Urnietako udala
Ibarrako udala	Usurbilgo udala
Ikaztegietako udala	Zaldibiako udala
Irungo udala	Zizurkileko udala
Irurako udala	Zumaiako udala
Gipuzkoako foru aldundia	
Nafarroa	Kide Kopurua: 1
Basaburuako udala	

